



Iturria: *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa).
CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala.
Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritzza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/O/OtaegiKITzulpenak.htm>

BESTE ZENBAIT ITZULPEN

Klausio Otaegi

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

SALOMONEN KANTAN KANTEA

ZEGAMAKO ESKUERAN

LENENGO KAPITULUE

*I. Elizek Jesukristokin unitue egoteko ai eraiten ditun deseok.
Alkartze onen pozak, eta bere Gizondi arek isten ditun faborek.
Aitortzen ditu Andrek bere faltak, deabrun malizin eitek. Jesu-
kristo lurren billatzen dabillega bidea galtzeko dauken bildurre;
eta aren naiek hura zerun berekin izateko.*

- 1. ANDREK.** Errezibitu dezan nik musu santu bat aren autik. Zeati zure amorek die, oh nere gizon gozoa, saboreik onaneko ardoa baño obegok,
- 2.** Lurriñik usaitsunak bezin usaigozodunek. Balsamo isurie da zure Izena; orreati nai dizue ainbeste dontzellatxok.
- 3.** Zuk zeuk eakar nazazu zure atzetik, eta danok jungo gea zure usai gozotara. Sartu nindun Erregek be gabinetan, be andratzat artzen nindulaik. Saltauko degu kontentuz, eta poztuko gea zuan, zure amore garbik gogon eukiz, zeintzuk dien ardon gozotasunek baño obek. Orreati zaitue maite biotz zuzenekok.
- 4.** Beltza naiz ero beltzarana, Jerusalemgo alabak; baño itxuraskoa naiz; naiz Zedarko dendan modukoa, Salomonen pabelloian antzekoa.
- 5.** Eziozue, ba, kasoik ein ne beltzasunei; zeati euzkik arrapau dit ne kolorea, nere aman semek ne kontra jaiki zienen, eta martzian zai ipini ninduenen; Ai! enon gorde ne nere mastie.
- 6.** Oh zu nere biotzeko maitea, esaiezu nun dituzun alimentuk, nun dezun siestea eiteko lekue eguerdie alleatzen danen, zuen launan taldean atzetik alperkerin ibilli bearrik izan ez dezan.



II. Jesukristok bere Elizeri ematen dion istruziok; arekin da aren artzaiekin juntatzeko obligazioa, Jesukristo arkitzeko. Elizen edertasune, eta nola zaitzen don Jesukristok apaintzeko ta aberastzeko.

7. **GIZONAK.** Ezpadakizu, oh txit ederra andran arten, irte zazu kanpora, eta zoaz ganaduan onarrastoai segituz, eta erama itzetzu zure antxumaxok larrera ne ardian artzaian etxaola ondora.

8. Faraonek eman dien kotxeai erantzitako nere zaldi eder ta azkarakin zauzket konparatue (sic), ne aiskirea.

9. Polite tie zure matrallak, tortolatxon antzekok; zure lepoa perlasok kollarakin apaindue baleo bezelakoa.

10. Urrezko kollarak eingo ditugu zuretzat, zillarrez nabartuk.

III. Elizen eskerra. Jesukristoandi errezibitzen ditun faborek; eta nola nai dion ari gusto eman. Andra-gizonan arteko alabantzak; eta nola Jesukristok eiten don aleiñe Elizea beti bere ondo eukitzeko.

11. **ANDREK.** Errege bere jarlekun zegon bitarten, nere ispligu preziosok zabaldu zon bere usaigozoa.

12. Eskukaratxo bat mirra da neretzat nere maitea; nere tititarten geldituko da.

13. Engaddiko mastitatik artutako ziprozko txordoa da neretzat nere maitea.

14. **GIZONAK.** Oh ta zeñen ederra zean, ne aiskirea! Zeñen polite zean! Zure begik die bizik eta drist eiten doenak usonak bezelakok.

15. **ANDREK.** Zu bai, ne maitea, zeala ederra ta grazi onekoa. **GIZONAK ETA ANDREK.** Lorezkoa da gure oie,

16. Zedrozkok gure bizitzatako abek, eta zipreskok be goiaspillek.

BIGARREN KAPITULUE

I. Jesukriston da bere Andra Elizen amabilidadea. Areandi onek errezibitzen ditun alabantzak eta faborek; eta nola zaitzen don iñork ez dezan nastu aren atxena.

1. **GIZONAK.** Ni naiz kanpoko lorea, eta balletako lirioa;

2. Arantzarten azuzena bezela da nere aiskirea dontzellan arten.

3. **ANDREK.** Sagar arbolea frutuik ematen ez doen baso arbolartetan bezela da ne maitea gizonan semearen arten. Jarri nitzen nik ainbeste deseio izan nonan itzalen, eta aren frutue txit gozoa nere ausapaien.

4. Sartu nindun ardoik onanetakoa zeuken aposintun, eta aindu zon nian amorea.

5. Tira ba, indartu nazazu usai gozozko lorakin, sendotu nazazu usai ederreko sagarrakin, ba deskanatzen naiz amorez;

6. Ne Gizonak ipinko do ordea be eskerreko eskue ne burupen, eta bere eskubiko eskukin musu emango dit.

7. **GIZONAK.** Oh Jerusalemgo alabak, konjuratzen zaituet kanpotako basaunts eme ariñ da zierbokaiti, ez dezazuela esna, ezta loa kendure ne maiteri; berak nai don arten.

II. Elizek beti dio atenzioa Jesukriston bozai; eta deseatue dago oni gusto emateko. Nola Jesu Kristok eiten don aleiñe an gordetze ko bere grazin frutuk.

8. **ANDREK.** Iruitzen zat aitzen diala nere maiten boza. Beiraiozue nola datorren saltoka menditatik, eta brinkoka munotatik.

9. Nere maitek diruri gamo ariñe eta oreñtxoa. Beiraiozue nola jartzan dan ia gure paretan atzetik, nola beiratzen don leiotatik, nola zelositatik zelatatzen don.

10. Ona nun itz eiten dien nere maitek eta dio: Jaiki zaiz, aburo ibil zaiz ne aiskirea, nere usoa, ne ederra, eta atoz kanpora;

11. Ba pasau zan negue, desein zien eta gelditu zien eurik;

12. Lorea irtetzen asi da gure lurretan; alleau da txestratzeko denpora; aitu da ia gure kanpotan tortolen urrunkea;

13. Pikuarbolek botatzen ditu be pipitak; zabaltzen doe euren usaie masti loretuk. Jaiki zaiz ba nere aiskirea, ne ederra, eta atoz.

14. Oh nere uso garbie, zuk aitz zulotan da muralla utsunetan apik eiten dituzun orrek, erakutsiezu zure musue, aitu bei zure boza nere belarritan; ba zure boza dultzea da, eta polite zure musue.

15. Zuek, oh aiskirek, arrapaiuzue mastik galtzen dabilten axaritxo orik; zeati gure mastie ernetzen dago ia.

III. Jesukriston da bere Elizen arteko amorea, eta nola onek bere etsaiak izkutau nai dien be Jainkozko Gizonandik errezibitutako faborek.



16. Nere maitea dana neretzata, eta ni dana nere maitena naiz; zeñek zaitzen don be taldea azuzenatarten.

17. Eune akabau ta gaue sartu arten. Itzul zaiz korrika; izazazu, ne maitea, Betherko menditan azitzen dien basaunts eta zierbotxon antza.

IRUGARREN KAPITULUE

Bere Gizon Jesukriston billa dabillen anima baten lobagek; eta nola topau ta gero konserbau bear don be biotzen.

1. Bano (sic), ai! dana ames bat izan zan. Gauen ezautu non nere oien ne biotzeko maiten faltea; ibil nitzen aren billa, eta enon arkitu.

2. Jaikiko naiz, esan non, eta emango ditut bueltak ziudaden, eta ibilko naiz kaletan da plazatan ne biotzeko maiten billaka; Ai! ibil nitzen billa, baño ez arkitu.

3. Billau ninduen ziudadeko errondarik, eta esan nien: Ez dezue ikusi ne biotzeko maitea?

4. Eta ona andik pauso gutxira nun billatzen dean ne biotzak maite dona; eldu nion eta ez diot eutziko nere aman etxen ero niri bizie eman zienan bizitzan sartu erain arte.

5. **GIZONAK.** Oh Jerusalemgo alabak, konjuratzen zaituet kanpotako basaunts ta zierbokaiti ez dezazuela esnau, ez loa kendure ne maiteri, berak nai don arten.

6. **ANDREN AISKIRAK.** Nor da mirrazko, intzentsozko eta beste usai gozo jenero guztikin formautuko kezko koluna baten itxuran desiortoti igotzen dijon au?

7. **ANDREK.** Beira zazue Salomonen oie Israelen dien iruroetamar azkarranan erdin,

8. Danak alfajakin armatuk, eta txit abillek aziotan, bakoitzek be ondon darama bere ezpatea, illunpetako peligroan bildurrez.

9. Libanoko surakin ein do Salomon erregek bere tronoa;

10. Pillarak ein ditu zillarrezkok, espaldea urrezkoa, goie ta mallak estali zitun purpuraz; eta erdie amorea ispiratzen don esmalte jenero batekin, Jerusalemgo alaban medioz.

11. Irten zaizte ba kanpora, oh Siongo alabak, eta ikusko dezue Salomon erregea eskontzeko itze eman zon eunen bere amak ipini zion koroiekin, eun hura zeñetan geau zan pozez beteik bere biotza.

LAUGARREN KAPITULUE

Jesukristok bere Andra Elizan ipini ditun grazik aitortuz, aitzea ematen do ari dion biotzeko amorioa.

1. **ANDREK.** Zeñen ederra zean, nere aiskirea, zeñen ederra! Zure begik die usonak bezin bizik eta drist eiten doenak, barrun gordeta dagonan gañera. Zure buruko illek urrezkok eta fiñek, Galaadko menditik etortzen dien aunstaldean illea bezela.

2. Zure ortzak zurik eta ondo juntatuk, ardi moztuan illea garbitu ondon bezela, danak bi umekin, an arten batere antsuik izan bae.

3. Zure ezpañek die eskarlatazko zinten antzekok, zure itze dultzea ta ederra. Zure matrallak die granazko zati baten ero aren azal gorri antzekok, barrun gordeta dagonan gañera.

4. Zure lepoa da zuzena ta ederra Dabiten torrea bezela, baluartes gerrikatue, zenetatik daren txintxilik milla arma, danak balienteanak.

5. Zure bi titik die azuzena zurien arten eune akabau ta gaue sartu bitarten larretzen dabilten bi gamo bikin modukok.

6. Igoko det mirrazko mendira, eta intzentsozko muñora zure eske.

7. Dana ederra zea zu, oh ne aiskirea, eztago batere faltaik zuan.

8. Atoz, jatxi zaiz Libanotik, ne andrea, atoz Libanotik; atoz, eta koroitue izango zea; atoz Amanako mendi puntatatik, Sanirko ta Hermongo mendi tontorretatik, legoian kuebaleku oritatik, legoinabarran tokik daren mendi oritatik.

9. Zuk eritu zendun ne biotza, oh nere arreba, andra maitea, ne biotza eritu zendun zure beiratze batekin bakarrik, zure lepoko txirikorda batekin.

10. Zeñen ederrak dien zure amorek, ne andra arreba! Izan leiken ardoik onana baño obe tie; eta zure perfume ero soñekok doen usaie da beste usai guztik baño gozogoa.

11. Die zure ezpañek, oh nere andrea, ez tie darion eztiորրazi bat; ez tie ta esnea dauzketzu mingainpen; eta zure soñekoan usaie da txit intzentso suaren usaie bezelakoa.

II. Jesukristo da animan biotzak zaitzen ditun Jainko bat, zeñek nai don berai dirijitzea einbide guztik.

12. Batza itxie zea ne andra arreba, batza itxie, iturri markatue.



13. Zure mintegik, ero batza ortako landarak formatzen doe grandozko jardin bat txit ederra, sagarrarbolanak bezin gozokiko frutukin die zipresak nardokin,

14. Nardoa ta azafrana, usaigozoko kanaberea, kanela, usaie ematen doen Libanoko arbola danakin; mirra ta aloe izan leiken usairik oben guztikin.

15. Zu, batzan iturrie, Libanoko menditik amilka datozen ur bizian potzue.

16. Erretirau zaiz oh Iparraizea, eta atoz zu, oh Egoiaizea, ne batza guztin ibiltzea, eta zabaldu bitez aren usaigozok mundu guztin.

BOSKARREN KAPITULUE

Andrek be jardinetara konbidatzen do Gizona, eta an zelebratzen da konbite bat.

I. Elizen deseoa Jesukristo errezibitzeko, eta arek ematen ditun frutuk bitzen au ikusteko. Jesukriston borondatea animai otseitin, eta arek otseitin donen biotzeko atek iriki nai ez dituenan zorigaiztoa.

1. **ANDREK.** Etor bei, ba, nere maitea be batzara, eta jan beza be sagarrarbolan frutatik. **GIZONAK.** Etor naiz nere batzara, nere andra arreba; artu det ne mirra ne usaigozokin; eta jan det nere eztiorraie ne eztiokin; eran det nere ardoa ne esnekin; esan det: Ja zazue zuek, oh aiskirek, eta era zazue, txit maitek, egarrie kendu arte.

2. Andrea. Lo neon, eta nere biotza esna zegon; eta ona nun aitzen dean ne maiten boza, zeñek otseitin don, eta esaten don: Irikiezu, ne arreba, nere aiskirea, ne usoa, nere mantxaipagea ta txit garbie: zeati intzez betea dago ne burue, eta gaueko ints bereez betek ne buruko illek.

3. Eta erantzun nion: Jainkon izenen, ne gizona, nere tunikea eutzi non, eta berriz jantzi bear det? Oñe karbitu nitun, eta zikindu bear ditut berriz?

4. Ordun nere maitek sartu zon bere eskue ateko leiotillati irikitzen ote zon probatuz, eta ein zon soñu onen medioz mogitu zan ne biotza.

5. Jaiki nitzen beala irikitzeko ne maiteri mirra zeriela nere eskuai, eta aukera aukerako mirraz beteta zerela nere beatzak.

6. Jaso non ba nere aten krisketea ne maitea sartu zein; baño hura erretirau zan ordurako, eta jun zan aurrera. Nere animea deskanaue ga

zan aren bozan otsa aitu zonen; aren billa ibil nitzen, baño enon billau; otsein nion deadarka, eta etzien erantzun.

7. Billau ninduen ziudaden zebiltzen errondarik, eritu ninduen eta gaizki tratau ninduen; eta kendu zien murallatako zentinelak estaltzen nitun ne mantuk.

8. Konjuratzen dizuet, oh Jerusalemgo alabak, baldin arkitzen badezue ne maitea, esan deiozuela, nola deskanatzen naizen amorez.

9. **ANDREN AISKIRAK.** Zer do zure maitek beste maitek baño geiao, oh txit ederra andra guztin arten? Zer dao zure maiten beste maitetan eztagonik gu orla konjuratzeko billa dezagula?

II. Jesukriston edertasune ta perfeziok, bere garbitasune, bere zela, be karidadea, jakindurie, eskubidea, aunditasune ta gozotasune.

10. **ANDREK.** Nere maitea da zurie ta gorrie, millaka gatean arten aukeraue.

11. Aren burue, guztiz urre fine; aren buruko illek luzek eta lodik palma gaztek bezelakok, eta beltzak belea bezela;

12. Aren begik errekatxoan ondota ikusten dien usonan antzekok, zeintzuk dien zurik esnez garbitu bazien bezela, eta gelditzen dien ur korajeik aundina dijon iskiñan.

13. Aren matrallak die perfumegille abillandi landautako usaigozoko landara saill bi bezela; aren ezpañek, guztiz mirra garbie darien larrosasko liriok;

14. Aren eskuk, urrezkok, eta tornun eindako modukok, jazintoz betek; aren petxue ta sabela zafiroz guarnizionautako marfilezko baso bat bezelakok die;

15. Aren anak, urrezko zimentun gañen ipintako marmolezko kolumnak. Aren itxura majestuoso Libanona bezelakoa, eta aukeraue arbolatan zedroa bezela.

16. Guztiz suabea da aren bozan otsa; eta guztiz guzti, hura dana inbidiatzekoa da. Olakoa da ne maitea, eta ori da ne aiskirea, Jerusalemgo alabak.

17. **ANDREN AISKIRAK.** Zein aldetara jun zan zure maitea, oh txit ederra andra guztin arten? Nundik jun zan, gu re zurekin juteko aren billa?



SEIGARREN KAPITULUE

Andrek alabantza berrik, bera ederra da, eta baita izugarrie re

I. Elizea da Jesukriston jardine bezela, aren pozan ojetoa, eta ain-geruan arritasune; da zeruko poza, eta infernuko bildurre.

1. **ANDREK.** Bere batzara uste det jatxi zala ne maitea, usaigozoko belarrak daren mintegira, jardinetan jolas eiteko, eta azuzenak artzeko.
2. Ni naiz dana ne maitena, eta ne maitea dana nerea da, zeñek jolas eiten don azuzenartarten.
3. **GIZONAK.** Ederra zea, ne maitea, eta gozotasunez bete, ederra Jerusalem bezela, izugarrie ta majestuosa ejerzito bat aziorako maneran bezela.
4. Aparta itzetzu nereandi zure begik, ba begi orik irten erain naue ne onetik; eta kordebaetzen naue. Zure buruko illek die Galaati datozela ikusten dien aunstaldean ille fiñe pezalakok.
5. Zure ortzak zurik eta ondo juntatuk, artalde garbitzetik igotzen doenen argitzen dien bezela, danak bi umekin, an arten batere antsuik izan bae.
6. Zure matrallak die granazko zati baten ero aren azal gorrin antzekok, barrun gordeta daukezuna bae.
7. Irurogei die Erreinak, ta larogei bigarren klaseko andrak, eta ezin-kontaala dontzellatxok.
8. Baño ba pakarra da ne usoa, nere ezinobegoa, andrea, bere aman alaba bakarra, ein zon amak aukeraue. Ikusi zoen ne palazioko dontzellak, eta pozez deadarka esan zioen txit zorionekoa: ikusi zoen Erreinak eta gañerako andrak, eta bete zoen alabantzas.
9. Nor da, esan zoen, eun sentin jaiotzea bezela igotzen dijon au, ederra illargie bezela, drist eiten dona euzkik bezela, izugarrie ta majestuosa aziorako modun dagon ejerzito bat bezela?
10. **GIZONAK.** Ni jatxi nitzen intxaurdiko batzara menditarteko frutarbolak ikusteko, eta mastie ernetzen ote zegon ikusteko, eta granadoai aldakaitzek irten ote zitzeen ikusteko.
11. **ANDREK.** Enon barrentau; nastu zan nere animea Aminadabko gurdian otsa ustez aitzen nolako.
12. **ANDREN AISKIRAK.** Itzul zaiz, itzul zaiz, oh Sulamite; itzul zaiz gureana, itzul zaiz ondo ikusi zaitzekun.

ZAZPIGARREN KAPITULUE

Alabatue da Andrea be etsaietatik iritxi bear ditun bitorikaiti, be ugaritasuneatik, eta eingo ditun semek ondo azitzeagaiti.

I. Elizek lurren berekin dauzke onak eta gaiztok; eta izaten do poza, baita tristurea re, bai esperantzea, eta baita bildurre re; baño zerun dana garbie ta ederra da, eta beti pozez ta zorioneko, eiten ditu zeruko Erregen pozak, zein dan aren Jainkozko Gizona.

1. **ANDREK.** Zer ikusi daikezue Sulamiten ezpada musikazko korue eskuadroi armatuan erdin? **ANDREN AISKIRAK.** Oh prinzesa ederra, eta nolako grazikin dabilten zure oñ orik aña oñetako galestitan sartuta! Zure istarran junturak, esku onak labroutako gozne ero txarnela pezalakok die.
2. Zure kolko ori da, beñe likore preziosoik falta etzakon tornun eindako baso bat bezela. Zure sabela gari pillatxoa bezela, azuzenas esitue.
3. Zure bi titik bi zierbotxo bikin antzekok die.
4. Zure lepoa da polite ta zurie marfilezko torre bat bezela. Zure begi tie jendeik geiana bitzen dan aten daren Hesebongo kristalezko potzu zuloan antzekok. Zure sudurre aña ondo eña nola Libanoko torre graziosa, zeñ dagon Damaskon arrez aur.
5. Altue ta majestuosa da zure burue, Karmelo bezela; eta zure buruko illek, flekotan ipindako Erregen purpurea bezelakok.
6. Zeñen ederra ta moduzkoa zean, oh Prinzesa txit amablea ta gozotsue!
7. Zure gorputzek do palmen lirañtasunen antza, eta zure titik mats txordo ederrana.
8. **AISKIRETAKO BATEK.** Nik diot: Igoko det palmadi ontara eta artuko ditut bere frutuk, eta neretzat izango die mats txordok bezelako zure titik; eta zure auko usaie, sagarrana bezelakoa.
9. Zure eztarik bozak ardoik jenerosonak bezela poztutzen do. **ANDREK.** Ne maiteri zor niona eran dezan, eta saboreau dein arekin bere ortz artetan da ezpañ tartetan eukiz.
10. Ni zorionekoa naiz dana ne maitena naizelako, eta aren biotza beti nereanako dago.
11. Tira atoz, ne gizon maitea, irten gaitezen kanpora, bizi gaitezen baserritan.



12. Goiz jaiki gaitezen mastitara juteko, beira iekun erne ote dien, lorak asi ote dien frutue ematen, granadok loran ote dien; an libertade geiaokin zabalduko dizut ne biotza.

13. Mandragorak euren usaigozoa botatzen ai die. An dauzkeu gure atetan fruta on genero guztik. Berrik eta zarrak danak gorde ditut zuretzat, oh nere maitea.

ZORTZIGARREN KAPITULUE

Andra-gizonan arteko aizkeneko amorezko protestak.

I. Elizek Jesukristoi dion amorea. Jaunen pague, eta ari eiten dion faborek. Pekatum da onen erreparon arten gordetzen don proporzioa; eta nola nai don amorekin erantzutea, eta zeñen poderosoa ta ezelentea dan amore au.

1. **ANDREK.** Oh zeñek emango lieken, nere anaie, zu izan zaila ne aman tititan dagon ume bat bezela, musu emateko, naiz arkitu kanpon ero kalen, zekin eninduken iñork bekaiztuko!

2. Nik artuko zinduzket, eta eramango zinduzket nere aman etxera; an erakutsiko zientduke eta ikusi eraingo zinduzke zure grazik, eta nik emango nizuke eraten ardo konpondue, eta nere granadon likore berrie.

3. Baño ona emen nere gizona, zeñek ipinko don bere ezkerre ne burupen, eta eskubikin musu emango dien.

4. **GIZONAK.** Konjuratzen zaituet, oh Jerusalemgo alabak, ezteza-zuela esnau ta ez loa kendu re nere maiteri berak nai don arte.

5. **ANDREN AISKIRAK.** Nor da desiertotik pozez beteta bere maiten sostenitue igotzen don au? **GIZONAK.** Nik jaso zinduztan etzine zenden sagar-arbolape baten azpitik, oh nere andrea, nun izan zan lorebaetue zure ama, nun izan zan portxaue zu ein zinduzena ta pekatuzko eriotzea erakutsi zizun hura.

6. Ala, ba, ipini nazu sellutzat zure biotzan gañen, ipini nazu markatzat zure beson gañen; zeati amorea indartsue da eriotzea bezela, zelok die infernue bezela ezin aplakau dienak; an prasak, prasa gartu tie, eta garrezko bolkan bat.

7. Or askok ez doe itzali al izan amorea; ez doe erreake ito al izango. Gizon batek amore ero karidade onen orde beren etxen don aberas-tasun guztie ematen bado re, ezereztzat eukiko do.

II. Elizek don deseoa nazio guztik amatu dezela Jesukristo.

8. **ANDREK.** Kuidadu bat bakarrik geatzen zat, oh nere maitea. Gure aizpa txikie da, ez du titirik oandik. Zer eingo degu ba gure aizpakin eskondu bear dola esan bear zakon eunen?

9. **GIZONAK.** Muralla bat bezela bada, eiokun gañen zillarrezko baluartek; ate ba pezelakua bada fuertetu zakun zedrozko olakin.

10. **ANDREK.** Ni naiz murallea, eta ne titik torre bat bezelakok, aren aurren nagon ezkerro, nolabait e bakea ero zorientasune topatzen dona bezela.

11. Bakezalek ero Salomon nere gizonak, izan zon masti bat Baalhamonen, eman zien mastizai batzui gorde zezen, eta landu zezen; atako bakoitzek ango frutukaiti pagatzen dioe milla zillarezko diru.

12. Nere mastie ne aurren dago. Milla diruk zuretzat tie, oh bakezalea, eta berreun ango frutuk gordetzen dituenantzat.

III. Zerun bakarrik entonau al izango ditu Elizek txit kanta alegrek.

13. **GIZONAK.** Oh zu batzatan bizi zeana, aiskerek aitzen dare; ai eraiezu ba niri zure boz ederra.

14. **ANDREK.** Ah! korrika eizazu aburo, ne amorea, eta basauntsen da zierbotxon antza iza zazu, iges ei zazu usaigozotako mendira, ne boza aitu nai badezu.

KANTAN KANTEN LIBURUN AKABEREA



JONASEN PROFEZIE

ZEGAMAKO ESKUERAN

ABERTENTZIK JONASEN PROFEZIN GAÑEN

Profezi onek histori utse diruri; baño itzetatik etaratzen dan letra utsen sentidutik gañera, Jesukristok berak erakutsi zigun etaratzen senti-
du profetikoa, ero espirituzkoa, zeintzuk ai eraiten dituen kontautako eiñek ero gauzak, judioai proponitu zienen ninibetarran penitentzin ejen-
ploa, eta itz ein zien be erresurrezion gañen. Jonas bizitu zan Joas, eta Jeroboan bigarrena, Israelgo Erregean da Osias ero Asarias Judako Erre-
gen denboran; au da, Jesukristo baño 810 urte ta zerbait geiao; alako modun nun ikusten dan Profeta aunditan da txikitan zarrana. Ala judiok nola kristauek kanonikotzat benerau doe beti Jonasen liburue. Tobiasen profezin diruri Jonasi ikutzen diola aitzea ematen dola XIBgarren kapitu-
luko 6garren bersotxon, naiz ai erain daike Nahumen profezik re.

Sinisteik ez doenak parretzat artzen doe bala baten, ero itxasarrai aundi baten sabelen Jonas iru eunen egon zalako milagroa; jentilek e igual eiten zoen; baño zerue ta lurre ein zitun Jainkori, erreza izan zitzekon sinisteik ez doenai aiñ nekeza iritzitzen zaiena.

LENENGO KAPITULUE

Jonas Jainkok Ninibera predikatzer aialduk, iges eiten do Tharsistik itxasoz; eta Jaunek ekaitz aundi bat jasota, itxasora botea da Jonas hura dala medio; zekin geatzen dan ekaiztea.

1. Jaunek itz ein zion Jonas, Amathin semeri, eta esan zion:
2. Zabiltz, eta zoaz beala Ninibe, ziudade aundira, eta predika zazu an, zeati ango gaiztakerian deadarrak igo do ne aurreraño.
3. Baño, Jonasek artu zion Tharsisa bidea Jaunen serbiziotti igesi; eta Joppera allegau zanen arkitu zion Tharsisa orduntxe irtetzera zijon ontzi bat; pagau zion ontzie, eta sartu zan an beste gañerakokin Tharsisen urbaztartzeko, Jainkon serbiziotti igesi.
4. Baño Jaunek bialdu zion aize aundi bat itxas gañera, zekin mogitu zan an denbora gogor bat; alako modun nun ontzie arkitzen zan galtze-ko arriskon.

5. Eta bildurtu zien mariñelak, eta bakoitzek deadar eiten zion bere Jainkori, eta bota zoen itxasora ontziko kargamentue, ontzie arintzeko asmokin. Baño Jonas lo beten zegon ontzik zion lekuik ondonen, nora jatxi zan,

6. Jun zan arutsa pilotoa, eta esan zion: Nola zare ola lo? Jaiki zaiz, eta deadar eiozu zure Jainkori, guz akordau nai badore, eta eriotzatik libratzen ote gaitun.

7. Beala batzuk besteai esan zion: Atozte, eta bota itzekun suertek jakiteko nundi datorkun desfortuna au. Eta bota zituen suertek, eta suer-
tea erori zan Jonasen gañera.

8. Esan zioen ba: Aitortu iuzu gertatzen zakun desastre onen moti-
bok. Zer ofizio da zurea? nungoa zea, eta nora zoaz? Zeiñ naziotakoa zea zu?

9. Erantzun zien Jonasek: Ni naiz hebreotarra, eta bildurre diot ero adoratzan det zeruko Jainko Jaune. Zeñek, ein zitun itxasoa ta lurre.

10. Eta oso bildurtuta geau zien jende ak, eta esan zioen: Eta nola ein dezu zuk ori? (Jakin bear da Jonasek kontau zienenetik (sic) igarri zioela igesi zijola Jainkori desobedituta).

11. Ordun esan zioen: Zer eingo deu zurekin, itxasoa edertu dein? Ba itxasoa gerogo ta geiao zijon asarratzen.

12. Jonasek erantzun zien. Artu nazue ta bota nazue itxasora, eta itxasoa edertuko zatzue, nik ondo dakian kason denbora gogor au etor zatzuela ni naizela medio.

13. Bin bitarten arraunen eiten zoen mariñelak, ikus zezen urbazta-
rra irabazten ote zoen eta salbatzen zien; ezin zoen ordea, zeatik geiao iyotzen zijotzen itxasoko olatuk euren gañera.

14. Eta deadar ein zioen Jaunei, esanez: Erregutze izugu, oh Jaune, ez gaitzetzula ill erain gizon au ill degulako, eta ez deiuzula gure gañ artu erain odol inozentea; ba zuk, oh Jaune, eroi erain dezu suerrea nai izan dezun bezela.

15. Beala artu zoen Jonas, eta bota zoen itxasora, eta bealaxe geau zan uran furie.

16. Zekin jende ak artu zioen bildur aundi bat eta errespetoa Jaunei, eta eskeñi zioen sakrifiziok, eta ein zioen botok.



BIGARREN KAPITULUE

Arrai izugarri batek intxitzen do Jonas, zeñi Jauneatzen dan arraien sabelan barrutik, zeñek salbatzen don milagroz iru eunen burun.

1. Eta Jaunek preparau izan zon arrai aundi bat, Jonas intxi zezan, zeñi egon zan iru eun da iru gauen arraien sabelen.
2. Eta ein zion Jonasek orazioa bere Jainko Jaunei arraien sabeletik.
3. Eta gero esan zon: Otsein diot Jaunei ne pena guztikin, eta aitu dit grazi onakin; deadar ein det sepulkron erditik, eta zuk oh Jaune, aitu dezu nere boza.
4. Eta bota ninduzun itxasoko urik aundinera, eta ingurau ninduen urek; nere gañetik pasau die zure zurrumbola ta olatu guztik.
5. Eta esan non: Urrutira botea izan naiz zure begitako miserikor-dizko bistatik; baño ez, oaindik e ikusko det berriz zure Tenplo Santue?
6. Urek erdin artu ninduen bizie kentzeño; nere burue ikusi non lize baten itxie; itxaso zabal neurribeak estali do ne burue.
7. Jatxi naiz mendian sustarretaraño; lurrezko morrollu ero barrerak itxi ninduen an barrun betiko; baño zuk, oh nere Jainko Jaune, etarako dezu ne bizie ero animea gaiztakerizko tokitik.
8. Nere animek sufritzen zitun ansian erdin, zureanatu naiz, oh Jaune, zure gloriko Tenplo Santura ne orazioa zuri bialduz.
9. Aiñ alperrik jainkoan falsoan banidaden sartzan dien ak, eutzitzen doe euren miserikordie.
10. Baño nik alabantzazko Kantak eskeñiko dizut sakrifizio; kun-plituko diot Jaunei nere osasuneati ein dioan promesa danak.
11. Aizkenen Jaunek aindu zion arraiei, eta onek goraka bota zon Jonas urertzen.

IRUGARREN KAPITULUE

Jaunek aintzen dio berriti Jonasi jun deilla Ninibera, eta an jakin erain dezala ziudaden deseitea. Konbertitzen die ninibetarrak Jonasen predikaziora, eiten doe penitentzie, eta errebotatzen do Jaunek sententzie.

1. Eta itz ein zion Jaunek bigarren aldin Jonasi, esanez:

2. Zabiltz eta zoaz beala Ninibe, ziudade aundira, eta predika zazu an nik esaten dizuan hura.

3. Jun zan ba Jonas, eta Ninibe aldera ein zon, Jaunek aindu zion bezela. Ninibe zan ziudade bat txit aundie, zeñen inguramarin bueltea emateko bear zien iru eun.

4. Eta asi zan Jonas ziudadea korritzen, eta ibili zan an eun baten deadarka ta esanez: Emetik berrogei eunera Ninibe deseine izango da.

5. Eta ninibetarrak sinistu zoen Jainkon itze, eta publikau zoen balu-rre, eta jantzi zien sakukin ero ziliziokin dana txiki ta aundik.

6. Eta notizie allegau zan Ninibeko Erregena, eta jaiki zan tronotik, eta bere erregezko arropak erantzita, jantzi zan sakuz, eta jarri zan autsen gañen.

7. Beala publikau zan Niniben Erregen da bere gizonik aundinan ordena bat ziona: Gizonak eta animalik ez beze ezerre jan; ez bitez irten larrera ezta eratea re idik eta ganaduk.

8. Gizonak eta animalik estali bitez sakukin da lutozko arropakin; eta ak deadar ein beioe Jaunei aldoen indar guztikin, bakoitze konbertitzen dala bere bizimodu gaiztotik eta azio txarretik.

9. Nor taki Jaunek orla modauko ote don bere asmoa, eta barkauko ote digun, eta bere gorroton furie mantsotuko ote dan, gu ez iltzeko modun?

10. Ikusirik ba Jainkok eiten zituen penitentziko obrak, eta nola mudau zien euren bizimodu gaiztotik, mogitu zan miserikordie izatea, eta etzien bialdu sententziau zitun gaitzek.

LAUGARREN KAPITULUE

Jonasek bere profezie etzala egie gortau isusikin estutuik, deseaten do iltzea; baño Jaunek demandan ematen dio, eta istrutitzen do eta etaratzen do bere engañutik.

1. Baño Jonas asko estutu zan, eta asarrau zan.

2. Eta ein zion orazioa Jaunei, esanez: erregutze izut, oh Jaune, esa iezula, ezta an oaindik nik ne errin negola errezelatzen non hura bera? Arrazoi orreati bakarrik akonsejatzen non ne burue, Tharsisa iges einez. Zeati nik badakit ondo zu zeala Jainko bat biotz berakoa ta miserikordio-soa, supritue ta erruki aundikoa, eta pekatuan barkatzallea.

3. Oain ba, Jaune, erregutze izut kendu iezula bizie, zeatik neretzat obe ia iltzea bizitzea baño.



4. Eta erantzun zion Jaunek: Eta uste dezu badezula arrazoi asarratzeko?

5. Eta irten zion Jonasek Ninibetik, eta geau zan ziudadan Oriente aldetik, eta an etxaola bat ein da, aren barrun bizi zan itxoten ia zer gertaiko ote zitzekon ziuadaderi.

6. Jaunek preparau zion unts bat, zeñi azi zan Jonasen burue estaltzeño ari itzal eiteko, eta hura berok ez jotzeko. Jonas zegon txit nekatue, eta guztiz atsein aundie artu zion unts arekin.

7. Biramonen eune zabaltzekin baten Jainkok bialdu zion ar txiki bat, zeñek jan zion azpitik untsen sustarra, eta igartu zan.

8. Eta euzkik irten zonen, Jainkok disponitu zion ibil zeilla erretzen zion egoiaize bat; euzkik jotzen zion Jonas burun, zeñi erretzen zan da zeñek deseatzzen zion iltzea, esanez: Obe det iltzea bizitzea baño.

9. Baño Jaunek esan zion Jonasi: Uste dezu arrazoizkoa asarratsea untsen medioz? Eta arek erantzun zion: Arrazoi det asarratzeko, nere erioztea asarratzeño.

10. Eta Jaunek esan zion: Zuk dezu batere nekeik kostau etzatzun eta azi erain e ez dezun unts bat galdu zatzulako pesalonbrea; ba gau baten azi da, eta gau baten galdu da.

11. Eta nik ez det izango Ninibe, ziuadade aundik errukirik, nun daren eun da ogei milla anima baño geiao, oaindik ezautzen ez doenak eskubiko eskutik ezkerrekora dijon diferentzie, eta guztiz animala asko?

JONASEN PROFEZIN AKABEREA

RUTHEN LIBURUE

ZEAMAKO ESKUERAN

LENENGO KAPITULUE

Elimeletx belendarrak iges eiten do Moabko errira Noemi bere andreakin, eta be bi semekin. Hura ta ok ilda, itzultzen da Noemi Belena Ruthekin, zeñi zan moabitarra, be erreñe, zeñek Noemiri segitzeati euzten don bere errie.

1. Israelen Juezak aintzen zoen denboran, otako baten menden zegola gertau zan gosete aundi bat erri artan. Zeñen medioz, Judako Belengo gizon bat jun zan bizitzera Moabdi Kanpora beste erri batera bere andreakin da seme bikin.

2. Elimeletx zeitzon, ta bere andreri Noemi; eta bi semeai bati Mahalon, ta besteri Txelion, ephratheoskoa, ero Judako Belengoa. Eta Moabko errin sartuta, an bizi zien.

3. Gertau zan ba Elimeletx Noemin gizona iltzea, au bakarrik gelditzen zala be bi semekin,

4. Zeintzuk ezkondu zien moabtar andrakin, zeintzutako bati zeitzon Orpha eta besteri Ruth. An bizitu zien amar urten.

5. Eta aizkenen il zien bik, au da, Mahalon da Txelion; zekin Noemi geau zan semeik pae eta gizoni pae.

6. Erabaki zion ba Moabdi bere errira itzultzea be bi erreñekin; aitu zolako Jaunek itzuli zitula bere begik be erri aldera, eta eman ziola janarik.

7. Bere peregrinazioko tokitik bi erreñekin irten, da Judako errira itzultzeko bidea artu ta gero,

8. Esan zien: Itzuli zaizte zuen aman etxera. Jaunek izan beza miserikordie zuekin, zuek difuntukin da nerekin izan dezuen bezela.

9. Suerte onak ematen dizuen gizonan etxetan deskantsue arkitzea opatzen dizuet. Musu eman zien beala; eta garraxika negarrez asi zien,

10. Eta esaten: Zurekin jungo gea zure errira.

11. Zeintzuai erantzun zien Noemik: Itzuli zaizte, nere alabak; zertako etorri nerekin? Benturaz badet nik geiao semeik nerekin, nereandi beste gizonik zuek esperatzeko?



12. Zoazte, ne alabak, itzul zaizte, zeati ni deseñe nago zartzez, eta enaiz gauza berriz eskontzeko; eta gaur gauen konzebitu ta semek ingo banitu re,

13. Nai bazendukee itxon azi arten, eta eskontzeko edadera alleau arten, andrak baño lenago izango zindeteke atso. Suplikatzen dizuet, ne alabak, ezazuela aurrera segitu; beira zue gero zuen naibaek ez dola azi besteik eiten nerea; zeati Jaunek eskue jasota dauke ne kontra.

14. Ordun berriz asi zien garraxika negarrez. Orphak musu eman zion be amaiñarrebai, eta itzuli zan. Ruth berekin gelditu zan ordea.

15. Eta esan zion Noemik: Ikusten dezu nola itzuli dan zure koñata bere errira, eta be jainkotara. Zabiltz, zoaz arekin.

16. Ruthek erantzun zion: Eziezu geiao ezer esan zu euzten eta ni jutun gañen; zeati noa nai jutun zeala, nike jun bear det, eta zu bizitzen zean lekun, berdin nik e bizi bear det. Zure errie da ne errie, eta zure Jainkoa da nere Jainkoa.

17. Zu iltzen zean lekun, ni re ilko naiz; eta enterratue izaten zean lekun, berdin ni re izango naiz. Ez deiela Jainkok ein onik, baldin eriotzez bakarrik kanporako gauzan batek separau bear banau zureandi.

18. Ikusirik ba Noemik animo aundikin erabakie zegola Ruth berai segitzeko, etzion geiao kontraik ein nai izan, ezta burun sartu re itzul zeilla beretara.

19. Ala jun zien alkarrekin, eta alleau zien Belena. Ziudadera sartu zien bezin laister, zabaldu zan notizie; eta andrak esaten zoen: Au da Noemi hura.

20. Zeintzuai esan zien: Eziezue esan Noemi (au da graziose; ezpada esaiezue Mara (zeñek esan nai don garratxa), zeati Guztiz poderosok garraxtasun aundikin bete nau.

21. Emetik beteta irten non; eta Jaunek itzuli erain dit utsik. Zeati ba otseiten diezue Noemi, Jaunek umillau ta Guztiz poderosok estututa gero?

22. Itzuli zan ba Noemi Ruthekin, zeñ zan moabitarra, be erreñe, bere peregrinaziotik; alleatzen zala Belena garagarak ebaitzen asitzen zien denboran.

BIGARREN KAPITULUE

Ruth, bearrak beartuta, jutun da garagar buruk bitzera Boozen sorora, zeñ zan be aitaiñarreban aidea; eta da errezibitue grazi

onakin. Itzultzen da pozez be amaiñarrebana, zeñeandik jakiten don Booz bere aidea dala.

1. Elimeletx, Noemin gizonak zon bere odoleko aide bat, gizon abe-
ratsa ta kaudal aundikoa Booz zeitzona.

2. Eta Ruth moabitarrak esan zion bere amaiñarrebai: Ematen badie-
zu zure lizentzie jungo naiz kanpora, eta bituko ditut itarian eskutatik
eroitzen dien buruk, nekiko errukie agertzen don familitako gurason
baten topatzen badet arpegi ona, nu nai dala. Erantzun zion Noemik:
zoaz, ne alaba.

3. Jun zan, ba, eta asi zan garagar buruk bitzen itari batzun atzetik.
Fortunaz soro aren jabea zan Booz len esan deguna, Elimeken aidetakoa.

4. Eta ona nun alleau zan Belendik Boozbera; eta diosala ein zien ita-
riai, esanez: Jaune zuekin izan deilla, zeintzuk erantzun zioen: Jaunek
beinka zaitzela.

5. Galdetu zion Boozek morroiei, itarian aintariri: Zeñena da neska
au?

6. Erantzun zion: Au da Noemikin Moabdi etorri zan moabitarra;

7. Eta itarian atzetik gelditzen dien buruk bitzen juteko lizentzie
eskau do; eta goizetik oaiñ arte dago Kanpon, benere (sic) be etxera jun
bae.

8. Ordun Boozek esan zion Ruthi: Aizu, alaba, etzaiz jun beste soro
batera garagar buruk bitzera, ezta apartau e leku ontati; ezpada juntau zaiz
ne neskamekin,

9. Segitu iezu itea dagon lekura, ba ne morroiai aindu diet iñor ez
dein sartu zurekin; baizik, egarritzen bazea, zoaz janarik daren lekura, eta
era zazu ure, ne morroiak e eraten doen artati bertati.

10. Ordun arek, be musue lurreraño makurtuz, ein zion erreberentzi
aundi bat, eta esan zon: Nundi nora niri ainbeste zorion zure begitan gra-
zie izateko, eta zuk ni alako borondatekin tratatzeko, izanik ni kanpotar
andra bat.

11. Zeñi Boozek erantzun zion: Kontau die zure amaiñarrebakin ein
dezuna, zure gizona il da gero, eta nola eutzi dituzun zure gurasok eta
jaioterrie, lenago ezautzen etzendun erri batera etortzeagaiti.

12. Jaunek premia zaitzela zure azioati, eta errezibitu zazula sari on
bat Israelgo Jainko Jauneandi, zeñeatu zean, eta zeñen egopetan gorde
zean.



13. Ruthek erantzun zion: Arkitu det grazie zure begitan, oh nere Jaune, ba ala konsolau dezu eta itz ein diozu zure serbitzari onen biotzai, zeñek ez don merezi zure morroian arteko batzat kontatzea re.

14. Eta Boozek esan zion: Jateko denboran atoz onutza, eta ja zu ogie, eta zure bokaue busti zazu ozpiñen, ne jendekin. Jarri zan ba itarian alde baten, eta Boozek eman zion ai asko zeñeti jan zon naikoa ein arte, eta gorde zitun sobrau zienak.

15. Jaiki zan gero andik, len bezela buruk bitzera. Eta Boozek aindu zien be morroiari esanez: Berak nai baloke re zuekin ebai beretzat, eziozue erautzi;

16. Baizik apropos eutziezue eroitzen zuen azaotatik buru batzuk, lurren dagola bitu daizken lotsai pae, eta bitzen ditun bitarten ez beio iñork demandan eman.

17. Egon zan ba buruk bitzen atsalde arten; eta bitu zitun buruk jota astinduta; arkitu zan ia ephri bat garagarrekin, au da, iru modio;

18. Eta ak bizkarren artuta itzuli zan ziudadera, eta erakutsi zion be amaiñarrebai; onen ondoren etara zon da eman zion bazkaiten sobrau zienetatik, zeñetati berak naikoa jan izan zon.

19. Be amaiñarrebak galdetu zion: Nun buruk bitu dituzu gaur, eta nun ein dezu zure lana? Beinkatue izan deilla zure errukie izan dona. Aitortu zion Ruthek zeñi kanpotan buruk bitu zitun, eta esan zon ango nausiri Booz zeitzola.

20. Zeñi erantzun zion Noemik: Jauneandi beinkatue izan deilla; ba biziai izan zien borondate on hura bera do oaindik difuntuantzat; eta gañera esan zon: Gizon ori gure aidea da.

21. Ruthek esan zon: Aindu dit ba bere itarikin baten ibiltzeko re labore guztian itea akabau arte.

22. Amaiñarrebak erantzun zion: Obe da, ne alaba, jun zaizela buruk bitzera aren neskamean arten; besten galondon norbaitek erautzi ez deizun buruk bitzea.

23. Juntau zan ba Boozen neskamekin, eta akin batera bitu zitun buruk gañerako denbora guztin, aiketa garagarrak eta garik granerotan sartu arte.

IRUGARREN KAPITULUE

Noemik aleine eiten do Ruth Boozekin eskontzeka.

1. Eta be amaiñarrebara itzuli zanen, onek esan zion: Ne alaba, ni aleiñe eitea noa zure deskantsurako, eta disponitzera noa ondo pasa deza zula.

2. Booz ori, zeñen neskamekin baten zabiltzen kanpon, gure aidea da, eta gaur gauen aizetzen do garagarra bere larreñen.

3. Garbitu zaiz, eta untau zaiz usaigozokin, eta jantzizetzu soñeko-rik onanak, eta zoaz larreñera, ei zazu aleiñe etzaitzela arek ikusi aiketa jaten da eraten akabau arte.

4. Ordun lotara juten danen, barrenta zazu ondo lo eiten don lekue, eta jungo zea eta kenduko diozu tapea oñek estaltzen ditun aldetik, eta etzingo zea an, eta jarriko zea lotan. Berak esango dizu, aideik gertuna bezela, zer ein bear dezun.

5. Ruthek erantzun zion: Nik eingo det zuk aintzen diezun guztie.

6. Jun zan ba larreñera, eta ein zon bere amaiñarrebak aindu zion guztie.

7. Eta Boozek jan da eran zonen da poliki jarri zanen, eta jun zanen lotara azao aundi batzun ondora, alleau zan Ruth ixi ixilik, eta onetatik kapea jasota, etzin zan an.

8. Eta ona nun gauerdin esnau zan gizona, ikatue ta nastue be oñetan andra bat etzinda ikusita;

9. Eta esan zon: Zein zea? Eta arek erantzun zon: Ruth naiz, zure mendekoa; zabaldu zazu zure mantue zure serbitzarin gañera; ne gizonan aideik gertuna zean ezkerro.

10. Zeri esan zion Boozek: Jauneandi beinkatue izan zaizela, ne alaba, ba zure lenengo borondateri ta modu onari erain diozu, oaiñ aitzea ematen dezunakin, ba zean bezela gaztea izanik, etzea jun gazte billa, ezta pobre ta aberats billa re, ezpada Legek disponitzen ditunan billa.

11. Orreati ezazu bildurrik izan, ba nik eingo det zurekin esan diezun dana; ne ziudadeko jende guztin dakin ezkerro zu andra birtuosa bat zeala.

12. Nik ez det ukatzen aide naizela, baño bada beste bat ni baño gertugoa.

13. Deskantsau zaiz gau ontan, ba goize etorrita, arek gelditu nai bado zurekin gertutasunek ematen dion deretxoatik, izan bei orduonen; baño ezpado nai, bizi bei Jaune nik artuko zaituala falta bae; eta la lo eizazu biar arte.

14. Lo ein zon ba aren oñetan gaue akabau arte. Eta gizonak alkar ezautu al zezen baño lenago jaikita, Boozek esan zion: Aleiñe ei zazu ez dezala iñork jakin onutsa etorri zeala.



15. Eta gañera esan zion: Zabaldu zazu zure burue estaltzen dezun mantue, eta euki zazu bi eskukin; ondo eldue. Arek zabalduta, eta eukita, neurtu zion sei modio garagar, eta artu zitun bizkarren. Ala kargatue sartu zan ziudaden.

16. Eta jun zan bere amaiñarrebana, zeñek galdetu zion: Zer ein dezu? Kontau zion Ruthék bereati Boozek ein zion guztie.

17. Eta gañera esan zion: Ona emen sei modio garagar eman dienak, esanez: Ez tet nai itzul zaila zure amaiñarrebana esku utsekin.

18. Noemik ordun esan zion: Itxo zu, ne alaba, ikusi arte zertan geatzen dan gauzea. Zeati Booz gizon prestue da, eta ez da geauko aindu dizuna kunplitu arte.

LAUGARREN KAPITULUE

Eskontzen da Booz Ruthekin, zeñek eiten don seme bat Obeb deitzona, Isain aite eta Dabiten athona.

1. Jun zan ba Booz ziudadeko atetara ero juzgadura, eta jarri zan an; eta ikusirik pasatzen len esan gendun aide hura, otsein zion be izenez, eta esan zion: Atoz piska baten, eta jarri zaiz emen. Allegau zan hura, eta jarri zan.

2. Ordun Boozek ziudadeko amar Agurai otseinda esan zien: Jarri zaizte emen.

3. Jarrita beala, modu ontan itz egin zion aidek: Noemi, Moabko erritik itzuli dana saltzeko dago Elimeletx gure anaien soron parte bat:

4. Zer nai izan dian zuk jaki zazula, eta nai izan dizut esan bistan daren danan aurren, eta ne erriko Aguran aurren. Baldin zuk izan nai badezu aidetasunen deretxoz, erosi zazu ta izango dezu. Eta ori ezpazatzu guztatzen, aitortu zazu nik jakin dezan zer ein bear dian, zu beste aideik eztagon kason, zein zean lenengoa, eta ni zein naizen bigarrena. Zeri ark erantzun zion: Ba nik erosko det soroa.

5. Boozek erantzun zion: Azienda ori erosten dezunen ezkondu re bear dezu Ruth, moabitarrakin, zein izan zan difuntun andrea, aren azien-dan geau dein zure aiden izena.

6. Arek erantzun zion: Euzten det aidetasunen deretxoa; zeati ez ta arrazoie nik lurre jo eran deioala ne familin ondorengori; usa zazu zuk ne deretxoa, zer aitortzen dian naita euzten diala.

7. Usuario zarra zan Israelen aidean arten, batek besteri bere deretxok eutzitzen zionen, ondasunen euztek balio izateko, kentzen zitun arek be

oñetakok eta ematen zion be aideri. Au zan euzten ziolako señaiera ero testimonioa Israelen.

8. Orreati Boozek esan zion be aideri: Kendu itzetzu oñetakok, eta arek bealaxe erantzi zitun oñetatik.

9. Ordun Boozek esan zien Agurai eta erri guztiri: Zuek zeate testigo gaurko eunen Elimeletx, Txelionek, eta Mahalonek zituen gauza danan jabe ni eiten naizela, Noemik eiten dien entreguati;

10. Eta artzen det andratzat Ruth moabitarrak, Mahalonen andra izandue, berriz piztutzeko difuntun izena be aziendan, aren izena borrau ez dein bere familin, be anaietan da bere errin. Zuek, berriz esaten dizuet, zeate eite onen testigo.

11. Ordun aten zegon erri guztik erantzun zion Agurakin: Gu gea testigo, Jaunek ein dezala zure etxen sartzen dezun andra ori, izan deilla Ratxel da Lia bezelakoa, zeintzuk fundau zoen Israelgo etxea; izan dein a pezela birtuten ispillue Ephraten, eta izan dezan fama andiko izen bat Belenen;

12. Eta zure etxea izan dein Phares (Thamarko eta Judako semen) etxea bezelakoa.

13. Artu zion ba Boozek Ruth, eta eskondu zan arekin, eta euren matrimonion Jaunek ein zion Ruthi konzebitzeko eta seme bat eiteko grazie.

14. Motibo onekin andrak esan zioen Noemiri: Beinkatue izan deilla zure familin herederok faltatzea nai izan ez don Jaune, eta nai izan do gorde aren izena Israelen;

15. Zuk e iza zazun zerk konsolatue zure animea, eta izan dein zure zartzarorako launtze ona. Ba jaio zatzu seme bat zure erreñeandi, zeñek maite zaitun, eta zuretzat askoz obego da zuk zazpi seme izatea baño.

16. Noemik, umea ero jaio-berrie artuta, ipini zion be malen, eiten zola arekin iñude ta neskame.

17. Eta bere auzoko andrak, arekin poztutzen ziela, esaten zoen: Jaio dio seme bat Noemiri; eta Obed ipini zion izentzat. Au izan zan Isain aite, zeñ izan zan Dabitena.

18. Ona emen Pharesen jeneraziok ero ondorea. Phares izan zan Esronen aite,

19. Esron Aramnena, Aram Aminadabena,

20. Aminadab Nahassonena, Nahasson Salmonena,

21. Salmon Boozen aite izan zan, Booz Obedena,

22. Obed Isaina, Isai Dabiten aite izan zan.



**GURE JESUKRISTO JAUNEN
EBANJELIO SANTUE
SAN MATEOK DIONEZ
ZEAMAKO ESKUERA ITZULIE**

LENENGO KAPITULUE

*Jesukriston sortzea, aen konzebitzea Espiritu Santun obraz, eta
aen jaiotzea.*

RUTHEN LIBURUN AKABEREA

1. Jesukristo, Dabiten semen, Abrahamen semen sortzea.
2. Abraham Isaaken aite zan. Isaak Jakoben aite zan. Jakob Judasen ta aen anaien aite zan.
3. Judasek Tamarreandi izan zon Phares ta Zara. Phares Esronen aite zan. Esron Aranen aite zan.
4. Aran Aminadaben aite zan. Aminadab Naassonen aite zan. Naason Salmonen aite zan.
5. Salmonek Rahabendik izan zon Booz. Boozek Rutheandik izan zon Obed. Obed Jessen aite zan. Jesse Dabid erregen aite zan.
6. Dabid erregek izan zon Salomon Uriasen andrea izan zanandi.
7. Salomon Roboanen aite zan. Roboan Abiasen aite zan. Abias Asan aite zan.
8. Asa Josaphaten aite zan. Josaphat Joranden aite zan. Joram Uriasen aite zan.
9. Urias Joathanen aite zan. Joathan Atxazen aite zan. Atxaz Ezekiasen aite zan.
10. Ezekias Manasesen aite zan. Manases Amonen aite zan. Amon Josiasen aite zan.
11. Josias Jekoniasen ta onen anaien aite zan, judiok Babilonira eaman zituen denbora ingurun.
12. Eta Babilonira eamanak izanda gero, Jekonias Salathielen aite izan zan. Salathiel Zorobabelen aite izan zan.
13. Zorobabel Abiuden aite izan zan. Abiud Eliazinen aite izan zan. Eliazin Azorren aite izan zan.
14. Azor Sadoken aite izan zan. Sadok Atxinen aite izan zan. Atxin Eliuden aite izan zan.



15. Eliud Eleazarren aite izan zan. Eleazar Mathanen aite izan zan. Mathan Jakobena aite izan zan.
16. Eta Jakob, Jose, Marian gizonan aite izan zan, zein Mariandik jaio zan Jesus, Ionbretzat Kristo.
17. Ala amalau kasta die guzik Abrahami Dabiteño; eta Dabiteandi judiok Babilonira eaman zien arteño amalau kasta; eta amalau kasta Babilonira eamanak izan zieneti Kristoaiño re.
18. Baño Kriston jaiotzea modu ontan izan zan: Maria aen ama Josei eskontzeko itzemana zeola, arkitu zan konzebitue zola bere sabelen Espiritu Santun obratz, ioñoize (sic) lenao alkarrekin eon bae.
19. Baño Jose aen gizonak, zan bezela, justoa zalako, eta hura desonraun nai etzolako, erabai zion ixiltxoik uztea.
20. Pentsamentu ontan zeola, ona nun agertzen zakon amesetan Jaunen aingeru bat, esanez: Jose Dabiten semea; ezazu izan errezelok Maria zeure andratzat errezibitzeko zure etxen; zeati aen sabelen konzebitu dana, Espiritu Santun obrea da.
21. Eta la eingo do seme bat zeñi Jesus ipinko diozun izentzat; ba hura da bere errie salbau bear dona ero librau bear dona pekatutati.
22. Zein guzie ein zan Jaunek Profeteandik esan zona kunplitzeko zeñek dion:
23. Jaki zazue birjiña batek konzebitu ta eingo dola seme bat; zeñi Emmanuel ipinko dioen izentzat, zeñek bestea itzulie esa (sic) nai don Jainkoa gukin.
24. Orrekin Josek, esnau zanen, ein zion Jaunen aingeruk aindua ziona, eta errezibitu zion bere andrea.
25. Eta ezautu bae ta ikutu bae ein zion bere seme bakarra; eta ipin zion izena Jesus.

BIGARREN KAPITULUE

Magoan adorazioa; Jesusen iges eitea Ejitora; inozentean eriotza gogorra; Jesus, Maria ta Jose itzultzen die Ejitoti.

1. Jaioi pa Jesus Judako Belenen Herodesek erreinatzen zola, ona nun etorri zien Mago batzuk euzkie jaiotzen dan aldeti Jerusalem.
2. Galdetuz: Nun dao judion errege jaioa ba guk ikus gendun euzkie jaiotzen dan alden aen izarra, eta adoratzeko asmokin etor gea.
3. Herodes erregea au aituta, izutu zan, eta aekin Jerusalem guzie.

4. Eta abadean prinzipie guzik, eta erriko erakustzallek ingurauta, galdetzen zien nun jaio bear zion Kristok ero Mesiasek.
5. Zeñi ak erantzun zioen: Judako Belenen. Onla dagola eskribitue Profetan.
6. Eta zu Belen Judako lurre, etzea iñolaze Judako erri aundinetati txikina; ba zuandi da nundi eta bear don, Israelgo nere errie gobernau bear don burue.
7. Ordun Herodesek Magoai ixilik ero bakarrik otseinda jakin zion atati kontuz izarra agertu zitzaien denborea.
8. Eta Belenako biden ipinik, esan zien: zoazte, eta jaki zazue puntual zer dan ume ortaz, eta arkitze zuenen abisa iezue nire adoratzeko juteko.
9. Erregei au aitu bezin laister, jun zien eta ona nun, euzkie jaiotzen dan alden ikusi zoen izarra zijon euren aurret, zein alleatuik umea zeon lekun pareraño, geatu zan.
10. Izarran bistan oso poztu zien.
11. Eta etxen sartuta, arkitu zoen umea bere ama Marikin, eta belainiko jarrita adorau zoen, eta euren kofrek zabalduik, eskeñi zioen urrezko, intzentsozko ta mirrasko presentek.
12. Eta zeruti errezibituik amesetan abiso bat Herodeseana itzuli etzitez, jun zien euren etxea beste bide bateti.
13. Ak andi jun ondun, Jaunen aingeru bat agertu zitzeke Josei amesetan esanez: Jaiki zaite, artu zazu umea, eta aren ama, eta iges ei zazu Ejitora, eta an eon zaiz nik abisau arten. Zeati Herodes ibilko da umen billa iltzeko.
14. Jaikita artu zion Josek umea ta aren ama gauzez: eta erretirau zan Ejitora.
15. Nun eon zan Herodes ill arte; eta onla kunplitu zan Jaunek esan zona Profeten auti: Nik otsei nion Ejitoti nere semeri.
16. Bianbitarten Herodesek ikusik burlatue bere burue Magoandi, asarrau zan oso, eta aindua zion iltzeko Belenen ta bere ingurumari guzin zien bi urtez betiko ume guzik, izarra agertu zan konformidaden zein jakin zion Magoandi.
17. Ordun ikusi zan kunplituie Jeremias profetek lendik esan zona esanez.
18. Raman e aitu zien deadarrak, near asko ta oiuk: Rakel da bere umez near eiten dona, konsolau nai ezik, zeati ez dien geaio.
19. Gero Herodes ill ondun, Jaunen aingeru bat agertu zitzeke Josei amesetan Ejiton,



20. Esanez: Jaiki zaitte, eta ar zazu umea, eta aen ama, eta zoaz Israel-goo lurrea, zeati il die umeri bizie kendu nai zioenak.

21. Jaikita artu zon Josek umea, eta aen ama, eta etor zan Israelgo lurrea.

22. Baño aituik Arkelaok aintzen zola Judean Herodes bere aiten orde, ikatu zan arutza jutea, eta abisatuik amesetan, Galileako lurrea erretirau zan.

23. Eta etor zan bizitzea Nazaret izena don erri batea; modu ontan kunplituz Profetan esana: Izango da Nazareno deitue.

IRUGARREN KAPITULUE

Joan aurea bialduk predikatzen do penitenzie eta bautizatzen do. Jesusek nai izan zon bautizatu Joaneandi; eta ordun aitzea eman zon Jainkon seme bakarra zala.

1. Denboraldi artan ikusten zan Joan Batista Judeako basamortun predikatzen,

2. Eta esanez: Ei zazue penitenzie; zeati gertu dao zerutako erreinue.

3. Au da hura zeñeaz esan zan Isaias Profeteandi: Da basamortun deadar eiten donan boza, esanez: Presta zazue Jaunen bidea, Ei-tzezue zuzen aren bidetxiorrak.

4. Joan kamelu illesko soin batekin zebillen, eta narruzko ugal bat bizkarren; eta aren janarie zan matxinsaltokarie ta basaeztie.

5. Jerusalemgo jendea, eta Judea guztiti, eta Jordango erribera guztiti zijotzen ba aen billaka,

6. Eta areandi errezibitzen zoen bautismoa Jordanen, euren pekatuk konfesauta.

7. Baño nola fariseotar ta saduzeotar asko ikusten zitun be bautis-mora etortzen, esan zien: O ziraun arrazak! Zeñek erakutsi zue ikusten zatzuen aziokin bakarrik iges ein dezaiokezuela datorkitsuen kolereri.

8. Ei-tzezue ba penitenziri digno zakon frutuk.

9. Eta ezazue esan zuen usten: Abraham daukeu aitetzat; zeati nik esate izuet zein aldona dan Jainkoa arri otati bertati jaio eraiteko semek Abrahami.

10. Beira zazue gero aizkora aundie arrimatue daola arbolan zuzta-rra. Eta frutu ona ematen ez don arbola guzie, ebaie izango da, eta surta botea.

11. Nik, egie da, bautizatzen zaituet urekin penitenzie eraiteko; baño ne ondoti etorri bear dona, ni paño geiao dezakena da, eta enaiz ni digno sikira ari zapatak eramateko re; hura da bautizatu bear zaituena Espiritu Santun eta sun.

12. Ark bere eskutan dauke arrastelue; eta garbituko do ederki larrañe; eta bere garie graneron sartuko do, baño lastok erreko itu itzalie-zinditeken su baten.

13. Denbora ontan Jesus etor zan Galileati Jordana Joanen billa, oneandi bautizatu izateko.

14. Baño Joane eton nai, esanez: Nik zuandi bautizatu izan bear det, eta zu niana zatoz?

15. Zeñi erantzun zion Jesusek, esanez: Utzi ezu oain eiten; zeati ala komeni da kunpli dezaula justizi guzik. Ordun Joane ein zon ark nai zona.

16. Ba Jesus bautizatuta, ureti eta bezin laister, zeruk iriki zitzekon, eta ikusi zon Jainkon Espiritue jatxitzen uson antzea, eta bere gañen atxe-ten.

17. Eta aitu zon zeruko boz bat, ziona: Au da ne seme maitea, zeñean daukean ipinie nere poz guzie.

LAUGARREN KAPITULUE

Jesukriston balurre ta tentazioa; itzultzen da Galilea, eta ipintzen do Kafarnaunen be bizitokie; asten da predikatzen ta dizipuluk inguratzen, eta segitzen dioe jende askok.

1. Denbora artan Jesus Jainkon Espirituandi eamana izan zan basamortura deabrundi an tentaue izan zediñ.

2. Eta berrogei eun ta berrogei gauen balur ein ondón, gosea izan zon.

3. Ordun arrimatuik tentatzallek esan zion: Jainkon semea baza, ezazu arri orik ogi biurtu ditezela.

4. Baño Jesusek erantzun zion: Eskribitue dao: Ezta gizona ogikin bakarrik bizi, baizik Jainkon auti etatzen dan eozeiñ itz ero buruzbidekin.

5. Onen ondoen deabruk eaman zon Jerusalemgo erri santura, eta ipin zon elizek don alturaik aundinen,

6. Eta esan zion: Jainkon Semea baza bota zazu zere burue emendi bera. Ba eskribitue dao: Be aingeruai enkonmendatu zaitula, zeintzuk



artuko zaituen euren esku zabaletan, arrin baten estraputzen ein ez dezazun.

7. Jesusek erantzun zion: Eskribitue re dao: Ez dezu tentauko zure Jainko Jaune.

8. Deabruk eaman zon oaindike mendi punta altu batea; eta eakutsi zion munduko erreinu guzik, eta an glorie.

9. Eta esan zion: Gauza ok-uzik emango izut auzpez jarrita adora-tzen banazu.

10. Ordun Jesusek erantzun zion: Alde-izu orti Satanas. Zeati eskri-bitue dao: Adorauko ezu zure Jainko Jaune, eta hura bakarrik serbituko ezu.

11. Orrekin utzi zion deabruk; eta ona nun arrimau zitzeke ainge-ruk, eta serbitzen zoen.

12. Gero Jesusek aitua zonen Joan preso sartue izan zala, erretirau zan Galilera.

13. Eta Nazareteko errie utzita, jun zan Kafarnaurea bizitzea, itxase-rrie, Zabulonon ta Neftalinen mugan.

14. Zekin kunplitu zan Isaias profetek esan zona:

15. Zabulongo ta Neftalingo lurre, nundi juten dan Tiberiasko itxa-sora Jordanen beste aldera, jentilen Galilea.

16. Erri onek, zein zegoen illunpetan argi aundi bat ikusi do, zein eto-rrin dan eriotzen itzalpetako errin bizi zienai argi eitea.

17. Ordutik asi zan Jesus predikatzen, eta esaten: Ei-zue penitentie; zeati zerutako erreinue gertu dao.

18. Eun baten Galileako itxasertzen zebilela Jesusek ikusi zitun bi anai, Simon, Pedro zeitzona, eta Andres bere anaie, itxason sarea botatzen, (ba arrantzalek zien).

19. Eta esan zien: Segi ezue niri, eta nik gizonan arrantzale eraingo zaituet.

20. Bealasse bik sarek utzita, seitu zioen.

21. Aurreago junda, beste bi anai ikusi zitun Santiago Zebedeon semea, eta Joan bere anaie eurek sarek konpontzen ai ziela txalupan euren aite Zebedeokin; eta otsein zien.

22. Ak-e euren sarek eta aite beala utzita, seitu zioen.

23. Eta Jesus Galilea guzie korritzen zebillen, sinagogatan eakusten, eta ebanjelioa ta zeruko erreinuko berri ona predikatzen; eta min jenero guzik, eta gaisotasun guzik sendatzen erriko jendetan.

24. Zekin banau zan Siria guztin aen famea, eta presentatzen zioen gaixo zeren guztik eta gaitz jenero gogor askokin larrituk, deabruz betek, tanteltsuk, perlesik jok; eta sendatzen zitun.

25. Eta seitzen zioen Galileako, Dekapoliko, Jerusalengo, Judeako ta Jordanen beste aldeko jende pilla aundi batek.

BOSGARREN KAPITULUE

Jesukriston sermoie mendin; asitzen da zortzi zorionekokin. Apostolok lurreko gatzeta ta argie die. Esaten do etzala etorri Legea arrasatzea ezpada kunplitzea. Itz bidebaeko, aiskidetzen, biotzez-ko adulterion, eskandalon, matrimonion utzieziñen, juramentun, paziennin, etsaianako amorion, eta kristauen perfezion gañen.

1. Baño Jesusek jende pilla hura guzie ikusita, igo zon mendi batea, nun jarrrik, arrimau zitzeke be dizipuluk,

2. Eta bere jainkozko aua zabalduta, erakusten zien dotriñea esanez:

3. Zorionekok espirituz pobrek: zeati ana dan zerutako erreinue.

4. Zorionekok mansok eta umillek; zeati ak mendeauko doe lurre.

5. Zorionekok near eiten doenak: zeati ak izango die poztuk.

6. Zorionekok justizin gose ta egarri dienak: zeati ak izango die ase.

7. Zorionekok errukizkok: zeati ak itxiko doe errukie.

8. Zorionekok euren biotza garbie doenak: zeati ak ikusko doe Jainkoa.

9. Zorionekok bakezalek: zeati ak izango die deituk Jainkon semek.

10. Zorionekok justiziegaiti persekuzioa padezitzen doenak: zeati ana da zerutako erreinue.

11. Zorionekok izango zate ni naizela mediante gizonak maldezitu ta persegitzen zaituenen, eta gaitz jenero guzik gezurrekin zuen kontra esaten dituenen.

12. Poztu zaitezte ordun, zeati guztiz aundie da zerutan itxoten dizuen sarie; modu ortan bertan persegitu zituen zue paño lenao izan dien profetak.

13. Zuek zate lurreko gatzeta. Eta gatzeta lelatzen ba, zekin itzuliko zake saborea? Ezertako ezta gauzako, ezpada botatzeko ta jendek zapaltzeko.

14. Zuek zate munduko argie. Ezin estali liteke mendi baten gañen eindako erri bat.

15. Etzaio re irazeiten argiri imillaunpe baten ipintzeko, ezpada kandelero baten, etxeko guziaz argi ein deien.



16. Drist ein beza orla zuen argik gizonan aurren, zuen obra onak ikusteko modun, eta glorifika dezen zerutan dagon zuen aite.
17. Ezazue uste ni etor naizela legeko dotrinean arrasatzea, ezta profetanare; enaiz etorri arrasatzea, baizik kunplimentu ematea.
18. Ba egi egie esate izuet, zeruk eta lurrek lenao faltauo doela, legek dauken guzie ondo kunplitu bae utzi baño, aen aizkeneko izpi bateaño.
19. Eta la mandamentu otakon bat ausitzen donak izan diteken txikinak iritzigaiti, ero gizonai eakusten dienak ala eiten, danetan txikintzat eukiko da, au da ezereztzat, zerutako erreinun; baño gordetzen dituna ta erakusten dituna, aunditzat eukie izango da zerutako erreinun.
20. Zeati nik esate izuet, balin zuen justizie ezpada Fariseon ta Era-kustzellena baño osogoa ta aundigoa, etzatela sartuko zerutako erreinun.
21. Aitu ezue zuen aurrekoai esan zitzaiera: Ez dezu ilko; eta iñor iltzen dona, juizion iltzea kondenatue izango dala.
22. Nik geiao esate izuet: erozeiñek artzen diola gorrotoa bere anaiei, meziko do juezak kondena dezala. Eta raka esaten dionak mereziko do konziliok kondena dezala. Baño txorora esaten diona: infernuko surtara botatzeko kulpea izango do.
23. Orreati balin zure ofrendea aldaren presentatzeko garaien, an akordatzen baza zure anaiek badola kejan bat zure kontra;
24. Aldare aurren antxe bertan utzi zazu zure ofrendea, eta aiskidetu zaite lenengo zure anaiekin; eta gero itzulko za zure ofrendea presentatzea.
25. Konpon zaite gero zure kontrariokin arekin biden zan bitarten, juezan eskutan etzaitzen ipini, eta juezak meñonetan entregau eta etzaitzen kartzelan sartu.
26. Aseguratze izuet zierto, etzala andik irtengo aizkeno marabirie pagau arte.
27. Aitu ezue zuen aurrekoai esan zitzaiera: Ez dezu adulteriok eingo.
28. Nik geiao esate izuet: erozeiñek beiratzen diola andra bati area-nako deseo txarrakin, adulterau zola bere biotzen.
29. Balin zure eskubiko begie bada zutzat pekatu eiteko okasio bat, eta zazu eta zuandi kanpoa bota; ba obe zaitzu zure mienbrotako bat galtzea, zure gorputz guzie infernura botea izatea baño.
30. Eta baldin zure eskubiko eskuk eskandalorako ero pekatu eraiteko serbitzen baizu, ebai zazu, eta bota zazu zuandi urrutia; ba obe zaitzu zure mienbro bat galtzea, zure gorputz guztie infernua jutea baño.
31. Esan da: Erozeiñek utzitzen dola bere andrea, eman beio deseskondun agirie.

32. Baño nik esate izuet: erozeiñek usten dola bere andrea, adulterioa dala mediante ezpada, adultera izateko peligran jartzen dola; eta bestek utzitako andrekin eskontzen dana re adulteroa dala.
33. Aitu re dezue zuen aurrekoai esan zitzaiera: Ez dezu juramentu falsoik eingo; baizik kunplituko ituzu Jaunei ein ziondun juramentuk.
34. Nik geiao esate izuet, ez dezazuela iñola re juramentuik ein motibostue bae zerugaitik-e, ba Jainkon tronoa da,
35. Ez lurregaitik-e, ba aren oñetako aulkie da; ezta Jerusalematik-e, zeati dan errege aundin errie ero kortea;
36. Ez dezue juramentuik eingo zuen buruegaitike, ba ez dezue ille bat bakarrik zuritzeko ero bestutzeko eskubideik.
37. Zuen itz eiteko modue izan bedi ba bai, bai; ero ez, ez; ba orti gañerakoa, asiera txarreti dator.
38. Aitu ezue esan zala: begie begintzat, eta ortza ortzantzat.
39. Baño nik esate izuet, ezaiozuela indarrak ein injuriri; baizik balin norbaitek eritzen bazaitue eskubiko matraillan, itzuli ozue bestea-re.
40. Eta tunikea kentzeko auzie eman nai dizunai, larga iozu kapea re;
41. Eta bi milla pauson kargatue jutea beartzen zaitunakin zoaz beste bi millan.
42. Eskatzen dizunai, ema iozu; eta eziozu ipini arpegi txarrik zerbait diru eskatzen dizunai.
43. Aitu ezue esana izan zala: Maiteuko ezu zure laun projimoa, eta (gaizki anaditu doe) zure etsaiei gorrotoa izango diozu.
44. Nik geiao esate izuet: Maite itetzue zuen etsaiek; gorrotoa dizue-nai ondo egiezue eta errege zazu persegitu ta kalumniatzen zaituenakaiti;
45. Zuen zeruko aiten antzeko semek izan zaitezten; zeñek onan ta gaizton gañea eta eraiten don euzkie; eta juston ta pekatarin gañea eurie ein.
46. Maite zaituenak bakarrik maitetzen baituzue, zer sari izan bear dezue? arrendatzalleke ez doe orla eiten?
47. Eta zuen anaiei beste diosalik ezpadiozue eiten, zer geiao eite zue beste paño? Benturez ez doe au eiten paganoke?
48. Izan zaitezte ba zuek zuzenak, zuen zeruko aite dan bezela alein guztie eiñez aren antza izateko.

SEIGARREN KAPITULUE

Segitzen do Jesusek eakusten; eta limosnen, orazion, eta balurren gañen itz eiten do; ez ditugula mundu ontako ondasunek inguratu



bear dio ezpada zerurako; gure intenziok ona izan bear dola; ezin serbitu ditekela Jainkoa ta mundue; eta ikusi eraiten do Jainkoanako izan bear deun konfiantzea.

1. Ez itzuela ein zuen obra onak gizonan aurren, ok ikusteagaiti, bes-tela ez dezue errebituko an sarie zuen aiteandik, zein daon zerutan.
2. Eta ala limosnea ematen dezuenen, ezdezazula aitzea eman tron-peta soñun hipokritak eiten doen bezela sinagogatan, kaletan ta plazatan, gizonandik onratue izateagaiti. Egiz esate izuet, sarie errebitu zoela.
3. Baño zuk limosnea ematen dezunen, ei zazu eskubiko eskuk eiten dona eskerrekok ez ikusteko modue;
4. Zure limosnea geatu dein gordea, eta zure aitek, zeñek ikusten don danik ezkutatuna, emango izu sarie mundu guzin aurren.
5. Ainbat orazioa eiten dezuenen, ez dezue hipokrita pezela izan bear, zeintzuk berariz jartzen dien zuti sinagogatan ta kaleskiñatan orazioa eiten, gizonakandi ikusik izateko; egiz esate izuet, errebitu zoela euren sarie.
6. Zuk, alrebes, orazioa ein bear dezunen, sartu zaite zure aposentun, eta atea itxita, ei-ozu ixillik orazio zure aitei, eta zure aitek, zeñek ikusten don danik ezkutatuna, emango izu sarie mundu guzin aurren.
7. Orazioa eiten ezazue geiei aitu erain nai, fedebaek eiten doen bezela; zeintzuk uste doen aitu bear zaiela itz eiñen poderioz.
8. Ezazue ba an antzik izan nai; ba ondo daki zuen aitek baezuela premie, eskau baño lenao.
9. Orra ba nola orazioa ein bear dezuen: Aite gurea, zerutan zarena; santifikatue izan bedi zure izena.
10. Betor zure erreinue. Ein bedi zure borondatea, zerun bezela, lurren e.
11. Ema iuzu euneoko gure ogie,
12. Eta barka iuzu gure zorrak, guk gure zordunei barkatzen dieun bezela.
13. Eta ez gaitzetzu utzi tentazion erortzen. Baizik libra gaitzetzu gaitzeti. Amen.
14. Zeati balin gizonai barkatzen badiezue zuen kontra ein dituen ofensak; zuen zeruko aiteke barkauko izue zuen pekatuk.
15. Baño ezpadiozue zuek barkatzen gizonai, zuen aiteke ez dizue barkauko pekatuk.

16. Balur eite zuenen, ezaitezte jarri arpegi tristekin hipokrita pezela; zeintzuk itsusitzen dituen euren arpegik, balur eiten doela gizonai ikusieraiteko. Egiz esate izuet, errebitu zoela euren zarie.

17. Zuk, alrebes, balur eiten dezunen, lurrindu zazu zure burue, eta garbi zazu ondo zure musue.

18. Gizonak ezautu ez dezaten balur eiten dezula, baizik zure aitek bakarrik, zein daon gauza guztitan, danik ezkutunen e; eta zure aitek, zeñek ikusten don ezkutun pasatzen dana, emango izu areati sarie.

19. Ez itzazue ondasunek pillatu nai izan zuentzat mundun; nun ordoiek, eta sitsek deseiten ditun; eta nun lapurrek lurreti etaa ta ostutze ituen.

20. Baizik bildu itzezue ondasunek zuentzat zerun; nun eztagon ordoirik, eta sitsik deseingo ditunik; eta ez lapurrike lurreti etaa ta ostuko dituenik.

21. Zeati zure ondasune daon lekun, an dao zure biotza re.

22. Zure begik die zure gorputzen argizuzie. Zure begie simplea balin balitz, ero garbie baleo; gorputz guzie argitue eongo da.

23. Baño maliziosoa ero gaiztoa baezu zure begie, zure gorputz guztie illundue eongo da. Ba balin zuan argik izan bearren illunpek badie, illunpe ak eurek, zeñen aundik izango ez die?

24. Iñork ezin serbitu daizke bi nausi, zeati ero batai bekaitza izango dio, eta besteri amorioa; ero lenengon menden jartzen bada, despreziokin beiratuko dio bigarrenai. Ezin serbitu daizketzue Jainkoa ta ondasunek.

25. Oni daokionez esate izuet, etzaitezte larritu zuen bizie mantentzeko bear dezuen jana arkitzeko kuidoegaiti, ero nundi etako ituzuen zuen gorputze estaltzeko arropak. Zer, ez do alimentu paño geiao balio bizik ero animek; eta jantzi paño gorputze.

26. Beira iezue zeruko egaztai, nola ereiten ez doen, ebaitzen ez doen, eta granerok ez dituen; eta zeruko zuen aitek alimentatze itu. Ez dezue ba zuek konparazioik bae a paño askose geiao balio?

27. Eta, zeñi zuetakok denboren poderioz erantzi dezaioke beso bat bere luzetasunei?

28. Eta jantzin gañen, zertako kejatu? Beira iezue kanpoko lirioai nola azi ta loratzen dien; ak ez doe lurrik landutzen, ez arik iruñ e.

29. Eta ala re nik esate izuet, Salomon e be glori guztin aundinen etzala jantzi lirio otako bat bezin ederki.

30. Ba balin kanpoko belar bat, zein gaur bada ta loratzen da, eta biar labera botatzen da, Jainkok ala jantzitzen bado, zenbait obetogo jantziko zaitue zuek fede gutxiko gizonak?



31. Ala ba etzaitzela aitu esaten larrituik: Nun arkituko deu zer jan ta zer eran? Nun arkituko deu zekin jantzi?
32. Paganok eiten doen bezela, zeintzuk arrabikin dabilzen gauza ok-uzin ondoren; ba zuen aitek ondo daki zer gauza orin bearra dauke-zuen.
33. Eta la, billa zazue lenengo Jainkon erreinue, eta ren justizie, eta beste gauza guztik osagarritzat emango zatzue.
34. Etzaitzte ba ibilli larrituik biarko euneati; ba biarko eunek berez ekarko do kuidaduik asko; eun bakoitzei asko zako ba ber bere nekea ero lana.

ZAZPIGARREN KAPITULUE

Akabatzen do Jesusek bere sermoi arrigarrie; esaten do ezatala laun projimoa gaizki juzgau bear; eta gauza santuk etzaiela eman bear digno ez dienai; itz eiten do orazion ta onen iraupenan gañen; karidaden gañen; zeñen estue dan zeruko bidea; profeta falson gañen; frututati ezautzen dala arbolea; eta aitz gañen ero are gañen eindako etxen gañen.

1. Ezitzetzue bestek juzgau, ez pa ezue nai juzgatuk izatea.
2. Zeati zuek juzgatze ituzuen juizio arekin berakin juzgatuk izan bear dezue; eta neurtzen dituzuen neurri arekin berakin neurtuk izango zate.
3. Baño zuk, ze arpegikin beirutzen diozu zure anaien begiko moteri, zuren barrun daon aberi erreparau bae?
4. Ero, nola zure anaiei esaten diozu: Utzi ezu zure begiti lasto ispi ori eta dezan, zuk zeorrek abe bat zeure begin daukezun bitarten?
5. Hipokritea, eta zazu lenengo zure begiko abea, eta ordun ikusko ezu nola eta bear dezun zure anaien begiko motea.
6. Eziezu gauza santuk txakurrai eman, ez e zuen perlak txerriai bota, euren ankakin kalkau ez ditetzen, eta zuen kontra itzuli ta zatitu ezaitzen.
7. Eskazazue, eta emango zaitzue; billa zazue, eta arkituko dituzue; otseizazue, ta irikiko zatzue.
8. Zeati eskatzen don guzik, errezebizen do; eta billa ibiltzen danak, arkitzen do; eta otseiten donai, irikiko zako.
9. Benturez, badao zuen arten norbait, be semek ogie eskatu ezkerro arri bat emango liokenik?

10. Ero arrai bat eskatzen badio, suga bat emango dionik?
11. Ba balin zuek, izanik gaiztok ero kasta gaiztokok badakizue gauza onak zuen semeai ematen, zenbait gauza on geiao zuen Aite zerukok emango ez die eskatzen dioenai?
12. Eta la eizazue beste gizon guzikin ak zuekin eitea deseaten dezuen guzie. Zeati au da Legen izatea, eta Profetana.
13. Sartu zaitzte ate melarreti; zeati ate zabala, eta bide zabalak die galdu eraiten dituenak, eta asko die andi sartzen dienak.
14. O zeñen melarra dan atea, eta zeñen estue betiko bizitza eaman eraiten don bidetxorra; eta zeñen gutxi dien hura asmatzen doenak!
15. Aparta zaitzte profeta falsotati, zeintzuk etortzen zaitzuen arku-manarrukin mozorro jantzik, baño barruti otso jale aundik die;
16. Euren frutu ero obratati ezautuko dituzue. Benturez elorritati bildutzen die matsak, ero sasiti pikuk?
17. Eta la arbola on guzik frutu onak emate itue; eta arbola txar guzik frutu txarrak emate itue.
18. Arbola on batek ezin eman daizke frutu txarrak; eta arbola txar bateke ez onak.
19. Frutu ona ematen ez don arbola guztie, ebaie ta surta botea izango da.
20. Ba euren frututati ezautu daizketzue.
21. Ezta, O Jaune, Jaune! esaten dien hura dana zerutako erreinun sartuko; baizik ne zeruko Aiten borondatea eiten dona, ori da zerutako erreinun sartuko dana.
22. Askok esango diate juizioko eun artan: Jaune, Jaune! ez deu ba guk asmatu zure izenen, eta milagro asko ein zure izenen?
23. Baño nik ordun esango diet: sekula etzaituet ezautu netzat: aparta zaitzte niandi gaiztotasunen beargillek.
24. Orreati ne konseju ok aitu ta eiten ditun erozeiñek, bere etxea arrin gañen ein zon gizon zuzen baten antza izango do,
25. Eta ein zon euri asko, eta errekek gañez ein zoen, eta eta zon aize gogorra, eta eman zion bulzada aundie etxe ari, baño etzan erori, arrin gañen eiñe zeolako.
26. Baño nik emate ituan konseju ok aitu ta eiten ez ditunak bere etxea arean gañen ein zon gizon ero baten antzekoa izango da;
27. Ein zon euri asko, eta errekek gañez ein zoen, eta aize gogorra eta zon, eta eman zion alako bulzadea etxe ari, nun eroi zan, eta aundie izan zan aren ruina.



28. Azkenen, Jesusek akabau zonen itzaldi au, aitzen zioen errik arri-tuk geatu zien aen dotrinekin.

29. Ba olako nausitasun soberano batekin eakusten zien, eta ez euren Erakustzalle ta Fariseok bezela.

ZORTZIGARREN KAPITULUE

Jesusek sendatzen do legentsu bat, Zeturionen morroi bat, eta San Pedron amaiarreba bat; ontzen do itxaso asarratue; eta sendatze itu deabruz betek.

1. Jesus menditi jatxi zanen, jende pilla aundi batek seitzen zion.
2. Ontan, legentsu batek hura ikusi zonen, adoratzen zon, esanez: Jaune, zuk nai baezu garbi naikezuke.
3. Eta Jesusek eskue luzatuta, ikutu zion, esanez: Nai det. Geldi zaiz garbitue. Eta bealaxe sendatue geatu zan bere legeneti.
4. Eta Jesusek esan zion: Beira gero eziozu iñoi esan, baño zoaz abadena, eta eskeñi ozu Moisesek aindu zon doie, testimoniostat izan dezen.
5. Eta Kafarnaunen sartzekin baten Zenturion bat eta zitzekon bidea, eta erreutzen zion;
6. Esanez: Jaune, ne morroi bat perlesik joa dao ne etxen oso erorie, eta guztiz asko padezitzen do.
7. Jesusek esaten dio: Ni jungo naiz eta sendauko et.
8. Eta Zenturionek erantzun zion: Jaune, enaiz ni digno zu ne etxen sartzeko, baño aindu zazu zure itzekin, eta ne morroie sendatue geatuko da.
9. Ba nike, bestean menden naon gizon bat besteik ez izanagaiti, bati esaten diot: Zoaz, eta juten da; eta besteri: Atoz, eta etortzen da; eta ne morroyi: Au ei zazu, eta eiten do.
10. Au aitu zonen Jesusek arritzen zalako aitzea eman zon, eta segitzen zioenai esan zien: Egiz esate izuet Israelen erdin e eziala arkitu orren fede aundik.
11. Ala nik aitortze izuet, etorko diela fedebaeko asko, euzkie jaiotzen dan ta sartzen dan aldeti, eta Abrahamekin, Isaakekin eta Jakobekin eongo diela maien zerutako erreinun.
12. Erreinuko semek (judiok) kanpoa illunpeta botak izango dien bitarten, an izango da nearra, eta ortzan karrask eitea.
13. Gero Jesusek esan zion Zenturioni: Zoaz, eta gerta zaitzula sinistu dezun bezela. Eta ordu artan bertan sendatue geatu zan morroie.

14. Jesus gero Pedron etxea junik, ikusi zon oian onen amaiarreba, kalenturekin.

15. Eta onen eskuri ikututa, kendu zitzekon kalenturea; orrekin beala jaiki zan oiti, eta ak serbitzen asi zan.

16. Artsaldea etor zanen, deabruz bete asko ekar zioen; eta be itze-kin espiritu gaiztok botatzen zitun; eta gaixo zeren danak sendau zitun.

17. Orrekin egitzen zala Isaias profetek antsinen esan zona, esanez: Berak be bizkar artu itu gure gaixotasunek, eta be gaiñ artu itu gure gaitzek.

18. Eun baten Jesusek be burue ikusik jende askoz inguratuik, Jenezaretko lagoko beste urertzera pasatzea pensau zon.

19. Eta lako Erakustzalle batek aldeatuik, esan zion: Maisue, erozeñ lekuta juten zala nik seituko izut.

20. Eta Jesusek erantzun zion: axarik baitue zulopek, eta zeruko egaztik apik; baño gizonan Semek ez dauke burue nun eatzik.

21. Be dizipulutako beste batek esan zion: Jaune, utzi ezu zuri seitu baño lenao ne aite enterratzen.

22. Baño Jesusek erantzun zion: Segiezu zuk, eta utzi ezu illai ero fedeko bizie ez doen jendeai enterra ditzela euren illek.

23. Sartu zan ba txalupa baten be dizipulukin baten.

24. Eta ona nun itxaso aunditu zan ainbeste, nun olatuk estaltzen zoen txalupea, baño Jesus lo zegon.

25. Eta be dizipuluk bereana arrimauta esnatu zoen, esanez: Jaune, salba gaitzetzu, ba galtzea goaz.

26. Esaten die Jesusek: Zen bildurre zue, o fede gutxiko gizonak? Ordun jaikik, aindu zien aizeai ta itxasori gelditu zitezela, eta izan zan onantz aundi bat.

27. Zeñez arrituik an zeren danak, alkarri esaten zioen: Nor da aizek eta itxasok obeditzen dioen au?

28. Jerasenoko errin leorreatu zanen lagon beste urertzen, jun zien aen billa, enterratuik zeren lekuti etaa ta, deabruz betetako bi ain kolera-tsuk nun iñor etzan atrebitzen bide artan pasatzen.

29. Eta beala asi zien deadarka, esanez: Ze eiteko deu guk zuekin, o Jesus Jaikon Semea? Gu pear baño lenao oñazatzeko asmokin ona etor za?

30. Andi gertu zeon txerritalde bat larrea jaten.

31. Eta deabruk erreutzen zioen modu ontan: Balin emendi botatzen bagaitzuz, bialdu gaitzetzu txerritalde orta.



32. Eta ark esan zien: Zoazte. Eta eurek irtenik sartu zien txerritan; eta ona nun txerritalde guzik korritu zon laisterka burkaintz bateti amiltzea Jenezaretko itxasora, eta uretan itok geatu zien.

33. Txerrizaiiek iges ein zoen; eta errira alleau zienen, dana kontau zoen, eta bateze deabruz betena.

34. Beala erri guzik irten zon Jesusen billa; eta ikusi zoenen, erreutu zioen zijola an erriti.

BEATZIGARREN KAPITULUE

Jesusek konfirmatzen do bere dotriñea milagro berrikin; perlesik jotako baten sendatzea; San Mateon bokazioa; libratzen do odol ustze bateti andra bat; piztu eraiten do Jairon alaba; sendatze itu bi itxu ta deabruz betetako mutu bat. Fariseon blasfemia; uzten ta langillen parbolea.

1. Eta txalupa sartuik, ibilli zan lagon, eta etor zan bera bizi zan erri-
ra ero dala Kafarnauna.

2. Eta ona nun presentau zioen oian etzine zeon perlesik jotako bat. Eta Jesusek ikusik aen fedea, elbarrituri esan zion: Ne semea izazu konfiantzea, ba barkau zaitzu zere pekatuk.

3. Zeñeati alako Erakustzalle batzuk zioen gero euren arten: Blasfe-
matzen do onek.

4. Baño Jesusek an pensamentuk asmatuik, esan zon: Zeati orren
gaizki pensatze zue zuen biotzetan?

5. Zer da gauza errexagoa, barkatze zatzu pekatuk esatea, ero jaiki
zaite ta zoaz esatea?

6. Ba jaki zazuen gizonan Semek badola pekatuk barkatzeko eskubi-
dea mundun, jaiki zaite: esan zion orduntxe bertan perlesik jota zeonai, ar
zazu zure oie, ta zoaz zure etxea.

7. Eta jaiki zan, eta etxea jun zan.

8. Au jende ikusi zoenen bildur santu bat eureenau zoen, eta Jain-
kori eman zioen glorie, alako eskubidea gizonai eman zielako.

9. Emendi abiauta Jesusek ikusi zon gizon bat aulki ero alkabalan
mai baten jarrira, Mateo zeitzona. Eta esan zion: Segiezu. Eta beala jaiki-
ta, seitu zion.

10. Eta gertau zan Jesus maien zeola Mateon etxen, arrendatzalle ta
bizi modu txarreko jende asko areana jutea, eta aekin ta bere dizipulukin
baten maien jarri zien.

11. Eta ikusi zoenen Fariseok, aen dizipuluai esaten zioen: Nola da
ba zuen Maixuk jaten dola arrendatzalle ta pekarikikin?

12. Baño Jesusek aitu zonen, esan zien: Ez doe sano darenak meiku
bearrik, baizik gaixo darenak.

13. Zoazte ba onako onek ze san nai don ikastea. Geiao estimatze-t
miserikordie sakrifizioa baño. Zeati enaiz ni justoi penitenzira otseita
etorri, baizik pekatariai.

14. Ordun Joanen dizipuluk Jesuseana presentau zien, eta esan zioen:
Ze motibo da, zure dizipuluk balur ez eiteko, Fariseok eta guk askotan
eiten deun bezela?

15. Erantzun zien Jesusek: Benturez gizonan aiskidek ibilli ditezke
estutuik ero nearrez gizona eurekin daon bitarten? Etoriko da senarra ken-
duko zaien garaie; eta ordun balur eingo doe.

16. Iñork ez dio oial berrizko arabakie botatzen soin berri bati; ba
bestela berrik urratzen do zarran parte bat, eta arrakara aundigoa eiten da.

17. Ez doe ardo berrie re zagi zarretan sartzen; zeati au eiten balin
bada zagie lertzen da, eta isurtzen da ardoa, eta galtzen die zagik. Baño
ardo berrie zagi berritan sartuta bata ta bestea konserbatzen die.

18. Konserbazio ontan zeon, gizon jauntxo bat ero Sinagogako ain-
tarie alleau zanen eta adoratuik, esan zion: Jaune, ne alaba bat ia illen dao;
baño atoz, aen gañen eskue ipin zazu eta biziko da.

19. Jesus jaikita segitzen zijoakion be dizipulukin,

20. Eta ona jun zitzeon atzetai andra bat, zeñek padezitzen zon odol
uztze bat amabi urte artan, eta ikutu zon aen soñen ertza.

21. Zeati ark bere arten esaten zon: Aen soñe ikutu bakarrik albade-
zat, sendaue arkituko naiz.

22. Baño Jesusek itzulik, eta beiratzen ziola esan zion: Alaba izazu
konfiantzea, zure fedek salbau zaitu. Eta la, orduntxe bertati andra hura
geau zan sendaue.

23. Jesus gizon jauntxo aen etxea etorta, ikusik flauta jotzallek ero
musika negargarrie ta jenden bullea, esaten zon:

24. Erretirau zaitetze, ba eztao umea ille, ezpada lo. Eta burla ein
zonen artaz.

25. Eta jendea kanpoa botata, sartu zan, eta artu zon eskuti. Eta
umea jaiki zan.

26. Eta gertaera ori banau zan erri artan guzin.

27. Jesus leku artati irten da, segitu zioen bi itxuk, deadarka, eta esa-
nez: Dabiten semea, erruki zaite guzaz.



28. Etxea alleau zanen, bi itxu presentau zitzekoen. Eta Jesusek esan zien: Uste zue nik ein daikeala eskatze zuen ori? Esaten dioe: Bai, Jaune.
29. Ordun ikutu zien begitan, esanez: Zuen feden gixa eiñe izan zai-kitsuela.
30. Eta iriki zitzairen begik, baño Jesusek debekau zien esanez: beira gero ez dezala iñork jakin.
31. Baño ak andi irten zoenen, ingurumari artan guztin kontau zoen.
32. Ok irten zoenen, deabruz betetako mutu bat presentau zioen.
33. Eta deabrue botata, itz ein zon mutuk, eta oso arrituta geatu zien jendek, eta esaten zoen: Ezta iñoize alako gauzaik ikusi Israelen.
34. Fariseok alrebes esaten zoen: Deabru prinzipen artekin botatze itu deabruk.
35. Eta Jesus zebillen erri aundi ta txiki guztitan sinagogatan eakusten, eta Jainkon erreinuko ebanjelioa eakusten, eta gaixotasun ta gaitz guztik sendatzen.
36. Eta jende ak ikusi zitunen, asko errukitzen zan ataz, zeati etzoen fin onik, emen ta an etzinek dabilzen artzai baeko ardi pezela.
37. Orren gañen esan zien dizipuluai: Egiz asko da uztea; baño langille gutxi.
38. Erreutu iozue ba uztan bateri, bialdu itzela langillek be uztaa.

AMARGARREN KAPITULUE

Amabi Apostolon einbidea; milagrok eiteko eskubidea, eta Jesusek eman zien istruziok.

1. Onen ondoren, be amabi apostoloai otseinta, espiritu gaiztok botatzeko, eta gaixotasun ta gaitz jenero guzik sendatzeko eskubidea eman zien.
2. Amabi Apostolon izenak die ok. Lenengoa, Simon, lonbretzat Pedro, eta Andres bere anaie,
3. Santiago, Zebedeon semea, eta Joan bere anaie, Pilipe ta Bartolo, Tomas ta Mateo arrendatzallea, Santiago Alfeon semea, eta Tadeo.
4. Simon Kananeo, eta Judas Iskariote, zaldu zona bera.
5. Amabi ok Jesusek bialdu zitun, ondorengo istruzio ok emanda: Etzaitzte jun oaiñ fedebaen lurrea, ez Samaritanoan erritan e sartu,
6. Baño zoazte lenao Israelgo etxeti galdutako ardin billa.
7. Zoazte ta predika zazue, esanez: Zerutako erreinue gertu daola.

8. Eta, zuen dotriñen prueban, senda itzetzue gaixok, piztu eraitzetzue illek, garbitzetzue legentsuk, botaitzetzue deabruk: emazazue doiez doiekin errezibitu dezuena.

9. Ezazue eaman erreik, sillarrik ero bate diruik zuen poltxikotan:

10. Ezta bideako alporjaik, ezta tunika bat eta pare bat zapata bes-teik-e, eta ezta zuen burue defenditzeko makilla ero beste armaik; zeati lan eiten donak defenditzea mezi do.

11. Erozeiñ erri ero aldean sartzen zatela, informa zaitzte zein dan gizon prestue ero zuek aen etxen alojatzeko onrea izan dezkena; eta eon aen etxen zuek andi abiau arten.

12. Etxen sartzen, zuen diosala izan bear da: Bakea izan bedi etxe ontan.

13. Ba etxek mezi balin bado, etorko zako bakea: baño ezpado mezi, zuen bakea zuekin itzulko da.

14. Ezpazaitue errezibitu nai, eta ez zuen itzeke aitu, alako etxeti ero erri irtetzen astinduitzetzue zuen oñetako autsek.

15. Egiz esateizuet Sodoma ta Gomorra baño gogorrao trataue izango dala alako errie juizioko eunen.

16. Beira gero nik bialtzen zaituela ardik otso tarten bezela. Orreati sugarrasak bezin prudentek, eta usoa bezin senzillok izan bear dezue.

17. Baño zabizte kontuz alako gizonakin. Ba tribunaleta salauko zaitzute, eta sinagogatan azotek emango izue;

18. Nere kausen mediante gobernadore ta erregean aurrea eamanak izango zate, ai, eta nazioai ne testimonioa emateko.

19. Baño an aurrea agertu eraite izuenen, ezdezazuela izan kuidadoik nola ero ze san bear dezuen; ba ordu artan bertan emana izango zatzue esan bear dezuena;

20. Zuek etzeaten kason ordun itz eiten dona, ezpada zuen Aiten Espiritue, zeñek itz eiten don zuekaiti.

21. Ordun anaie batek bestea entreauko do eriotza, eta aitek semea, eta semek aiten kontra jaikiko die, eta ill eango itue;

22. Eta zuek-uzikandi gorrotatuk izango zate ne izena dala median-te; baño aizken arte irauten dona, salbauko da.

23. Bianbitarten, erri baten persegitzen zaituenen, igeseizazue bestera. Egiz esateizuet, ez dituzuela Israelgo erri konbertituko, gizonan Semea etorri baño lenago.

24. Ezta dizipulue bere maisue baño lenao, ezta morroiare bere nau-sie baño.



25. Asko zako dizipuluri, bere nausie bezela trataue izatea; eta morroiei bere nausie bezela. Balin familitako bururi Beelzebub deitzen badioe, zenbaitez geiao aen etxekoai?

26. Baño ezdezaiozuela orreati bildurrik izan. Zeati ezerre eztao estalik, agertu bear ez donik; ezta ezkutatuike, jakingo eztanik.

27. Gauetz esaten dizuteana, eun argiz esa zazue; eta belarrira esaten dizuteana, etxe gañetati predika zazue.

28. Eziezue bate bildurrik izan gorputze iltzen doenai, eta animea ezin il donai; izaiozue bildur geiao gorputze ta animea infernua bota daizkenai.

29. Ezta la bi txori saltzen diela koarto baten? eta lare ez bat eta ez beste eztiela eroiko lurrea zuen aitek aindu bae?

30. Zuen buruko ille guztitaño dare kontatuk.

31. Ez dezue ba bildurrik izan bear; txori asko paño geiao zuek balio dezue.

32. Aizkenen, gizonan aurren Mesiazat ezautu ta aitortzen nauen hura guztie nik-e ezautuko et eta aen alde izango naiz ne Aiten aurren, zein daon zerutan;

33. Baño ukatzen dienai gizonan aurren, nike ukauko diot ne Aiten aurren, zein daon zerutan;

34. Ez dezue pensau bear ni etor naizela lurrea bakea ekartzea, baidzik gerrea;

35. Ba etor naiz semea be aiteandi apartatzea, eta erreñe be amaia-rrerbandi.

36. Eta gizonan kontrariok ber bere etxekok personak die.

37. Ama ero aite ni baño geiao maite donak, ez do nerea izatea mezi; eta semea ero alaba ni baño geiao maite donak-e, ez do mezi nerea izatea.

38. Eta be kurutzekin kargau ta seitzen ez diena ezta ne gogokoa.

39. Animen kostura be bizie konserbatzen donak, galduko do bizie; eta nereanako amorioagaitik be bizie galtzen donak, arkituko do berriz bizie.

40. Zuek errezibitzen zaituenak, ni errezibitze nau, eta ni errezibitzen nauenak, ni bialdu nauen hura errezibitzen do.

41. Profeta bati ostatue ematen dionak profetea dalako, profeten sarie errezibituko do; eta justo bati ostatue ematen dionak justoa dalako, juston eskerra izango do.

42. Eta erozeiñek ematen diola eraten baso bat ur fresko txikitxo otako bati ne dizipulue dalako bakarrik, emateizuet itze, ez dola galduko aren sarie.

AMAIKAGARREN KAPITULUE

*Joan Batistak bialtzen dio Jesusi be dizipulutako bi; okasio ontan
Jesusek be aitzalleai esan ziena Joanen gañen; erri sinisgorrak;
Jaunen uztarrie suabea da.*

1. Nola Jesusek akabau zon istruzio ok ematez be amabi dizipuluai, jun zan andi euren erritan eakutsi ta predikatzeke.

2. Baño Joane aitua zitunen karzelan Kriston obra arrigarrik, bialdu zitun bere dizipulutako bi galdetzea:

3. Zu za etorri bear don Mesias, ero beste bati itxon bear diou?

4. Zeri Jesusek erantzun zion: Zoazte ta kontaiozue Joani aitua ta ikusi ezuea.

5. Itxuk ikusten doe, errenak badabiltz, legentsuk garbituk geatzen die, gorak aitzen doe, illek pizten die, ebanjelion berrie ematen zaie pobrei;

6. Eta zorionekoa niaz eskandaloako okasioa artzen ez don hura.

7. Ok jun zien ordun, Jesus asi zan Joanen gañen itz eiten, eta esan zion erriri: ze ikustea irten zenduen basamortura? Erozeiñ aizek mogitzen don kañaberan bat ikustea?

8. Bestela ezaiezue, zer ikustea irten zenduen? Gizon bat lujos ero ergelkeriz jantzie. Badakizue orla jazten dienak, erregen palaziotan darella.

9. Baño, ze ikustea irten zenduen? Profetan bat? Ori bai, nik asegu-razteizuet, eta profetea baño askos e aundigoa.

10. Ba hura da zeñeati eskribitue daon. Beira gero nik bialtzen diala aingeru bat zure aurrea, zein jungo dan zure aurreti bidea maneaten dizulaik.

11. Egiz esateizuet, andratati jaio dien semetan inorre ezuala izan Joan Batista baño aundigoik; naiz zerutako erreinun daon txikina, hura baño aundigo izan.

12. Eta Joan Batistan denboratik oaiñ arteaiño, indarran medioz iritxitzen da zerutako erreinue, eta ber beretzat eiten doenak die irabazten doenak.

13. Zeati profeta danak, eta legek Joaneaiño, aierain zoen etorkizune;

14. Eta entenditu nai baezue, hura bera da etor bear zon Elias hura.

15. Belarrik entenditzeko dauzkenak, aidezala.



16. Baño gizon kasta ok nokin konparau itut nik? Dirudi plazan jarri-ta daren mutillan antza, zeintzuk euren launetako batzuai otseinta,

17. Esaten die: kanta alegrek entonau dizueu, eta ez dezue dantzarik egin; kanta tristek-e bai, eta ez dezue nearrik ein.

18. Eta la da, etor zan Joan, zeñek ez jan ta ez eran eiten zon, eta esaten doe: Deabruk artue dao.

19. Etor da gizonan Semea, zeñek jan ta eran eiten don, eta esaten doe: Ona men tripontzi bat, eta ardo erale bat; arrendatzallen ta bizimodu txarreko jenden aiskidea. Baño jainkozko jakindurie justifikatue dao bere semekiko.

20. Ordun asi zan lotsaien ematen milagro asko ta asko ein izan zitun erriai, zeati etzoeen ein penitenzie.

21. A zorigaiztoko Korozain! O zorigaiztoko Betsaida! Balin zuetan ein dien milagrok Tiron ta Sidonen ein bazien, aspaldi eingo zoen penitenzie, autsez ta zilizioz eztaik.

22. Orreati esateizuet, Tiro ta Sidon eztiela zuepeziñ gogor tratatuk izango juizioko eunen.

23. Eta zuk Kafarnaun, pensatze zu benturez zeruraño jaikitzea? Izango za, bai, infernutaño beratue; ba, zuan ein dien milagrok Sodomian ein bazien, Sodomak apike gaur dan eunen iraungo zon.

24. Orreati esateizut, Sodomako errie ezta izango zu bezin gogor kastigae juizioko eunen.

25. Denbora artan deadar ein zon Jesusek esanez: Nik glorifikatzen zaitut nere Aite, zeruko ta lurreko Jaune, gauza ok ixilik euki diezulako oaingo gizonan denborako jakintsu ta prudenteai, eta erakutsi diezu txikitxoai.

26. Bai, nere Aite, alabatue izan zaite, zuk onitzi diozulako ala izan deilla.

27. Ne Aitek gauza guzik ne eskutan ipini tu. Baño iñork ez do ezautzen Semea, ezpada aitek, eta ez do Aitere iñork ezautzen baizik Semek, eta Semek ezautu erain izan dion ark.

28. Atozte nereana lanakin ta kargakin makurtuik zabizten guziok ba nik arinduko zaituet.

29. Ar zazue nere uztarrie zuen gañen, eta ikasi zazue niandi, ba mantsoa ta biotzez umille naiz; eta zuen animantzat arkituko ezue atxena.

30. Zeati nere uztarrie suabea da, eta nere kargea ariñe.

AMABIGARREN KAPITULUE

Jesukristok defenditze itu bere dizipuluk fariseon murmurazion gañen zapatue gordetzen zoelako; sendatzen do eskue igartue zeuken bat; eta deabruz betetako mutu ta itxu bat. Itz eiten do Espiritu Santun kontrako pekatun gañen. Jonasen milagroa. Egoialdeko Erreñea.

1. Denbora artan, zapatuko eunen Jesus zijoala ereñ batzun ondoti, bere dizipuluk gosea izanta asi zien gari buruk artu ta bikorrak jaten.

2. Eta Fariseok ikusi zituenen, esan zioen: Beira zure dizipuluk eiten doela zapatun libre ezta.

3. Baño ark erantzun zien: Ez dezue leitu Dabitek ein zona, bera ta bekin zijotzen lagunek gosek larrituik euren buruk ikusi zituenen?

4. Nola sartu zan Jainkon etxen, eta jan zitun proposizioko ogik, zeintzuk ezin jan zeizketen ez ark eta ez aenak, ez pada abadek bakarrik?

5. Ero ez dezue legen leitu abadek elizan lan eiten doen zapatun; eta la guziz e ez doe pekatuik eiten?

6. Ba nik esateizuet, emen daola elizea baño aundigoa dan bat.

7. Ba zuek balin bazekizue ondo ze san nai don. Naigo et miserikordie sakrifizioa baño. Beñe etzituzuen inozentek kondenauko.

8. Zeati gizonan Semea zapatun jabea re da.

9. Andik irten da, euren sinagogan sartu zan;

10. Nun arkitzen zan esku bat igartue zeuken gizon bat; eta Jesusi galdetu zioen salatzeke motiboa arkitzeagaiti, libre zan zapatuko eunen sendatzea?

11. Baño ark esan zien: Zein gizon izango da zuetan, ardi bat izan, eta balin au erreten batea eroitzen bada zapatuko eunen, jaso ero kanpora etako ez dona?

12. Ba zenbait geiao balio do gizon batek ardi bate paño? Beraz libre da ondo eitea zapatuko eunen.

13. Ordun esan zion gizonai: Luza zazu esku ori. Luzau zon, eta beste eskue bezin sendae geau zitzekon.

14. Baño fariseok irtenta, juntau zien aen kontra sesiok billatu, eta hura galtzeko.

15. Baño Jesusek igarri zionen erretirau zan; eta gaixo askok seitu zioen, eta danak sendau zitun.

16. Ainbeste bider esanez etzezela agertu.

17. Zekin kunplitu zan Isaiasen profezie, zeñek dion:



18. Ikusi zazue or ne mendekoa, zein daukean nik autue, ne maitea, zeñean pozez bete dan nere animea. Onen gañen ipinko et ne espiritue, eta nazioai aitu eraingo die justizie.

19. Ez da iñokin porfiauko, ez do ogik eingo, eta ez do iñork aituko aren bozik ero deadarrrik plazatan.

20. Ezta zatituko kañabera ausie, ezta itzaltzez e akabauko oaindi kea botatzen don metxea, bere kausen justiziri triunfau erain arte.

21. Eta aren izenen Naziok ipinko doe euren esperantzea.

22. Denbora artan izan zitzekeon eamana deabruz bete bat, itxue, eta gorra, eta ber bertati itz ein ta ikusteko modun sendau zon.

23. Zekin erri guztie arritue geatu zan, eta esaten zon: Au izango ote da Mesias Dabiten Semea?

24. Baño Fariseok aitui, esaten zoen: Onek ezditu deabruk botatzen, Beelzebub deabruan prinzipen bitartez ezpada.

25. Ordun Jesusek igarrik zer zeuken gogon, esan zien: Euren kontrako puskatan partitzen dan erreinu guztie, galdue izango da; eta erozeiñ erri ero etxe bandotan partituke, ez do iraungo.

26. Eta Satanasek kanpoa botatzen bado Satanas, bere burun kontrakoa da; nola ba iraun daike aen erreinuk?

27. Nik botatzen baitut deabruk Beelzebuben izenen, zuen semek, zeñen izenen botatze itue? Orreati orik eurek izango die zuen juezak.

28. Baño nik deabruk botatzen baitut Jainkon espiritun birtutez; emendi dator iñolaze Jainkon erreinue ero Mesias zueta alleau dala.

29. Ero bestela, esaezue: nola da posible sartu deilla bat gizon azkar baten etxen eta ostu deiola bere ondasunek, ezpado lenengo azkarra ondo lotzen? Ordun sakeau dezaioke etxea.

30. Ne alde eztaona, ne kontra dao; eta nekin bitzen ez donak, sabal-tzen do.

31. Orreati aitortzeizuet: erozeiñ pekatu ta erozeiñ blasfemi barkauko zaiela gizonai, baño Jainkon espiritun kontrako blasfemie ezta aiñ errez barkauko.

32. Eta igoal gizonan Semen kontra itz eiten don erozeiñi, barkauko zako; baño Espiritu Santun kontra, onen grazie despreziatuz itz eiten donai, etzako barkauko ez bizitza ontan ta ez besten.

33. Ero bestela ezazue arbolea ona dala, eta ona aen frutue, ero arbolea txartat badaukezue euki zazue aen frutue re txartat; frututi ezautzen dan kason nolako arbolea dan.

34. O ziraun kastak! Nola da posible zuek gauza onik esatea, izanik, zaten bezela gaiztok? Biotzeko ugaritasuneti auak itz eiten don ezker.

35. Gizon onak be biotzeko fondo oneti gauza onak etatze itu; eta gizon gaiztok be fondo txarreti gauza gaiztok etatze itu.

36. Nik esateizuet, gizonak esate ituen erozeiñ itz alperren kontue re eman bearko doela juizioko eunen.

37. Ba zure itzetati justifikatue izan bearko ez, eta zure itzetati kondenatue.

38. Ordun Erakustzalle ta fariseotako batzuk itz ein zioen, esanez: Maixue, milagron bat eiten ikusi nai zindukeu.

39. Baño ark erantzun zien: Jende txar ta adultera onek milagro bat eskatzen do; baño etzako emango eskatzen dona, baizik Jonas profeten milagroa.

40. Zeati Jonas balen sabelen iru eun ta iru gauen eon zan bezela, gizonan Semeare eongo da iru eun ta iru gauen lurren barrun.

41. Ninibetarrak jaikiko die juizioko eunen gizon kasta onen kontra, eta kondenauko doe; Jonasen predikazioz eurek penitentie ein zoelako. Eta lare emen daona Jonas baño geiaoa da.

42. Egoialdeko Erregiñea izango da gizon kasta gaiztoko onen kontrako salatzallea juizioko eunen, eta kondenau do; lurren azkeneko ertzetati etor zan ezker Salomonen jakinduri aitzea, eta lare emen daukezue Salomon baño aundigoa dana.

43. Gizonen bateti irten donen espiritu gaiztok, bateti bestea dabil leku leorretan, be jarlekue nun eingo don billaka, iritxi bae.

44. Ordun esaten do: Itzuliko naiz ne etxea etor naizen bideti. Eta arutza itzulik billatzen do utsik, ondo garbitue ta apaindue.

45. Orrekin juten da, ta artze itu bekin beste zazpi espiritu bera baño gaiztogok, eta an sartuta bizitzen die; eta la gizon onen aizkeneko estadiue lenengona baño errukigarrigoa izatea dator. Ala gertau bear zako gizon kasta gaiztiz biurri oni.

46. Oaindike Jesus izketan ai zan errikokin, eta ona nun be ama ta anaiek zeren kanpon bekin itz ein naien.

47. Eta la batek esaten zion: Beira zure ama ta zure anaiek an kanpon darella zure galdez.

48. Baño ark esaten zionai erantzunez esan zion: zein da ne ama, eta zeintzuk die ne anaiek?

49. Eta bere dizipuluk eskukin eakutsiz: Ok, esan zon, die ne ama, eta ne anaiek.

50. Zeati ne Aite zerutan daonan borondatea eiten don erozeiñ, ne anaie, ne arreba, eta ne ama da.



AMAIRUGARREN KAPITULUE

Predikatzen do Jesusek parabolatan, eta esplikatzen die parabolak Apostoloai; mostaza bikorren, beantzagin, gordetako ondasunen, perla ederran, eta arraiez betetako saren parabolak. Profetea onoreik bae bere jaioterrin.

1. Eun artan Jesus be etxeti irtenda, jun zan ta jarri zan itxas ertzen.
2. Eta lako jende pillea juntau zan aen inguramarin, nun sartu bear izan zon txalupa baten, eta an jarri; eta erri guztie urertzen zeon.
3. Zeñi gauza askon gañen itz ein zion parabolatan bitartez, esanez: Irten zon bein baten ereiñtzalle batek ereitea.
4. Eta bikorrak banatzen, batzuk, biden ondoren eroi zien, eta zeruko egaztik etorrita jan zituen.
5. Beste batzuk arritartetan eroi zien, nun zeon lur gutxi; eta beala irten zoen, txit lur gañen zerelako.
6. Baño euzkie jaio zanen erre zien; eta igartu zien, bate zuztarrak kasi etzoelako.
7. Beste bikor batzuk antzartaren eroi zien, eta azi zien antzak, eta ito zituen.
8. Beste batzuk aizkenen eroi zien lur onen, eta eman zoen frutue, buru batek eun, beste batek irurogei, beste batek oetamar eta la.
9. Belarrik dauzkenak entenditzeko, aidezala.
10. Gero arrimatui bere dizipulak galdetzen zioen: Zeati itz ein diezu parabolaz?
11. Zeñek erantzun zien: Zeati zuei eman zaitzuen zerutako erreinuak misteriok ezautzeko pribilejioa; eta etzaie eman ai.
12. Egie dalaik bear dona daukenai oaindik geiao eman bear zakola, eta sobratue izango do; baño bear dona ezdaukenai, kenduko dioe daukena re.
13. Orreati parabolakin itz eiten diet, zeati eurek ikusita ez doe beiraten ez doe konsideratzen; eta aituta ez doe kasoik eiten, eta ez entenditzen.
14. Zekin datorren otan kunplitzea Isaiasen profezie, zeñek dion: Aituko ezue zuen belarrikin, eta ez dezue entendituko; eta zuen begikin beiratu ala guzigaiti, ez dezue ikusko.
15. Zeati erri onek gogortu do bere biotza, eta itxi tu bere belarrik, eta estali be begik akin ikusi ez dezaten, eta belarrikin aitu ez dezen, eta

biotzakin ez entenditzeagaiti, konbertituta, nik osasune emateko bildurrez.

16. Zorionekok zuen begik ikusten doelako, eta zorionekok zuen belarrik aitzen doelako.
17. Ba egiz esateizuet, profeta ta justo askok izan zoela ikus nai aundie zuek ikusten zatena ikusteko, eta etzoeu ikusi; eta aitze zuena aitzeko, eta etzoeu aitu.
18. Ai zazue oaiñ ereintzallen parabolea.
19. Erozeiñek aitzen bado Jainkon erreinuko ero Ebanjelioko itze, eta ezpado artan atenzio ipintzen, etortzen da espiritu gaiztoa ta kentzen dio be biotzen ereiñe izan zan hura; au da bide ondoren ereiñe.
20. Lur arritsun ereiñe da, Jainkon itze aitu, eta ordun beintzet pozez errezibitzen don hura;
21. Baño ez do bere barrun zaiñik, ez pada gutxi irauten do; eta tristurea ta persekuzioa etorri ezkeron itzen ero Ebanjelion medioz, beala onek serbitzen dio eskandalotzat.
22. Antza tarten ereiñe da, Jainkon itze aitzen dona, baño mundu ontako kuida duk eta aberastasunen engañoik, itotzen doe, eta geatzen da frutu bae itze.
23. Alrebes, lur onen ereiñe da Jainkon itze aitu, eta meditatzen dona, eta frutue ematen dona, batek eun, bestek irurogei, eta bestek oetamar.
24. Beste parabola bat proponitu zien esanez: Zerutako erreinue bere barrutin azi ona ereiñ zion gizon baten antza do;
25. Baño gizonak lo eiteko garaien, etor zitzekon alako etsai bat, eta garin erdin zalkea ereiñ ta jun zan.
26. Garie belartue zeola, eta ia burue irtenen, agertu zan zalkeare.
27. Ordun familietako aiten morroiek etor zitzekon, eta esan zioen: Jaune, etzendun azi ona ereiñ zure barrutin? Ba nola dauke zalkea?
28. Erantzun zien: Ne etsaien batek ereingo zon. Morroiek berriz erantzun zioen: Naizu bitzea jun gaitzen?
29. Zeri erantzun zion: Ez, zalkekin baten garie re kentzea gertau ez deiñ.
30. Utzitzetzue azitzen bat eta beste itako denbora arte; eta itako garaien ni esango diet itariai: Bitu zazue zalkea lenengo, eta eitzetzue arekin azaok suntzat, eta gero sartu zazue garie ne graneron.
31. Beste parabola bat proponitu zien esanez: Zerutako erreinue mostaza bikor baten antzekoa da, zeñi artu zion gizon batek be eskun ta be barrutin ereiñ zion.



32. Zein dan txikina beste azi guzin tarten: baño azi ezkeru, beste belar planta guzizaño aundigoa eiten da, eta arbola eiten da, eta zeruko egaztik jatxi ta aen adarretan atxeten doe.

33. Eta gañea parabola au esan zon. Zerutako erreinue beantzagin antzekoa da, zein artu zon andra batek eta nastu zon iru zakutxo ero imillaun iriñekin, ore guztie jaikie geatu arte.

34. Gauza ok-uzik esan zion Jesusek erriri parabolatan, ba o pae etzon predikau oi.

35. Profetek esan zona kunplitud: Ne aue irikiko et parabolakin itz eiteko, mundue ein zaneti ixilik eon dien gauza misteriosok ai eraingo itut.

36. Ordun Jesus, aitzallek despeituta, etxea itzuli zan; eta be dizipuluk erdin artuik, esan zioen: Esplikaiuzu barrutin ereindako zalken parabolea.

37. Jesusek erantzun zien: Azi ona ereiten dona gizonan Semea da.

38. Barrutiek mundue da. Azi ona erreiko semek die. Zalkea espiritu gaizton semek.

39. Ereñi zon etsaie, deabrue da. Itea mundun aizkena da. Itarik aingeruk die.

40. Zalkea bitu ta surtan erretzen dan bezela, mundun aizkenen gertauko da.

41. Gizonan Semek bialduko itu aingeruk, eta kenduko itue eskandalo guztik, eta gaizki eiten doen guztik aen erreinuti.

42. Eta botako itue suko laben. An izango da nearra ta ortzan karrask eitea.

43. Denbora artan bertan justok drist ingo doe euzki pezela euren Aiten erreinun. Entenditzeko belarrak dauzkenak, aidezala.

44. Zerutako erreinuk barrutin ezkatutue daon ondasunen antza re do, zein gizon batek arkitzen bado, berriti estaltzen do, eta pozez beteik arkitu donez, juten da, eta saltzen do dauken guzie, eta erosten do barruti hura.

45. Zerutako erreinue da re perla fiñekin tratatzen don merkatarin antzekoa.

46. Eta eskuta etorrik balio aundiko bat, juten da, eta saltzen do dauken guztie, eta erosten do balio aundikoa.

47. Zerutako erreinuk bado txinga baten antzare, zeñek itxason botata bitzen ditun arrai jenero guzik.

48. Zein, beteik badao, etatzen doe arrantzalek, eta urertzen jarrita, aututze itue onanak eta sartze itue euren saskitan, eta botatze itue kalidade txarrekok.

49. Ala gertauko da mundun aizkenen; irtengo doe aingeruk, eta juston arteti apartauko itue gaiztok.

50. Eta botako itue suko laben; an izango da nearra, eta ortzan karrask eitea.

51. Ondo entenditu ituzue gauza ok-uzik? Bai, Jaune, erantzun zioen.

52. Eta ark gañea esan zon: Orreati erozeñ jakintsu ondo ikasik, zerutako erreinuri daokionez, komeni dan bezela gauza berrik eta zarrak be repuestoti etatzea dijon familitalako aite baten antza do.

53. Jesusek parabola ok akabau zitunen, jun zan andi.

54. Eta be errira junta, jarri zan bere erritarran sinagogatan eakusten, alako modun nun etzien geatzen arritez, eta euren arten esaten zoen: Nundi etor zako oni orlako jakindurie, eta olako milagrok?

55. Benturez, ezta au artesano ero arotzan semea? Maria deitzona ezta onen ama? Onen anaiek ez die Santiago, Jose, Simon ta Judas?

56. Eta bere arreba danak ez die gure arten bizi? Ba nundi etorko zako gauza ok-uzik oni?

57. Eta eskandalizatuk bezela zeren artaz. Baño Jesusek esan zien: Ezta profetaik onra bae, ezpada be errin; eta be etxen.

58. Eta la milagro gutxi ein zitun, euren sinistezan medioz.

AMALUGARREN KAPITULUE

Joan Batistan eriotzea; bost ogin milagroa; Jesus ibiltzen da ta San Pedroi ibili eraiten dio itxasoko olatun gañen; eta sendatze itu presentatzen zakon ero bere soñei ikutzen dioen gaixo guzik.

1. Denbora artan Herodes tetrarkak aitu zon famek zabaltzen zona Jesusen gañen.

2. Eta esan zien be gizon kortesai: Au Joan Batista, zein berriz piztu dan illen arteti, eta orreati do ark milagrok eiteko birtute ain aundie.

3. Jakin bear dezu Herodesek preso artu zola Joan, eta katekin lotue kartzelan sartu zon Herodesen koñata zala mediante.

4. Zeati Joaneke esaten zion: Etzaitzu libre andratat izatea.

5. Eta Herodesek ill erain nai zon, baño etzan atrebitzen errin bildurrez. Zeati danak profetatat zeuken Joan.

6. Baño Herodesen urtebetetzen zebridaden Herodiasen alabak irten zon korten erdira dantza eitea; eta ainbeste gustau zitzekon Herodesi,



7. Nun aindu zion juramentun azpin eskatu zeikion erozeiñ gauza ematea.
8. Orrekin ark, be amandik lenago prebenitue, esan zion: Ekatzu fuente ero plater ontan Joan Batistan burue.
9. Tristetu zan errege; baño ala re ein zon juramenturi, eta konbi-dauai beiraturaz, aindu zon emateko.
10. Eta la aindu zon Joani kartzelan lepoa ebaitzeko.
11. Bealaxe izan zan fuente baten ekarrie aen burue, eta neskei emanda, onek presentau zion be amai.
12. Be dizipuluk gero jun zien gorputzen billa, eta enterrau zoen, eta jun zien Jesusi esatea.
13. Ba Jesusek aitui Herodesek areati esan zona, erretirau zan andi leku uts batea itxasoz, erriti kanpora; baño igarrik jendek, irten zoen euren erritati, lurrez oñez seituz.
14. Eta Jesusek txalupati irten zonen ainbeste jende ikusita, lastimau zan, eta bere gaixok sendau zitun.
15. Illuntzen, be dizipuluk alleau zien, esanez: Leku utse da, eta beandu, bialdu itze jende orik errita dijoatzela zer jan erostea.
16. Baño Jesusek esan zien: Ez doe jun bearrrik, emaeizue zuek jaten.
17. Zeri erantzun zioen: emen ez deu bost ogi ta bi arrai besteik.
18. Esan zien ark: Ekatzue onutza.
19. Eta danak belarran gañen jarri eraiñik, artu zitun bost ogi ta bi arraiek, eta zerura begik jasota beinkau zitun, eta partitu zitun, eta eman zien dizipuluai ogik, eta dizipuluk jenderi.
20. Eta danak jan zoen eta ase zien, eta sobrau zaneti bitu zituen amabi saski puzkaz betek.
21. Bos milla gizon zien jan zoenak, emakumak eta umeik kontau bae.
22. Bealaxe Jesusek obligau zitun bere dizipuluk enbarkatu, eta lagon beste aldera jun ta an itxotea, errik despeitzen zitun bitarten.
23. Eta ok despeitu zitunen, igo zan bakarrik mendi baten punta orazioa eitea, eta illundu zonen an eon zan bakarrik.
24. Bianbitarten olatu gogorrek jotzen zoen itxaserdin zeon txalupea kontrako aizea zeolako.
25. Gaueko laugarren bela alleau zanen Jesus eureta etor zan itxas gañen.
26. Eta dizipuluk ikusi zoenen itxas gañen zebilela, nastu zien, eta esan zoen: Izugarri bat a. Eta bildurrez beteik asi zien deadarka.

27. Beala Jesusek itz ein zien, esanez: Anima zaitezte, ni naiz, ezazue bildurrik izan.
28. Eta erantzun zon Pedrok: Jaune, zu baza, ainduiezu zureana uran gañen juteko.
29. Eta ark esan zion: Atoz. Eta Pedro txalupati jatxita, ur gañen zijon Jesuseana alleatzeko.
30. Baño ikusik aizen indarra, bildurtu zan, eta gero ondatzen asi zanen, deadarrak ein zitun esanez: Jaune, salba nazu.
31. Puntuko Jesusek, eskue luzatuik, artu zon besoti, eta esan zion: Fede gutxiko gizona, zeati ikatu za?
32. Eta txalupa igo bezin laister, geatu zan aizea.
33. Eta barrun zerenak, arrimau zitzekon, eta adorau zoen, esanez: zu za egiz Jainkon Semea.
34. Gero lagona atrabesau ta, Jenesaretko lurreko urertzen jatxi zien.
35. Eta an bizi zienak, hura ezautu bezin laister banau zoen notizie inguru artako erri guztitan, eta gaixo guztik ekarri zioen.
36. Eta be soñei ikutzea beste grazik etzioen eskatzen. Eta ikutu zioen guztik sendauta geatu zien.

AMABOSGARREN KAPITULUE

*Kondenatze itu Jesusek Jainkozko agintzakin konforme ezta-
zarretati datozten oitura umanok. Sendatzen do Kananean alaba
zeñek dirudin fede aundi bat daukela; eta ematen dio jaten jende
pilla aundi bati basamortun zazpi ogi ta arraien batzukin.*

1. Denbora ontan Jerusalendi jun zien alako Erakustzalle ta Fariseo batzuk esan zioen:
2. Zer dalako zure dizipuluk ausitze itue zarran oituerak, jaten do-
nek eskuk garbitu ezta?
3. Eta ark esan zien: Eta zeati zuek eurok ausitze zue Jainkon man-
damentue zuen oituereta seitzeagaiti? Ba Jainkon esana dauke.
4. Honraitzetue aite ta ma, eta baita re, gurasoai maldezitzen diona,
eriotza kondenaue izan bedi.
5. Baño zuek diozue: Erozeiñek esaten diola aitei ero amai: Nik ne
parteti eskeiñtzen dian ofrendea zure onen izango da.
6. Ez dezue geiao aite ta ma onratzeko ero ai launtzeko obligazioik,
zekin ausi dezuen Jainkon mandamentue zuen oituerekin.
7. Hipokritak! arrazoiakin asmau zon Isaiasek zuetaz, esanez:



8. Erri onek espaneekin onratze naue; baño be biotza niandi urruti dao.
9. Alperrik onratze naue, gizonan dotriñea ta mandamentuk erakutsiz.
10. Eta bereana otseiñta erriai esan zien: Aituiezue, eta ondo atendi-tu oni,
11. Ez do auti sartzen danak zikintzen gizona; baizik auti etatzen danak.
12. Ordun geiao arrimatuik bere dizipuluk, esan zioen: Ez dakizu Fariseok eskandalizau diela oaiñ akabau dezuna aituta?
13. Baño Jesusek erantzun zon: Ne zeruko Aitek aldau ez don plan-ta guzie zuztarreti etarea izango da.
14. Utzizue: eurek die itxun itxuurreko batzuk; eta itxu bat beste itxu baten giari jartzen bada, bik erretenen eroitzen die.
15. Emen Pedrok itze artuta esan zion: Esplikaiuzu parabola ori.
16. Zeñi Jesusek erantzun zion: Ze! Zuek-e orren ezauera gutxikin zate oaindik?
17. Ez dezue ba ezautzen auan sartzen dan guztie sabelea dijola, eta leku ezkututan botatzen dala?
18. Baño autik irtetzen dona, biotzeti dator, eta ori da gizona zikin-tzen dona.
19. Zeati biotzeti datoz pensamentu txarrak, gizoniltzek, adulteriok, neskaketak, ostutzek, testimonio falsok, blasfemik.
20. Gauza o pai zikintzen doela gizona. Baño eskuk garbitu bae jatek, ez do zikintzen.
21. Jesus emendi abiatuta, erretirau zan Tiro ta Sidongo lur aldea.
22. Eta ona nun Kananeko andra bat andi etorrik deadarka asi zan, esanez: Jaune, Dabiten semea, erruki zaiten niaz; ne alaba demonioz guz-tiz gogor oñazatue dao.
23. Jesusek etzion itzik erantzun. Eta be dizipuluk aldeatuta erreu-tzen zioen esanez: Emaiozue eskatzen dizuna emendi dijoan; zeati gure atzeti deadarka dator.
24. Zeñi Jesusek erantzunez esan zion: Ni enaiz bialdue Israelko etxeko ardita baizik.
25. Eta lare andra hura alleau zan ta adoraun zon, esanez: Jaune, soko-rri nazu.
26. Zeñek erantzun zion: Ezta justoa semea ogie artuta txakurrai botatzea.

27. Baño andrekin esan zion: Egie da, Jaune, baño txakur txikik bein-tzet euren nausian maiti eroitzen dien ogi apurretati jaten doe.
28. Jesusek ordun erantzunez, esaten dio: O, andrea! andie da zure fedea, ein bedi zuk nai dezun bezela. Eta ordun artan bertan be alaba sen-dae geau zan.
29. Jesus andi pasau zan Galileako itxason urertzea, eta mendi batea igoik, jarri zan an.
30. Eta bereana alleau zien jende asko, eurekin zeramatzela mutu, itxu, erren, elbarri ta beste gaixo asko ta ipin zituen be oñetan, eta sendau zitun.
31. Ala ba jendeke arrituik zeren, mutuk izketan, errenak ibiltzen, eta bistekin itxuk ikusita, eta glorifikatzen zoen Israelgo Jainkoa.
32. Baño Jesusek, be dizipuluai otsein da, esan zon: Errukitze naue erri ok, zeati iru eun ontan nekin dare, eta ez doe zer janik, eta ez ditut despeitu nai balurrik biden gosek il ez ditzen.
33. Baño be dizipuluk erantzun zioen: Nola arkitu daizkeu leku uts ontan ainbeste jende asetzeko ogik asko?
34. Jesusek esan zien: Zenbait ogi dauzketzue? Erantzun zoen: Zazpi, arraitxo batzukin.
35. Ordun aindu zion jenderi jarri zeilla lurren.
36. Eta berak zazpi ogi ta arraiek artu, eskerrak eman ero orazioa eginda partitu zitun eta eman zien be dizipuluai, eta dizipuluk erriri.
37. Eta dana jan zoen, eta ase zien. Eta sobrau zien puskakin, zazpi saski bete zituen.
38. Lau milla zien jan zoenak, umek eta emakumak kontau bae.
39. Orrekin, atati despeituik, sartu zan txalupan, eta jun zan Maje-damgo lurrea.

AMASEIGARREN KAPITULUE

Fariseok eta Saduzeok nastuk, euren dotriñen galtzea. San Pedron konfesioa ta aren pribilejioa, zein andi puxkabatea bear bezela lotsaien emana dan.

1. Emen etorri zien Jesus billatzea Fariseok eta Saduzeok; eta zirika-tzeati, eskau zioen ikusi erain zeila zeruko milagron bat.
2. Baño ark erantzun zien: Gaue alleatzen dijonen batzutan esate zue; denbora ona eingo do, zerue gorritue daolako.



3. Eta goizeti: Gaur ekaiztea izango da, zerue estalie ta gorrie daolako.
4. Beraz bakizue asmatzen zeruko itxurati? eta ezin ezautu ituzue Mesiasen etorrerako denbora otako señale klarok? Erraza ero kasta gaiztoa ta adultera onek milagro bat eskatzen do; baño etzako emango eskatzen don ori, baizik Jonas profeten milagroa. Eta ok utzita jun zan.
5. Bere dizipuluk lagon beste aldeti etor zienen, astu zien ogie artzez.
6. Jesusek esan zien: Zate kontuz ta beira zazue gero Fariseon ta Saduzeon beantzagie jan
7. Baño ak euren arten pensatzen zoen: Ogik ekarri ez deulako au esaten do.
8. Eta au Jesusek ezautuik, esan zon: Fede gutxiko gizonak, zertan zabizte zuen arten diskurritzen, ogik ez dezuelako?
9. Oaindik ez dezue ezaguerarik, eta etzate akordatzen bost ogi nola bost milla gizoni partitu; eta zenbait saski puska geatu zitzaizuen?
10. Eta ezta re zazpi ogikin lau milla gizoni jaten eman, eta sobrau zaneti zenbait salki bitu zien?
11. Nola ez dezue ezautzen ezdizueala esan ogigaiti, beira zazue gero Fariseon ta Saduzeon beantzagie jan?
12. Ordun igarri zioen etzola esan ogin ipintzen dan beantzagin gañen, baizik Fariseon ta Saduzeon dotrinen gañen.
13. Gero Jesus Pilipo Zeseren lurrea etorta, galdeu zien be dizipuluai: Zein dala dioe gizonak gizonan Semea?
14. Eta ak erantzun zioen: Batzuk Joan Batista dala dioe, bestek Elias, beste batzuk aizkenen, Jeremias, ero profetatakone bat.
15. Esaten die Jesusek: Eta zuek nor naizela ni esate zue?
16. Simon Pedrok itze artuik esan zon: Zu za Kristo ero Mesias, Jainko bizin semea.
17. Eta Jesusek erantzunez, esan zion: Zorionekoa za Simon Jonanen semea, zeati ori ez dizu aragi ta odol ero beste gizonen batek ezautu erain, baizik ne Aitek, nor daon zerutan.
18. Eta nik esate izut zu zala Pedro, eta arri onen gañen eingo diala ne elizea, eta atek ero infernuko eskubidek ez diela baliako aen kontra.
19. Eta zuri emango izut zerutako erreinuko giltzak. Eta zuk lurren lotze zun guztie, zerutan e lotue izango da, eta lurren askatze zun guztie, zerutan e askatue izango da.
20. Ordun aindu zien be dizipuluai iñoi etzezaioela esan bera zala Jesus, Kristo ero Mesias.

21. Eta bealaxe asi zan be dizipuluai aitzea ematen komeni zala bera jun zeñi Jerusalem, eta an padezitu zezala asko zarran, Erakustzallen, eta abadean prinzipen parteti, eta izan zeilla ille, eta piztu zeilla berriz irugarren eunen.

22. Pedrok bastarrea otseinda, ai erain nai zion esanez: Ah Jaune! iñolare ez; ez, etzaitzu ori gertau bear.

23. Baño Jesusek areana itzulik, esan zion: Kendu zaizkit aurreti Satan, ba eskandalizatzen nazu; zeati zuk ez dezu ezauera ta gustoik Jainkon gauzatan, baizik gizonanetan.

24. Ordun Jesusek esan zien be dizipuluai: Balin norbaitek etor nai bado ne ondoren, uko ein beio be bururi, eta kargau bedi be kurutzekin, eta seitu beit.

25. Ba bere bizie salbau nai donak ne kontra obrauta, galduko do, baño niri dien amorioagaiti bere bizie galtzen donak, billauko do.

26. Zeati, zer zako gizonai mundue guztie irabaztea, balin galtzen bado bere animea? Ero, ze man lezake gizonak be animen truk bein galdu ezkerro?

27. Dana dala gizonan Semek etor bear do bere Aiten gloriz jantzie be aingerukin baten gizonak juzgatzea; eta ordun emango dio bakoitzei be pague euren obraz konforme.

28. Egie esateizuet, emen darel a gizonan Semea be erreinun argieran agertzen ikusi arten ill bear ez doen batzuk.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUE

Jesusen trasfigurazioa; deabruz betetako taranteltsu baten sendatzea; Jesusek pagatzen do bere ta Pedron tributoa milagroaz arkitutako moneda batekin.

1. Andi sei eunen burun Jesusek bekin artu zitun Pedro, Santiago, Joan ta be anaie, eta akin bakarrik igoik mendi altu batea,

2. Trasfigurau zan euren aurren. Alako modun nun bere arpegie jarri zon drist eiten zola euzki pezela, eta bere arropak zurituik elurre bezela.

3. Eta ordun bertan agertu zitzaien Moises ta Elias berakin izketan Jerusalemen padezitu bear zonan gañen

4. Ordun Pedrok itze artuta, esan zion Jesusi: Jaune, ondo da gu emen eotea; balin badeitzozu, formaitzekun emen iru kanpamentu, bat zutat, bestea Moisesentzat, eta beste bat Eliasantzat.



5. Oaindik izketan zeon Pedro, drist ein zon laño batek etorri ta estaldu zitun. Eta orduntxe bertan laño tarten aitu zan ots bat ziona: Au da ne Seme maitea, zeñean dauzkean ne poz guztik; oni aitu bear diozue.

6. Eta ren bozea dizipuluk eroi zien auzpez lurrea, eta geau zien bildur aundi batekin beteik.

7. Baño Jesus eureta alleau zanen, ikutu zien, eta esan zien: Jaiki zaitetze, eta ezazue bildurrik izan.

8. Eta begik itzulik, etzoen Jesus beste iñor ikusi.

9. Eta menditi jatxi zienen, Jesusek aindu zien, esanez: Eziozue iñori esan ze ikusi dezuen, illen arteti gizonan Semea berriz piztu arte.

10. Zeñen gañen galdetu zioen dizipuluk: Nola ba eskriturak esaten doe Eliasek lenengo etorri bear dola?

11. Eta Jesusek erantzun zien: Egiz, Eliasek etorri bear do ne bigarren etorrerea baño lenao, eta ordun be lekun ipinko itu gauza guztik,

12. Baño nik aitortzeizuet Elias etor zala, eta etzoen ezautu, baizik ein zoen arekin nai zoen guztie. Ala gizonan Semerire padezitu eraingo dioe ak.

13. Ordun igarri zioen dizipuluk Joan Batistatik itzein ziela.

14. Jendek itxoten zioen lekura alleauta, etor zan gizon bat, eta ren aurren belauniko jarrita, esan zion: Jaune, izazu nere semen errukie, zeati taranteloso da, eta asko padezitzen do; ba askotan eroitzen da surta, eta sarritan urta,

15. Eta presentau diet zure dizipuluai, eta ez doe sendau al izan.

16. Jesusek errespuestatzat esan zion: Oh kasta eziñiskorra ta biurrie! Noiz arte bizi bear det zuekin? Noiz arte sufritu bearko ote dizuet? Ekarriezue onutza.

17. Eta Jesusek amenazau zon deabrue, eta irten zon mutilleandi, zein geatu zan sendaue orduntxe bertati.

18. Ordun dizipuluk aparte itz ein zioen Jesusi, eta esan zioen: Zer dalako ezin bota izan deu guk?

19. Erantzun zien Jesusek: Fede gutxi dezuelako. Ba egiz asegurateizuet mostaza bikor bat bezin aundie balitz zuen fedea, esan lezaiokezula mendi orri, zoaz emendi arutza eta jungo litzeke, eta elitzekezue eze-re eziñ al izango.

20. Eta gañea deabru jenero ok ez diela botatzen orazion ta balurren bitartez ezpada.

21. Eurek Galilean zeren bitarten, esan zien berriti Jesusek: Gizonan Semek gizonan eskutan entregae izan bear do.

22. Eta ilko doe, eta irugarren eunen berriz piztuko da. Zekin dizipuluk oso tristetu zien.

23. Kafarnauro alleatuk, arrimau zien Pedroana bi adarmen kontribuzion biltzallek, eta esan zioen: Ze, zuen Maixuk ez ditu pagatzen bi adarmek?

24. Bai por zierto, erantzun zon. Eta etxen sartuta, aurrerau zitzeon Jesus esanez: Zer deitzozu Simon? Lurreko erregek, noreandi kobratzen ditue tributok ero zensok? Euren semetati, ero erbestekotati?

25. Erbestekotati, esan zon ark. Erantzun zion Jesusek: Beraz libre die semek.

26. Ala guziz e, ez eskandalizateati, zoaz itxaso ta bota zazu garrangea, eta lenengo etatzen dezun arraie ar zazu, eta aua irikita, lau adarme balio ditun zillarresko pieza bat arkituko dezue; arzazu, eta emaiozu nere da zure parteti.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUE

Jesusen dotriñen umildaden gañen, eskandalozko pekatun gañen, eta lotsaiezko zuzentzen gañen. Artzai onen parabolea. Pekatuk barkatzeko eskubiden gañen; pekatariñ errukitasunen ta etsaien barkazion gañen. Amar milla talenton parabolea.

1. Okasio ontan bertan Jesusi arrimau zitzeon dizipuluk, eta galdera au ein zioen: Zein izango da aundina zerutako erreinun?

2. Eta Jesusek ume bati bereana otseinda ipini zon euren erdin,

3. Eta esan zion: Egiz esateizuet, balin ezpazeate biurtzen ta eiten umen antzekok senzillidaden ta inozenzin, etzatela sartuko zerutako erreinun.

4. Ume au bezela umillatzen dan erozeiñ izango da ba aundina zerutako erreinun.

5. Eta nik oain esan dian bezela, ne izenen ume bat ondori artzen donak ni neoni artzen au.

6. Baño nian sinisten doen umetxo otakon bat eskandalizatzen donai, obe litzaioke asto batek mogitzen don errotarri oritako bat lepoti txintxilik ipini, eta la itxason ondora murgildue izango balitz.

7. Zorigaiztoko mundue eskandalok diela mediante! Zeati eskandalok bearrekok izana gaiti; ala re zorigaiztoko izango da eskandaloa ematen don gizon hura!



8. Eskandaloako ero pekatuako bidea ematen baizu zure eskuk ero zure oñek, ebaitzetzu eta botaitzetzu zuandik urruti; ba obe zu esku man-txu ero erren sartu betiko bizitzan, bi eskukin ero bi oñekin infernura amildue baño.

9. Eta zure begik eskandaloako bidea ematen baizu, eta zazu eta bota zazu zuandik urruti; obe zu bi begikin infernuko surta amildue izan baño, batekin bakarrik betiko bizitzan sartu.

10. Beirazazue gero umetxo otakon bat despreziatu; zeati esateizuet euren aingeru goardakok beti zerun darella ne zeruko Aiten arpegie ikus-ten.

11. Eta gañea gizonan Semea galdu zana salbatzea etorri da.

12. Balin gizon batek baitu eun ardi, eta atako bat galduko balitzeko, ze uste zue ordun eingo dola? Ez ditu laroeta emeretz menditan utzi, eta galdu zakon hura billatzea jungo?

13. Eta balin fortunaz billatzen bado, egiz esateizuet ark bakarrik poz geiao ematen diola galdu ez ditun laroeta emeretz paño.

14. Eta la, ezta zerutan daon ne Aiten borondatea, umetxo otakon bat galdu deilla.

15. Eta zure anaiek pekatu ein bado zure kontra; ero eroitzen ba kul-pan baten, zoaz ta zuzendu zazu bakarrik zarella; aitzen baizu, irabaziko zendun zure anaie.

16. Ezpaizu kasoik eiten, balia zaite oaindi persona bat ero biz, bi ero iru testigok ontzat eman dezen dana.

17. Eta ezpadie aitzen, esaiozu elizeri; eta elizeri berai e ezpadio aitzen fedebaetzat ero arrendatzalletzat euki zazu.

18. Emateizuet ne itze, lurren lotzen dezuen guztie, zerun e lotue izango dala; eta lurren askatzen dezuen guztie, zerun e askatue izango da.

19. Geiao esateizuet, balin zuetako bi lurren juntauko balieke zerbait eskatzeko, erozeiñ gauza izan deilla, emana izango zaie zerutan daon ne Aiteandi.

20. Zeati bi ero iru ne izenen juntatuk daren lekun, ni re an arkitzen naiz an erdin.

21. Garai ontan, arrimatuta Pedrok esan zion: Jaune, zenbait aldiz barkau bearko diot ne anaiei ne kontra pekatu eiten donen? Zazpi aldi-taño?

22. Erantzun zion Jesusek: Ez dizut nik esaten zazpi aldiz, baizik zazpi bider iruroetamazpitaño, ero ofenditzen zaitun ainbeste aldiz.

23. Oneati zerutako erreinuk be morroiei kontuk artu nai izan zien Erregen antza izatea dator.

24. Eta kontuk artzen asita, amar milla talento zor zion bat presen-taue izan zitzekon.

25. Eta nola onek etzeuken zekin pagau be nausik, aindu zon izan zitezela salduk bera, eta be andrea, eta bere semek bere azienda guztikin, eta la pagau zeilla zorra.

26. Ordun morroiek, aen oñeta auspeztuta, erregutzen zion esanez: izazu pazienzi piska bat, ba nik pagauko izut dana.

27. Nausiri errukituik morroi hura, utzi zion juten, eta barkau zion zorra re.

28. Baño morroi onek irten bezin laister, billau zon be laun bat, zeñek zor zion eun diru zillarresko, eta estarriti elduta ia iton zeuken esa-nez: Pagaiezu zor nazuna.

29. Launek, be oñeta auzpeztuik, erregutzen zion esanez: Izazu nekin pazienzi piska bat, ba nik dana pagauko dizut.

30. Baño ark etzion aitu nai izan, baizik jun zan eta sartu erain zon kartzelan zor ziona pagau arte.

31. Beste morroiek be launek, oso tristetu zien ze pasatzen zan iku-sita, eta jun zien gertatzen zan guztie euren Nausiri kontatzea.

32. Ordun be Nausik otsein zion, eta esan zion: O morroi gaiztoa! Nik barkau nizun zor guzie erregutu zindielako,

33. Eta justo etzan zuke euki zezazula zure launen errukie nik zurea izanon bezela?

34. Eta Nausie asarrata, entregau zon borreron eskutan, zorra dana oso pagau arte oñazatue izan zein.

35. Modu ontan portauko da ne Aite zerukoa zuekin, balin bakoitzek be anaiei biotzeti ezpadio barkatzen.

EMERETZIGARREN KAPITULUE

Jesusek eakusten do matrimonioa ezin utzilitekela; eta birjinidatea konsejatzan do; aberatsak salbatzeko gaitzen, eta bereanako amorioagaiti gauza guzik uzten ditunak izango don sarin gañen itz eiten da.

1. Jesusek itzaldi ok akabau zitunen, jun zan Galileati, eta etor zan Jordanen beste aldera, Judeako lurra.

2. Nora seitu zioen jende pillaa aundi batek, eta an sendau zitun bere gaixok.



3. Eta allegau zien Fariseok areana, zirikatzeo asmokin, eta esan zioen: Gizon batek libre do erozeiñ pretestogaiti be andrea uztea?
4. Jesus errespuestatzat esan zien: Ez dezue leitu gizajende guzik asieran kriatu zon ark kriatu zola gizon bat bakarra ta andra bat bakarra; eta esan zala:
5. Orreati utziko do gizonak be aite ta bere ama, eta alkartuko da bere andrekin, eta izango die bi aragi baten bakarrik.
6. Eta la ez die geiao bi izango, baizik aragi bat bakarra. Ba Jainkok alkartu dona, ez beza gizonak banatu.
7. Baño ak erantzun zioen: zeati Moisesek aindu zon desezkondun agirie man ta despeitzeko?
8. Jesusek esan zien: Zuen biotz gogorran medioz Moisesek eman zizuen zuen andrak uzteko libertadea; baño asierati etzan ala izan.
9. Ala ba aitortzeizuet be andrea uzten don erozeiñek, ezpada adulterioz mediante, eta onla izan da re beste batekin eskontzen bada, adulterioa eiten dola; eta utzie izaten danakin eskontzen danake adulterioa eiten dola.
10. Be dizipuluk esaten dioe: Gizonan kondizioa olakoa bada bere andrekin, ez dakar kontuik eskontzek.
11. Jesusek erantzun zien: Ez die danak au eiteko kapaz, baizik goiti emana zaien ak die kapaz.
12. Zeati badie txikilau batzuk ala jaijo zienak euren aman sabeleti, badie txikilatuk gizonakandik; eta badie nolabaite euren buruk txikilau zituenak boto kastidadekokin zerutako erreinuri dioen amorioagaiti. Ortako kapaz izan daikena, izan bedi.
13. Garai ontan presentau zioen ume batzuk on gañen eskuk ipini, eta orazioa ein zezan. Baño dizipuluk inkomodatzan zuelako uzten, lotsaien eman zien ekartzalleai.
14. Baño Jesusek esan zien: Utziezue baken umeai, eta eziezue erautzi nereana etortzea; zeati orin antzekontzat-a zerutako erreinue.
15. Eta an gañen eskuk ipinta ero bendizioa emanda, jun zan andi.
16. Aldeatu zitzekon ordun gizon gazte bat nor esan zion: Maixu ona, ze obra on ein bear ditut betiko bizitza isteko?
17. Ark erantzun zion: Zeati ona esaten diezu? Jainkoa bakarrik da ona. Gaiñeakon, betiko bizitzan sartu nai baezu, gordeitzetzu mandamentuk.
18. Berak esan zion, ze mandamentu? Jesusek erantzun zion: Ez dezu ilko. Ez dezu adulterioik ingo. Ez dezu ostuko. Ez dezu testimonio falsoik jaikiko.

19. Onraitzetzu aitetama; eta maitezazu laun projimoa zure burue bezela.
20. Esaten dio gaztek: Orik danak gorde itut ne gaztetati, zer falta zat geiao?
21. Erantzun zion Jesusek: Konpletoa izan nai baezu, zabiltz, eta saldu zazu dezun guztie, eta emaezu pobrei, eta sari bat zerun izango ezu; atoz gero, eta segiezu.
22. Gaztek itz ok aitu zitunen, erretirau zan triste; eta zan ondasun aundik zitulako.
23. Jesusek ordun esan zien be dizipuluai: Egiz esateizuet, nekez aberats bat sartuko dala zerutako erreinun.
24. Eta oaindi geiao esateizuet: Errezago dala jostorratzan zuloti kamelu bat pasatzen, zerutako erreinun aberats bat sartzea baño.
25. Esaera ok aitu zitunen, txit arrituk zeren dizipuluk, euren arten esanez: Ori danez, Nork Salbau dezake?
26. Baño Jesusek beratxo beiratuik, esan zien: Gizonantzat au ezta posible, baño Jainkontzat gauza guzik die posible.
27. Pedrok ordun itze artuik, esan zion: Ondo ikuste zu guk utzi ditula gauza guztik, eta seitu dizula, ze izango da ba gure sarie?
28. Baño Jesusek erantzun zion: Egiz esateizut, zuek seituko dizue-nok, guztin berriz piztutzeo eunen, gizonan Semea jarriko danen bere Majestaden Tronon, zueke jarriko zate amabi sillan gañen, eta juzgauko ituzue Israelgo amabi tribuk.
29. Eta bere etxea, ero anaiek, ero arrebak, ero aite, ero ama, ero andrea, semek, ero sorok ne izena dala mediante utzitze itun erozeiñek, errezibituko itu eun bider geiao ondasun sendotan, eta mendeatuko doe gero betiko bizitza.
30. Eta mundu ontan lenengo zien asko izango die aizkenekok, eta aizkeneko zien asko izango die aurrenekok.

OEIGARREN KAPITULUE

Mastin bear eiteko otseindako langillean parabolea. Jesusek aitzea ematen do be eriotzea ta be piztutzea. Erantzuten dio Zebedeon semen aman pretensiori. Ematen die bistera bi itxui.

1. Zeati zerutako erreinuk do familitalako aite baten antza, zein eun sentin irten zan bere mastirako langillek ajustatzea.



2. Eta akin konponduta euneko denario baten, bialdu zitun be mastira.
3. Gero irurek ingurun irten da, arkitu zan plazan alperkerin zeren beste batzukin,
4. Eta esan zien: Zoazte zueke ne mastira, eta emangoizuet justo dana.
5. Eta ak jun zien. Beste bi bider irten zon seirek eta beatzik ingurun, eta ein zon igoal.
6. Azkenen irten zon amaikak aldea, eta ikusi zitun beste batzuk lanik eiten etzoela, eta esan zien: Nola zate emen eun guzin ezer ein bae?
7. Erantzun zioen: Iñork ajustau ez gaitulako. Esan zien: Zoazte ba zueke ne mastira.
8. Euzkie sartu zanen, jabek esan zion be maiordomori: Otseiezu langilleai, eta pagaiezu jornala, azkenekotati asi ta lenengotaño.
9. Etorrik amaikak ingurun jun zienak errezibitu zoen denario bana.
10. Eta aizkenen lenengok aulleau (sic) zienen uste zoen geiao eman-gu zitzaiea, baño oke a pezela bakoitzek denario bat errezibitu zoen.
11. Eta errezibitzen mur mur egiten zoen familitako aiten kontra,
12. Esanez: Aizkeneko ok ordu baten bakarrik lan ein doe, eta guk eun guziko pisue ta beroa sufritu eta ala re gurekin igualau ditu.
13. Baño ark otako bati erantzunez esan zion: Aizkidea, nik ez dizut ofensaik eiten, etzinden nekin denario baten ajustau?
14. Otori ba zurea dana, eta zoaz, nik oni aizkenekoa izanagaiti zuri ainbeste eman nai diot.
15. Benturez ezdezaket nik nai diana ein ne gauzekin? Ero zure begik izan bear do gaiztoa ero kutiziosoa, ni ona naizelako?
16. Modu ontan mundu ontan aizkeneko dienak zerutako erreinun lenengo izango die, eta aurrenekok aizkeneko; asko die otseñek, baño gutxi autatuk.
17. Jesus Jerusalemako biden jarrita, artu zitun baztar batea be amabi dizipuluk, eta esan zien:
18. Beira Jerusalem goaz, nun gizonan Semek izan bear don abadean prinzipen ta Erakustzallen eskutan entregae, eta eriotza kondenauko doe,
19. Eta Fedebagei entregauko die izan deiñ burlatue, eta azotatue, eta kurutzen josie, baño bera berriz piztuko da irugarren eunen.
20. Ordun Zebedeon semen ama arrimatzen zako be seme bikin, eta adoratzen do, grazin bat eskau nai liokela aitzea emanez.

21. Jesusek esan zion: Zer nai zu? Eta ark erantzun zion: Disponi zazu ne seme ok bik izan dezela euren jarlekue zure erreinun, batek zure eskubiko alden, eta bestek zure eskerreko alden.

22. Baño Jesusek esan zion errespuestatzat: Ez dakizu ze eskatzen zun. Ean dezakezue nik ean bear dian pasioko kalizeti? Esaten dioe: Badaikeu.

23. Erantzun zien: Nere kalize baeango dezuela, baño jarlekue ne eskubiko ero ezkerreko alden zuei aintzea etzat tokatzen, baizik ne Aitek destinau dien antzat izango da.

24. Au entenditu zoenen beste amar apostolok, asarratu zien anaie bin kontra.

25. Baño Jesusek otsein zien bereana, eta esan zien: Bakizue naziota-ko prinzipiek aintzen diela euren erriai, eta euren aundirik mendeatzen dituela nausitasunekin.

26. Zuen arten ez do ala izan bear, baizik zuen arten aundina izan nai donak, zuen morroie izan bear do.

27. Eta zuen arten lenengo izan nai dona, zuen serbitzallea izan bear do.

28. Gizonan Semea serbitue izatea etorri ez dan bezela, baizik serbitzea, eta askon erredenziorako be bizia ematea.

29. Jerikoti irten zonen, jende pilla aundi batek seitu zion,

30. Eta ona nun zeren bi itxu bide ertzen jarrita, eta aitu zoenen esaten Jesus pasatzen zala, asi zien deadarka, esanez: Jaune! Dabiten semea! Lastima zaite guzaz.

31. Baño jendek demandan ematen zien isildu zitezen. Ala re eurek deadar aundigoa eiten zoen, esanez: Jaune! Dabiten semea! Izazu pieda-dea guzaz.

32. Ontan geatu zan Jesus, eta otseinda esan zien: Ze nai dezue eitea?

33. Jaune, eurek erantzun zioen, iriki ditezela gure begik.

34. Kupidatuik Jesus, ikutu zitun euren begik. Eta orduntxe bertan ikusi zoen, eta jun zien be atzeti.

OETA BAT GARREN KAPITULUE

Jesus Mesiasztat deadarka otseñe sartzen da Jerusalemen; botatze itu tenploti an saltzen zerenak; maldezitzen dio piku bati; eta konfunditze itu bere etsaiek parabola ta arrazoiakin.

1. Jerusalem alderatuta, Betfajen bista alleau zienen, Olibetako Mendin ondora, bialdu zitun Jesusek bi dizipulu,



2. Esanez: Zoazte zuen paren ikusten dan erri txiki orta, eta beste eiteko bae billauko ezue astaeme bat lotue, eta be umea bekin; askaitze-tzue, eta ekarriezue,

3. Eta norbaitek erantzuten baizue zerbait, erantzuiozue Jaunek bear ditula, eta beala utziko izue eamaten.

4. Profetek esan zonan kunplimentun gertau zan au guzie.

5. Ezaiozue Siongo alabai: beira zure errege zatorkitzula biguntasunez betea, astaeme baten gañen onen umekin, uztarrira oitue dagonan umea.

6. Jesusek aindu zien dizipuluai juteko eta la ein zoen.

7. Eta ekarri zituen astaeme ta umea; eta ezarri zioen bere txalmak; eta igo erain zioen Jesusi.

8. Eta jende asko ta askok zabaltzen zituen biden euren soñek; beste batzuk ebaitzen zituen erramuk ero arbolan ostok, eta pasau bear zon lekun ipintzen zituen,

9. Eta la aurreti zijoatzen jendek, nola atzeti zijoatzenak deadar eiten zoen, esanez: Hosana osasune ta glorie Dabiten semeri; beinkatue izan bedi Jaunen izenen datorrena, hosana zeruk doen altunen.

10. Jerusalemen ala sartu zanen, erri guztie errukitu zan, askok esanez: Nor da au?

11. Zeri erantzuten zioen jendek: Au Jesus da, Galileako Nazareteko profetea.

12. Jesusek Jainkon tenplon sartu zanen; bota zitun andi salerostzalle guztik; eta bota zitun bankero ero kanbiatzallen maiek, eta sakrifiziotako usok saltzen zituenan sillak.

13. Eta esan zien: Eskribitue dao: Ne etxek izena izango do orazio-rako etxea; baño zuek lapurran kueba bat eiñe daukezue.

14. Ordun bertan tenplon alleau zien bereana itxu ta erren asko, eta sendau zitun.

15. Baño abadean prinzipe ta Erakustzallek, ikusik eiten zitun mila-grok, eta tenplon pozez deadar eiten zoen umek, esanez: Hosana Dabiten Semeri, asarrau zien.

16. Eta esan zioen: Ok esaten doena aitze zu? Jesusek erantzun zien: Bai por zierto, zer ba beñe ez dezue profezik leitu. Umean auti eta bularreko umetati; eta zeuden alabantzaik aundina?

17. Eta ak utzita, irten zon erriti kanpora Betanira, eta an geau zan.

18. Biramon goizen, errira itzulita, izan zon gosea.

19. Eta bidertzen piku bat ikusita, arrimatu zan areana, zeñetan ostok besteik arkitu ezta, esan zion: Ez aldezu ba beñe izango frutuik. Eta pikue gelditu zan igartue.

20. Zer ikusik dizipuluk, arritu zien, eta esaten zoen: Nola igartu da beala?

21. Eta Jesusek erantzunez, esan zien: Egiz esateizuet, fedeik balin baezue, eta dudaik ezaezue, ez dezue pikun au bakarrik eingo, baizik mendi orri esaten badiozue, kendu zaite zaren lekuti, eta etzin zaite itxasora, ala eingo do.

22. Eta orazion eskatze zuen guzie, fedea izaten baezue, iritxiko dezue.

23. Tenplora alleau zanen, arrimau zitzekon, eakusten ai zala, abadean prinzipek eta agure zarrak ero erriko senadorek, eta galdetu zioen: ze eskubidekin eite ituzu gauza ok? Eta nork eman dizu olako eskubidea?

24. Jesusek erantzun zien. Nik-e ein nai dizuet galdera bat, eta oni erantzuten badiozue, bealaxe esango izuet ze eskubidekin eiten dituan gauza ok.

25. Joanen bautismoa nundi zetorren? Zeruti ero gizonetati? Baño ak euren arten pensatzen zoen, esanez:

26. Erantzuten badeu, zeruti, esango diu: Ba zeati ez dezue sinistu huragan? Erantzuten badeu gizonetati, errin bildurre izan bear deu berriz, ba danak ezautzen zoen Joan profetatzat.

27. Orreati erantzun zioen Jesusi esanez: Ezdakigu. Berak berriz esan zien beala: Niauk ba ez dizuet esango ze eskubidekin eiten ituan gauza ok.

28. Eta zer iruritzen zaitzue esatea noan ontaz? Gizon batek bi seme zeuzken eta lenengori otseinda esan zion: Semea, zoaz gaur ne mastin lan eitea.

29. Eta semek erantzun zion: Ez det nai. Bano gero, damutuik, jun zan.

30. Bigarrenai otseinda, esan zion igoal, eta ark erantzunatik: Banoa, Jaune, etzan jun.

31. Seme ok bitan zeñek ein zon aiten borondatea? Lenengok, ak esan zoen. Eta Jesusek seitu zon: Egiz esateizuet arrendatzallek eta bizi-modu txarreko emakumak zue paño lenao sartuko diela Jainkon erreinun.

32. Zeati Joan etorri zan zueta justizizko bidetxiorrez, eta etzionduen sinistu; eta arrendatzallek eta bizimodu txarreko emakumak sinistu zioen, baño zuek, au ikusita re etzindeten gero mugitu penitentie eitea huragan sinisteko.



33. Aitu zazue beste parabola bat: Familitako aite bat zan, masti bat landau ta esi batekin alde guzitati itxi zona, eta atxurtuta egin zon an tola-re bat, torre bat ein zon, gero nekazari batzua errentan eman zien, eta jun zan urrutiko beste erri batea.

34. Frutuk eldutzeko garaie etorri zanen, bialdu zitun be morroiek errentarita, ango frutue errezibitu zezen.

35. Baño errentarik erasoik morroiei, makillakin jo zoen bat, il zoen bestea, eta arrika eman zioen besteri.

36. Bigarren aldin bialdu zitun beste morroi batzuk lenengon baño geiao, eta igoyal tratau zituen.

37. Azkenen be semea bialdu zien, bere arten esanez: Errespetauko doe beintzet ne semea.

38. Baño errenterok ikusi zoenen semea, euren arten esan zoen: Au da jabea aiten faltan, atozte, ildezaun, eta artuko deu be azindea.

39. Eta artuta bota zoen mastiti kanpoa, eta il zoen.

40. Eta gero, mastin jabeak itzultzen danen, ze ingo die nekazari ai?

41. Ak esan zoen, jende au ain gaiztoa ill erain zorigaiztoz, eta bere garaien frutuk ondo pagauko dioen beste nekazari batzua eman errentan be mastie.

42. Jesusek esan zien, ez dezue ba Eskrituratan leitu: Etxegillek nai ezta utzi zoen arri hura bera izan zala kantoi arrik obena? Jaune da gure denboran au ein dona, eta gure begitan gauza arrigarrie da.

43. Orreati esateizuet, Jainkon erreinue zuei kendu, eta obra onan frutuk eiten dituen jendeai emana izango dala.

44. Eta la eskandalizatzen dana ero arri onen gañea etortzen dana txetue izango da, eta arri onek juizioko eunen azpin artzen don erozein zati zati ingo do.

45. Jesusen parabola ok aituta abadean prinzipte ta Fariseok ezautu zoen euren gañen itz eiten zola.

46. Eta preso artu nairik, errin bildurre izan zoen, ba profetatzat zeuken.

OETA BIGARREN KAPITULUE

Be semen ezteieta konbidau zon erregen parabolea. Zesarri tributoik pagau bear zakon. Berriz juzten gañen dotrinea. Jainkonako ta laun projimonako amorioa. Kristo Dabiten semea ta Jaune.

1. Jesusek bianbitarten sermoia seituz, itz ein zien berriti parabolaz, esanez:

2. Zerutako erreinun gertatzen da alako errege bati pasau zitzekona, zeñek zelebrou zitun be semen ezteiek.

3. Eta bialdu zitun be morroiek konbidatuai ezteieta otseitea, baño ok etzoeu etor nai izan.

4. Bigarren aldin bialdu zitun beste morroi batzuk aen parteti konbidatuai esateko ordenekin: Maneatue dauket bazkarie, il erain ditut ne txalak eta beste gañeako animala gizenak, eta dana pronto dao, atozte ba ezteieta.

5. Baño etzoeu kasoik ein, baizik jun zien bat be baserria, eta bestea be oi zon tratura.

6. Eta gañeakok arrapau zituen morroiek eta burla asko ein ondon, il zituen.

7. Au erregek aituta, oso asarrau zan, eta be tropak bialduta, akabau zon gizon-iltzalle akin, eta erre zon an errie.

8. Ordun esan zien be morroiei: Ezteietako preparatibok eiñek dare, baño konbidatuk etzien digno ata asistitzeko.

9. Zoazte ba bide kutzeta, eta billatze ituzuen guztik, konbidaitze-tzue ezteieta.

10. Beala morroiak bideta irtenik juntau zituen arkitutako guztik, gaiztok eta onak, alako modun nun ezteietako salea dana bete zan maien jarri zien jendekin.

11. Gero errege sartu zanen konbidatuk ikustea, erreparau zion an gizon bati etzemarrela (sic) ezteietako soñe.

12. Eta esan zion: Aizkidea, nola sartu za emen ezteietako soiñe bae? Baño hura mututu zan.

13. Ordun erregek justuziko be ministroai esan zien: Oñek eta eskuk lotuta bota zazue illunpeta, nun eztan eongo nearra, eta ortzan karrask eitea besteik.

14. Aiñ egie da asko diela otseiñek, eta gutxi autatuk.

15. Ordun Fariseok jun zien andi euren arten tratatzea nola arrapau ote zezateken bat baten, esaten zonan gañen.

16. Eta ontako bialdu zioen be dizipulue Herodiano, batzuekin zeintzuk esan zioen: Maixue bakiu egitie zala, eta Jainkon bidea ero legea eakustezula egi garbiri doakion bezela, iñoi beira bae, zeati ez diozu per-sonan itxurei beiratzen.

17. Au ala dan ezkeru, esaiuzu zer deitzozun esatea noan ontaz, judioai Jainkon erriri, libre zako ero ez Zesarri tributuo (sic) patzea?



18. Zeri Jesusek, ezautuik an malizi aundie, erantzun zion: Zeati zirikatzun nazue, hipokritak?
19. Erakutsiezue tributuo patzen dan monedea. Eta ak erakutsi zioen denario bat.
20. Eta Jesusek esan zien: Zeñena da imajiña au, eta letrero au?
21. Erantzuten dioe: Zesarrena. Ordun esan zien: Emaiozue ba Zesarri Zesarrena dana eta Jainkori Jainkona.
22. Eta errespuesta onekin arrituik geau zien, eta ari utzita ta jun zien.
23. Eun artan bertan etor zien Saduzeok, zeintzuk ukatzen doen berrizko piztea, kaso au galdetzea.
24. Maixue, Moisesek aindu zon umei pae norbait iltzen bazan, anaie eskondu zeilla aen andrekin, be anaiei umek izan eraiteko.
25. Ba gu ginden zazpi anai. Lenengoa eskonduta, il zan, eta umeik izan bae, utzi zion be andrea be anaiei.
26. Igoal gertau zitzekeon bigarrenai, eta irugarrenai, eta la zazpigarenareano.
27. Eta ak-uzin ondoren il zan andrea.
28. Oain ba, berrizko piztea alleatzen danen, zein zazpi atakon andrea izango da hura, danana izan zan ezker?
29. Zeñi Jesusek erantzun zion: txit erratuk zabizte, Eskriturak ententitzen ez dituzuela, eta Jainkon eskubideare ezautzen ez dezu elako.
30. Zeati berriz piztu ezker ez gizonak artuko doe andraik, eta ez andrak gizonik, baizik izango die zerun Jainkon aingeru pezela.
31. Baño illen berrizko piztutzeri daokionan gañen, ez dituzue leitu Jainkon esanak dao zkitzuen itzek;
32. Ni naiz Abraanen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoberen Jainkoa? Oain ba, Jainkoa ezta illen Jainkoa, ezpada bizina.
33. Zer errik aituik, arritue zeon aen dotriñekin.
34. Baño Fariseok, aitu zoenen Saduzeoai aua itxi ziela, alkartu zien okin.
35. Eta otako batek, zein zan legea zekina, galdetu zion zirikatzeke:
36. Maisue, zein da legeko mandamentuik aundina?
37. Jesusek erantzun zion: Maiteko ezu zure Jainko Jaune zure biot guztiti, eta zure anima guztikin eta zure sentidu guztikin.
38. Au da aundina ta lenengo mandamentue.
39. Bigarrenak onen antza do, eta da: Maiteko ezu zure laun projimoa zere burue bezela.
40. Mandamentu otan bitan dao lege guzie ta profetak.

41. Emen alkarrekin zerela Fariseok, Jesusi ein zien galdera au:
42. Ze iruritzen zatzue zuei Kristoz ero Mesiasez? non semea da? Esaten dioe: Dabitena.
43. Berriz esan zien: Ba nola Dabitek profetan espirituz deitzen dio be Jaune, esaten donen:
44. Jaunek esan zion ne Jaunei, jarri zaite ne eskubiko alden, zure oinpeko aulkitzat zure etsaiek nik ipintze ituan bitarten?
45. Ba Dabitek deitzen badio be Jaune: nola izan diteke Dabiten Semea?
46. Eta oni iñork etzion erantzun al izan itz bat, eta eun artati aurrea iñor etzan atrebitu geiao galderaik eitea.

OETA IRUGARREN KAPITULUE

Jesusek kondenatzen do fariseon gogortasun aundie erriri erakusten dion dotriñan; itz eiten do an hipokresin ta soberbin gañen. Legei ematen dioen esplikazio falson gañen; profetan eriotza gogorran gañen, eta Jerusalemenseiten gañen.

1. Ordun Jesusek be itze erriri ta dizipuluai dirijituz,
2. Esan zien: Erakustzallek ero legea zekienak eta Fariseok jarrita dare Moisesen katedran.
3. Pratikazazue ba, eta ein esateizuen guztie, baño ezazue ein ak eiten doena, zeati ak esaten doe ein bear dana ta ez doe eiten.
4. Ak eiten doena da lotu karga pisuk, eta ezineralakok, eta ipintze itue besten bizkarretan; baño eurek ez doe arrimau nai beatz puntea re ak mogitzeko.
5. Euren obra guztik eite itue gizonakandi ikusik izateagaiti; orreati eamate itue ausarkigi Legeko itzek banda sabatetan, eta euren soñen franja ero ertzak luzegok.
6. Maite itue lenengo jarlekuk-e bazkaritan eta lenengo sillak sinagogatan.
7. Eta diosalak einiek plazan, eta gizonak eman dezaiela Maixu ero Jakintsun tituluk.
8. Zuek alrebes, ez dezue nai izan bear Maixue otseitea, zeati bat bakarra da zuen Maixue eta Anaiek zate zuek danak.
9. Eta ez dezue oitu bear e iñoi lurren zuen aite deitzen; ba bat bakarra da zuen Aite egiazkoa, zein daon zerutan.



10. Eta ez diozue estimazioik-e ekarri bear zeuon buruai Maixue oitseiten dizuelako, zeati zuen Maixu bakarra Kristo da.
11. Aizkenen, zuen arteko aundinak zuen ministro ero morroi izan bear do.
12. Ba goitzen dana, umillatue izango da, eta umillatzen dana, goititue izango da.
13. Baño, ah zorigaiztoko Erakustzalle ta Fariseo hipokritak! gizonai itxitzen diozuenak zerutako erreinue, zeati ez zuek sartzen zate eta ez utzi eiten diozue sartuko liekenai, nian sinisten utzi ezta.
14. Ah zorigaiztoko Erakustzalle ta Fariseok, alargunan etxek iresten dituzuenak, orazio luzek eiteko aitzakikin, orreati errehibituko ezue askos e sentenzi gogorragoa.
15. Ah zorigaiztoko Erakustzalle ta Fariseo hipokritak! itxasoz ta lurrez bueltaka zabiztenak fedebae bat konbertitzeagaiti, eta konbertitu ta gero zuen ejemplo ta dotriñekin zeuo paño bi bider infernue mezi dunao eite ituzue.
16. Ah zorigaiztoko zuek giari ero eramantzalle itxuk! esate zuenak: tenploati batek juramentu eitea ezer ezta, ez do obligatzen; baño tenploko urrati juramentu eitea obligatue dao.
17. Neziok eta itxuk! zerk geiao balio do urrek ero urrea santifikatzen don tenplok?
18. Eta balin norbaitek juramentu eiten bado aldareati, ezta ezer; baño juramentu eiten bado aldaren gañen imintzen dan ofrendeati, zordun eiten da.
19. Itxuk! Zerk geiao balio do, ofrendek ero ofrendea santifikatzen dan aldarek?
20. Ba aldareati juramentu eiten donak, aen ta aen gañen ipintzen dien gauza guztin gañen juramentu eiten do.
21. Eta tenploati juramentu eiten donak, aen ta an bizi dan Jaun aen gañen eiten do.
22. Eta zerungaiti juramentu eiten donak, Jainkon tronon ta an jarri-ta daon aen gañen juramentu eiten do.
23. Ah zorigaiztoko Erakustzalle ta Fariseo hipokritak! millun antze-ko plantan, eta kominon, eta menden amarrenak-e pagatze ituzuenak, eta utzi tuzue Legeko gauza bearrenak, justizie, miserikordie ta fede ona. O gorde bea ituzue ak utzi bae.
24. Oh giari itxuk! irazte zuenak erate guztie, eltxon bat otedaon eta ireste zue Kamelu bat.

25. Ah zorigaiztoko Erakustzalle ta Fariseo hipokritak! kopea ta platera kanpoti garbitze ituzuenak; eta barruti biotzen ostu naiekin ta likitxkeriz betek zatenak.
26. Fariseo itxue! garbi zazu aurreneko barruti kopea ta platera, nai baezu kanpoko garbie izan deiñ.
27. Ah zorigaiztoko Erakustzalle ta Fariseo hipokritak! sepulkro zuri-tun antzekok zatelako, zeintzuk ederrak dirurien kanpoti gizonai, baño barruti illen ezurrez ta usteltasun jenero guztikin betek daren.
28. Ala zueke kanpoti justok arkitzen zaizkitzue gizonai, baño barrun hipokresiz ta gaiztakeriz betek zate.
29. Ah zorigaiztoko Erakustzalle ta Fariseok! profetan sepulkrok ein ta juston monumentuk apaintze ituzuenak.
30. Eta esate zue: Gure gurason denboran bizi baginden, ez ginden an launek izango profetan eriotzan.
31. Zekin emate zuen, zuen burun kontrako, profetak il zituen an semek zatelako agirie.
32. Akaba zazue ba zuen gurasoan neurrie betetzez Mesias ill erañiez.
33. Sugarrazak, ziraun kastak! nola da posible iges eitea infernuko suri?
34. Zeati ona nun bialtzea nijoakizuen profetak; eta jakintsuk, eta erakustzallek, eta atati batzuai lepo kenduko diozue, bestek kurutzetan josiko ituzue, eta beste batzuk azotauko ituzue zuen sinagogatan, eta persegituko ituzue erriz erri.
35. Zuen gañea etor deiñ lurren isuri dan odol inozente guztie, Abel juston odoleti Zakarias, Bakariasen semen odoleaino, zein il zenduen tenplon ta aldare tarten.
36. Egiz esateizuet gauza o-kuzik etorko diela oaingo jenerazion gañea.
37. Jerusalem! Jerusalem! profetak iltze ituzuna eta bialtzen zaitunai arrika ematen diozuna, zenbait aldiz nai izan nitun bitu zure semek, olla-lokek be txitak egopen bitze itun bezela, eta zuk ez dezu nai izan.
38. Ona nun gelditzea dijoan utsik zuen etxea.
39. Eta la esateizuet, laister e nazuela geiao ikusiko, Mesiastzat ezau-tu ta esan arte. Beinkatue izan bedi Jaunen izenen datorrena.

OETA LAUGARREN KAPITULUE

Asmatzen do Jesusek Jerusalemen ta tenplon deseitea, eta be dizi-puluai aieraiten die ebanjelion publikazioa eta bere bigarren etorre-



*ran gertauko zana. Enkargatzen die beti zintzo eoteko bigarren
etorrerek preparau bae arrapau ez ditzen.*

1. Jesus tenploti irten da bazijon, aen dizipuluk areana alleau zienen; tenploa nola eiñe zeon erreparau eraiteagaiti.
2. Baño ark esan zien: Ikuste zue fabrika aundi ori? Ba nik zierto esate izuet, orti ez dala geatuko arrie arrin gañen.
3. Eta gero Olibarko Mendin jarrita zeola alleau zitzekeon dizipulutako batzuk, eta galdetu zioen isillik: Esaiuzu, noiz au gertauko da? eta ze izango da zure etorreren eta mundun aizkenan señailea?
4. Zei Jesusek erantzun zien: Beira gero etzaitezela iñork engaño.
5. Zeati askok etorri bear doe ne izenen, esanez: Ni naiz Kristo ero Mesias, eta jende asko engaño do.
6. Batallan ta gerran run runek-e aituko ituzue. Ez dezue orreati ikatu bear; ba gauza ok lenengo gertau bear badoe re, ezta au oaindik akaberea.
7. Egie da jaikiko dala nazioa nazion kontra, eta erreinu bat besten kontra, eta izango die gaitzek, eta gosetek, eta lurrikarak leku askotan.
8. Baño au guztie gaitzan asierea besteik ezta.
9. Ordun izango zate majistraduta entregatuk oñazatuk izateko, eta ilko zaitue; eta gizon guztikandi gorrotatuk izango zate ne izenan median-te ne dizipuluk zatelako.
10. Zekin askok izango doen eskandaloa; eta bazuk besteai eingo die tranpie, eta gorrotoa ez da faltako alkarren arten.
11. Eta agertuko die jende asko galduko doen profeta falso asko.
12. Eta bizioz bete ta oztuko da askon karidadea.
13. Baño aizken arte irauten don hura salbauko da.
14. Biarbitarten (sic) predikauko da mundu guztin Jainkon erreinuko Ebanjelio au, nazio guztintzat testimoniotzat; eta ordun etorko da akaberea.
15. Eta la ikuste zuenen jarrie leku santun Daniel profetek lendik esan zon nakatx galgarrie (au leitzen donak, ondo beira beza).
16. Tranze artan Judean bizi dienak iges ein beze mendita;
17. Eta etxe gañen daona, ez bedi jatxi ero sartu be etxen gauzaik eta-tzea,
18. Eta kanpon arkitzen dana, ez bedi itzuli be tunikea ero soñe artzea.
19. Baño zorigaiztokok argiteko ta umeazitzen darenak eun atan ezin auburo iges eiñik.

20. Erregutu iozue ba Jainkori zuen iges eitea ez deilla izan negun ero zapatun, zeñetan gutxi ibilli liteken.
21. Zeati ez mundun asierati oaindaño izan da, eta ez iñoiz izango da ordun izan zan bezin naibae izugarrie.
22. Eta eun ak ezpalieke laburtuko, iñor elitzeke salbauko; baño moz-tuko die autatun amorioaigati.
23. Ordun, norbaitek esaten baizue: Kristo ero Mesias alako ero onlako lekutan dao, eziozue sinistu.
24. Zeati Kristo falsok eta profeta falsok agertuko die, eta marabilla ta milagro askon banidadea izango doe; alako modun eze autatuke (posi-ble balitz) engaño lieke.
25. Ikuste zue aurreti esan dizueala.
26. Eta la esaten badizue re, ona men nun daon basamortun Mesias, etzaizte jun arutza; ero igoal, beira nun daon etxek donik barrunen, eza-zue sinistu.
27. Zeati Euzkie jaiotzen dan aldeti tximistea irten da Euzkie sartzen dan lekuraño istante baten ikusten dan bezela izango da gizonan Semen etorrerea re.
28. Eta nu nai daola gorputze, arutza ingurauko die arranok.
29. Baño eun atako naibaen ondoren, euzkie illunduko da, illargik ez do argik eingo, eta izarrak eroiko die, zeruti eta birtutek ero aingeruk ika-tuko die zerutan.
30. Ordun zerun agertuko da gizonan Semen señailea, zeñen bistan lurreko erri guztik asiko dien nearrez; eta ikusko doe etortzen zeruti gizonan Semea eskubide ta majestade aundikin drist eiten doen laño gañen.
31. Ark bialduko itu be aingeruk, zeintzuk tronpeta soñu aundikin bituko ituen aen autatuk mundun lau iskiñatati, zeruko baztar bateti bes-teaño.
32. Ar zazue piku arbolati etatako konparazio au; aen adarrak samu-rrek darenen, eta ostoa etatzen asitzen danen; ezautze zue udea gertu dala;
33. Ba ala zueke gauza ok ikuste ituzuenen, euki ziertotzat gizonan Semea gertu daola, aten daola.
34. Aseguratze izueana da eztala akabauko jenerazio au, ori guzie kunplitu baño lenao.
35. Zerue ta lurre pasauko die, baño ez doe faltauko ne itze.
36. Baño zein eun ta ordutan izango dan iñork eztaki, ezta zeruko aingeruk-e, ezipada ne Aite pakarrik.



37. Noen eunetan gertau zan ori bera gertaiko da gizonan Semen etorreran.

38. Zeati dilubion aurreko eunetan gizonak jaten ta eraten, eta eurek eta euren semek eskontzen seitu zoen bezela, Noe kutxan sartu zan eune bereaño.

39. Eta beñe sinistu etzoe bezela dilubioa zetorrenik asitzen ikusi ta danak eaman arte; ala gertaiko da gizonan Semen etorreran.

40. Ordun barrutin alkarrekin arkituko dien bi gizonetati, bat artue ta libratue izango da, eta bestea utzie ero abandonatue.

41. Bi emakuma eongo die eotzen errota baten; eta bat artue izango da ero salbauko da; eta bestea utzie eta galduko da.

42. Zintzo zate ba zuek, zuen Jaunek ze ordutan etor bear don ezta-kizuen kason.

43. Eon zaite zierto, familitako aite batek baleki ze ordutan sartu bear doen lapurrek aen etxen, ez litzekela iñola re lo eongo, eta e luke utziko sakeatzen be etxea.

44. Ba zate zueke igoal preparatuk, zeati gutxina uste zuenen, etor bear do gizonan Semek.

45. Nor dala uste zue serbitzari fiela, eta prudentea, be Nausiandi be familin maiordomo ipinie, bakoitzei be garaien jana partitzeko?

46. Zorionekoa, be Nausie etortzen danen, be einbidekin ala kunplizten arkitzen don alako serbitzarie.

47. Egiz esateizuet, be azienda guztie aen eskun utziko dola.

48. Baño serbitzari au gaiztoa balitz eta be arten esango balu: Ne nausie beandutzen do.

49. Eta onekin, asten ba be serbitzari launek gaizki tratatzen, eta moskorraikin jaten ta eraten,

50. Etorko da alako serbitzarin nausie ark uste ez don eunen, eta usteik gutxina don ordun,

51. Eta esango dio zoaz ordu gaizton, eta emango dio hipokrita ero serbitzari fedebaekok mezi don kastigue, an izango die nearrak eta ortzan karrask eitek.

OETA BOZGARREN (SIC) KAPITULUE

Amar birjiñan ta talentoan parabolak; zeñean Jesusek aintzen dien zintzo eoteko ta obra onak eiteko, be bigarren etorreren eta aizkeneko juizion kondenauek izan ez gaitezen.

1. Ordun zerutako erreinuk izango do amar birjinan antza, zeintzuk euren lanparak artuta, irten zoen gizona ta andrea erreizibitza.

2. Zeintzutati bost neziok zien, eta bost prudentek,

3. Baño bost neziok euren lanparak artu zituenen, etzoe oligoik artu.

4. Baño prudentek lanparakin baten eaman zoen oligoa euren ontzitan.

5. Nola gizonak beandutzen zon etortzea, logerutu zien danak, eta aizkenen lok artu zitun.

6. Eta gauerdie alleau zanen aitu zan boz bat deadar eiten zona: Beirazue gizona badator, irtezazue aen bidea.

7. Beala birjiña ak-uzik jaiki zien; eta preparau zituen euren lanparak.

8. Ordun neziok prudenteai esan zien: Emaizue zuen oligoti, zeati gure lanparak itzaltzen die.

9. Prudentek erantzun zoen esanez: Apike guk daukeun au ezta askoko gutzat eta zuentzat, eta obeda zoazten saltzen dan lekura, eta erosi falta zatzena.

10. Ok erostea jun zien bitarten, gizona etor zan, eta preparauta zerenak sartu zien arekin, ezteieta, eta atea itxi zon.

11. Noizbait etorri zien beste birjiñak-e, esanez: Jaune, Jaune, irikiuzu.

12. Baño ark erantzun zon, eta esan zon: Egiz esate izuet nik etzaitzuteala ezautzen.

13. Eta la, zintzo zate zuek, ez eune ta ez ordue ez dakitzuen kason.

14. Zeati Jaunek obrau do, urrutira jun be morroiei otsein ta be ondason guztik entreau zien gizon bate pezela.

15. Bati bos talentu, beste bati bi, eta beste bati bat bakarra emanez, bakoitzei be zintzotasunen konforme eta jun zan bealaxe.

16. Bos talentu artu zituna jun zan, eta akin trafikauta irazi zitun beste bost.

17. Modu artan bertan bi errezibitu zitunak irazi zitun beste bi.

18. Baño bat artu zonak, jun ta ein zon lurren zulo bat, eta gorde zon be nausin dirue.

19. Denbora askon burun itzuli zan morroian nausie eta otsein zien kontuk eitea.

20. Bos talentu errezibitu zitunak alleauta presentau zion beste bost esanez: Jaune, bos talentu entregau ziendun, ona men beste bost geiao, akin irazi dituanak.



21. Be nausik erantzun zion: Ondo da, mirabe ona, serbitzari egillea, eta leiala; gauza gutxin fiela izan zan kason, konfiau dizut asko, atoz zure nausin pozen parte artutzea.

22. Alleau zan gero bi talentu artu zituna, eta esan zion: Jaune, bi talentu eman ziendun, emen dakarkizut beste bi, akin irazi dituanak.

23. Be nausik esan zion: Ondo da, mirabe ona ta leiala, ba gauza gutxin izan za leiala, nik konfiauko izut askoz geiao, atoz zure nausin pozen parte artzea.

24. Aizkizen talentu bat artu zonak alleauta esan zion: Jaune, nik bakit kondizio gogorreko gizon bat zala, ebaitzen dezula ereñ ez dezun lekun, eta bitzen dezula banau ez dezun lekun,

25. Eta la, galtzeko bildurrez, ju nitzen ta zure talentue lurpen gorde non, ona nun dezun zurea dana.

26. Baño be nausie, itze artuta, erantzun zion ta esan zion: Oh serbitzari gaiztoa ta pardela! zuk zekizun nik ebaitzen diala ereiten ez dian lekun, eta bitzen diala ezer banau ez dian lekun;

27. Ba orreati berati ne diruk eman bear zindien bankeroai, nik itzultzen kobra nezan ne kaudala irazikin.

28. Tira ba, kenduiozue talentu hura eta emaiozue amar talentu dauzkenai.

29. Ba donai, eman bear zako, eta asko ta sobratue izango do, baño ez donai, kenduko zako daukela dirurin ura re.

30. Eta bien, ezertako gauza ezta mirabe ori botazazue kanpoko illunpeta, an izango da near eitea ta ortzan karrask eitea.

31. Ba Gizonan Semea etortzen danen be majestade guztikin; eta be aingeru guztik launtzen dioela, ordun jarriko dabe glori tronon.

32. Eta be aurrera agertu eraingo itu nazio guztik, eta batzuk apar-tauko itu bestetati, artzaiek ardik apartatze itun bezela antxumatati.

33. Ardik be eskubin ta antxumak be ezkerren ipinta.

34. Ordun erregek esango die be eskubin darenai: Atozte ne Aiteandi beinkatuk, zeruko erreinun posesioa artzea, zein preparaue daon zuentzat mundun asierati.

35. Zeati ni gosek eon nitzen, eta eman zienduen jaten; egarrik eon nitzen, eta eman zienduen eraten; pelegriinoa nitzen, eta ostatue man zienduen;

36. Narrugorriin neola, jantzi ninduzuen gaixo eon nitzen eta bisitau ninduzuen; preso eon nitzen, eta etorri zindeten ni ikustea ta konsolatzea.

37. Zeñi justok erantzungo dioen, esanez: Jaune, noiz ikusi zindugun guk gosek, eta eman ginduzun jaten, egarrik, eta eman ginduzun eraten?

38. Noiz arkitu zindugun pelegriino, eta ostatue eman ginduzun; narrugorriin eta jantzi ginduzun?

39. Ero noiz ikusi zindugun gaixo ero kartzelan, eta jun ginden bisitatzea?

40. Eta erregek errespuestatza esango die: Egiz esate izuet, ne anaie-tan danik txikin otakon batekin ein zenduen guzitan, nekin ein zenduela.

41. Ordun bertan be eskerreko alden darenai esango die: Aparta zaiz-te niandi, madarikatuok, zoazte betiko surta, zeñi izan zan destinaue dea-bru ta be aingeru ero ministroantzat.

42. Zeati gosek eon nitzen, eta etzienduen jaten eman; egarrik, eta etzienduen eman eraten;

43. pelegriino nitzen, eta eninduzuen errezibitu; narru gorriin, eta eninduzuen jantzi; gaixo ta preso, eta eninduzuen bisitau.

44. Zeñi re erantzungo dioen gaiztok: Jaune! noiz ikusi zindugun gosek, ero egarrik, ero pelegriino, ero narru gorriin, ero gaixo, ero preso, eta ez ginduzun bisitau?

45. Ordun erantzungo die: Egiz esate izuet ne anai txiki otakon batekin ein bae utzi zenduen guztitan, nekin ein bae utzi zenduela.

46. Eta orreati ok betiko infernua jungo die, eta justok betiko bizitza.

OETA SEIGARREN KAPITULUE

Jesusen aparie Betanin, nun andra batek isurtzen don balsamue aen gañea. Paskoako arkumekin apaltzen do Jerusalem, nun itz eiten don Judasen tranpin gañen. Eukaristin istituzioa. Jesusen preso artzea, eta Sinedriok aen kontra eman zon sentenzie. Pedron ukatzek eta penitenzie.

1. Eta Jesusek itzaldi o-kuzik akabau zitunen, esan zien be dizipuluai:

2. Ondo dakizue emendi bi eunera zelebrau bear dala Paskoa, eta gizonan Semek entregae izan bear dola kurutzen iltzea.

3. Ordun juntau zien abadean prinzipek, eta erriko majistraduk, Kai-fas deitzen zitzekon abade nausin etxen.

4. Eta izan zoen juntea tratatzeko nola eskuratu bear zoen Jesus mañaz.

5. Eta errie alborotatzeko bildurrez, esaten zoen: Ezta komeni au pestako denboran ein deilla.

6. Jesus Betanin, Simon legentsun etxen zeola,



7. Allegau zitzekon andra bat alabastro batekin, prezio aundiko usai on ero ugentuz beteta, eta isuri zon Jesusen burun gañea; zein zeon maien.

8. Au ikusi zoenen dizipulutako batzuk, txit gaizki artu zoen esanez: zertako ori galdu?

9. Ba au zaldu zeiken diru askon, eta pobreak eman?

10. Eta Jesusek au entendituta, esan zien: Zeati inkomodatze zue andra au, eta ez dezue ondo artzen, izanik, dan bezela ona, nekin ein don obrea?

11. Ba pobrek beti gertun dauzketzue; baño ni ez beti.

12. Eta ark balsamo au ne gorputzen gañea isurita, ne sepulturea aurreti preparatzeko bezela ein do.

13. Egiz esate izuet, erozeiñ lekutan predikatzen dala Ebanjelio au zein predikauko dan mundu guztin; andra onek oain ein dona re aen memorin zelebrauko dala.

14. Ordun Judas Iskariote, amabitako bat, abadean prinzipekin eotea jun zan, eta esan zien:

15. Ze eman nai diezue, eta nik ipinko et zuen eskutan? Eta konpondu zien arekin oetamar zillarrezko dirutan.

16. Eta ordutik okasio onan billa zebillen tranpie eiteko.

17. Beantzagi baeko ogin lenengo eunen Jesusek ai erainta etor zitzekon dizipuluk eta galdetu zioen: Nu nai dezu preparau daitzugun Paskoako aparie?

18. Jesusek erantzun zien: Zoazte errira alako personen etxera, eta emaiozue mandatu au: Maixuk esaten do, ne denborea gertu dao, Paskoako aparie zelebratzea noa zure etxen ne dizipulukin.

19. Jesusek aindu ziena ein zoen ba dizipuluk, eta bear zana manean zoen Paskoako.

20. Illuntzen, jarri zan maien be amabi dizipulukin.

21. Eta jaten zerela, esan zon: Egiz esate izuet zuetako batek tranpie ingo diela.

22. Eta dizipuluk, oso tristetuik, asi zien bapanaka galdetzen: Jaune! ni naiz benturez?

23. Eta ark errespuestatzat esan zon: Nekin batea be eskue plateren sartzen dona ogie buztitzeko, hura da tranposoa.

24. Gizonan Semeri daokionez, badijoa, eskribitue daon bezela: baño, zorigaiztokoa gizonan Semea entregau bear don gizon hura! alako gizonak obe zon beñe jaio ezpalitz.

25. Eta Judasek, zein zan entregau bear zona, itze artuta esan zon: Maixue, ni naiz benturez? Eta Jesusek erantzun zion: Zuk esan dezu, zu za.

26. Apaiten zeren bitarten, Jesusek artu zon ogie, beinkau zon, eta ebai zon, eta eman zien be dizipuluai, esanez: Ar zazue, eta jazazue, au da ne gorputze.

27. Eta kalize artuta eman zitun eskerrak, beinkau zon, eta eman zien, esanez: Erazazue danok orti.

28. Zeati au da ne odola zein izango dan testamentu berriko sellue, eta izango da askoandi isurie pekatun barkaziorako.

29. Eta aitortze izuet gaurtik ez diala erango geiao masti onen frutu-ti, ne Aiten erreinun pozezko kaliz berriki zuekin eango dian eun artaiño.

30. Eskerrak emateko inoa esanda, irten zoen Olibosko Mendi aldean.

31. Ordun esaten die Jesusek: Danok padezituko ezue eskandaloa gaur gauen ni naizela mediante eta bakarrik utziko nazue. Eskribitue daolako: Erituko et artzaie, eta artaldeko ardik banauko die.

32. Baño ni berriz piztutze naizenen, zuen aurreti Galileara jungo naiz, nun berriz ingurauko zaituztean.

33. Pedrok erantzunez esan zion: Naiz beste guztik eskandalizau zu zala mediante, ni beñe enaiz eskandalizauko ta etzaitue bakarrik utziko.

34. Berriz esan zion Jesusek: Ba nik aseguratze izut egi guzikin, gaurko gauen bertan ollarrak kukurruku eiñ baño len, iru bider ukauko diezula.

35. Zeri Pedrok esan zion: Naiz zurekin ill nazatela, nik ez dizut ukauko. Ori bera beste dizipuluk-e esan zoen.

36. Bianbitarten Jesus alleau zan Gosemani izena don etxalde batea, eta esan zien: Jarri zaizte men, ni arutza jun ta orazioa eiten dian bitarten.

37. Eta bekin Pedro ta Zebedeon seme bik Santiago ta Joan artuta, asi zan tristetzen ta estutzen.

38. Eta ordun esan zien: Ne animek estutasun kruek sentitze itu, itxoazue men, eta zintzo zate nekin.

39. Eta pauson batzuk aurretuik, belauniko jarri zan be arpegie makurtuik, orazioa eiñez, eta esanez: ne Aite posible ba, eziezu kaliz au eran erain, baño alare ez bedi eiñ nik nai diana, ezpada zuk nai zuna.

40. Itzuli zan gero be dizipuluta, eta lo arkitu zitun, eta esan zion Pedroi: Posible da ordu beten esna ez eotea nekin?

41. Zintzo zate, eta orazioa eiazue tentazion ez eroitzeko. Ba espiritue zintzo eonagaitik, aragie argala dao.

42. Itzuli zan bigarren aldin, eta orazioa ein zon esanez: Ne aite, ezpadezake pasau kaliz onek nik ean bae, ein bedi zure borondatea.



43. Gero eman zon beste buelta bat, eta lo billau zitun, zeati an begik logurez betek zeren.
44. Eta ok utzik erretirau zan oaindik-e irugarren aldin orazioa eitea, lengo itzek eurek esaten zitulaik.
45. Beala itzuli zan be dizipuluta, eta esan zien: Lo eizazue oaiñ, eta atxezazue; ona nun ordue alleau zan, eta gizonan Semea laister entregaeu izatea dijoa pekatarin eskutan.
46. Tira, jaikizaitetzte, goazen emendi badator entregau bear nauen hura.
47. Oaindi etzon au ondo esan, Judas, amabitako bat alleau zanen, jende pilla aundi batekin ezpatakin ta makillakin armatuik, zeintzuk zetozen abadean prinzipa, eta erriko zar ero senadoren parteti.
48. Tranposok señaile au eman zien: Nik musu ematen dioan hura da, segurau zazue.
49. Beala Jesuseana arrimauta ba: Jainkok goarda zaitzela, Maixue. Eta musu eman zion.
50. Jesusek esan zion: Oh aizkidea! zerta etor za onutza? Beste gañeakok alleau zien ordun, eta eskue bota zioen Jesusi, eta preso artu zoen.
51. Eta ona nun Jesusekin zerenetako batek, ezpatekin tirauta, eritzen don abadean prinzipetako baten morroiei, belarri bat ebakiz.
52. Ordun Jesusek esan zion: Sartu zazu zorrone zure ezpatea; zeati ber bere nausitasunez ezpataz serbitzen dien guztik, ezpataz ilko die.
53. Uste zu ez dezakeala ne Aitea-nau, nork bealaxe ipinko itun ne menden amabi aingeruzko lejiño baño geiao?
54. Baño, nola kunplutuko die Eskriturak balin ak dioenez ala gertatzea konbeni bada?
55. Ordu artan Jesusek jende pilla ari esan zien: Lapur ero gizonil-tzalle baten kontra bezela irten dezue ezpatakin ta makillakin ni preso artzea; eunero zuen arten jarrita tenplon eakusten aitze nitzen, eta beñe eninduzuen preso artu.
56. Egie da au guzie gertau dala profetan Eskriturak kunpli ditezen. Ordun dizipulu guztik, Jesus utzita, iges ein zoen.
57. Eta Jesus preso artu zoenak Kaifasen etxea eaman zoen, zein zan abade nausie urte artan, eta arutza inguratuik zeren Erakustzalle ta zarrak.
58. Eta Pedrok urrutiti seitzen zion, abade nausin etxea alleau arte. Eta sartuik, mirabekin baten jarrita zeon; au guztie zertan akabatzen zan ikusteko.

59. Ba abadean prinzipa, eta konzilio guztik Jesusen kontrako testimonio falson baten billaka zebiltzen, eriotza kondenatzeko.
60. Eta etzoeen naikoa billatzen ontako, testigo falso asko presentau izanagaiti. Aizkenen agertu zien bi testigo falso.
61. Eta esan zoen: Onek esan zion: Nik arrasau daiket Jainkon tenploa, eta berriz eiñ iru eunen.
62. Ordun, zuti jarrita abade nausik esan zion: Ez dezu ezer erantzuten zure kontra ok esan doenan gañen?
63. Baño Jesus ixilik zeon. Eta abade nausik esan zion: Nik enpeñu aundikin erregutze izut Jainko bizin parteti, esan deiuzula zu zan Kristo ero Mesias Jainkon Semea.
64. Jesusek erantzun zion: Zuk esan dezu ni naiz, eta aitortzen e dizuet gero ikusko ezuela aurreti daukezuen gizonan Seme au Jainkon majestaden eskubiko alden jarrita etortzen zeruko lañoan gañen.
65. Alako errespuesta zala mediante, abade nausik urrau zion be arropak, esanez: Blasfemau do, ze testigon bear daukeu onuzkero? Jainkon Semetzat eiten dalako blasfemie aitzeti zatozte.
66. Zer deituzoe? Zeri ak erantzun zioen esanez: Eriotzea mezi do.
67. Beala asi zien txistu botaka arpegira eta ukabilkazoka maltratatzeten, eta beste batzuk begik tapauta gero belarrondokok ematen zioen,
68. Esanez; Kristo, asmaizu, adibina zazu nor da eritu zaituna?
69. Bianbitarten, Pedro atari kanpon jarrita zeon, eta neskame batek arrimauta, esan zion: Jesus Galileakokin zebiltzen zu re.
70. Baño ark ukau zion danan aurren, esanez: Nik eztakit zer diozun.
71. Eta ark portikupea irten zonen, beirau zion beste neskame batek; eta an zerenai esan zien: Au e Jesus Nazarenokin arkitzen zan.
72. Eta ukau zion bigarren aldin juramentu eiñez: Ez det orlako gizonik ezautzen.
73. Andi piska batea alderau zien an zienak, eta Pedroi esan zioen: Iñolaz e zure Galileozko itz eiteko moduk ala diruri.
74. Ordun asi zan be burun kontra maldezioka eta juramentu eiten etzola alako gizonik ezautu. Eta bealaxe ollarra kantau zion.
75. Ordun akordau zan Pedro Jesusek esan zion itz artaz: Ollarra kantau baño lenao, ukauko diezu iru aldiz. Eta kanpora irtenda, negar ein zion garraxika.

OETA ZAZPIGARREN KAPITULUE



Urkatzen da Judas. Jesus da azotauē, burlauē, kurutzen josie ta blasfemaue. Be eriotzan gertau zien milagro; da enterraue, eta be sepulkroa sellatue ta zaitue.

1. Goize etor zanen, abadean prinzipte ta erriko zar guztik izan zoen juntea Jesusen kontra, il eraiteko.
2. Eta iltzea mezi zola esanda, eaman zoen lotue, eta ipin zoen Pon-zio Pilatos presidente ero gobernadoreen eskutan.
3. Ordun Judas, saldu zon ark ikusik Jesus sententziaue, ein zonez damutuik, itzuli zien oetamar zillarrezko diruk abadean prinzipte ta zarrai,
4. Esanez: Nik pekatu ein det, ba kulpaik baeko odola saldu et. Zeri ak erantzun zioen: Guri zer diu? or konpon.
5. Baño Judasek tenplon diruk botata, jun zan, eta soka bati kibistea ein da, desesperatuik, urkau zon be burue.
6. Baño abadetakoa prinzipek diruk bituta, esan zoen: Ezta libre ten-plon ondasunetan diru ok gordetzea, odolana prezioa dalako.
7. Eta juntan trautata gero, diru akin ontzigille baten barrutia erosi zoen; erbestekoan sepulturako.
8. Orreati barruti ari deitu zitzeke Hazeldama, au da: odolana kan-poa, eta la do izena gaur dan eunen.
9. Zekin kunplitu zan Jeremias profetek lendik esan zona, zeñek dion: Errezibitu itue oetamar zillarrezko diruk, leku arek balio zon beze-la, Israelgo semek estimatzen zoenez;
10. Eta ontzigille baten barrutia erosten gaztau zien, Jaunek aindu zien bezela.
11. Jesus izan zan ba presentaue presidente aurrea, eta galdetu zion: Zu za Judion erregea? Jesusek erantzun zion: Zuk diozu, banaiz.
12. Eta abadean prinzipek eta zarrak akusau ala guztiatike, etzon ezer erantzun.
13. Orreati Pilatosek esan zion: Ez dezu aitzen zenbait gauza zure kontra esate ituen?
14. Baño ark, esan zion guztiri, etzion ezer erantzun; eta la guztiz arritue geau zan presidentea.
15. Presidentek oitzen zon pazkoako pestan mediante, errik nai zon preso bati libertadea ematea.
16. Eta nola ordun zeon kartzelan, Barrabas deitzen zitzeke fama aundiko gaizto bat.
17. Galdetu zien Pilatosek ingurau zienai: zeñ nai dezue libra dezan, Barrabas, ero Jesus, Kristo ero Mesias deitzona?

18. Zeati ondo zekin, abadean prinzipek inbidiz entregau zioela.
19. Eta be tribunalen jarrita zeola, be andrea etor zitzeke esatera: Etzaitze nastu justo orren gauzatan, zeati asko die nik gaur pasau dituan estuasunek amesetan orren kausagaiti.
20. Bianbitarten abadean prinzipek eta zarrak sinistu erain zioen erri-ri eska zezala Barrabasen libertadea, eta Jesusen eriotzea.
21. Eta la presidentek berriz galdetu zienen, eta esan: Zein bitako nai dezue libra dezan? Ak erantzun zoen: Barrabas.
22. Pilatosek esan zien berriz: Ba ze eñ bear diot Jesus, Kristo dei-tzonai?
23. Danak esaten doe: kurutzen josie izan bedi. Eta presidentek: Baño zer oker ein do? Eta ak asi zien deadar geiao eiten esanez: Kurutzen josie izan bedi.
24. Zekin Pilatosek ikusik etzola ezer aurreatzen, baizik gero ta geiaora zijola alborotoa, ure ekartzeko ainduta, garbitu zitun eskuk errin aurren, esanez: justo onen odolana kulpaik ez tet nik; or konpon zaitetze.
25. Zeñi erri guztik erantzunez, esan zon: Gure ta gure semen gañea eroi deilla orren odola.
26. Ordun librau zien Barrabas; eta Jesus, azotau erainda gero, entre-gau zion be eskutan kurutzen josie izan zedin.
27. Bealaxe presidenten soldaduk, Jesus artu ta Pilatosen palazioko portikupen ipiñita, juntau zan be ingurumarin konpañi bat oso osoa;
28. Eta erantzik, ez tali zoen granazko mantu batekin;
29. Eta arantzazko koroi bat eota, ipin zioen burun gañen, eta kaña-bera bat urrezigortzat be eskubiko eskun. Eta belauniko jarrita burla eiten zioen, esanez: Jainkok salba zaitzela, Judion errege.
30. Eta txistu botaka, artzen zoen kañaberea, eta burun eritzen zoen.
31. Eta orla parre einda gero, kendu zioen mantue, eta berriz be arro-pak jantzita, eta zoen kurutzen jasotzea.
32. Erriti irtitzen (sic) zireneko, Simon zeitzone gizon bat topau zoen, zeñi obligau zoen kurutzea eamatea.
33. Eta Golgota izena don leku batea alleauta, au da, Kalbarioko ero kalaberan lekura,
34. An eman zioen eraten ardoa beazunekin nastuta. Baño ark, pro-gau zonen, etzon ean ai izan.
35. Kurutzen josi ondona, euren arten partitu zituen aen arropak, suerte botata: onekin kunplitu zan profezie, zeñek dion: Partitu zituen euren arten ne arropak, eta suertek bota zituen zeñentzat izan ne tunikea.
36. Eta ren ondona jarrita zaitzen zoen.



37. Burun gañen e ipini zioen be kondenazioa zen mediante zan ai eraiteko itz ok: Au da Jesus Judion Erregea.
38. Arekin baten kurutzen josik izan zien bi lapur; bat eskubiko alden, eta bestea ezkerreko alden.
39. Eta andi pasatzen zienak blasfemau ta burla eiten zioen bururi erañez, eta esanez:
40. Ola, Jainkon tenploa arrasau, eta iru eunen berriz eiten dezun orrek, salba zazu zere burue: Jainkon Semea baza, jatxi zaite kurutzeti.
41. Igoal abadean prinzipiek-e, erakustzalle ta zarrakin baten, insultatuz, esaten zoen:
42. Bestek salbau ditu, eta ezin salbau do be burue, Israelgo errege bada, jatxi bedi oain kurutzeti, eta sinistuko deu beragan.
43. Berak Jainkon ipintzen do be konfiantzea; ba balin Jainkok ain maite bazon, libra beza oain; berak esaten don kason: Ni naiz Jainkon Semea.
44. Eta ori bera musura ematen zioen bekin batea kurutzen josik zeren lapurrek-e.
45. Baño seigarren orduti beatzigarrenea lur guztie illunez estalie geau zan.
46. Eta ia beatzigarren ordun Jesusek deadar ein zon oi u aundi batekin, esanez: Eli, Eli, lamma sabakthani? Au da: ne Jainkoa, ne Jainkoa, zeati desanparau nazu?
47. Eta au aituta beira zeren atako batzuk, esaten zoen: Eliasi otseiden dio onek.
48. Eta beala atako batek korrika artu esponja bat, buzti ozpiñetan, eta kañabera baten puntan ipiñita, ematen zion txupatzeko.
49. Bestek esaten zoen: Utziozu, ikusi zagun Elias libratzea etortzen zakon.
50. Ordun Jesusek berriz deadar eiñez oi u aundi ta klaro batekin, entregau zon be espiritue.
51. Eta bealaxe tenploko beloia bi puska ein zan goiti beraiño, eta lurrek ikara ein zon, eta puskau zien arrik.
52. Eta sepulkrok iriki zien, eta il zien santu askon gorputzek berriz piztu zien.
53. Eta Jesus berriz sepulturatati irtenda piztuta gero etor zien erri santura, eta askoi agertu zitzaien.
54. Bianbitarten zenturiona ta arekin Jesus zaitzen zerenak, ikusik lurrikarea, eta gertatzen zien gauzak, bildur aundiz bete zien, eta esaten zoen: Egiz gizon au zan Jainkon Semea.

55. Andra asko-re bazeren an urrutin, Jesusi Galileati seitu zioenak hura serbitzeko.
56. Atakok zien Maria Madalena, eta Maria Santiagon ta Josen ama, eta Zebedeon semen ama.
57. Illuntzea etor zanen agertu zan Arimateko gizon aberats bat, Jose zeitzona, zeñ e zan Jesusen dizipulue.
58. Au Pilatosi presentau zitzekon, eta eskau zion Jesusen gorputze, zeñ aindu zon Pilatosek entrega zezaioela.
59. Ba Josek, Jesusen gorputze artuta bitu zon izara garbi baten,
60. Eta ipin zon be sepultura baten, zeñ iriki erain zon aitz baten, eta etzon oaindi iñork estreñau, eta arri aundi bat arrimauta, itxi zon sepulkron atea, eta jun zan.
61. An zeren Maria Madalena, eta beste Maria, sepulturen aurren jarrita.
62. Biramonen, zein zan zapatuko preparazion ondorengo eune, ero zapatue bera, Pilatoseana jun zien abadean prinzipiek eta Fariseok alkarrekin,
63. Esanez: Jaune, akordau gea engañatzalle ark, oaindi bizik zeola, esan zola: Irugarren eunen berriz piztuko naiz.
64. Aindu zazu ba sepulkroa zaitu dezela irugarren euneaño; be dizipuluk gaeuz jun ta ostu ez dezen, eta jende komunei esan ez deioen: Piztu da illen arteti, eta izan deiñ aizkeneko engañue lenengoa baño kaltetsugoa.
65. Pilatosek erantzun zien: Orra or nun daukezuen guardie, zoazte, eta ipin zazue deitzozuen bezela.
66. Orrekin arutza junda, segurau zoen ondo sepulkroa, eta guardik bistan ipiñita.

OETA ZORTZIGARREN KAPITULUE

Jesusen berrizko piztea; aen agertzea andra santuai, agertzen zaie apostoloai e, eta aintzen die be laguntzea.

1. Zapatuko gaue aurea ezkerro, asten lenengo eunen ero domeika eun sentin, Maria Madalena beste Mariakin etor zan, sepulkro bistatzea.
2. Garai ontan lur ikara aundi bat sentitu zan, zeati zeruti jatxi zan Aingeru bat, eta sepulkroa alleauta arrie mogitu zon; eta onen gañen jarri zan.
3. Aen arpegik tximiste pezela argi eiten zon, eta aren jantzie elurre bezin zurie zan.



4. Zeñeaz ain bildurtaik geau zien zaitzallek, nun illek zirurien.
5. Baño Aingeruk, andrai beiratuz, esan zien: Zuek ez dezue zen bildurrik izan, ba ondo dakit Jesus kurutzen josie izan zanan billa zatoztela;
6. Emen eztago ia, zeati berriz piztu da, lendik esan zon bezela. Atozte, eta beira-zue Jaune enterratue zeon lekue.
7. Eta oaiñ zoazte geau bae be dizipuluai berriz piztu dala esatea; eta ona nun dijoan zuen aurreti Galileara, an ikusko ezue, esate-izuet aurreti.
8. Ak irten zoen bealaxe sepulkroti bildurrez eta poz aundikin, eta jun zien laisterka dizipuluai berri ematea.
9. Eta ona nun Jesusek irtetzen dien bidera esanez: Jainkok goarda zaitzetela; eta ak arrimatuta, lurrea auspeztuik, besotan artu zituen aen oñek, eta adoraui zoen.
10. Ordun Jesusek esaten die: Ezazue bildurrik izan, zoazte, abisaie-zue ne anaiei dijoatzela Galilea, an ikusko nauela.
11. An zijoatzen bitarten, zaitzalletako batzuk etor zien erria, eta abadean prinzipelai kontau zioen pasau zan guztie.
12. Eta ok zarrakin inguratuik, euren juntea izanda, diru kantidade aundie eman zien soldaduai,
13. Onako istruzio okin: Esan bear dezue, gu lo gendela, be dizipuluek etor zien gauez, eta ostu zoen.
14. Eta ori balin presidenten belarrita alleatzen bada, guk gozatuko deu, eta ondo etako zaitueu.
15. Ak, dirue artu zoenen, ein zoen aindu zioena; eta ots onek korritu do Judion arten, gaur dan euneaiño.
16. Eta amaika dizipuluk abiau zien Galilea, Jesusek señalau zien mendira.
17. Eta ikusi zoenen adoraui zoen; naiz izan batzuk euren dudak.
18. Ordun Jesusek alderau ta itz ein zien modu ontan: Eskubide guztie emana zat zerun, eta lurren;
19. Zoazte ba, eta erakutsiezue nazio guztiai asasuneako (sic) bidea, Aiten, eta Semen, eta Espiritu Santun izanen bautizatuz;
20. Nik aindu dizuean gauza guztik gordetzen erakutsiz. Eta zate seguro ni neoni eongo naizela zuen arten beti mundu aizkeneaiño.

Fuenterrabia 17 de Junio 1867
Klaudio Otaegi

ZEGAMAKO DOTRINA

Kristauen doktrinarako Sarrerea

Kristau fiel guztik dare obligaturik debozioa izatea biotz guztitik, Jesus gure argin kurutze santukin nun ill nai izan zon gu ateratzea gaiti pekatun mendetik ta deabrun katiberiotik. Orreati ba oitu bear zera ala ziñatzea nola aitearen egitea iru kurutze egiñez. Lenengoa bekokin, Jainkok libra gaitzen pensamentu txarretatik; bigarrena auan, Jainkok libra gaitzen itz gaiztotatik; irugarrena bularretan, Jainkok libra gaitzen obra ta deseio gaiztotatik. Onla esanez: kurutze + santun señailea gaiti gure + etsaietatik libra gaitzetzu gure Jaune + ta Jainkoa. Aitearen, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenen Amen.

Kredoa

Sinisten det Jainko Aite, guztiz aldonen, zerun ta lurren egintzallea, ta aren seme bakar Jesukristo gure Jaunen, zeñ sortu zan Espiritu Santun obraz ta graziz. Jaio zan Marie dontzeleandik (sic); padezitu zon Ponzio Pilatosen agintzen azpin; izan zan kurutzen josie, ille ta lurpetue, jatsi zan infernutara, irugarren egunen piztu zan illen artetik; igo zan zerutara, ta dago jarririk Jainko Aite guztiz aldonen eskubiko aldetik, andik etorriko da bizik ta illek juzgatzea. Sinisten det Espiritu Santun Eliza Ama Santa Katolikea, Santun komunioa, pekatun barkazioa, aragin berriz piztuera ta bizitza sekulakoa. Amen.

Artikulu fedekok die amalau, lenengo zazpirek tokatzen zako Jainkotasuneri, ta beste zazpirek gure Jaun Jainko ta gizon egizkon umanidade Santuri. Jainkotasuneri tokatzen zakonak die ok: Lenengoa, sinistu Jainko guztiz aldonen bakar baten. Bigarrena, sinistu Aite dala. Irugarrena, sinistu Semea dala. Laugarrena, sinistu Espiritu Santue dala. Bostgarrena, sinistu Kriadorea dala. Seigarrena, sinistu Salbadorea dala. Zazpi-garrena, sinistu glorie emallea dala. Umanidade santuri tokatzen zakonak die ok. Lenengoa, sinistu Jesukristo gure Jaune, gizona dan aldeti izan zala sortue Espiritu Santun obraz ta graziz. Bigarrena, sinistu jaio zala Santa



Marie dontzelleandik, geatzen zala dontzella, jαιο baño lenago, jaiotzen ta jαιο ezkeru. Irugarrena, sinistu artu zitula eriotza ta pasioa gu pekatariok salbatzeagaiti. Laugarrena, sinistu jatsi zala infernutara, ta bere etorrera Santuri itxoten zeren Guraso Santun animak atara zitun. Bostgarrena, sinistu piztu zala illen artetik irugarren egunen. Seigarrena, sinistu igo zala zerutara, ta dagola jarrita Jainko Aite guztiz aldonen eskubiko aldetik. Zazpigarrena, sinistu etorriko dala bizik ta illek juzgatzea, esan nai det, onai emateko glorie zeatik gorde zituen aren mandamentu Santuk, ta gaiztoai sekulako pena zeatik gorde ez zituen.

Aite gurea

Aite gurea, zerutan zarena, santifikatue izan bedi zure izena; betor gugana zure erreinue, ein bedi zure borondatea ala zerun nola lurren. Ema iuzu euneoko gure ogie, ta barka iuzu gure zorrak guk gure zordunei barkatzen dieun bezela, ta ez gaitzetzu utzi tentazion erortzen, baizik libra gaitzetzu gaitzeti Amen. Abe Marie, graziz betea, Jaune da zurekin, beinkatue za zu andra guztin arten ta beinkatue da zure sabeleko frutue Jesus. Santa Marie, Jainkon Ama, erregutu zazu gu pekatariok gaiti oaiñ ta gure eriotzako ordun Amen.

Salbea

Jainkok salba zaitzela erregiña ta errukizko ama, bizitza ta gozotazun, esperantza gurea, Jainkok salba zaitzela; zuri otska gare Eban ume desterratuk, zuri zizpiratzen gare, llantuka ta negarrez negarrezko toki ontan; Ia ba Andrea, itxuli itzetzu gugana zure begi errukizkok, ta destierro au ezkeru erakutsi eiguzu Jesus zure sabeleko frutu beinkatue. O biotz berakoa! O errukitzue! O birjina Marie gozoa! erregutu zazu gugaiti Jainkon Ama santea, izan gaitezen dignok alkantzatzea gure Jesukristo Jaunen promesak. Amen.

Jainkon legeko mandamentuk die amar: Lenengo irurek tokatzen zako Jainkon onreri ta beste zazpirek projimon protxuri. Lenengoa, Jainkoa maite izatea gauza guztin gañen. Bigarrena, aren izen santuz jurementu alperrik ez egitea. Irugarrena, jai egunek santifikatzea. Laugarrena, aite ta ama onratzea. Bostgarrena, ez iñor iltzea. Seigarrena, lujuriko peka-

turik ez egitea. Zazpigarrena, ez ostutzea. Zortzigarrena, testimonio fal-sorik ez jasotzea, ez gezurrik esatea. Beatzigarrena, projimon andrarik ez deseatzea. Amargarrena, besten ondasunik ez kutizitzea. Amar mandamentu ok sartzen die bitan: Jainkoa serbitzen ta maite izaten gauza guztin gañen ta projimoa geu bezela. Amen.

Kristauen doktrinarako azaltzea galdetzen ta erantzuten dala

GALDETZEN DET: Kristaue zera?

ERANTZUTEN DET: Bai, Jainkon graziz.

G. Kristauen izen au zeñeandik izan zendun?

E. Kristo gure Jaunendik.

G. Zer esan nai do kristauek?

E. Kriston gizona.

G. Zer aitzen dezu Kriston gizona gaiti?

E. Jesukriston fedea don gizona, zeñek artu zon bautizon, ta dago eskeñirik aren serbizio santura.

G. Zeiñ da kristauen señailea?

E. Kurutze santue.

G. Zeatik?

E. Zeatik dan Kristo kurutzen josin itxurea nun erredimitu ginduzen.

G. Zenbait modutan egiten do kristauek señaile au?

E. Bitan.

G. Zeintzuk die?

E. Ziñatzea ta Aitearen egitea.

G. Zer gauza da ziñatzea?

E. Iru kurutze egitea eskubiko eskuko beatz lodikin. Lenengo bekokin. Bigarrena auan. Irugarrena petxutan, itz egiten dola Jainko gure Jaunekin.

G. Erakutzi nola?

E. Kurutze santuren + señailea gaiti, gure + etsaietatik, libra gaitzetzu + gure Jaune ta Jainkoa.

G. Zeatik ziñatzen zera bekokin?

E. Jainkok libra gaitzen pensamentu txarretatik.

G. Zeatik auan?



- E. Jainkok libra gaitzen itz gaiztotatik.
- G. Zeatik petxutan?
- E. Jainkok libra gaitzen obra ta deseo gaiztotatik.
- G. Zer gauza da Aitearen egitea?
- E. Kurutze bat egitea eskubiko eskuko beatz bikin, bekokiti petxutaraño, ta ezkerreko sorbaldati eskubikuraño, otsegiten diola Trinitade guztiz santeri.
- G. Erakutzi zu nola?
- E. Aitearen, ta Semearen, + ta Espiritu Santuaren izenen. Amen.
- G. Noiz egin bear degu señaile au?
- E. Obra onen bat asitzen gean guztin, ero arkitzen geanen premin, tentazio ero peillen baten, batezere oiti jaikitzen, etxetik irtetzen, elizan zartzen, jatordun, ta oira etziten.
- G. Zeatik onenbeste bider?
- E. Zeatik beti, ta toki guztitan gure etsaiek gonbatitu ta persegitzen gaituen.
- G. Zer etsai die ok?
- E. Demonioa, mundue ta aragie.
- G. Ba kurutzek bado birtuterik etsai orin kontra?
- E. Bai jaune.
- G. Nundik dauke kurutzek birtute ori?
- E. Kristok bere eriotzakin an bentzitu zitulako.
- G. Kurutzea adoratzan dezunen nola esaten dezu?
- E. Adoratzan ta beinkatzen zaitugu Kristo, zeren zure kurutze santuandik libratu zendun mundue.

Kristauen doktrinarako partizioa

- Ikusi degu nola zeran kristaue, kristauen izena ta señaletik. Esan iezu oaiñ.
- G. Zenbait gauza jakin bear ditu kristauek uso arrazoizkora etortzen danen?
- E. Lau gauza.
- G. Zeintzuk die?
- E. Jakitea zer sinitu, zer orazio, zer obratu ta zer artu bear don.
- G. Nola jakingo do zer sinitu bear don?
- E. Jakiñekin kredoa ero artikulu fedekok.
- G. Nola jakingo do zer orazio egin bear don?
- E. Jakiñekin Aite gurea ta elizako beste oraziok.
- G. Nola jakingo do zer obratu bear don?

- E. Jakiñekin Jainkon legeko ta Eliza Ama Santen mandamentuk ta obra miserikordizkok.
- G. Nola jakingo do zer artu bear don?
- E. Jakiñekin Eliza Ama Santen Sakramentuk.

Lenengo partea kristauen doktrinarako zeñetan aitu eraiten ditun Kredoa ta artikulu fedekok

- Gatozela lenengora, esazu: nork esan zon Kredoa?
- E. Apostolok.
- G. Zertako?
- E. Guri fede santuko gauzak erakusteko.
- G. Ta zuk zertako esaten dezu?
- E. Kristauek degun fede au aitortzeko.
- G. Zer gauza da fedea?
- E. Sinistea ikusi ez deguna.
- G. Ikusi zendun Jesukristo jaiotzen?
- E. Ez jaune.
- G. Ikusi zendun iltzen ero zerutara igotzen?
- E. Ez jaune.
- G. Sinisten dezu?
- E. Bai sinisten det.
- G. Zeatik sinisten dezu?
- E. Zeatik gure Jainko Jaunek ala argitu zon Eliza Ama Santak onla erakusten digun.
- G. Zer gauza die kristaue bezela dausketzunak ta sinisten dituzunak?
- E. Eliza Ama Santa erromakok dauzkenak ta sinisten ditunak.
- G. Zer die zuk ta Eliza Ama Santa erromakok dezuenak ta sinisten dituzuenak?
- E. Artikulo fedekok batezere kredon daren bezela.
- G. Zer gauza die artikulu fedekok?
- E. Die gure fedeko misterio lenenak.
- G. Zertako die artikulu fedekok?
- E. Emateko berrie gure Jainko ta Jesukristo gure Redentorena.
- G. Zein da Jainkoa?



E. Da gauza bat esan eta uste izan alditen izaterik aundi ta arrigarrina, jaun bat aitzen bagerik ona, guztie daikena, jakintsue, zuzena, gauza guztien asiera eta akabera.

G. Trinitate guztiz Santea nor da?

E. Da Jainkoa bera Aite, Semea ta Espiritu Santue, iru persona diferentek eta egizko Jainko bat bakararra.

G. Aite Jainkoa da?

E. Bai jaune.

G. Semea Jainkoa da?

E. Bai jaune.

G. Espiritu Santue Jainkoa da?

E. Bai jaune.

G. Iru Jainko die?

E. Ez, baizik Jainko egiazko bat bakararra, nola dan ere guztie daiken bat bakararra, betiko bat bakararra eta Jaun bat bakararra.

G. Aite Semea da?

E. Ez jaune.

G. Espiritu Santue Aite ero Semea da?

E. Ez jaune.

G. Zeatik?

E. Zeatik iru personak dien diferentek, naiz izan Jainko egizko bakar bat.

G. Ori danez, zenbait izate, zentzu ta borondate arkitzen die Kriston?

E. Izate bat, zentzu bat ta borondate bat bakarrak.

G. Ta zenbait persona?

E. Iru diferentek: zeñak dien Aite, Semea ta Espiritu Santue.

G. Nola da Jainkoa guztie daikena?

E. Zeatik bere nai izatekin bakarrik erozeñ gauza egiten don.

G. Nola da egintzalea?

E. Zeatik utsetik egin zitun gauza guztik.

G. Zertako egin zon Jainkok gizona?

E. Bera mundu ontan serbitzeko ta gero zerun postutzeko.

G. Nola da Salbadorea?

E. Zeatik ematen don grazie ta barkatzen ditun pekatuk.

G. Nola da glorie emallea?

E. Zeatik ematen dion glorie aren grazin diraunenari.

G. Jainkok bado korputz iruririk guk bezela?

E. Jainkoa dan aldetik ez, zeatik dan Espiritu garbie; baño bai gizona dan aldeti.

G. Iru persona Jainkozkatatik, zeñ egin zan gizon?

E. Bigarrena, zeña dan semea.

G. Aite egin zan gizon?

E. Ez jaune.

G. Espiritu santue egin zan gizon?

E. Ez jaune.

G. Zein ba?

E. Semea bakarrik, zeñi gizon egiñik deitzen Jesukristo.

G. Ba ori danez, zein da Jesukristo?

E. Da Jainko bizin Semea, gu erosteagaiti, ta bere antzera bizitzen erakustea gaiti gizon egin zana.

G. Ta zenbait izate, borondate ta zenzu arkitzen die Kriston?

E. Bi izate: bat Jainkozkoa ta bestea gizonezkoa, bi borondate Jainkozkoa bat ta gizonezkoa bestea, ta bi zentzu, bat Jainkozkoa ta bestea gizonezkoa.

G. Ta zenbait persona ta memori?

E. Jainkozko persona bat bakararra zeña dan Trinitate guztiz santun bigarren persona, ta memori bat bakararra gizona dan aldeti, zeatik Jainkoa danez ez dauke memori.

G. Zer esan nai do Jesusek?

E. Salbadorea.

G. Zertatik salbatu ginduzen?

E. Gure pekatutik ta deabrun mendetik.

G. Zer esan nai do Kristok?

E. Untatue.

G. Zekin izan zan untatue?

E. Espiritun Santun grazie ta doiez.

G. Kristo gure Jaune nola sortu ta jaio zan Ama dontzelleandik?

E. Obratzen zola Jainkok gure gañetik ta milagro.

G. Zeatik esaten dezu gure gañetik ta milagro?

E. Zeatik Jesukristo ez sortu ta ez jaio egin zan beste gizonak bezela.

G. Ba nola obratu zan sortze aren misterioa?

E. Marie dontzellen entreñatan, Andra onen odol txit garbitik, Espiritu santuk egin zon korputz bat guztiz obena, utseti egin zon anima bat ta alkartu zon korputzarekin, ta orduntxe bertan korputz ta anima oki bitu zitzairen Jainkon semea, ta modu ontan len Jainkoa bakarrik zana, egin zan gizon Jainkotasune utzi bage.



G. Ta nola jaio zan milagro?
 E. Irtetzen zala Marie guztiz santen sabeletik bere dontzellatasunen kalte bage, kristal batetik erreñue sartzen dan bezela ura ausi ta zikindu bage.

G. Ta gero bere Ama beti bizi izan zan dontzella?
 E. Bai jaune beti.
 G. Zeatik nai izan zon ill kurutzen Kristok?
 E. Gu libratzea gaiti pekatuti ta eriotzati.
 G. Nola ba erori giñen artan?
 E. Egitekin pekatu gure lenengo aite Adanek, noen guztiok egin gendun pekatu.

G. Zer aitzen dezu Kristo gure Jaune ill ta jatxi zan infernutik?
 E. Ez kondenatun tokira, baizik linbora anima dontsuk zerenera.
 G. Zer, bada infernu bat baño geiago?
 E. Bai jaune, lau die lurren erdin, ta deitzen zaie kondenatun infernue, purgatorioa, umen linboa, ta anima dontsun linboa.
 G. Ta zer gauza die?

E. Kondenatun infernue da tokie, nora juden dien pekatu mortalen iltzen dienak, an beti izateko oñazatuk. Purgatorioa, da tokie, nora juden dien Jainkon grazin iltzen dianan animak, oso pagatu bage bere pekatuk gaiti izateko an purgatuk oñaza aundikin. Umen linboa da tokie, nora juden dien uso arrazoizkora etortzera baño lenago bautizatu bage iltzen dianan animak, ta anima dontsuna da tokie, nora juden zien gure errendizioa egin arte Jainkon grazin iltzen zianan animak, oso pagatu ta gero, ta Jesukristo bera artara jatxi zan izatez ta egiz.

G. Nola jatxi zan?
 E. Animea Jainkotasuneri biturik.
 G. Ta korputze nola gelditu zan?
 E. Biturik bere Jainkotasunez.
 G. Nola piztu zan irugarren egunen?
 E. Biurtzen ziela bitzera bere korputze ta anima gloriosoza ez beñere berriz iltzeko.

G. Nola igo zan zerutara?
 E. Bere birtutez.
 G. Zer da egotea eseririk Aite Jainkon eskubiko aldetik?
 E. Izatea Aitek ainbe glori Jainkoa danez, ta erozeñek baño geigo gizona danez.
 G. Noiz etorriko da bizik ta illek juzgatzea?
 E. Mundun akaberan.

G. Ta ordun piztuko die ill guztik?
 E. Bai jaune, lengo korputz ta animakin berakin.
 G. Ta mundun akaberea baño lenago izango die gizonak juzgatuk?
 E. Bai jaune, guztik bere bizin akaberan juzgatu ta erabakiko ditu Jaunek, onai betiko gozatzea Jainkoa zerun, ta gaiztoai padezitzea infernun betiko oñazak.

G. Zer sinisten dezue esaten dezunen, sinisten det Santun Komunia?
 E. Kristau fiolak duela parte besten animen ondasunetan korputz baten puska ero zatik bezela, zeña dan Eliza.

G. Zein da Eliza?
 E. Da kristau fielan kongregazioa, zeñen burue dan Aite Santue.
 G. Nor da Aite Santue?
 E. Erromako abade nausie, Kriston ordekoa lurren, zeñi guztiok garen obligaturik obeditzea.

G. Kredoa ta artikuluz gañera, besteik sinisten dezu?
 E. Bai jaune, Eskritura Santan dagon guztie, ta Jainkok Elizeri agertu dion guztie.

G. Zer gauza die ok?
 E. Ez ori galdetu niri, ba naiz ez dakiana, baditu Eliza Ama Santek jakingo duenak erantsuten.

G. Ondo diozu, jakintsuei dagokie kontu ematea fede santuko gauza guztina, ta ez zuri; zuentzat asko da ematea Artikulunak, Kredon daren bezela.

Kristauen doktriñen bigarren partea nun aitzen ematen dan, zer eskatu bear dan, ta Ama eliza santen oraziok

Ikusi degu nola dakizun sinistu bear dezuna, zer dan lenengoa, gaton bigarrenera, zer dan eskatu bear dana.

G. Esazu: nork esan zon Aite gurea?
 E. Jesukristok.
 G. Zertako?
 E. Guri orazioa egiten erakusteko.
 G. Zer gauza da orazioa egitea?
 E. Da jasotzea biotza Jainkogana ta eskatzea ari mesedek.



G. Zenbait modutara da orazioa?

E. Bitara: auskoa ta zentzuzkoa.

G. Zer da zentzuzkoa?

E. Da egiten dana animen potenzik mogitzen diela, akordatzen geala memorikin gauza onen batez, pensatzen ta ikusten degula zentzuzkin bere gañez, ta egiten ditugula borondatekin egite on batzuk, nola dan pekatun damutasune, ero buruz bide batzuk nola dien konfesatzeko ero bizitza mudatzeko.

G. Zer da auskoa?

E. Da egiten deguna itzek esanez, g.a. egiten deguna Aite gurea erre-zatzen degunen.

G. Ta nola egin bear da orazioa?

E. Atenzio, umiltasun, konfianza ta iraupenakin.

G. Aite gurea esaten dezunen nokin itz egiten dezu?

E. Jainko gure Jaunekin.

G. Nun dago Jainko gure Jaune?

E. Toki guztitan, batezere zerutan ta Aldareko Sakramentu guztiz Santun.

G. Ta Kristo gizona danez nun dago?

E. Zerun ta Aldareko Sakramentu guztiz Santun bakarrik.

G. Zein da oraziotan onana?

E. Aite gurea.

G. Zeatik?

E. Zeatik Jesukristok esan zon bere auti Apostolon eskabidez.

G. Zeatik geigo?

E. Zeatik dauzken zazpi eskabide karidade guztin sartzen dienak.

G. Zeintzuk die?

E. Lenengoa da santifikatue izan bedi zure izena.

G. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

E. Jainkon izena izan dedilla ezagutue ta onratue mundu guztin.

G. Zein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erreinue.

G. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

E. Erreinatue dezala Jainkok gure animatan emen lurren grazikin, ta gero eman dizagula glorie.

G. Zein da irugarrena?

E. Egin bedi zure borondatea ala zerun nola lurren.

G. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

E. Egin dezagula Jainkon borondatea lurren garenak, zorionekok zerun egiten doen bezela.

G. Zein da laugarrena?

E. Eman iguzu eguneoko gure ogie.

G. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

E. Jainkok eman deigula korputzeri konbeni zakon janarie, ta animentzat grazie ta sakramentuk.

G. Zein da bostgarrena?

E. Barkatu eiguzu gure zorrak guk gure zordunei barkatzen diegun bezela.

G. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

E. Barkatu deigula Jainkok gure pekatuk, guk barkatzen diegun beze-la kalte ta gaizki egin digunari.

G. Zein da seigarrena?

E. Ez gaitetzula utzi tentazion erortzen.

G. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

E. Ez deigula utzi Jainkok erortzen, ta ez leku ematen pensamentu ta tentazio gaiztotan, zeñekin deabruk prokuratzen don gu pekatun eroitzea.

G. Zein da zazpigarrena?

E. Baizik libra gaitzetzu gaitzetik.

G. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

E. Libra gaitzela Jainkok anima ta korputzeko gaitz ta peligro guzta-tik (sic).

G. Ba zeatik lenengo esaten dezu Aite gurea zerutan zarena?

E. Jasotzeko biotza Jainkogana ta eskatzeko umiltasun ta konfianze-kin.

G. Zer esan nai do arako aizkenen esaten dezun itz Amen ark?

E. Ala izan dedilla.

G. Zer orazio esaten diozu batezere gure Ama Birjiñeri?

E. Abe Marie ta Salbe.

G. Nork esan zon Abe Marie?

E. Aingeru S. Gabrielelek etorri zanen diosala egitea gure Señora Marie Birjiñeri.

G. Nork esan zon Salbea?

E. Ama Eliza Santek dauke artue.

G. Zertako?

E. Gure Señoreri eskatzeko mesedek.

G. Esaten dezunen Abe Marie ero Salbea nokin itz egiten dezu?

E. Gure Señora Marie Birjiñekin.



- G. Nor da gure Señora Marie Birjiña?
 E. Da andra bat birtutez betea, Jainkon Ama ta zerun dagona.
 G. Ta aldaren dagona, nor da?
 E. Da zerun dagonan ants bat.
 G. Ta zertako dago an?
 E. Zertako artati akorda gaitetzen zerun dagonaz ta bere irurikoa dalako erreberenziatu dezagun.
 M. Ba igoal egin bear diezue beste Santun imajiña ta erreliekiei.
 G. Egin ber diezu orazio Aingeru ta santuei ere?
 E. Bai Jaune gure bitartekoai bezela.
 G. Zer gauza die aingeruk?
 E. Die zorioneko espiritu batzuk darenak zerun Jainkoa gozutzen.
 G. Zertako egin zitun Jainko gure Jaunek?
 E. Beti alabatu ta beinkatu dezen.
 G. Ta zertako geigo?
 E. Aren Ministrok bezela goberna Elizea, ta gorde gizonak.
 G. Beraz zuke badezu Aingeru guardakoa?
 E. Bai dauket, ta gizon bakoitzek dauke berea.
 M. Ba izan egiozu debozio asko, ta enkomendatu berai egunero.

Irugarren partea

nun aitzea ematen dan zer obratu bear dan

- Ikusi degu zer sinistu ta zer orazio egin bear dezun, ikusi dezagun nola dakizun zer obratu bear dezun. Esazu:
 G. Zein da Jainkon legeko lenengo mandamentue?
 E. Maite izatea Jainkoa gauza guztin gañen.
 G. Nork maite izaten do Jainkoa?
 E. Aren mandamentu santuk gordetzen ditunak.
 G. Zer da Jainkoa maite izatea gauza guztin gañen?
 E. Naigo izatea galdu gauza guztik bera ofenditu baño.
 G. Zertara geigo obligatzen do mandamentu onek?
 E. Adoratzea Jainkoa bakarrik korputzeko ta animako erreberenzia geienakin sinisten ta esperatzen degula beregan fede bizikin. G. Nork egi-ten do pekatu onen kontra?
 E. Idolotan ero Jainko falsotan adonatu ero sinisten donak, sinisten donak gauzan bat feden kontra ero dudatzen do aren misterion baten, ero

ez jakin premizkok, egiten ez ditunak obligatue dagonen fede, esperantza ta karidadeko aktok, ero deskonfiatzen do Jainkon errukitazunez, ero artzen do ez diñaro Sakramentun bat.

- G. Nork geigo?
 E. Sinisten donak astinantzatan ero usatzen donak sorginkeritan.
 G. Zein da bigarrena?
 E. Aren izen santuz juramentu alperrik ez egitea.
 G. Nork egiten do juramentu alperrik?
 E. Juramentu egiten donak egie, justizie ta premie bage.
 G. Zer da juramentu egitea egie bage?
 E. Juramentu egitea sentitzen donan kontra ero gezurrekin.
 G. Ta nola pekatu egiten do juramentu egiten donak egie bage ero dudekin juramentu egiten dona egie ote dan?
 E. Mortalkiro, naiz juramentue izan dedilla gauza ariñen gañeti.
 G. Zer da juramentu egitea justizi bage?
 E. Juramentu egitea gauza bat bidebagekoa ta txarra, projimori gaitzen bat egitea bezela.
 G. Ta nola pekatu egiten do juramentu egiten donak justizi bage?
 E. Mortalkiro baldin bidebageko gauzea bada pisue ta beniala, bada ariñe.
 G. Zer da juramentu egitea premi bage?
 E. Juramentu egitea kausa pisu bage, ero momentu gutxiko gauzak gaiti.
 G. Zer pekatu da au?
 E. Beniala ezpado faltatzen egiri, justiziri ta juramenturi.
 G. Ta egiten donak juramentu, boto ero promesa gauza on bat egi-teko obligatue dago ura kunplitzea?
 E. Bai jaune, ta ez kunplitzea ura, ero beandutzea asko da pekatu mortala, izanez gauza pisue.
 G. Ta pekatu da juramentu egitea kriaturek gaiti?
 E. Bai jaune, zeatik atan egiten zakon juramentu utsetik egilleri.
 G. Nola juramentu egiten da kriaturekgaiti?
 E. Esaten dala g.a. nere animen gaiti, zerun ta lurren gaiti, etc., au ala izan dedilla.
 G. Zer erremedio dago juramentu alperrik ez egiteko?
 E. Oitzea esatea bai ero ez Kristok erakusten digun bezela.
 G. Ta debekatzen da gauzan bat geigo mandamentu ontan?
 E. Bai jaune, debekatzen da re blasfemie, zer dan esatea bidebageko itzek Jainkon ta bere santun kontra, dana pekatu mortala.



- G. Zein da irugarrena?
 E. Jai egunek santifikatzea.
 G. Nork santifikatzen ditu jaiek?
 E. Meza osoa entzun, ta atan premi bage bear egiten ez donak.
 G. Ta nola pekatu egiten do jaietan premi bage bear egiten donak?
 E. Mortalkiro baldin bear egiten bado ordu bi baño geigo, ta gutxi-go egiten bado benialkiro geianen.
 G. Zein da laugarrena?
 E. Aite ta ama onratzea.
 G. Nork onraten ditu gurasok?
 E. Obeditutzen, laguntzen ta erreberenziatzen dituenak.
 G. Zeintzuk pekatu mortala egiten doe onen kontra?
 E. Gurasoai obeditutzen ez dioen semek etxeko gobernori dagokien gauzatan ta oitura onatan; laguntzen ez dituenak euren premitan; itz gaiztok esan, burla egin ero eskue jasotzen dienak; ta tratatzen doenak eskontzea aren bendezio ta konseju bage.
 G. Zeintzuk besteik aitzen die gurasotzat?
 E. Aundigok edaden, dignidaden ta gobernon.
 G. Ta mandamentu ontan aitzen die obligazio geigo, semek gurasokin dituenak baño?
 E. Bai jaune, nagusinak beragokokin, ta gurasonak bere semekin.
 G. Ta zeintzuk die ok?
 E. Jana eman, erakutsi, korrejitu, ejemplo ona eman ta beretzat asko dan bizimodue denpora danen.
 G. Ta nola pekatu egiten doe ontan faltatzen doen ak?
 E. Geianen mortalkiro.
 G. Zein da bostgarrena?
 E. Ez iltzea.
 G. Zer agintzen da mandamentu ontan?
 E. Ez iñori gaitzik egitea, ez izatez, ta ez ere opaz ero deseoz.
 G. Ta nok egiten do pekatu mortala onen kontra?
 E. Nork berari, ero bere projimori deseatzon dionak eriotza ero beste gaitz pisun bat, ero daukenak gorrotoa; bestea jo, zauritu ero iltzen donak, moskortzen danak, jaten ditunak gauzak pisuro osasunen kaltekok, jarritzen donak peligran bere bizie ero kentzen dionak, ta nork berari ero besteri maldezioa botatzen dionak.
 G. Zer da maldezioa botatzea?
 E. Da eskatzea batek beretzat ero besterentzat gaitzen bat, esanez bezela: or eroriko altzea illa.

- G. Ta zer pekatu da maldezioa botatzea?
 E. Baldin bada gaitz pisun deseokin pekatu mortala.
 G. Ta baldin bada olako deseio bage?
 E. Ariñ, naiz es (sic) beti.
 G. Ba zeintzuk pekatu mortala egiten doe, maldezioa botaz olako deseio bage?
 E. Geianen gurasok ta nagusigok maldizioa botatzen doenak bera-gon aurreti, ta oitura doenak botatzeko ta ez doenak egiten alegiñe ura kentzeko.
 G. Ta zeatik ola?
 E. Zeatik bere esan ta ejemplo gaistokin zirikatzen dituen bestek Jainkoa ofenditzea gauza pisun, zeri deitzen zakon eskandaloa.
 G. Zein da seigarrena?
 E. Lujuriako pekatuak ez egitea.
 G. Zer agintzen da mandamentu ontan?
 E. Izan gaitzela garbik ta kastok pensamentu, itz ta obratan.
 G. Zeintzuk egiten doe pekatu mortala mandamentu onen kontra?
 E. Jakiñez gozatzen dienak pensamentu zikiñetan, naiz ez ipiñi ta ez deseatu ipintzea obraz, esan ta kantatzen dituenak gauza torpek ero aitzen dituenak pozik, ta nork berakin ero bestekin dauzkenak ukiera ero eginbide desonestok ero deseatzon dituenak izatea.
 G. Zein da zazpigarrena?
 E. Ez ostutzea.
 G. Zer agintzen da mandamentu ontan?
 E. Ez kendu, ez euki, ez nai izan bestenik jaben borondaten kontra.
 G. Zeintzuk egiten doe pekatu mandamentu onen kontra?
 E. Egiten dituenak otako erozeiñ gauza ez beste modun batera egi-tzen dioenak kalte projimori bere ondasunetan gauza pisun.
 G. Ta ontan kalte egiten dioenak projimori, nola nai dala, geatzen die obligazion batekin?
 E. Geatzen die obligazio pisukin biurtzeko ta pagatzeko len baño len egin dioen kalte guztik.
 G. Zein da zortzigarrena?
 E. Testimonio falsorik ez jasotzea ez gezurrik esatea.
 G. Zer agintzen da mandamentu ontan?
 E. Ez juzgatzea agudo, (au da motibo ta fundamentu bage) projimon gaitzik, ta ez esan ta aitu aren faltak.
 G. Nork ausitzen do mandamentu au?



E. Arrazoian kontra juzgaten donak (au da, artarako fundamenturik asko bage), fama kentzen donak, gauza isille agertu ta gezurre esaten donak.

G. Ta projimori fama kentzen dionak gauza pisun, esanez areati deliton bat falsoa ero egizkoa, baño gordea, ero botatzen diola arpegira bere faltak, geatzen da obligazion batekin?

E. Geatzen da obligazioakin biurtzeko kendu dion onrea ta fama.

G. Zer erautzitzen da beatzigarren ta amargarren mandamentun?

E. Desonestidaden ta ondasunen deseok.

M. Esan itzetzu Eliza Ama Santen mandamentuk.

Eliza Ama Santen mandamentuk die bost

Lenengoa, meza osoa entzutea domeika guztitan ta jaietan. Bigarre-na, konfesatzea urten beñ gutxinaz, ero lenago uste bado izatea eriotzako peligroa, ero komulgatu bear bado. Irugarrena, komulgatzea, paskoa erresurreziokotan. Laugarrena, balur egitea Eliza Ama Santak agintzen donen. Bostgarrena, pagatzea amarrenak ta premizik Jainkon Elizeri.

G. Zertako die amar mandamentu ok?

E. Obetogo godetzeko Jainkon legekok.

G. Ta lenengoa meza entzutea, zeintzuai obligatzen die?

E. Uso arrazoizkoa dauken bautizatu guztiri.

G. Ta nola entzun bear doe?

E. Presente darella mezara atenziokin Jainkozko gauzan batera; gogoratzen ero errezatzen bezela deboziokin.

G. Ta bear bezela erautsi bage dagon ark ezpado entzuten, ero egoten bada mezan ero parte señalatun baten atenzio bage, ero jartzen bada ez entzuteko peligran, nola pekatu egiten do?

E. Mortalkiro.

G. Ta bigarrena ta irugarrena konfesatzea ta komulgatzea zentzuai obligatzen die?

E. Pekatu mortalazpin obligatzen ditu uso arrazoizkoa dauzken guztik.

G. Ta konfesatzen ta komulgatzen dienak sakrilejioz kunplitzen doe akin?

E. Inolare ez, ta bi gauza otako bakoitzen egiten ditue pekatu mortal bi.

G. Ta baldin batek eriotzako peligran ez badauke konfesoreik, zer egin bear do?

E. Ones-damuko akto egizko bat, konfesatzeko asmokin.

G. Ta laugarrena dala balur egitea, zeintzuai obligatzen die?

E. Ogei ta bat urte kunplitu dituenai.

G. Ta nola balur egin bear da?

E. Gordetzen dala bat janari debekatutati, ta jaten dola beñ bakarrik eguerdin.

G. Ta ontara faltatu bage artuko litzeke goizeti zerbait?

E. Kausekin, urare ariñe, artu litzeke ontza bat bezela.

G. Ta gauen?

E. Artu litzeke kolaziorako konzienzi oneko jenten arten artzen dana, galdetzen diola onen gañen dueda donen, konfesore jakintsu bati.

G. Ta bear bezelako kausa bage balur egiten ez doenak nola pekatu egiten doe?

E. Mortalkiro.

G. Ta aragik ez jateko agintzek balur egunetan ta gordetzetan, ez nazteko otan aragie ta arraie jatordu baten, ta ez jateko arrautzak ta esnejakik garizuman ez baldinbado bulderik zeintzuai obligatzen die?

E. Uso arrazoizkoa doen guztiri.

G. Ta nola pekatu egiten doe gordetzen ez dituen ak?

E. Mortalkiro, egunen faltatzen doen aldi guztitan.

M. Esan itzetzu obra miserikordizkok.

Obra miserikordizkok die amalau, zazpi animeri ta zazpi korputzeri dagokienak

Animeri dagokienak die ok: Lenengoa, ez dakinari erakustea. Bigarre-na, conseju ona ematea bear donari. Irugarrena, uts egiten dona zuzentzea. Laugarrena, bidebagek barkatzea. Bostgarrena, triste dagona postutzea. Seigarrena, gure projimon miserik ta argaltasunek pazienzikin sufritzea ero eramatea. Zazpigarrena, bizik, ta illek gaiti Jainkori erregutzea.

Korputzeri dagokienak die ok. Lenengoa, gaixok ikustea. Bigarre-na, gosek dagonari jaten ematea. Irugarrena, egarririk dagonari eraten ematea. Laugarrena, katibok erreskatatzea. Bostgarrena, narru gorrin dagona jantzitza. Seigarrena, pelegrinori ostatue ematea. Zazpigarrena, illek lurpetzea.

G. Zeatik deitzen zaie miserikordizkok?

E. Zeatik ez diren zor justiziz.

G. Noiz obligatzen doe agintzen?

E. Gizon aitun iritzin premi pisukok dienen.

G. Obra miserikordizko eta kristauek egiten ditun beste on batzuk gaiti, naiz izan agintzekok, naiz debozioz kok zer konsegitzen doe?



E. Baldin badago Jainkon grazin, merezitu ak gaiti grazi ta glori geigo; pagatu oso akin bere pekatuk gaiti, ta iritxi Jaunegandik ondasunek ala animari dagokionak nola denborarako, konbeni bazako.

G. Ta zeatik esaten dezu Jainkon grazin baldin badago?

E. Zeatik obra onak egiñek pekatu mortalen daren atatik ez die merezillek, ez ere askodagarrik, baizik bakarrik erdietsik, bitarten ak gaiti, nolabait konsegitu leizke onegiñen batzuk Jaunegandik.

Laugarren partea

nun aitzea ematen don artu bear dien sakramentuk

Ikusi degu nola dakizun zer sinistu, zer orazio ta zer obratu bear dezun; ikusi dezagun nola dakizun zer artu bear dezun, zein dan askena; esan itzetzu sakramentuk.

Eliza Ama Santen Sakramentuk die zazpi: lenengo bostak die pre-mizkok, izatez ero borondatez, ok bage ezin salbatu diteke gizona utzitzen baditu menosprezioz, beste bik die borondatez kok.

Lenengoa, Bautismoa. Bigarrena, Konfirmazioa. Irugarrena, Penitentie. Laugarrena, Komunioa. Bostgarrena, Aizken-unzioa. Seigarrena, Ordena. Zazpigarrena, Eskontza.

G. Zer gauza die sakramentuk?

E. Die señaie agiri batzuk egiñek Jesukristo gure Jaunegandik, emateko guri ak gaiti bere grazie ta birtutek.

G. Zer gauza da grazie?

E. Da Jainkozko izate bat, egiten dona gizona Jainkon seme ta zerun jabe.

G. Ta nola deitzo grazi oni?

E. Santutzallea.

G. Ta bada beste moduko grazin bat oriz gañera?

E. Die beste batzuk deitzen diegunak egindazkok, ero laguntzek ta biotz mogidak, ok bage ezin daikegu asi, ez aurreratu, ez ere akabatu gauza eramangarririk betiko bizitzarako.

G. Ta ok zer die?

E. Jainkok ematen digun laguntze batzuk iges egiteko gaitzeta ta obratu ondo, nola dien sermoiak, ejenplo onak, eriotza bat batekok argi batzuk zeñekin Jainkok argi egiten dion gure zentzuai, ta deseo santu batzuk zeñekin mogitzen ditun gure borondatek onerako.

G. Zer birtute ematen ditue sakramentuk grazikin baten?

E. Batezere iru Teologalak ta Jainkozkok.

G. Zeintzuk die?

E. Fedea, esperantza, ta karidadea.

G. Zer gauza da fedea?

E. Sinistea ikusi ez genduna zeatik Jainkok aitzea eman don.

G. Zer gauza da esperantza?

E. Ustez izatea glorie Jainkon grazin ta gure obra onan bidez.

G. Zer gauza da karidadea?

E. Maite izatea Jainkoa gauza guztin gañen, ta gure projimok geuren buruk bezela, izaten gerala akin, ak gurekin izatea nai degun bezela.

G. Zertako izan zan egiñe Bautismoko Sakramentue?

E. Kentzeko pekatu jatorrizkoa, ta beste erozeiñ bautizatzen dangan arkitzen dana.

G. Zer da pekatu jatorrizkoa?

E. Pekatu ura zeñekin guztiok jaiotzen gan jabeturik gure lenengo gurasotatik.

G. Ta uste bageko premin, nork bautizatu lezake?

E. Erozein gizon ero emakume uso arrazoizkoa daukenak.

G. Ta nola egiñ bear do?

E. Botatzen diola ur berezkoa umen burun gañera ta esaten dola bautizatzeo intenziokin, nik bautizatzen zaitut Aitearen, Semearen ta Espiritu santun izenen.

G. Zertako da sakramentu konfirmaziokoa?

E. Konfirmatzeko ta fuerte ipintzeko bautismon artu gendun feden.

G. Ta uso arrazoizkoa daukenak, ta artzen donak sakramentu au pekatu mortalen, egiten do pekatu?

E. Mortalkiro.

G. Ba zer egin bear do, artzen dola ez egiteko pekatu?

E. Erabaki lenago egiten dola konfesio on bat.

G. Zertako da Sakramentu Penitenzikoa?

E. Bautizatu ezkerro egindako pekatuk barkatzeko.

G. Zer pekatu die ok?

E. Mortalak ta bai ere benialak.

G. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatea, egitea, uste izatea ero nai izatea zerbait Jainkon legen kontra gauza pisun.

G. Zeatik deitzen zako mortala?

E. Zeatik iltzen don egiten donaren animea.



- G. Ta noiz artzen degu Penitentziko Sakramentue?
- E. Konfesatzen geanen ondo ta artzen degunen absoltzioa.
- G. Zer parte dauzke penitentzik kentzeko pekatu mortala?
- E. Iru.
- G. Zeintzuk die?
- E. Biotzeko ones-damue, auzko konfesioa ta obrazko oso-pagatzea.
- G. Ta iru premizko gauza otan Sakramentu au artu nai donen, sartzen die besten batzuk?
- E. Bai jaune, ones-damun sartzen da enmendatzekoa asmoa ta konfesioa konzienziko examina.
- G. Beraz orrela, zenbait gauza die premizkok artzeko Penitentziko Sakramentue, ero bat ondo konfesatzeko?
- E. Bost, ta die: konzienziko esamiña, biotzeko ones-damue, enmendatzeko asmoa, auzkoa konfesioa, ta obrazko oso-pagatzea.
- G. Zer da konzienziko esamiña?
- E. Da egitea zeregiñ eramangarrik, gogoratzeko bat konfesatu ez ditun pekatuz, pensatzen dola Jainkon ta Elizako mandamentatik (sic), zein tokitan ibilli dan, ta zer egitekok izan ditun, Jainkori argie eskatu ta gero ezagutzeko bere gaiztakerik.
- G. Zenbait modutan da biotzeko ones-damue?
- E. Bitan: bat ohea, ta bestea ez aĩn ona deitzen dioguna izudamue.
- G. Zer da ones-damue?
- E. Jainkoa ofenditutako damu bat ura danagaiti, au da, izanagaiti txit ona, asmokin konfesatzeko, enmendatzeko ta kunplitzeko penitentie.
- G. Ta zer da izudamue?
- E. Jainkoa ofenditutako damu bat pekatun itsusitasuneatik, ero infernun bildurreatik, ero glorie galdu dolako, asmokin konfesatzeko, ta gañerokok.
- G. Ta zeĩn da damu ontan onana?
- E. Ones-damue.
- G. Zeatik?
- E. Zeatik ones-damue dator amoriotik ta izudamue bildurretik; ones-damugaiti, bat konfesatu baño lenago barkatzen zaku pekatu mortalak, ta jartzen da Jainkon grazin; baño izudamugaiti bakarrik ez die konsegitzen ondasun ok.
- G. Ta konfesatzeko bat ondo asko da izudamue, ero izan bear do ones-damue?
- E. Geianen esaten da asko izudamue; baño obe ta segurogo da eramatea ones-damue, ta au eukitzea egin bear do alegiñe konfesatzen danak.

- G. Ta noiz euki bear da damue?
- E. Konfesorek penitentea pekatutatik libratu baño lenago.
- G. Zer gauza da propositue?
- E. Asmo iraunkor bat sekula Jainkoa ez ofenditzeko pisuro.
- G. Zer da auzko konfesioa?
- E. Da esatea engaĩn ta gezur bage pekatu mortal guztik konfesoreri penitentie kunplitzeko animokin.
- G. Ta isiltzen donak lotzaz pekatu mortalen bat ero konfesatzen donak egiñ ez don pisun bat, ero egiten do bere konfesioa damu ero propositu bage, ero penitentie kunplitzeko animo bage, konfesatzen da ondo?
- E. Ez jaune, egiten do sakrilejio pisu bat, ta geatzen da obligaziokoin itxultzeko konfesatzea konfesatu zitun ta ez zitun pekatuk, sakrilejioa eginzonakin.
- G. Ta zeintzuk sinistu leike ez izana damu ta propositurik euren konfesiotan?
- E. Apartatzen ez dienak peligratik, ta konfesio bat ta bestea ezkerero eroitzen dienak pekatu atan bertan.
- G. Ta mogitzeko bat izatea damu ta propositue zer konbeniko zaku egitea?
- E. Konfesatzea, allegatu baño lenago, eskatu Jauneri sokorri dezala bere laguntzekin, gogoratu puska baten Jaunek egin dion onegiñetan, ero bere pasio ta eriotzan, ero bere borondaten, ta beĩn ero geigo aldiz esan akto kontriziozkoa.
- G. Zer gauza da obrazko satisfazioa?
- E. Da oso-pagatzea Jainkori denporaldiko penak pekatukgaiti zor dana, kunplitzen dola konfesorek ipiñitzen don penitentie.
- G. Ta nola pekatu egiten do penitentie kunplitzen ez donak, ero berandutzen donak denpora asko kunplitzen?
- E. Mortalkiro izan ezkerero penitentie pisue.
- G. Ta oso-pagatu daikegu Jainkori pena denporaldikok gaiti, ipiñizen digun penitentzikin baño geiagokin?
- E. Bai jaune, Jainkon grazin egindako obra jenero guztikin, ta irabazitzen diela induljenzik.
- G. Ta zer gauza die induljenzik?
- E. Grazi batzuk zeintzuk gaiti ematen dan pena denporaldikon barkazioa, pagatu bear dana pekatuk gaiti bizitza ontan ero besten.
- G. Ta nola irabazi bear die?
- E. Egiten dola grazin dagola onetarako agintzen dana.



- G. Ta bizitza ontan oso-pagatu ez dituelako purgatoriora jun dieneri, guk sokorritu ta lagundu daikiegu?
- E. Bai jaune, oso-pagatu daiegun obra akin berakin.
- G. Ta bear da beti, bat pekatu mortalen eroitzen danen konfesatu bereala barkatu daikion?
- E. Ondo izango litzeke, baño ez da bearra.
- G. Ba zer egin bear do?
- E. Izan egizko damu ones-damu obena bere pekatuna, enmendatze-ko ta konfesatzeko asmokin Ama Eliza Santak agintzen donen.
- G. Zer gauza da pekatu beniala?
- E. Da pekatu mortalan bide bat.
- G. Zeatik otsegiten zako beniala?
- E. Zeatik laister, au da, erres erortzen dan gizona artan ta laister barkatzen zakon.
- G. Zenbait gauzagaiti barkatzen zako?
- E. Beatzigaiti.
- G. Zeintzuk die?
- E. Lenengoa, meza entzuteagaiti. Bigarrena, komulgatzeagaiti. Iru-garrena, obispon benedizioagaiti. Laugarrena, Ni pekatariet esateagaiti. Bostgarrena, ur beinkatuegaiti. Seigarrena, ogi beinkatue gaiti. Zazpigarrena, Aite gurea esateagaiti. Zortzigarrena, sermoia aitzegaiti. Beatzigarrena, petxuko golpegaiti, eskatzen diola barkazioa Jainkori.
- G. Zeatik osatzen dezu, eskatzen diola barkazioa Jainkori?
- E. Aitza emateko pekatu benialan barkazioa konsegitzeko euki bear degula gauza ok gaiti an damun bat izatez gañera.
- G. Ta obligatuk gare konfesatzea pekatu benialak?
- E. Ez jaune, baño da ona ta protxugarrie.
- G. Ta azkeneko konfesioa ezker benialak bakarrik daukenari, zer konbeniko zako egitea segurotzeko damu ta propositue?
- E. Konfesatu ere naiz konfesatu dedilla otatik lenagoko bizitzako pekatu mortalen bat.
- G. Zertako da Sakramentu guztiz santu Komuniokoa?
- E. Artzen degula bear dan prestaerekin izan dedin gure animen janarie ta geitu deigun grazie.
- G. Zeatik diozue bear dan prestaerekin?
- E. Agertzeko Sakramentu au ez dala izango gure animen janarie ezpadegu artzen bear bezela ala animen aldeti nola korputzen aldeti.
- G. Ba zer prestaera da premizkoa animen aldeti?
- E. Jainkon grazin egotea.

- G. Ta pekatu mortalen erori zana nola prestatu bear do komulgatze-ko?
- E. Konfesatuta.
- G. Ta konfesatu ta gero akordatzen danak pekatun pisun batez zer egin bear do?
- G. Konfesatu ura lenago.
- E. Ta korputzen aldeti zer prestaera bear da izan?
- G. Etorri (ez izanen komunioa elizakokin) jan zarren, ez jan ta ez eran bage gauzan bat aurreko gaueko amabik ezker.
- G. Zer artzen dezue Sakramentu guztiz Santu Komuniokon?
- E. Kristo Jainko ta gizon egiazkoa; zein dagon egiz Sakramentu guztiz Santu aldarekon.
- G. Au danez, zein dago ostin konsagratu ezker?
- E. Jesukriston korputze bere odol, anima ta Jainkotasunekin baten.
- G. Ta kalizen?
- E. Jesukriston odola bere korputz, anima ta Jainkotasunekin baten.
- G. Au danez, Jesukristo guztie dago ostin ta kalizen?
- E. Jesukristo guztie dago osti guztin, ta guztie aren erozein partetan ta igoal kalizen.
- G. Ta konsagrazioa ezker badago ostin ogirik ero kalizen ardorik?
- E. Ez jaune, baizik ogin ta ardon itxurak, nola usai, kolore ta sabore, etc.
- G. Ta partitzen bada ostie ero dibitzen (sic) bada kalizen dagona partitzen ero dibitzen da Jesukristo?
- E. Ez jaune, dana oso getzen da parte guztitan ta parte bakoitzen.
- G. Ta komuniora allegatzen danak esan dien prestaera bage artzen do ere Jesukristo?
- E. Bai jaune, baño batere protxu bage, zeatik egiten do pekatu bat guztiz pisue.
- G. Ta esan danez gañera, protxatzen dien ari, zer konbeniko zaie egitea konsegitzeko onegin aundigok?
- E. Konfederatu komulgatu baño lenago zein dan atara datorren Jaune, ta egin akto fede, esperantzako ta karidadekok, ta artu ura umiltasun ta erreberenzi aundikin, ta eman gero grazik aiñ onegin aundie gaiti.
- G. Zertako da Sakramentu aizken-unziokoa?
- E. Iru gauzatarako.
- G. Zeintzuk die?
- E. Lenengoa, lenagoko bizitza gaiztoko arrastok ta kutzuk kentzeko. Bigarrena, animeri indarra emateko deabrun tentazion kontra. Irugarre-



na, korputzeri emateko osasune konbeni bazako. G. Ta uso arrazoizkora allegatu dienak, ta peligrako gaixon darenak badue obligaziorik Sakramentu au artzeko?

E. Bai jaune, ta egiten doe pekatu mortala, baldin aldoela ezpadoe artzen, ero egiten badoe pekatu mortalen.

G. Ba zer egin bear do pekatu mortalen dagonak artzeko bear dan bezela?

E. Konfesatu lenago ta ezin badaike, egiñ akto kontriziozko egizko bat.

G. Zertako da Sakramentu ordenakoa?

E. Konsagratzeko ta ordenatzeko elizako ministro dignok, nola dien abadek, on urrangok ta urrangopekok.

G. Elizako ministrok izan bear doe errespetatuk ta beneratuk batezere?

E. Bai jaune.

G. Zertako da eskontzeko Sakramentue?

E. Eskontzeko ta emateko grazie eskonduai, onekin bizi ditezen baken alkarren arten ta azi ditezen semek zerurako.

G. Ta sakramentu au artzeko bear dan prestaerekin da premizkoa eskontzen dienak Jainkon grazin egotea?

E. Bai jaune, pekatu mortalan azpin.

G. Ta Jainkon grazin arkitzen ez dienak nola prestatu bear doe?

E. Konfesatuta.

Pekatu kapitalak die zazpi

Lenengoa, Soberbie. Bigarrena, Kutizie. Irugarrena, lujurie. Laugarrena, Ira. Bostgarrena, gulerie. Seigarrena, onan damue. Zazpigarrena, nagitasune.

G. Zeatik deitu ziozuen pekatu kapitalak zazpi geianen mortalak otsegiten zaienai?

E. Deitzen zaie kapitalak zeatik dien atati jaiotzen dien beste bizion buruk, iturrik ta sustraiek bezela, ta mortalak deitzea ez datorkie aiñ ondo ba askotan ez die benialak baizik.

G. Noiz die mortalak?

E. Jainkon ta projimon karidaden kontra dienen.

G. Noiz die Karidaden kontra?

E. Akgaiti ausitzen danen Jainkon ero Elizen mandamentun bat gauza pisun.

G. Zer da soberbie?

E. Beste baño geigo izan zale nahasi bat.

G. Zer da kutizie?

E. Ondasunen deseoko zale txar bat.

G. Zer da lujurie?

E. Aragin gozotasun zikiñen nai gaizto bat.

G. Zer da ira?

E. Bengantzen deseo gaizto bat.

G. Zer da gula?

E. Jateko ta erateko zale geigi bat.

G. Zer da enbidie?

E. Besten onan damu bat.

G. Zer da nagitasune?

E. Obra onak egiteko animon erorkera.

Zazpi bizio on kontra die zazpi birtute

Soberbin kontra umildadea. Kutizin kontra emanaie. Lujurin kontra kastidadea. Iran kontra pazienze. Gularin kontra tenplanza. Enbidin kontra karidadea. Nagitasunen kontra eginiaie.

Animen etsaiek zeñetati iges egin bear degun die iru: Lenengoa, da Mundue. Bigarrena, Deabrue. Irugarrena, Aragie. G. Zein da mundue?

E. Die munduko gizonak, gaiztok ta biurrik.

G. Zein da deabrue?

E. Da aingeru bat, zeñ egiñik utseti Jainkok zerun, jaiki zalako Jainkon kontra beste askokin, amildu zon infernutan bere gaiztotasuneko lagunekin, deitzen dieguna deabruk.

G. Zein da aragie?

E. Da gure korputze bera, bere pasio ta jarkiera gaiztokin.

G. Nola bentzitu ta iges egiten da munduegandik?

E. Oni bentzitu ta iges egiten zako despreziatzen diela aren aunditahun ta banidadek.

G. Nola bentzitu ta iges egiten da deanbrugandik?

E. Oraziokin ta umiltasunekin.

G. Nola bentzitu ta iges egiten da aragigandik?

E. Au bentzitu ta iges egiten da balur, korputzeko laztasun ta azotekin, au da, etsai aundina, zeatik ezin bota daikegu aragie gugandi, mundue ta deabrue bai.

Birtute teologalak die iru

Lenengoa, Fedea. Bigarrena, Esperantza. Irugarrena, Karidadea.



G. Nola ez degu faltatuko birtute on aktok egiteko daukegun obligaziori?

E. Errezatzen degula deboziokin ta askotan (bide dan bezela erozeiñ kristauek egitea) Kredoa, Aite gurea; ta esaten dola biotzetik akto kontriziozkoa.

Birtute kardinalak die lau

Lenengoa, Prudenzie. Bigarrena, Justizie. Irugarrena, Indartasune. Laugarrena, Tenplanza.

Korputzen zentzuk die bost. Lenengoa, ikusi begikin. Bigarrena, enzun belarrikin. Irugarrena, gustatu auakin. Laugarrena, usai egin sudurrekin. Bostgarrena, ikutu eskukin.

G. Zertako eman zigun Jainkok zentzuk ta beste gañerako puzka guztik?

E. Guztikin ta gauza guztitan bera serbigentzan.

Animen potentziak die iru

Memorie, Zentzue ta Borondatea.

G. Zertako Jainkok eman zigun memorie?

E. Akordatzeko artzaz ta aren mesedez.

G. Zertako eman zigun zentzue?

E. Esagutzeko gure jaune ta argan pentzatzeko.

G. Zertako eman zigun borondatea?

E. Ama dezagun ontasunik aundina bezela, ta projimoa beratik.

G. Ta zer gauza da gure animea, zeñenak dien potenziok?

E. Da akabera bageko ispiritu bat Jainkok utseti egiñe bere antzera.

Espiritu santun doiak die zazpi

Lenengoa, jakinduriko doia. Bigarrena, zentzuko doia. Irugarrena, konsejuko doia. Laugarrena, jakiteko doia. Bostgarrena, indartasuneko doia. Seigarrena, biotz berako doia. Zazpigarrena, Jainkon bildurrezko doia.

Espiritu Santun frutuk die amabi

Lenengoa, karidadea. Bigarrena, bakea. Irugarrena, Animon firmetasune. Laugarrena, ondonaie. Bostgarrena, fedea. Seigarrena, kontinenzie. Zazpigarrena, espirituko poza. Zortzigarrena, pazienze. Beatzigarrena, ontasune. Amargarrena, mansotasune. Amaikagarrena, modestie. Amabigarrena, kastidadea.

Zorionak die zortzi

Zorionekok pobre dienak espirituz, zeatik ana dan zerutako erreinue. Zorionekok mansok, zeatik ak mendeatuko doen lurre. Zorionekok negar egiten doenak, zeatik ak izango dien poztuk. Zorionekok justiziri gose ta egarri dienak, zeatik ak izango dien asek. Zorionekok errukizkok, zeatik ak iritxiko doen errukie. Zorionekok biotz garbikok, zeatik ak ikusiko doen Jainkoa. Zorionekok bakezalek, zeatik ak izango die otsegiñek Jainkon semek. Zorionekok justizie gaiti persekuzioa padezitzen doenak zeatik ana dan zerutako erreinue.

G. Zer esan degu oaiñ?

E. Zortzi zorionak.

G. Zer gauza die zortzi zorion ok?

E. Espiritu Santun birtuten ta doian obrarik onanak.

G. Zeintzuk die pobrek espirituz?

E. Nai ez doenak, beñepein amorioz, onrarik ta aberastasunik gutxi-
nik ere.

G. Zeintzuk die mansok?

E. Irarik ez doenak, ta ez ere kasi mogimenturik.

G. Nola mendeatuko doe lurre?

E. Euren burun jabek bezela.

G. Zeintzuk die negar egiten doenak?

E. Utzitzen dituenak atsegiñik txikinak ere.

G. Zeintzuk die justizin gose ta egarri dienak?

E. Ardurekin egiten dituenak bere egin bide guztik.

G. Zeintzuk die errukizkok?

E. Txit biotz berakok erbestekokin ere.

G. Zeintzuk die biotz garbikok?

E. Euren pasiotan guztiz mortifikatu dienak.

G. Zeintzuk die bakezalek?

E. Bakezko obrak egiten dituenak beregan ta bestetan.

G. Zeintzuk die justizie gaiti persekuzioa padezitzen doenak?

E. Gauza on guztitan firme darenak persegituk izanatik.

G. Zeatik deitzen zaie ori zorionak?

E. Zeatik otan dagon bizitza ontako zoriona ta besteko esperantzea.

G. Zenbait die aitzenkik?

E. Lau. Da esatea: Eriotza, Juizioa, Infernue ta Glorie.

G. Zer da glorie?



E. Egoera bat guztiz obena zeñetan daren ondasun guztik progradu bage gaitzen bat; nola infernuna daren gaitz guztik progradu bage ondasunen bat.

G. Ta gu libratzeko emendik, ta konsegitzeko ura zer egin bear degu?

E. Gorde mandamentuk.

G. Ta badie bide eramangarrin batzuk askos erraxago daizkegun gorde ok, ta zaitu gu aki faltatzea?

E. Bai jaune.

G. Zeintzuk die?

E. Sakramentu Santuk sarri artzea, Jainkori eskeñtzea goizeti obrak, meza entzutea egun guztitan, errezatu errosario Birjiña guztiz Santeri; leitze Jainkozkoa, gogoratzea Jainkoz, konzienziko esamiña gauetan; ta esatea gaiti batek badituela bide asko, autatu konfessore jakintsu, birtuoso ta prudente bat da mendeatu areana guztin.

M. Ondo diozu, zeatik konfessore on baten aukera, Santu Franzisko Salesek dion bezela da oarkeren oarkera. Egin ba zuek onla, ba au izango zatzue aingeru bat bezela giatuko zaituena, aitatuz ok ta beste bidek, zuzen zoasten mandamentun bidetxigorretik, ta allegatu zaizten Jainkoa ikustea glorin, dana akaberea zertako izan giñen utseti egiñek.

G. Jainkok eraman gaitzela guztiok arutza Amen.

Ni pekatarie eskueras

Ni pekatarie konfesatzen nazaio Jainko guztiz aldonari, zorioneko beti dontzella Mariri, Santu Migel aingeru zorionekori, Santu Juan Bautistari, Santuk Pedro ta Pablo Apostoloai, Santu guztiai, ta zuri Aite pekatu egiñ dialako pisuro pensamentu, itz ta obrakin, nere kulpaz, nere kulpaz nere kulpax txit aundie gaiti; orreati erregutzen diot zorioneko beti dontzella Mariri, Santu Migel aingeru zorionekori, Santu Juan Bautistari, Pedro ta Pablo Apostolo santuak, santu guztiai ta zuri Aite Jainkozkoa, erregutu zazuela nigaiti Jainko gure Jauneri Amen.

Ones-damuko aktoa

Nere Jesukristo Jaune Jainko ta gizon egizkoa, nere kriatzalle ta errentoreta, zu zerana izanagaiti, ta zeatik maite zaituan gauza guztin gañen, damu det biotz guztitik zu ofenditue, ta artzen det asmo iraunkorra ez geigo pekatu egiteko, konfesatzeko ta kunplitzeko ipintzen zatan penitentie, apartatzeko zu ofenditzeko bide guztitak, eskeñtzen dizut nere bizi, obrak ta nekek pekatu guztin oso-pagurako, ta fiatzen naiz zure ontasun ta erruki aitzen-bagez, barkatuko diezula zure odol guztiz pre-

zioso pasio ta eriotzen merezimentuk gaiti, ta emango diezula grazie enmendatzeko ta irauteko zure serbitze santun nere bizin akabera artzen Amen.

Orazio laburre eskeñtzeko goizeti eguneko obra guztik Jainkon obra ta glorira

Nik ematen dizut eskerrak ero grazik, nere Jainkoa zure esku ongi-lletik artu dituan onegiñ guztik gaiti, ta batezere utsi diezulako allegatzea gaurko egunera, zeñetan zure onra ta glorira eskeñtzen dizut nere pensamentu, itz ta obra guztik Jesukriston odol ta merezimentukin, ta artzen det asmo iraunkorra zure grazikin ez ofenditzeko zu; lagundu ba, ni, Jaune, zure laguntzekin orrela egiteko, Jesukriston merezimentuk gaiti, Ama guztiz santanak gaiti ta Santu guztinak gaiti. Amen.



HERNANIKO DOTRINA

Kristau doktriñaren sarrera

Kristau fiel guztiya dago obligatuba gurutzia adoratzera eta deboziyo izatera. Zergatik Kristok an salbatu giñuzen gure pekatutik eta etsaien mendetik. Argatik zathe jarri Santiguatzera sarri; baita ere ziñatzera iru gurutze egithera. Bekokiyan lenena, aban bigarrena, bestia bularretan, iru leku oietan. Bekokiyan libratziagatik pensamentu gaistuetatik, aban libratziagatik itz gaistuetatik, bularretan libratziagatik obra eta deseo gaistuetatik. Egiñ bada beriala esaten dezula onela: Gurutze Santubaren siñaliagatik gure etsaietatik libra gaitzatzu gure Jauna eta Jainkua. Aitaren, eta Semiaren eta Espiritusantubaren izenian. Amen.

Kredua

Nik sinisten det Jainko Aita guztiya dezakian eta zeruba ta lurra egiñ zitubenagan, eta aren Seme bakar gure Jaun Jesukristogan; zeña sortuba izan zan Espiritubaren bidez eta doaiez; jαιο zan Mariya Birjiñagandik padezithu zuben Ponzio Pilatosen agintez; kruzifikatuba, illa ta enterratuba izan zan; jetxi zan infernubetara, pistu zan irugarren egunian illen artetik; igo zan zerubetara, ta an dago eseririk Jainko Aita guztiya dezakianaren eskuiko aldetik, andik etorri biar du biziyak eta illak juzgatzera. Sinisten det Espiritusantubagan Eliz-ama Santa Katolika, Santuben komuniyua; pekatuben barkaziyua, aragiyaren berriz-pistia, eta bukaera gabeko bizitzan Amen.

Artikulu fedekuak dire amalau

Lenengo zazpiyak Jainkotasuneri dagozkiyo, eta beste zazpiyak gure Jaun Jesukristo Jainko ta gizon egiyazkuaren gizatazun Santubari. Jainkotasunari dagozkiyonak dira oiek.
Lenengua, sinistia Jainko guztiya dezakian bakar bategan.
Bigarrena, sinistia Aita dana.

Irugarrena, sinistia Semia dana.

Laugarrena, sinistia Espiritusantuba dana.

Bosgarrena, sinistia egillia dala.

Seigarrena, sinistia salbatzallia dala.

Zazpigarrena, sinistia glorifikatzallia dala.

Gizatasun Santubari dagozkiyonak dira oiek.

Are maizago egiñ biar degu Aitaren esaten diyogun kristau siñalia. Biyak egithen dira esanaz: Gurutze etc.

Lenengua, sinistia Jesukristo gure Jauna gizona dan aldetik sortuba izan zala Espiritusantubaren bidez eta doaiez.

Bigarrena, sinistia jαιο zala Santa Mariya Birjiñagandik, semia egiñ baño len, egithian eta egiñ ezkeru birjiña gelditzen zala.

Irugarrena, sinistia nai izan zubela padezithu ta ill gu pekatariyok salbatziagatik.

Laugarrena, sinistia jetxi zala infernubetara, eta aren etorrera Santubari itxoithen zeuden Guraso Santuben animak atera zithubela.

Bosgarrena, sinistia pistu zala illen artetik irugarren egunian.

Seigarrena, sinistu iyo zala zerubetara, eta daguala eseririk Jainko Atha guztiya dezakianaren eskuiko aldetik.

Zazpigarrena, sinistia etorriko dala biziyak eta illak juzgatzera; da esatia, onai gloriya ematera, bere agindubak egiñ zituztelako, ta gaistuak bukaera gabeko pena egiñ etzithuztelako.

Aita guria

Aita guria zerubetan zaudena, santifika dedilla zure izena; datorrela gugana zure erreinuba; egiñ dedilla zure borondatia zeruban bezela lurrian ere. Gaur iguzu gure eguneroko ogiya; eta barka zaizkigutzu gure zorrak guk geren zordunai barkatzen dizkigun bezela; eta ez dizaguzula utzi tentaziyan erortzen, baizik libra gaitzatzu gaitzetik. Amen.

Agur, Mariya, graziaz betia, Jauna da zurekiñ, bedinkatuba zera zu andre guztiyen artian, eta bedinkatuba da ere zure sabeleko frutuba Jesus. Santa Mariya, Jainkuaren Ama, erregu zazu gu pekatariyokatik oraiñ eta gure eriyotzako orduban Amen.



Salbia

Jainkuak salba zaitzala urrikaltasunaren Ama ta erregiña, bizitza, eztitasun eta esperantza guria; Jainkuak salba zaitzala; Zuri oju egithen dizugu Ebaren hume desterratubok; zuri suspirio egithen dizugu intziriz eta negarrez negar malkuen leku onetan. Ia bada, gure bitartekua, biurtu itzatzu gugana zure begi urrikaltu oiek; eta destierro onen ondorian, ager zaguzu Jesus zure sabeleko frutu bedinkatuba. Oh biyotz bera! Oh piadosa! Oh birjiña gozo Mariya! Erregu zazu gugatik Jainkuaren Ama Santa gure Jesukristo Jaunaren agindubak iristia merezi dezagun. Amen.

Jainkuaren legeko mandamentubak dira amar

Lenengo irurak Jainkuaren onrari dagozkiyo eta beste zazpiyak projimuaren protxubari.

Lenengua, Jainkua amatzia gauza guztiyen gañian.

Bigarrena, bere izen santuba alferrik ez autatzia. Irugarrena, jai-egunak santifikatzia.

Laugarrena, gurasuak onratzia.

Bosgarrena, iñor ez illtzia.

Seigarrena, lujuriyako pekatuak ez egithia.

Zazpigarrena, ez ostutzia.

Zortzigarrena, testimonio falsorik ez asmatzia eta gezurrik ez esatia.

Bederatzigarrena, lagun projimuaren ematzia ez deseatzia.

Amargarrena, besteren gauzaren kutizirik ez izatia.

Bithara datoz amar mandamentu oiek: Jainkua serbitu eta amatzera gauza guztiyen gañian; eta projimuak geren burubak bezela.

Kristau doktrinaren athormena galde eta erantzunetan

GALDETZEN DET: Kristaba zera?

ERANTZUTEN DET: Bai, Jainkuaren graziaz.

G. Kristabaren izen au norgandik izan zenduben?

E. Kristo gure Jaunagandik.

G. Zer esan nai du Kristabak?

E. Kristoren gizona.

G. Zer aditzen dezu Kristoren gizonagatik?

E. Kristoren fedia duben gizona, bataiatzen artu zubena, eta beraren serbiziyo santura obligatuba daguea.

G. Zein da Kristabaren siñalia zer da?

E. Gurutze Santuba.

G. Zergatik?

E. Zergatik dan Kristo Kruzifikatubaren antza; an erredimitu giñuzelako.

G. Zenbat modutan egiten du Kristabak siñale au?

E. Bithan.

G. Zein dira?

E. Ziñatzia ta santiguatzia.

G. Zer gauza ziñatzia?

E. Eskuiko eskuko biatz aundiyarekiñ iru gurutze egitia; aurrenekua kopetian, bigarrena aban, irugarrena petxuban, Jainkuarekiñ itz egiñaz.

G. Eta nola?

E. Gurutze santubaren siñaliagatik, gure etsaietatik libra gaitzatzu gure Jauna eta Jainkua.

G. Zergatik egithen dezu gurutzia kopetian?

E. Jainkuak pensamentu gaistuetatik libratziagatik.

G. Zergatik aban?

E. Jainkuak itz gaistuetatik libratziagatik.

G. Zergatik petxuban?

E. Jainkuak libratziagatik obra ta desio gaistuetatik.

G. Zer da santiguatzia?

E. Eskuiko eskuko bi biatzekiñ gurutze bat egitia; kopetetik petxurano, eta sorbalda ezkerrekotik eskuikoraño, Trinitate Santisimua izendubaz.

G. Ia egizu?

E. Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritu santubaren izenian Amen.

G. Noiz egiñ biar dezu siñale au?

E. Gauza on bat aste bakoitzian, eta premiya, tentazio edo peligraren batian arkitzian; batez ere oitik jeikitizian, etxetik ateratzekuan, elisako sarreran, jaterakuan eta oirakuan.

G. Zergatik orrenbeste bider?

E. Denbora da leku guztiyetan gure etsaiak persegitzen gaitrustelako.

G. Zer etsai dira oiek?



- E. Munduba, demoniñua ta aragiya.
- G. Eta gurutzia badu birtutia etsai oien kontra?
- E. Bai jauna.
- G. Nundik du gurutzia birtute ori?
- E. An garathu zithubelako Kristok bere eriyotzarekin.
- G. Gurutzia adoratzian zer esaten dezu?
- E. Adoratzien eta bedinkatzen zathut Kristo, zure gurutze santubarekin munduba erredimitu zendubelako.

Kristau doktriñaren puskaera

Kristaba zerala ikusi degu Kristabaren izena ta siñaliaren bidez. Esan zarazu oraiñ.

- G. Zenbat gauza jakiñ biar ditu Kristabak uso arrazoizkora allegatziñ?
- E. Lau gauza.
- G. Zeiñ dira?
- E. Zer sinistu, zer errezatu, zer egiñ eta zer artu biar duben jakithia.
- G. Nola jakingo du zer sinistu biar duben?
- E. Kredua edo artikulu fedekuak jakinda.
- G. Nola jakingo du zer errezatu biar duben?
- E. Aita guria eta Elizako beste oraziyuak jakiñda.
- G. Nola jakiñgo du zer egiñ biar duben?
- E. Jainkuaren legek mandamentubak, Eliz-ama Santarenak eta obra miserikordiyazkuak jakiñda.
- G. Nola jakiñgo du zer artu biar duben.
- E. Eliz-ama Santaren Sakramentubak jakinda.

Kristau dotriñaren aurreneko puska zeñian agertzen dira Kredua edo artikulu fedekuak

Aurrenekora etortzian; Esazu!

- G. Nork esan zuben Kredua?
- E. Apostoluak.
- G. Zertarako?
- E. Fede santuko gauzak guri erakusteko.
- G. Eta zertarako esaten dezu zuk?
- E. Kristabok degun fede au athortzeko.

- G. Zer gauza da fedia?
- E. Ikusi ez deguna sinistia.
- G. Jaiotzen ikusi zenduben Jesukristo?
- E. Ez jauna.
- G. Illtzen edo zerubetara iyotzen ikusi zenduben?
- E. Ez jauna.
- G. Sinisten dezu?
- E. Bai jauna, sinisten det.
- G. Zergatik sinisten dezu?
- E. Jainko gure Jaunak ala errebelatu, eta Eliz-ama santak onela erakusten digulako.
- G. Zer gauza dira Kristaba bezela dithuzunak eta sinisten dithuzunak?
- E. Eliz-ama Santa erromakuak dithuanak eta sinisten dithuanak.
- G. Zer gauza dira zuk eta ark dithuzubenak eta siñisten dithuzubenak?
- E. Batez ere artikulu fedekuak Kreduan dauden bezela.
- G. Zer dira artikulu fedekuak?
- E. Aren misteriorik aundiyenak.
- G. Zertarako dira artikulu fedekuak?
- E. Jainko gure Jauna eta Jesukristo gure erredentoria nor diran argiro aditzera emateko.
- G. Nor da Jainko gure Jauna?
- E. Da gauza bat esan eta pensatu aldithekian ederrena ta arrigarriyena; jaun eziñ geiago ona, guztiya dezakiana, jakintsuna, txushena; gauza guztiyen asiera eta akabera edo bukaera.
- G. Nor da Trinitate Santisimua?
- E. Jainkua bera, Atha, eta Semia, eta Espiritusantuba; iru persona diferentia eta Jainko egiyazko bat.
- G. Atha Jainkua da?
- E. Bai jauna.
- G. Semia Jainkua da?
- E. Bai jauna.
- G. Espiritusantuba Jainkua da?
- E. Bai jauna.
- G. Iru Jainko dira?
- E. Ez, baizik egiyazko Jainko bakar bat, nola ere dan guztiya dezakian bakar bat, asiera ta bukaera gabeko bakar bat, eta Jaun bakar bat.
- G. Atha Semia da?



- E. Ez jauna.
 G. Espiritu santuba Atha edo Semia da?
 E. Ez jauna.
 G. Zergatik?
 E. Personak diferentiak diralako, egiazko Jainko bakar bat izanagatik.
 G. Orrela beraz, zenbat izate, borondate eta ariyurre daude Kristogan?
 E. Izate bat bakarra, borondate bat bakarra ta ariyurre bat bakarra.
 G. Eta zenbat persona?
 E. Iru diferentiak; zeñak diran Atha, Semia eta Espiritusantuba.
 G. Nolaz da Jainkua guztiya dezakiana?
 E. Bere alegiñez bakarrik nai duben guztiya egithen dubelako.
 G. Nola da Kriadoria?
 E. Ezerezetik guztiya egiñ zubelako.
 G. Jainkuak zertarako egiñ du gizona?
 E. Mundu ontan bera serbithu, eta bukaera gabeko bizitzan beraz gozatzeko.
 G. Nolaz da salbadoria?
 E. Grazia eman, eta pekatubak barkatzen dithubelako.
 G. Nolaz da glorifikatzallia?
 E. Bere graziiyan irauten dubenari gloriya ematen diyalako.
 G. Jainkuak badu figura gorputzekua guk bezela?
 E. Jainkua danez ez, espiritu utza dalako; baña bai gizona danez.
 G. Iru persona Jainkozkuetatik, zeii egiñ zan gizon?
 E. Bigarrena, zeña dan Semia.
 G. Atha, egiñ zan gizon?
 E. Ez, jauna.
 G. Espiritusantuba, egiñ zan gizon?
 E. Ez, jauna.
 G. Zeiñ bada?
 E. Semia bakarrik, zeñari gizon egiñik deritza Jesukristo.
 G. Orrela beraz, nor da Jesukristo?
 E. Da Jainko biziyaen semia, gizon egiñ zana gu erredimithu ta guri nola bizi erakustiagatik.
 G. Zenbat izate, borondate ta ariyurre daude Kristogan?
 E. Izate bi, bat Jainkozkueta ta bestia gizonetzkueta; borondate bi, Jainkozkueta bat eta gizonetzkueta bestia, eta ariyurre bi, bat jainkozkueta eta bestia gizonetzkueta.
 G. Eta zenbat persona ta memoriya?

E. Jainkozko persona bat bakarra, zeña dan Trinitate santisimako bigarrena; eta gizonetzko memoriya bat bakarra, zergatik Jainkua danez ez du memoriyarik.

- G. Zer esan nai du Jesusek?
 E. Salbadoria edo libratzallia.
 G. Zertatik libratu giñuzen?
 E. Gure pekatutik eta demoniñuaren mendetik.
 G. Kristok zer esan nai du?
 E. Untatuba.
 G. Zertaz untatuba izan zan?
 E. Espiritusantubaren graziiyaz eta doaiez.
 G. Kristo gure Jauna, nola sortu izan eta Ama birjiñagandik jaijo zan?
 E. Guk adithu ez gentzakian bezela eta milagroz.
 G. Zergatik esaten dezu guk adithu ez gentzakian bezela eta milagroz?
 E. Beste gizonak bezela sortuba izan ez zalako Jesukristo, ezta jaijo ere.
 G. Nola obratu zan bada bere sortziaren misteriya?
 E. Mariya birjiñaren entrañetan egiñ zuben Espiritusantubak señoira onen odol garbi garbiz gorputz eder guztizko bat; ezerezetik sortu zuben anima bat, eta unithu ziiyon gorputz ari; denbora berian Jainkuaren Semia unithu zitzaie gorputz eta anima oiei; eta onela, len bakarrik Jainkua zana, izatez utzi gabe, gelditu zan gizon egiñik.
 G. Nola jaijo zan miragarrikoko moduban?
 E. Mariya santisimaren sabeletik bere birjiñidadea ausi gabe irtenda; eguzki erraiñuba ispillu batetik au ausi ta zikindu ere gabe pasatzen dan bezela.
 G. Eta bere Ama geroz birjiña bizitu zan beti?
 E. Bai, jauna, beti beti.
 G. Kristok zergatik nai izan zuben ill gurutzian?
 E. Pekatutik eta bukaera gabeko eriyotzatik gu libratziagatik.
 G. Nolatan etorri giñan artara?
 E. Gure aurreneko Atha Adanek pekatu eginda, eta argan bere ondorengo guztiiyok.
 G. Zer aditzen dezu Kristo ill ezkereta jetxi zan infernubagatik?
 E. Ez kondenatublen lekura baizikan justubak zeuden linbora.
 G. Infernu bat baño geiyo alda bada?



E. Bai Jauna; lau dira lurraren barrenen, eta deritzaie: kondenatuben infernuba, purgatoriyua, aurren linbua eta justuben linbua edo Abrahamen senua.

G. Eta zer gauza dira?

E. Kondenatuben infernuba da pekatu mortalien illtzen diranen animak juaten diran lekuba, an beti beti atormentatubak izateko; Purgatoriyua, Jainkuaren graziyan, baña beren pekatuben zorrak txit pagatu gabe, illtzen diran animak juaten diran lekuba; aurren linbua, bataiatu gabe, uso arrazoizkora allegatu baño lenago illtzen animak juaten diran lekuba; eta justubena edo Abrahamen senua, gure erredenziyua egiñ zan arte Jainkuaren graziyan illtzen ziranen animak, beren pekatuben zorrak osoro pagatuta juaten ziran lekuba, eta Jesukristo, ziñez ta egiaz jetxi zan artara.

G. Nola jetxi zan?

E. Jainkotasunari erantsitako animarekin.

G. Eta gorputza nola geldithu zan.

E. Jainkotasunari berari erantsiya.

G. Nola pistu zan irugarren egunian?

E. Bere gorputz eta anima zorionekua berriz elkarganatuta, ez geiago illtzeko beñere.

G. Nola igo zan zerubetara?

E. Bere birtutez.

G. Zer da Atha Jainkuaren eskuiko aldiaren eserita egotia?

E. Berak aña gloriya izatia Jainkua danez, eta gizona danez beste inork baño geiago.

G. Noiz etorriko da biziya eta illak juzgatzeraz?

E. Mundubaren bukaeran.

G. Eta ill guztiyak pistu biaute orduban?

E. Bai Jaune; izan zithusten gorputz eta animakiñ berakiñ.

G. Eta mundubaren bukaera baño lenago juzgatubak izango dira gizonak?

E. Bai, guztiyak juzgatu ta sentenziyatuko dithu Jaunak beren biziya-ren bukaeran, onak gloriyan Jainkuaz beti betiko gozatzeraz, ta gaistuak, beñere athuko ez diran tormentubak infernuban padezitzeraz.

G. Santuben komuniyua esaten dezunian, zer sinisten dezu?

E. Kristau fiel guztiyak partia dutela bestien ondasun espiritualetan, Eliza deritzan gorputz baten puskak diralako.

G. Zeiñ da Eliza?

E. Da kristau fielen kongregaziya, Erromako Atha Santuba buru dala.

G. Nor da Atha Santuba?

E. Eliz gizon guztiyen buru Erromakua, lurrian Kristoren oñ-ordekua, zeñari obeitzera obligatubak gaude gustiyok.

G. Kredua ta artikulua gañera, beste gauzarik siñisten dezu?

E. Bai jauna, eskritura sagraduban daguana, eta Jainkuak Elizari errelatu diyon guztiya.

G. Zer gauza dira oiek?

E. Ori ez bizat galdetu neri, bada ez dakit; Eliz-ama santak badithu gizon adithu eranzuten jakingu dutenak.

M. Ondo diyozu jakintsubei dagokiyela ta ez zuei, fedeko gauza guztiyen arrazoia ematia; zuentzat asko da ematia artikulubena kreduan dau-den bezela.

Kristau dotrinaren bigarren puska zeñian agertzen da zer eskatu biar dan eta Eliz Ama Santaren orasiyuak

Ikusi det nola dakizun siñistu biar dezuna, zeña dan aurrenekua; guazen bigarrenera zeña dan eskatu biar dana. Esan ezazu: Nork esan zuben Aita guria?

E. Jesukristok.

G. Zertarako?

E. Guri oraziya egiten erakusteko.

G. Oraziya egithia zer da?

E. Biotza Jainkuagana jasotzia, eta mesediak eskatzia.

G. Zenbat modutakua da oraziya?

E. Bitakua: pensamentuzkua ta itzezkoa.

G. Zein da pensamentuzkoa?

E. Animaren potenziyaz baliyatubaz egiten dana; memoriyakin gauza onen bat gogora ekarriyaz; entendimantu edo ariyurriarekin aren gañian pensatu ta kontubak ateriaz, eta borondatiarekin akto edo asmo batzubek egiñaz; nola dan pekatuben damutasuna edo buruz-bide batzubek, nola diran konfesatzia ta bizi-modu berri bat artzia.

G. Zein da itzezkoa?

E. Itz agiriz egiten deguna; konturako, Aita guria errezatzian egiten deguna.

G. Oraziya nola egin biar da?



- E. Atenziyo ta humildadiarekiñ, konfiantza ta iraupenarekiñ.
 G. Aita guria esaten dezunian norekiñ itzegithen dezu?
 E. Jainko gure jaunarekiñ.
 G. Nun dago Jainko gure jauna?
 E. Leku gustiyetan; batezere zeruban eta aldareko sakramentu santi-simuen.
 G. Eta Kristo gizona danez, nun dago?
 E. Zeruban eta aldareko sakramentu santisimuan bakarrik.
 G. Oraziyorik onena zein da?
 E. Aita guria.
 G. Zergatik?
 E. Kristok bere aoz esan zutelako, apostoluak eskatuta.
 G. Gañera zergatik?
 E. Zazpi eskabide karidade guztiyan fundatubak dauzkalako.
 G. Zein dira?
 E. Aurrenekua da: Santifika dedilla zure izena.
 G. Eskabide orretan zer eskatzen dezu?
 E. Mundu guztiyan ezagutuba ta honratua izan derilla Jainkuaren izena.
 G. Zein da bigarrena?
 E. Datorrela gugana zure erreinuba.
 G. Eskabide orretan zer eskatzen dezu?
 E. Erreina dezala Jainkua gure animetan, emen lurrian graziaz; eta gero eman dizagula gloriya.
 G. Zein da irugarrena?
 E. Egin dedilla zure borondatia Zeruban bezela lurrian ere.
 G. Eskabide orretan, zer eskatzen dezu?
 E. Egiñ dezagula Jainkuaren borondatia lurrian gaudenok, zorionekuak zeruban egithen duten bezela.
 G. Zein da laugarrena?
 E. Gaur iguzu gure eguneroko ogiya.
 G. Eskabide orretan zer eskatzen dezu?
 E. Eman dizagula Jainkuak gorputzarentzat dagokigun mantenuba, ta animarentzat graziazko espirituala ta sakramentubak.
 G. Zein da bostgarrena?
 E. Barka zaizkigutzu gure zorrak, guk geren zordunai barkatzen dizkigun bezela.
 G. Eskabide orretan, zer eskatzen dezu?

- E. Barka dizaizkigula Jainkua gure pekatubak agrabiyatu ta kalte egin digutenai, guk barkatu diyegun bezela.
 G. Zein da seigarrena?
 E. Ez gaitzatzula utzi tentaziyuan erortzen.
 G. Eskabide orretan zer eskatzen dezu?
 E. Ez dizagula utzi Jainkua erortzen eta leku ematen ere, demoniñuak pekatuban erori arazteko alegiña egithen dithuben pensamentu ta tentaziyo gaistuetan.
 G. Zein da zaspigarrena?
 E. Baizikan libra gaitzatzu gaitzeti.
 G. Eskabide orretan zer eskatzen dezu?
 E. Libra gaitzala Jainkuak animako ta gorputzeko gaitz eta peligro guztiyetatik.
 G. Zertarako esaten dezu aurrena, Aita guria zerubetan zaudena?
 E. Jainkuagana biyotza jasotzeko, ta humildade ta konfiantzarekiñ mesediak eskatzeko.
 G. Zer esan nai du bukaeran esaten dezun itz Amen ark?
 E. Ala izan derilla.
 G. Gure Señorari, zer oraziyo esaten dizkatzu prinzipalменте?
 E. Agur Mariya ta Salbia.
 G. Nork esan zuben Agur Mariya?
 E. Aingeru San Gabriele, gure Señora birjiña Mariyari diosala egit-hera etorri zanian.
 G. Nork esan zuben Salbia?
 E. Eliz-ama Santak dauka beretzat artuba.
 G. Zertarako?
 E. Gure Señorari laguntza eskatzeko.
 G. Agur Mariya edo Salbia esatian norekiñ itz egithen dezu?
 E. Gure señora birjiña Mariyakin.
 G. Zein da gure señora birjiña Mariya?
 E. Da birtutez betetako señora bat, zeña da Jainkuaren ama, ta zeruban dago.
 G. Eta aldarian daguana zein da?
 E. Da zeruban daganaren iduri edo antz bat.
 G. Zertako dago an?
 E. Zeruban daganaz argatik akorda gathezen, eta bere imajiña dala-ko erreberenziyatu dezagun.
 M. Ori bera egiñ biazu bada gañerako Santuta errelikiyen imajinakiñ.
 G. Egiñ biar diyegu oraziyo aingeru ta santubai ere?



- E. Bai jauna, gure bitartekuak bezela.
- G. Zer gauza dira aingerubak?
- E. Dira espiritu zorionekoa (sic) batzuben, Jainkuas gozaten zeruban daudenak.
- G. Zertarako sortu zituben Jainko gure jaunak?
- E. Azken gabeko iraupen guztiyan alabatu ta bedinkatu dezaten.
- G. Eta zertako geiago?
- E. Bere serbitzariyak bezela Eliza gobernatu ta gizonak gorde ditzaten.
- G. Beraz, badezu zuk aingeru guardakua?
- E. Badet bai, ta gizon bakoitzak du beria.
- M. Izaiozu bada deboziyo aundiya ta enkomendatu zaizkatzaio egu-nero.

Kristau dotriñaren irugarren puska zeñian agertzen da zer egiñ biar dan

Ikusi degu zer siñistu ta zer oraziyo egiñ biar dezun; ikusi zagun nola dakizun zer egiñ biar dezun. Esazu: Jainkuaren legeko aurreneko aginduba edo mandamentuba zeñi da?

- E. Jainkua amatzia gauza guztiyen gañian.
- G. Nor amaten du Jainkua?
- E. Bere agindubak egithen dithubenak.
- G. Zer da bera gauza guztiyen gañian amatzia?
- E. Bera ofendithu baño guztiyak galdu naiago izatia.
- G. Zertara geiago obligatzen gathu mandamentu onek?
- E. Bera bakarrik adoratzera gorputzeko ta animako erreberentziya guztiyarekin, fede biziyaekin beregan siñistu ta esperatubas.
- G. Onen kontura nor egithen du pekatu?
- E. Jainko faltso edo idoluak adoratzen dithubenak, edo aietan siñisten dubenak; fediarren kontrako zerbait siñistu, edo aren misteriyuetakoren bat dudan jartzen dubenak, edo premiyazkuak ez dakizkiyenak; akto fedeko, esperantzako ta karidadekuak ogligatubak daguenian egithen ez dithubenak, edo Jainkuaren miserikordiyaz etsitzen dubenak, edo sakramenturen bat pekatu mortalien artzen dubenak.
- G. Nor geiago?
- E. Aztiyetan siñisten duenak, eta patu gaisthuak eta sorgiñak aintzacosat dauzkanak.

- G. Zein da bigarrena?
- E. Bere izen santuba alperrik ez autatzia.
- G. Nork esaten da autatzen dubela Jainkua alperrik?
- E. Gezurraren gañian, gauza gaiztuaren gañian edo premiya gabe autatzen dubenak.
- G. Zer da gezurraren gañian Jainkua autatzia?
- E. Ala ez dala dakiyen gauzaren gañian Jainkua testigu jartzia.
- G. Eta zer pekatu egithen du gezurraren gañian, edo gezurra dan edo ez dudan, juramentu egithen dubenak?
- E. Mortala; juramentuba gauza ezerezaren gañian izanda ere.
- G. Zer da gauza gaistuaren gañian jainkua autatzia, edo juramentu justiziya gabe egithia?
- E. Gauza biar ez dan edo gaisto bat egingo dubela esatia, Jainkua testigu jarririk; konturako, projimuari gaitz egitia.
- G. Eta zer pekatu egithen du gauza gaistuaren gañian Jainkua autatzen dubenak?
- E. Mortala, gauza gaistua berez pisuba bada; ta ariña bada beniala.
- G. Zer da premiya gabe Jainkua autatzia?
- E. Motibo aundigabe edo ezerezkeriyakgatik juramentu egithia.
- G. Zer pekatu da au?
- E. Beniala; gezurrezkua edo bidegabezkua ezpada.
- G. Gauza on bat egithia, juramentuz, agintzen dubena edo asmo on bat artu edo promesa on bat egiten dubena, kunplitzera obligatuba dago?
- E. Bai jauna; ta gauza berez pisuba bada, pekatu mortala egingo du ez kunplitziarekiñ, edo txit geroko uztiarekiñ.
- G. Kriaturakgatik juramentu premiya gabe egithia pekatu da?
- E. Bai, jauna; aietan Kriadoriari juramentu egiten zaiolako.
- G. Nola egiten da juramentu kriaturakgatik?
- E. Esanaz (egiñ zagun kontu) nere animagatik, zerubagatik, lurragatik, etc. au onela dala.
- G. Premiya gabe juramento ez egitheko zer erremediyo da?
- E. Bai edo ez esatera oitzia, Kristok erakusten digun bezela.
- G. Eta zer geiago eragosten da mandamentu onetan?
- E. Bai jauna; eragosten da blasfemiya ere; au da, itz desegokiyak esatia Jainkuaren edo bere santuben kontra; eta au pekatu mortala da.
- G. Zein da irugarrena?
- E. Jai-egunak santifikatzia.
- G. Nor santifikatzen dithu jai eguna?



- E. Mesa osua entzun, eta aietan lanik egiten ez dubenak, premiya gabe.
- G. Jaietan premiya gabe, lan egithen dubenak zer pekatu egithen du?
- E. Mortala, bi ordutik gora aritzen bada; ta oietatik bera beniala geienian.
- G. Zeiñ da laugarrena?
- E. Gurasuak honratzia.
- G. Nork honratzen dithu gurasuak?
- E. Obeditzen diyenak; sokorrithu edo lagundu eta errespetatzen dithubenak.
- G. Onen kontra zeñek egiten dute pekatu mortala?
- E. Etxeko gobernubari eta othura onai dagozkiyoten gauzetan gurasoai obeditzen ez seme alabak; beren premiyetan sokorrithu edo laguntzen ez diyenak; madarikatzen dithubenak; edo burla egithen diyenak, edo aien kontra eskuba jasotzen dutenak; eta beren bendiziyo ta konseju gabe ezkontzeko asmuak daudenak.
- G. Nor besterik aditzen dira gurasotzat?
- E. Edadian, dignidadian eta gobiernuan aundiyago diranak.
- G. Eta mandamentu onetan, seme alaben gurasunganako obligaziyuaz gañera, besterik arkitzen da?
- E. Bai, jauna, nagusi edo aundiyaguenak, mirabe edo beraz betikuakiñ, eta gurasunak beren umiakiñ.
- G. Oiek zeñ dira?
- E. Alimentatzia, erakustia, korrejitzia, ta ejemplo ona ta dagokiyen estaduba bere denboran ematia.
- G. Oietan faltatzen dutenak zer pekatu egithen dute?
- E. Mortala geienian.
- G. Zein da bostgarrena?
- E. Ez illtzia.
- G. Zer agintzen da mandamentu onetan?
- E. Ez egithia iñori gaitzik, ez itzez, ez obraz ezta desioz ere.
- G. Eta mandamentu onen kontra nork egithen du pekatu mortala?
- E. Eriyotza eta beste gaitz aundiren bat desiatzen dubenak beretzat edo bere projimuarentzat; edo oni gorrotua diyonak; iñor ill, herithu edo golpatzen dubenak, moskortu, bere osasunaren kalte aundiko gauzak jan, bere biziya kendu edo arriskuban jartzen dubenak; eta bere buruba edo besterik madarikatzen dubenak.
- G. Zer da madarikatzia edo maldiziyua botatzia?

- E. Beretzat edo besterentzat gaitzen bat eskatzia; ejenpotzat: Betan, illko al aiz.
- G. Eta maldiziyua zer pekatu da?
- E. Gaitz aundiyaren desiuarekiñ bada, pekatu mortala.
- G. Eta alako desiorik gabe bada?
- E. Beniala, baña, ez beti.
- G. Zeñek egithen dute bada pekatu mortala kunplitzeko, desio gabe maldiziyu egin da?
- E. Regularmente guraso ta persona nagusi beren mendekuen aurrian maldiziyua botatzen dithuztenak, eta othura au izanik kentzeko neurrik (sic) artzen ez dutenak.
- G. Zergatik orrela?
- E. Beren esan eta ejemplo txarrakiñ jainkuari ofensa aundiyak egithera bestiak zirikatzen dithuztelako, zeñari deritza eskandalua.
- G. Zein da seigarrena?
- E. Lujuriako pekatuak ez egithia.
- G. Zer agintzen da mandamentu onetan?
- E. Izan gaithezela garbiyak eta kastubak pensamentu, itz eta obretan.
- G. Zeñek egithen dute pekatu mortala mandamentu onen kontra?
- E. Pensamentu zikiñetan, jakiñaren gañian, atsegin artzen dutenak, naiz ez egiñ eta egiteko desiorik izan ere alako gauza txarrrik; kontu ta kanta zikiñetan jarduten diranak, edo atsegintasunarekiñ entzuten dithuztenak; eta beren buruarekiñ edo bestiakiñ ikuitze edo egithe loiak dithuztenak, edo egiteko desiuak daukatenak.
- G. Zeiñ da zazpigarrena?
- E. Ez ostutzia.
- G. Zer agintzen da mandamentu onetan?
- E. Ez kentzia, ez edukitzia ta ez nai izatia besteren gauzarik jabiaren borondatiaren kontra.
- G. Onen kontra nork egithen dute pekatu mortala?
- E. Esan diran gauzetan edozeiñ egithen dutenak, edo beste alderen batera projimuari bere ondasunetan kalte aundiren bat egithen diyotenak.
- G. Projimuari kalte modu oiek egithen dizkatenak edozeiñ gisetan dala, obligaziyoren batekiñ gelditzen dira?
- E. Lenbailen ostuba biurtu, ta egiñ dizkaten kalte guztiya ornitzekuarekiñ.
- G. Zeiñ da zortzigarrena?
- E. Testimoniyo falsorik ez asmatzia, ta gezurrik ez esatia.
- G. Zer agintzen da mandamentu onetan?



E. Juiziyo txarrik projimuaz ez egithia aisatxo, au da, bide edo fundamentu gabe; ta ez ezan (sic) eta ez entzun ere aren gauza txar edo defektuak.

G. Eta nork austen du mandamentu au?

E. Arrazoiaren kontra, au da artarako biar diñako ezaguerik gabe, juzgatzen dubenak; kreituba kendu, sekretua agertu edo gezurra esaten dubenak.

G. Eta projimuari bere kreituban kalte aundiya egithen diyonak, utsegithe gezurresko edo egiazkoren bat, baña gordian daguena, artzaz esanda, edo bere utsegithia arpegira botata, gelditzen obligaziyoren batekin?

E. Kendu diyon honra edo kreituba biurtzekuarekiñ.

G. Zer eragozten da bederatzigarren eta amargarren mandamentubetan?

E. Zikintasunen irrikizak, eta ondasunak bide gabe nai izatia.

M. Esan itzatzu Ama Eliza Santaren Mandamentubak.

Ama Eliza Santaren mandamentubak dirade bost

Aurrenekua, igande ta beste jaietan meza osua entzuta.

Bigarrena, urtian beñ gutxienaz konfesatzia, edo lenago illtzeko peligrorik esperatzen badu, edo komulgatu biar badu.

Irugarrena, pazkua udaberrikuan komulgatzia.

Laugarrena, Ama eliza Santak agintzen dubenian barautzia.

Bostgarrena, Jainkuaren Elizan amarnak eta primiziyak pagatzia.

G. Zertako dira mandamentu oiek?

E. Jainkuarenak obeto guardatzeko.

G. Nork obligatzen dithu aurrenekuak, zeña dan meza entzuta?

E. Uso arrazoizkua duten bataiatu guztiyak.

G. Eta nola entzun biaute?

E. Mezako denboran presente egonda, animari dagokiyon gauzaren batian atenziyua daukatela, deboziyoz mediatu edo errezatubaz.

G. Entzuten ez dubenak, nun da eziñ bestian gelditzen dan; guztiyan edo parte aundiyan atenziyo gabe daguena, edo meza gabe gelditzeko peligruan jartzen danak, zer pekatu egithen du?

E. Mortala.

G. Bigarren eta irugarrenak, konfesatzia ta komulgatzia, nor obligatzen dithue?

E. Pekatu mortalaren azpiyan obligatzen dithue uso arrazoizkua duten kristau guztiyak.

G. Eta pekatu mortalian konfesatu ta komulgatzen diranak kunplitzen dithuzte?

E. Iñolako ere moduz; eta bi gauza oietako bakoitzian bi pekatu mortal egithen dithuzte.

G. Eta eriyotzako orduban konfesore gabe aurkitzen danak, zer egiñ biar du?

E. Akto kontriziyozko egiazko bat, konfesatzeko asmuarekiñ.

G. Eta laugarrena, zeña dan, barautzia, nor obligatzen ditu?

E. Ogeita bat urtetik gorakuak.

G. Eta nola egiñ biar da barau?

E. Eragotziyak dauden janaririk gabe egunian otordu bat bakarria eginda.

G. Eta onetan utsegin gabe artu litheke zerbaith goizian?

E. Premiya bada, naiz txikiya izan, artu litheke ontza bateraño.

G. Eta gabian?

E. Artu litheke kolaziyotzat konzienzi oneko jendien neurrituban, onetarako galdetzen zaiola, dudarik bada, konfesore jakintsun bati.

G. Barautzez uzten dutenak, egiazko premiya gabe, zer pekatu egithen dute?

E. Mortala.

G. Eta barau ta bijili egunetan aragirik ez jateko, otordu batian aragiya ta arraia ez nastutzeko eta garizuman arraultz eta esne gauzarik ez jateko agindubak, buldarik ez badute, nor obligatzen dithue?

E. Uso arrazoizkua duten guztiyak.

G. Eta obeitzen ez dutenak zer pekatu egithen dute?

E. Zenbat bider egunian faltaten duten, ainbeste pekatu mortal.

M. Esan itzatzu obra miserikordiyazkuak.

Obra miserikordiyazkuak dira amalau

Zazpi animaren aldekuak, eta zazpi gorputzarenekuak. Animaren aldekuak oiek dira.

Aurrenekua, ez dakiyenari erakustia.

Bigarrena, premiya dubenari conseju ona ematia.

Irugarrena, uts egiten duben (sic) korrejitzia.

Laugarrena, injuriyak edo egiñ zaizkigun txarkeriyak barkatzia.

Bostgarrena, triste daguana alaitzia.

Seigarrena, gure projimuen atsekabe ta argaltasunak pazienziyan eramatia.

Zazpigarrena, biziyak eta illakgatik Jainkuari erregutzia.



Gorputzaren aldekuak oiek dira.

Aurrenekua, eri daudenak bisitatzia.

Bigarrena, gosiak daguanari jaten ematia.

Irugarrena, egarriyak daguanari eraten ematia.

Laugarrena, kautibuak erreskatatzia.

Bostgarrena, larrugorriyan daguana jantzitzia.

Seigarrena, peregrinuari ostatu ematia.

Zazpigarrena, illak enterratzia.

G. Zergatik deitzen zaie miserikordiyazkuak?

E. Junitiziyaz zor ez diralako.

G. Noiz obligatzen dute nai ta nai ez?

E. Gizon arithu edo diskretuen iritziyan premiyak aundiyak diranian.

G. Eta obra miserikordiyazku oiek eta kristabak egithen dithuben beste onakgatik, naiz agintezkuak naiz deboziyoazkuak izan, zer irabazten du?

E. Jainkuaren graziyan badago, merezi du aiekgatik graziya ta gloriyaren amentuba, bere pekatuben satisfaziya ta iristia Jaunagandik doai espiritualak eta korporalak, konbeni bazaio.

G. Eta zergatik esaten dezu Jainkuaren graziyan badago?

E. Zergatik pekatu mortalien daudenak egindako obra onak ez dute baliyo, ez gloriya irizteko ta ez pekatuben satisfaziorako, baizik bitartekotzat bezela bakarrik, aien bidez, moduren batian iritxi litezkiala Jaunagandik zerbaith gauz on.

Laugarren partia

zeñian agertzen dira artu biar diran Sakramentubak

Ikusi degu nola dakizun zer sinistu, zer errezatu eta zer egiñ biar dezun; ikus dezagun nola dakizun zer artu biar dezun, zeñia dan azkenekua. Esaitzu Sakramentubak. Ama Eliza santaren Sakramentubak dira zazpi; aurreneko bostak dira premiyazkuak, egiñez edo desioz artubiarak, zeñak gabe eziñ salba ditheke gizona ezetarako eztat uzten badit-hu; borondatezkuak dira beste biyak.

Aurrenekua, Bataiua.

Bigarrena, Konfirmaziya.

Irugarrena, Penitenziya.

Laugarrena, Komuniya.

Bostgarrena, Estrema-Unziya.

Seigarrena, Ordena.

Zazpigarrena, Matrimoniya.

G. Zer gauza dira Sakramentubak?

E. Dira siñale agiriko batzuben, Kristo gure Jaunak ipiñiyak, bere graziya ta birtutiak guri oien bidez emateko.

G. Zer gauza da graziya?

E. Da izate Jainkozko bat, gizona Jainkuaren Seme ta Zerubaren heredero egithen dubena.

G. Eta graziya oni nola deritza?

E. Santifikatzaia.

G. Eta ontzaz gañera badira beste graziya jeneroren batzuben?

E. Badira beste orainguak deitzen diyotegunak edo laguntza ta biyotz ikuitziak; zeñak gabe eziñ gentzake ez asi, ez aurreratu ta ez bukatu, betiko bizitzarako egokiya dan gauzarik.

G. Eta oiek zer dira?

E. Pekatutik aldegiñ eta obra onak egitheko Jainkuak ematen dizkigun laguntza batzuben; nola diran sermoiak, ejemplo onak, bat bateko eriyotzak eta argitasun batzuben, zeñen bidez argitzen dithu Jainkuak gure entendmentubak, eta desio on batzuben bultzarazotzen dithuztenak gure borondatiak obra onak egithera.

G. Zer birtute ematen dithue Sakramentubak graziyarekiñ batian?

E. Batezere iru, teologalak eta jainkozkuak.

G. Zeiñ dira?

E. Fedia, Esperantza ta Karidadia.

G. Zer gauza da Fedia?

E. Ikusi ez gendubena sinistia, Jainkuak errebelatu dubelako.

G. Zer gauza da Esperantza?

E. Gloriya esperantzia, Jainkuaren graziya ta gure obra onen bidez.

G. Zer gauza da Karidadia?

E. Jainkua amatzia gauza guztiyen ganian, eta gure projimuak geren burubak bezela, izaten gerala aiekiñ, aiek gurekiñ izatia nai gendukian bezela.

G. Zertarako ipiñia izan zan Bataioko Sakramentuba?

E. Jatorrizko pekatuba ta beste erozeiñ bataiatzera dijuanagan arkitzen dana kentzeko.

G. Jatorrizko pekatuba zer da?

E. Jaiotzetik guztiyok dakarguna, gure aurreneko gurasuetatik heredatuba.

G. Premiyan arkitzian nork bataia dezake?



- E. Edozeñ gizonezko edo emakumezko uso arrazoiezkoa dubenak.
- G. Eta nola egiñ biar du?
- E. Aurraren burura ur naturala botiaz, eta Aitarean, eta Semiaren, eta Espiritusantubaren izenian esanaz, bataiatzeko asmo edo intenziyoarekiñ.
- G. Zertarako da Sakramentu Konfirmaziyokua?
- E. Bataiuan artu genduben fedian konfirmatu ta sendotzeko.
- G. Uso arrazoizkora allegatu danak, sakramentu au pekatu mortalian daguala artzen badu, egithen du pekatu?
- E. Bai, mortala.
- G. Zer egiñ biar du bada pekatu rik egiñ gabe artzeko?
- E. Konfesiyo on baten bidez Jainkuaren graziyan jarri.
- G. Zertarako da sakramentu Penitenziyakua?
- E. Bataiatu ezker o egindako pekatubak barkatzeko.
- G. Zer pekatu dira oiek?
- E. Mortalak, eta benialak ere bai.
- G. Zer da pekatu mortala?
- E. Da esatia, egithia, pensatzia edo desiatzia zerbaith Jainkuaren legiaren kontra gauza grabian.
- G. Zergatik deritza mortala?
- E. Egithen dubenaren anima illtzen dubelako.
- G. Eta noiz artzen degu Penitenziyako Sakramentuba?
- E. Ondo konfesatu ta absoluziua artzian.
- G. Zer parte dithu penitenziyak pekatu mortala kentzeko?
- E. Iru.
- G. Zeiñ dira?
- E. Biyotzeko kontriziyua, abozko konfesiya ta obrazko satisfaziya.
- G. Eta sakramentu au artu nai dubenagan prezisuak diran iru gauza oietan, sartzen dira besteren batzubek?
- E. Bai, jauna, kontriziyuan sartzen da enmendatzeko proposituba, ta konfesiyan, esamiña konzienziyakua.
- G. Onela beraz, zenbat gauza dira premiyazkuak? Penitenziyako sakramentuba artzeko edo bat ondo konfesatzeko?
- E. Bost dira: esamiña konzienziyakua, biyotzeko kontriziyua, enmendatzeko proposituba, abozko konfesiya, ta obrazko satisfaziya.
- G. Esamiña konzienziyakua zer da?
- E. Da konfesatu gabeko pekatubaz oroitzeko, bere kulpak ezagutze-ko argitasuna Jainkuari eskatu ondorian, neurri egokiyak artzia, kontu ateriaz Jainkuaren eta Elizaren mandamentubetatik, ibilli dan lekubetatik eta izan dithuben zer egiñetatik.

- G. Zenbat modutakua da biyotzeko kontriziyua?
- E. Bithakua, bata egiazkua edo perfektua ta bestia ez aiñ perfektua, oni atriziyua deritza.
- G. Zer da kontriziy o egiazkua?
- E. Jainkua ofendithutako damutasuna bera danagatik, au da, aiñ guztiz ona dalako, konfesatzeko, enmendatzeko eta penitenziya kunplitzeko asmo edo propositubarekiñ.
- G. Eta zer da atriziyua?
- E. Jainkua ofendithutako damutasuna edo pekatubaren itsustasunagatik, edo infernubaren bildurragatik, edo zeruba galdu dubelako; konfesatzeko, etc. asmo edo propositubarekiñ.
- G. Eta dolore oietan onena, zeñ da?
- E. Kontriziy o egiazkua.
- G. Eta zergatik?
- E. Kontriziy o egiazkua amoriyo garbitik eta atriziyua bildurretik datozelako; kontriziy o egiazkuarengatik, pekatu mortalak konfesatu baño len barkaturik, iristen da Jainkuaren graziya; baña atriziyuarengatik bakarrik, ez dira ondore oiek iristen.
- G. Eta atriziyozko damuba asko da ondo konfesatzeko, edo premiyazkua da kontriziy o egiazkua?
- E. Geienen ustian asko da atriziyua, baña obe da ta segurubago kontriziy o egiazkua eramatia; ta au eramateko alegiña egiñ biar du konfesatzera dijuanak.
- G. Eta noiz iruki biar da damuba?
- E. Konfesoriar penitentiari absoluziyua eman baño len.
- G. Zer gauza da proposituba?
- E. Jainkuari ofensa aundirik beñere ez egitheko asmo sendo bat.
- G. Zer da abozko konfesiya?
- E. Konfesoriar pekatu mortal guztiyak agertzia engaño ta gezur gabe, penitenziya kunplitzeko asmuarekiñ.
- G. Eta pekatu mortalen bat lotzaz konfesatu gabe uzten dubena, edo egiñ ez daben (sic) graberen bat konfesatzen dubena, edo konfesiya dolore edo propositu gabe, edo penitenziya kunplitzeko asmo gabe egithen dubena, ondo konfesatzen da?
- E. Ez jauna, sakrilejiya deritzan pekatu izugarri bat egithen du; ta konfesatu zithuben pekatubak eta konfesatu gabe utzi zithubenak, eta egiñ zuben sakrilejiya berriz konfesatzeko obligaziya arekiñ gelditzen da.
- G. Eta nork uste izan biar du beren konfesiya izan ez dutela ez dolorerik eta ez propositurik?



E. Okasiyuetatik aldegithe ez dutenak; eta konfesiyo bat eta bestia-
ren ondoren lengo pekatubetan erortzen diranak.

G. Eta zer konbeniko da egithia dolore ta propositu egiazkua izate-
ra mugitzeko?

E. Jainkuari eskatzia, konfesatzera jua baño lenago, sokorri dezala
bere laguntzakiñ; goguan erabiltzia puskatxo batian edo Jaunak egiñ diz-
kan mesediak, edo bere eriyotza ta pasiyua, edo bere ontasuna, ta beiñ ta
berriz ta berriz akto kontriziyozkua esatia.

G. Zer gauza da obrazko satisfaziyua?

E. Da pagatzia Jainkuari pekatubakgatik zor diran tenporalak, kon-
fesorriak emandako penitenziya kunplizierekiñ.

G. Eta penitenziya kunplitzen ez dubenak, edo txit gerorako uzten
dubenak, zer pekatu egithen du?

E. Penitenziya grabia bada, pekatu mortala.

G. Eta konfesorriaren penitenziyaz gañera eman geniyozake Jainkua-
ri beste moduz pena tenporalen satisfaziyua?

E. Bai, jauna; Jainkuaren graziyan gaudela egiten dithugun obra on
guztiyakiñ; eta induljenziyak irabazita.

G. Eta zer gauza dira induljenziyak?

E. Graziya batzuben zeñakgatik barkatzen da pena tenporala mundu
onetan edo bestian pekatubakgatik pagatu biar dana.

G. Eta nola irabazi biar dira?

E. Onetarako agintzen dana Jainkuaren graziyan egiñ da.

G. Eta emen satisfaziyua eman ez zutelako purgatoriyora dijoazenai
guk sokorru ta laguntzarik eman diyozatekegu?

E. Bai jauna; satisfaziyua eman gentsakian obrakiñ berakiñ.

G. Eta pekatuban erortzen dan bakoitzian beriala konfesatzera jua
biar du batek pekatuba barka degikiyon?

E. Ongi izango litzake, baña ez da premiyazkua.

G. Zer egiñ biar du bada?

E. Bere pekatuben egiazko kontriziozko damu sendo bat iruki,
enmendatzeko ta konfesatzeko propositubarekiñ Ama Eliza Santak agin-
tzen dubenian.

G. Zer da pekatu beniala?

E. Pekatu mortala egitheko disposiziyuan jartzen duben bat.

G. Zergatik deritza beniala?

E. Zergatik errash, au da aisatasunarekiñ, erortzen dan gizona artan,
eta errash barkatzen zaion.

G. Zenbat gauzagatik barkatzen zaio.

E. Bederatzigatik.

G. Zein dira?

E. Aurrenekua, mesa (sic) entzutiagatik.

Bigarrena, komulgatziagatik.

Irugarrena, konfesio jenerala esatiagatik.

Laugarrena, Obispuaren Bendiziyuagatik.

Bostgarrena, ur bedinkatubagatik.

Seigarrena, ogi bedinkatubagatik.

Zazpigarrena, Aita guria esatiagatik.

Zortzigarrena, sermoia entzutiagatik.

Bederatzigarrena, petxuko golpiagatik, Jainkuari barkaziyua eskatu-
baz.

G. Zergatik esaten dezu azkenian Jainkuari barkaziyua eskatubaz?

E. Pekatu benialen barkaziyua gauza oiekgatik iritxiko bada, oien
jainkozko damuren bat izan biar degula aditzera emateko.

G. Eta pekatu benialak konfesatzera obligatubak gaude?

E. Ez, Jauna; baña ona ta probetxuzkua da.

G. Eta azkeneko konfesiyo ezkeren benialak baizik ez dubenari, zer
konbeniko zaio egithia doloriak ta proposituba aseguratzeke?

E. Lenagoko pekatu mortalen bat ere konfesatzia, azkeneko benia-
laz gañera.

G. Komuniyoko sakramentu guttiz santuba zertarako da?

E. Biar dan bezela edo ondo prestatuba errezibitzen degularik, gure
animen mantenimentuba izateko, ta graziya amentatzeko.

G. Zergatik esaten dezu ondo prestatuta?

E. Aditzera emateko, ez dala Sakramentu au gure animen mantenu-
ba izango, biar dan disposiziyurekiñ errezibitzen ez badegu; ala anima-
ren aldetik, nola gorputzaren aldetik.

G. Animaren aldetik, zer disposiziyo biar da bada?

E. Jainkuaren graziyan egotia.

G. Eta pekatu mortalian erori zanak, nola prestatu biar du komulga-
tzeko?

E. Konfesatuta.

G. Eta konfesatuta gero pekatu graberen batez oroitzen danak, zer
egiñ biar du?

E. Konfesatu au aurrena.

G. Eta gorputzaren aldetik, zer prestaera eskatzen da?



E. Aurreko gabeko amabiyak ezkerre ezerre jan eta ez eran gabe (nun da Komuniyua miñez edo eri daguela artu biar ez dan), baraurik alle-gatzia.

G. Zer errezibitzen dezu Komuniyoko sakramentu guztiz Santuban?

E. Kristo, Jainko ta gizon egiazkua, Aldareko sakramentu guztiz santuban egiazki daguena.

G. Onela danez, zein dago hostiyan konsagrazio ondorian?

E. Jesu-Kristoren gorputza, bere odol, anima ta jainkotasunarekin.

G. Eta kalizan?

E. Jesu-Kristoren odola, bere gorputz, anima ta jainkotasunarekin.

G. Jesu-Kristo guztiya dago hostiyan, eta orobat kalizan?

E. Jesu-Kristo guztiya dago hostiyan, eta guztiya onen erozein pusketan ere; ta orobat kalizan.

G. Eta konsagratu ondorian badago hostiyan ogirik, edo kalizan ardorik?

E. Ez, jauna; ez dago ogiyaren eta arduaren usai, kolore, gusto ta beste akzidentiak baizik.

G. Eta hostiya puskatzen bada, edo kalizatik zerbait atera edo ishuri, puskatzen da Jesukristo?

E. Ez jauna; puska guztiyetan eta puska bakoitzian guztiya oso gelditzen da.

G. Eta esan diran prestaerak gabe komuniyora allegatzen danak ere errezibitzen du Jesu-Kristo?

E. Bai, jauna; baña batere probetxu gabe, zergatik pekatu txit grabe bat egithen du.

G. Probetxubarekin artzen dutenai, zer konbeniko zaie egithia, esan danaz gañera, frutu aundiyaguak iristeko?

E. Komulgatu baño lenago konsideratu zein dan aiengana datorren Jauna, fede, esperantza ta karidadeko aktuak maiz egin; humildade ta erreberenziya aundiyarekin bera artu, ta gero graziyak eman aia benefiziyo aundiyagatik.

G. Zertarako da Estrema-unziyoko sakramentuba?

E. Iru gauzetarako.

G. Zein dira?

E. Aurrenekua, lengo bizitza gaistuaren arrasto eta kutsubak kentzeko.

Bigarrena, animari indarra emateko demoniñuaren tentaziyeu kontra.

Irugarrena, gorputzari osasuna emateko, konbeni bazaio.

G. Eta sakramentu au errezibitzeko obligaziyorik badute uso arra-zoizkora allegatu ta peligrizko eritasunian arkitzen diranak?

E. Bai, jauna; ta pekatu mortala egithen dute aldezakiala artzen ez badute; edo pekatu mortalian daudela artzen badute.

G. Pekatut mortalian daguanak, zer egin biar du bada biar bezela errezibitzeko?

E. Aurrena konfesatu, ta au egin badezake, akto kontriziyozko egiazko bat egin.

G. Zertarako da Ordenako Sakramentuba?

E. Konsagratzeko ta ordenatzeko Elizako ministro dignuak, nola diran sazerdote edo apaizak, diakonuak eta beste gañerakuak.

G. Eta elizako ministruak, batezere apaizak, errespetatu ta beneratu biar dira espezialmente?

E. Bai, jauna.

G. Zertarako da Matrimoniyo Sakramentuba?

E. Eskontzeko ta eskondubai graziya emateko, onekin bizi dithezen pakian, eta semiak zerurako ezi ditzaten.

G. Eta Jainkuaren graziyan ezkongaiak egotia, premiyazkua da, Sakramentu au artutzeko biar bezela?

E. Bai, jauna; pekatu mortalaren azpiyan.

G. Eta Jainkuaren graziyan ez daudenak, zer egin biaute eskontzeko?

E. Konfesatu.

Pekatu kapitalak dira zazpi

Aurrenekua, soberbiya.

Bigarrena, abariziya.

Irugarrena, lujuria.

Laugarrena, ira.

Bostgarrena, gula.

Seigarrena, enbidiya.

Zazpigarrena, nagitasuna.

G. Zergatik deitu diyezu pekatu kapitalak komunmente edo geienian mortalak esaten zaien zazpiyai?

E. Deitzen zaie kapitalak, zergatik diran burubak, aietatik jaiotzen diran beste biziyeu ithurri ta sustriak bezela; mortala deitzia ez datorkiye ain egoki, askotan benialak baizik ez diralako.

G. Noiz dira mortalak?

E. Jainkuaren eta projimuaren karidade edo amoriyuaren kontra diranian.



- G. Noiz dira karidadiaren kontra?
 E. Aien bidez austen danian Jainkuaren edo Elizaren mandamentu-
 ren bat gauza grabian.
 G. Zer da soberbiya?
 E. Bestiengandik bereshituba izateko zale geiegi bat.
 G. Zer da abariziya?
 E. Ondasunen zale geiegi bat.
 G. Zer da lujuriya?
 E. Atsegiñtasun zikiñ eta aragizkuen zale geiegi bat.
 G. Zer da ira?
 E. Benganzaren zale geiegi bat.
 G. Zer da gula?
 E. Jateko ta erateko zale geiegi bat.
 G. Zer da enbidia?
 E. Besteren onaren damutasuna.
 G. Zer da nagitasuna?
 E. Obra onak egitheko animuaren falta.

Zazpi biziyo oien kontra dira zazpi birtute

- Soberbiyaren kontra humiltasuna.
 Abariziyaren kontra emalletasuna.
 Lujuriaren kontra kastidadia.
 Iraren kontra eramana.
 Gularen kontra tenplanza.
 Enbidiaren kontra karidadia.
 Nagitasunaren kontra egiñ-naia.

Animaren etsaiak zeñetatik iges egiñ biar degun dira iru

- Aurrenekua, da munduba.
 Bigarrena, demoniñua.
 Irugarrena, aragiya.
 G. Zein da munduba?
 E. Dira gizon mundutar gaisto eta gaitzeragilleak.
 G. Zein da demoniñua?
 E. Da ingeru bat, Jainkuak zeruban sortu, ta bere Majestadiaren
 kontra beste askorekiñ altxa zalako, infernura amildu zubena bere gaisto-
 tasuneko lagunakiñ, zeñai deitzen diyegu demoniñuak.
 G. Zeiñ da aragiya?
 E. Da gure gorputza bera, bere pasiyu ta inklinaziyo txarrakiñ.

- G. Nola garaitzen da munduba, ta iges egithen da argandik?
 E. Au garaitzen da ta iges egithen da onegandik bere ponpa ta bani-
 dadiaz kasorik egiñ ezta.
 G. Nola garaitzen da demoniñua, ta iges egithen da beragandik?
 E. Oraziyuarekiñ eta humiltasunarekiñ.
 G. Nola garaitzen da aragiya, ta iges egithen da argandik?
 E. Au garaitzen da, ta iges egithen da onegandik mortifikaziyuakiñ,
 dizipliñakiñ eta barabakiñ; au da etsairik aundiyena, zergatik aragiya eziñ
 bota gentzake gugandik; munduba ta demoniñua, bai.

Birtute teologalak dira iru

- Aurrenekua, fedia.
 Bigarrena, Esperantza.
 Irugarrena, Karidadia.
 G. Eta nola utsegiñgo ez degu birtute oien aktuak egitheko degun
 obligaziyuari?
 E. Deboziyoz eta maiz errezatziarekiñ (edozeiñ kristauk egitia arra-
 zoi dan bezela) kredua, Aita guria, ta akto kontriziyozkua biyotzetik esa-
 tiarekiñ.

Birtute Kardinalak dira lau

- Aurrenekua, Prudenziya.
 Bigarrena, Justiziya.
 Irugarrena, Fortaleza.
 Laugarrena, Tenplanza.

Gorputzaren sentidubak dira bost

- Aurrenekua, begiyakiñ ikustia.
 Bigarrena, belarriyakiñ entzutia.
 Irugarrena, abarekiñ gustu ateratzia.
 Laugarrena, sudurrakiñ usai-egithia.
 Bostgarrena, eskubakiñ ikuitzia.
 G. Zertarako eman zizkigun Jainkuak sentidubak eta gañerako mien-
 bro guztiyak?
 E. Guztiyakiñ bera serbi gentzan gauza guztiyetan.

Animaren potenziyak dira iru

- Memoriya, entendimentuba ta borondatia.
 G. Jainkuak memoriya zertarako eman zigun?



- E. Beraz eta bere mesediaz oroitzeko.
- G. Entendimentuba zertarako eman zigun?
- E. Gure Jauna ezagutu ta beragan pensatzeko.
- G. Borondatia zertarako eman zigun?
- E. Ontasan gañenekua bezela ama genezan, ta projimua beragatik.
- G. Eta gure anima, potenziya oien jabia, zer da?
- E. Da eziñ illko dan espiritu bat, Jainkuak ezerezetik bere antz eta idurira sortuba.

Espiritu Santubaren doaiak dira zazpi

- Aurrenekua, jakiñduriyako doaia.
- Bigarrena, zentzuko doaia.
- Irugarrena, konsejuko doaia.
- Laugarrena, jakiñduriako doaia.
- Bostgarrena, fortalezako doaia.
- Seigarrena, piedadeko doaia.
- Zazpigarrena, Jainkuaren bildurtasuneko doaia.

Espiritu santubaren frutubak dira amabi

- Aurrenekua, karidadia.
- Bigarrena, pakia.
- Irugarrena, animuaren sendotasuna.
- Laugarrena, benignidadia.
- Bostgarrena, fedia.
- Seigarrena, kontinenziya.
- Zazpigarrena, atsegiñ espirituala.
- Zortzigarrena, pazienziya.
- Bederatzigarrena, ontasuna.
- Amargarrena, mansedunbria.
- Amaikagarrena, modestiya.
- Amabigarrena, kastidadia.

Zoriontazunak dira zortzi

- Zorionekuak espirituz pobriak, zergatik aiena da zerubetako erri-
nuba.
- Zorionekuak mansuak, zergatik aiek izango diran lurraren jabiak.
- Zorionekuak negar egithen dutenak, zergatik aiek izango dira kon-
solatubak.

- Zorionekuak justiziyaren gosia ta egarriya dutenak, zergatik aiek
izango dira asiak.
- Zorionekuak biyotz beradunak, zergatik aiek iritxiko dute errukiya.
- Zorionekuak biyotz garbidunak, zergatik aiek ikusiko dute Jainkua.
- Zorionekuak pakiosuak, zergatik Jainkuaren semiak deituko zaie.
- Zorionekuak justiziyagatik persegithubak diranak, zergatik aiena da
zerubetako erreinuba.
- G. Zer esan ditugu oraiñ?
- E. Zortzi zoriontasunak.
- G. Zer gauza dira zortzi zoriontasun oiek?
- E. Espiritu santubaren birtute ta doaien obrarik onenak.
- G. Zein dira espirituz pobriak?
- E. Nai ez dutenak honra ta aberastasun txikirik ere (naitasunez bein-
tzat).
- G. Zein dira mansuak?
- E. Errabirik ez dutenak, ezta kasik aren mobimenturik ere.
- G. Nola izango dira lurraren jabe?
- E. Beren buruben jabe bezela.
- G. Zein dira negar egithen dutenak?
- E. Gustuak, naiz txikiyak izan, uzten dithuztenak.
- G. Zeiñ dira justiziyaren gosia ta egarriya dutenak?
- E. Gauza guztiyetan beren obligaziyo edo egiñbiarra zintzoro egit-
hen dutenak.
- G. Zein dira biyotz beradunak?
- E. Erruki asko dutenak atserrikuakin ere.
- G. Zein dira biyotz garbikuak?
- E. Beren pasiyuetan guztiz mortifikatubak diranak.
- G. Zein dira pakiosuak?
- E. Pakegilleak berengan eta bestiengan.
- G. Zein dira justiziyagatik persegithubak diranak?
- E. Naiz persegithubak izan, gauza on edo justu guztiyetan sendo edo
firme daudenak.
- G. Zergatik deitzen zaie oiei bienabenturantzak?
- E. Oietan dagelako mundu ontako zoriontasuna ta bestekuaren
esperantza.
- G. Zenbat dira azkenfiñak?
- E. Lau: eriyotza, juiziyua, infernuba ta gloriya.
- G. Zer da gloriya?



E. Estadu edo egoera guztiz eder bat, zeñian arkitzen diran ondasun guztiyak, gaitzaren pitxik esperimentatu gabe; ala nola infernuban arkitzen diran gaitz guztiyak, onaren pitxik esperimentatu gabe.

G. Eta ontatik libratzeko eta ura iristeko zer egiñ biar degu?

E. Mandamentubak guardatu.

G. Eta aldira mediyo artakoren batzuben, zeñen bidez askos erras-hago guarda gintzakian oiek, eta aietan utsegithetik libra gintezkian?

E. Bai, jauna.

G. Zein dira?

E. Sakramentu santubak maiz artzia; Jainkuari goizetik obrak eskeintzia; egunero meza entzutia, ta Birjiña Santisimari errosariyua errezatzia; libru onak letzia; gauza onetan meditatzia; gabetan konzienziyako esamíña egithia; ta askogatik baliyo duben bat esateko, konfessore jakintsu, birtuoso ta prudente bat autzia, ta argana guztiyan sujetatzia edo makurtzia.

M. Ongi diyozu; zergatik konfessore on bat autzia da, S. Franziskok de Salesek diyona, adbertenziya guztiyen adbertenziya. Egizute, bada, zuek ori, ta onek giyatuko zathuzte aingeru batek bezela, oiek eta beste bideak erakutsiyaz, mandamentuben bide shiorretatik zabiltzaten, eta Jainkua gloriyan ikustera allega zathezten, bada onetarako sortubak izan giñan.

E. Jaungoikuak eraman gaitzala guztiyok ara. Amen.

Ni pekataria euskera

Ni pekatari onek konfesatzen diyot Jainko guztiya dezakianari, zorioneko Mariya beti Birjiñari, zorioneko S. Migel Aingerubari, S. Juan Bautistari, S. Pedro ta S. Pablo apostolu santubari, santu guztiyai eta zuri, Aita espirituala, pekatu egiñ derala grabemente pensamentu, itz eta obra-kiñ, nere kulpaz, nere kulpaz, nere kulpa guztiz aundiyaz. Argatik erregutzen diyot zorioneko Mariya beti birjiñari, aingeru S. Migel zorionekuari, S. Juan Bautistari, S. Pedro ta S. Pablo apostolu santuari, santu guztiya, eta zuri, Aita espirituala, erregutu zaiozazutela nigatik Jainko gure jaunari.

Akto kontriziyozkua

Nere Jesu-Kristo Jauna Jainko ta gizon egiyazkua, nere egillia ta erredentoria, zu zerana izanagatik, eta zergatik amatzen zathuran gauza guztiyak baño geiago, damu det biyotz guztitik zu ofendithuba, ta artzen det propositu sendua beñere geiago pekatu ez egitheko, konfesatzeko, eman dizaizakedan penitenziya kunplitzeko ta zu ofenditzeko okasiyo

guztiyatetik aldegitheko. Eskeintzen dizkitzut nere biziya, obrak eta nekiak nere pekatu guztiyen satisfaziyorako; eta daukat konfiantza zure jainkozko ontasun eta urrikaltasun bukaera gabian barkatuko dizkidatzula zure odol guztiz prezioso, pasiyo ta eriyotzaren merezimentubakgatik, eta emango dirazula graziya emendatzeko ta irauteko zure serbiziyo santuban nere biziya bukaeraraño. Amen.

Oraziyo laburra

Jainkuaren honra ta gloriyarako eguneko obra guztiyak goizetik eskeintzeko. Graziyak ematen dizkitzut, nere Jainkua, zure esku emalletik artu dithuran mesede guztiyakgatik; batez-ere iristen utzi dirazulako egun au, zeñian eskeintzen dizkitzut, zure onra ta gloriyarako, nere pensamentu, itz eta obra guztiyak, Jesu-Kristoren odol eta merezimentubakiñ; eta artzen det propositu firmia gaur zu ez ofenditzeko zure graziyaren bidez. Sokorri nazazu, bada, Jauna, zure laguntzakiñ au onela egin dezadan Jesu-Kristo, bere Ama santisima ta santu guztiyen merezimentubakgatik. Amen.

BUKAERA



TOLOSAKO DOTRINA

Dotriña kristianaren sarrera

Kristau fiyel guziyak daude obligaturik gurutzia adoratzera eta deboziyoa izatera. Biyotz guzitik Jesus gure argiyaren gurutze santubakin, zeñean ill nai izan zuan gu ateratziagaitik pekatubaren mendetik eta etzaiaren kautiberiyotik. Orregaitik bada oitu biar zera nola ziñatzia ala Aitaren egitia iru gurutze egiñaz lenbizikua bekokiyan Jangoikuak libra gaitzan pensamentu gaiztuetatik bigarrena auban Jangoikuak libra gaitzan itz gaiztuetatik irugarrena bularretan Jangoikuak libra gaitzan obra ta desio gaiztuetatik onela esanaz: gurutze santubaren senaliagaitik gure etzaietatik libra gaitzatzu gure Jauna ta Jangoikua. Aitaren eta Semiaren eta Espiritu Santubaren izenian Amen.

Kredua

Sinisten det Jangoiko Aita guziz poderoso zerubaren ta lurraren Kriadoriagan, eta aren seme bakar Jesukristo gure Jaunagan: Zeña konzebitu zan Espiritu Santubaren obraz ta grazizyaz: jaio zan Mariya Birjiñagandik, padezitu zuan Ponziyo Pilatosen agintiaren azpiyan izandu zan kruzifikatuba illa ta enterratuba, jetxi zan infernuetara, piztu zan illen artetik irugarren egunian. Igo zan zeruetara an dago eseririk Jangoiko Aita guziz poderosuaren alde eskubitik; andik etorriko da biziyak eta illak juzgatzera Sinisten det Espiritu Santubagan Elizama Santa Katolika, Santuen Komuniyua pekatuen barkaziyoa aragiyaren resurreziyoa, eta bizitza sekulakua Amen.

Artikulu fedekuak dirade amalau

Lenbiziko zazpirak pertenezitzen zaizka dibinidadiari eta beste zazpirak gure Jaun Jesukristo Jangoiko ta gizon egiazkuaren umanidade santubari.

Dibinidadiari pertenezitzen zaizkanak dirade obek.

Lenbizikua sinistia Jangoiko guziz podero bakar bategan.

Bigarrena sinistia Aita dana.

Irugarrena sinistia Semia dana.

Laugarrena sinistia Espiritu Santuba dana.

Bostgarrena sinistia Kriadoria dala.

Seigarrena sinistia salbadoria dala.

Zazpigarrena sinistia glorifikadoria dala.

Umanidade Sanbari pertenezitzen zaizkanak dirade obek.

Lenbizikua sinistia Jesukristo gure Jauna gizona dan partetik konzebituba izan zala Espiritu santubaren obraz ta grazizyaz.

Bigarrena sinistia jaio zala Mariya Birjiñagandik, zala Birjiña Kristo jaio baño len jaiotzian eta jaio ezkeru.

Irugarrena sinistia errezibitu zituala eriyotza ta pasiyoa gu pekatariyok salbatziagaitik.

Laugarrena sinistia jetxi zala infernuetara, eta aren etorrera santubari itxoten zeuden guraso santubak libratu zituala.

Bostgarrena sinistia erresuzitatu zala illen artetik irugarren egunian.

Seigarrena sinistia igo zala zeruetara, eta daguala eseririk, Jangoiko Aita guziz poderosuaren alde eskubitik.

Zazpigarrena sinistia etorriko dala biziyak eta illak juzgatzera au da onai ematera gloriya, zerren aren mandamentubak gorde zituen eta gaiztuai sekulako pena zerren gorde etzituen. Amen.

Aita guria zeruetan zaudena, santifikatuba izan bedi zure izena, betor gugana zure erreinuba; egin bedi zure borondatia nola zeruban ala lurrian. Eman iguzu gure eguneroko ogiya barka gizkigutzu gure zorrak guk gure zordunai barkatzen diyegun bezela, eta ez gaitzatzu utzi tentaziyoan erortzen baizikan libra gaitzatzu gaitzetik Amen.

Abemariya grazizyaz betia, Jauna da zurekin bedeinkatuba zera zu andre guziyen artian eta bedeikatuba da zure sabeleko frutuba Jesus. Santa Mariya Jangoikuaren Ama erregu zazu gu pekatariyok gaitik orain ta gure eriyotzako orduban Amen Jesus.

Salbia

Jangoikuak salba zaitzala erregiña miseriordiyaren Ama bizitza ta dulzura, eta esperantza guria: Jangoikuak salba zaitzala zure deiez gaude Ebaren ume desterratubok zugana gaude suspiriyoaz sentimentuz eta



negarrez negarrezko balle onetan: Ea bada gure abogada itzulitzatu gugana zure begi miserikordiyosua. Ta destierro onetatik irteten geranian erakutsi iguzu Jesus zure sabeleko frutu bedeinkatuba O klementisima! O piadosa! O miserikordiosa! O dulce Birjiña Mariya: erregutu zazu gugaitik Jangoikuaren Ama Santa, izan gaitezen dignuak iristeko Jesukristo gure Jaunaren promesak. Amen.

Jangoikuaren legeko mandamentubak dirade amar

Lenbiziko irurak pertenezitzen zaizka Jangoikuaren onrari, eta beste zazpirak projimuaren probetxubari.

Lenbizikua Jangoikua amatzia gauza guziyen ganian.

Bigarrena aren izen santubaren gañean juramentua alferrik ez egitia.

Irugarrena jai egunak santifikatzia.

Laugarrena aita tama onratzia.

Bostgarrena inor ez iltzia.

Seigarrena lujuriyako pekatuak ez egitia.

Zazpigarrena ez ooztutzia.

Zortzigarrena testimoniyo falsorik ez jasotzia eta gezurrik ez esatia.

Beatzigarrena projimuaren emazterik ez deseatzia.

Amargarrena besteren gauzarik ez deseatzia.

Amar mandamentu obek enzerraten dira bitan, serbitzian ta amatzian Jangoikua gauza guziyen gañian, eta projimua gure buruba bezela Amen.

Dotriña kristianaren deklaraziyoa galdetzen eta erantzuten dala

GALDETZEN DET: Kristauba zera?

ERANZUTEN DET: Bai Jauna Jangoikuaren graziaz

G. Kristaubaren izen ori norgandik izan zenduan?

E. Kristo gure Jaunagandik.

G. Zer esan nai du kristaubak?

E. Kristoren gizona

G. Zer aditzen dezu Kristoren gizonagaitik?

E. Kristoren fedia duan gizona zeñak errezibitu zuan bataiatzian, eta dago eskenirik aren serbizioyo santura.

G. Zer da kristaubaren señalia?

E. Gurutze santuba.

G. Zergaitik?

E. Zergaitik dan Kristo kruzifikatubaren figura, zeñean erredimitu ginduzen.

G. Zenbait modutan egiten du kristaubak señaile au?

E. Bitan

G. Zein dirade?

E. Zinatzia ta santiguatzia

G. Zer gauza da ziñatzia?

E. Iru gurutze egitia eskubiko eskubaren aurreneko beatzarekin, lenbizikua bekokiyan bigarrena auban, irugarrena bularretan itz egiten dala Jangoiko gure Jaunarekin.

G. Egin zazu nola?

E. Gurutze Santubaren senaliagaitik, gure etsaietatik libra gaitzatu gure Jauna ta Jangoikua

G. Zergaitik ziñatzen zerade bekokiyan?

E. Libratzeagaitik Jangoikuak pensamentu gaiztoetatik.

G. Zergaitik auban?

E. Libratzeagaitik Jangoikuak itz gaitzuetatik.

G. Zergaitik bularretan?

E. Libratzeagaitik Jangoikuak obra ta desio gaitzuetatik.

G. Zer gauza da santiguatzia?

E. Egitia gurutze bat eskubiko eskuko beatz biyakin bekokiti bularraño, eta sorbalda ezkerrekotik eskubikoraño deitzen zaiola trinidad Santisimari

G. Ejin zazu nola?

E. Aitaren eta Semiaren eta Espiritu Santubaren izenian Amen

G. Noiz egin biar dezu señaile au?

E. Obra onen bat asitzen dan guziyan, edo arkitzen naizenian nezesidade, tentaziyo edo peligroren batian prinzipalmente oitik jeikitizian etxetik irteteen elizan sartzian jaterakuan eta lo egiterakuan

G. Zergaitik orrenbeste bider?

E. Zergaitik denbora ta leku guziyan gure etsaiak konbatitu ta persegitzen gaituen

G. Zer etsai dirade oriyek?

E. Munduba demoniyoa ta aragiya.



- G. Esan egidazu bada gurutzia badu birtuterik etsai orien kontra?
- E. Bai jauna.
- G. Nundik izan zuan gurutzia birtute ori?
- E. Benzitzeagandik Kristok gurutzian etsai oiek bere eriyotzarekin.
- G. Gurutzia adoratzan dezunian zer esaten dezu?
- E. Adoratzan ta bedeinkatzen zaitut Kristo, zergaitik zure gurutze santubarekin erredimitu zenduan munduba.

Dotriña kristianaren partiziyoa

Ikusi det kristauba zerana kristaubaren izenak ta señaliagaitik. Esan egidazu orain zenbait gauza jakin biar ditu kristaubak uso arrazoizkua izatera allegatzen danian?

- E. Lau gauza
- G. Zein dirade?
- E. Jakitia zer sinistu biar duan, zer oraziyo egin biar duan zer obratu biar duan eta zer errezibitu biar duan
- G. Nola jakingo du zer sinistu biar duan?
- E. Jakiñarekin kredua ta artikulu fedekuak.
- G. Nola jakingo du zer oraziyo egin biar duan?
- E. Jakiñarekin Aita guria ta elizako beste oraziyoak
- G. Nola jakingo du zer obratu biar duan?
- E. Jakiñarekin Jangoikuaren legeko mandamentubak elizama Santarenak eta obra miserikordiyazkuak.
- G. Nola jakingo du zer errezibitu biar duan?
- E. Jakiñarekin Elizama Santaren Sakramentubak.

Doktrina kristianaren lenbiziko partia zeñean deklaratzan diran Kredua ta Artikulu fedekuak

- G. Esanzazu: nor esan zuan Kredua?
- E. Apostoluak
- G. Zertako?
- E. fedeko gauzak guri erakusteko.
- G. Eta zuk zertako esaten dezu?
- E. Kristaubok degun fede au konfesatzeko
- G. Zer gauza da fedia?
- E. Ikusi ez genduena sinistia.

- G. Ikusi zenduan Kristo jaiotzen?
- E. Ez jauna.
- G. Ikusi zenduan iltzen edo zeruetara igotzen?
- E. Ez jauna.
- G. Sinisten dezu?
- E. Bai sinisten det.
- G. Zergaitik sinisten dezu?
- E. Zergaitik Jangoikuak errebelaturik Elizama Santak onela erakusten digun.
- G. Zer gauza dira kristauba bezela dituzunak, eta sinisten dituzunak?
- E. Elizama Santa Erromakuak dituanak eta sinisten dezuena?
- E. Artikulu fedekua prinzipalente kreduan dauden bezela.
- G. Zer gauza dirade artikulu fedekuak?
- E. Dirade fedeko misteriorik prinzipalena.
- G. Zertako dirade artikulu fedekuak?
- E. Emateko berri trinidad santisimarena, eta gure Redentore Jesu-kristorena.
- G. Nor da Jangoikua?
- E. Da gauza bat esan eta pensatu alditekan ba no ere ezelentiagua ta miragarriyagua: Jaun bat infinitamente ona poderosua, jakintsua justua, asiera ta akabera gauza guziyena.
- G. Trinitate santisima nor da?
- E. Da Jangoikua bera Aita Semia ta Espiritu Santuba, iru persona diferentia ta Jangoiko egiazko bat.
- G. Aita Jangoikua da?
- E. Bai jauna.
- G. Semia Jangoikua da?
- E. Bai jauna.
- G. Espiritu Santuba Jangoikua da?
- E. Bai jauna.
- G. Iru Jangoiku dira?
- E. Ez da Jangoiko egiazko bat baizik.
- G. Aita Semia da?
- E. Ez jauna.
- G. Espiritu Santuba Aita eta Semia da?
- E. Ez jauna.
- G. Zergaitik?
- E. Zergaitik personak diran diferentia, Jangoiko egiazko bat izanagaitik ere.



- G. Beraz orrela, zenbait naturaleza, entendimentu ta borondate arkitzen dira Kristogan?
- E. Naturaleza bat entendimentu bat eta borondate bat bakarra.
- G. Eta zenbait persona?
- E. Iru diferentiak: zeñak dira Aita Semia eta Espiritu Santuba.
- G. Nola da Jangoiko guziz poderosua?
- E. Zergaitik ezerezetik egin zituan gauza guziyak.
- G. Zertarako Jangoikuak egin zuan gizona?
- E. Hura mundu onetan serbitzeko eta gero bestean igarotzeko.
- G. Nola da Salbadoria?
- E. Zergaitik ematen duan graziya, eta barkatzen dizkigun pekatubak.
- G. Nola da glorifikadorea?
- E. Zergaitik ematen diyon gloriya aren graziyan irauten duanari.
- G. Jangoikuak badu gorputzaren figurarik guk bezela?
- E. Ez du Jangoikua dan partetik, zergaitik dan espiritu purua, baño badu gizona dan partetik
- G. Iru persona dibinotatik zein egin zan gizon?
- E. Bigarrena zeña dan semia
- G. Aita egin zan gizon?
- E. Ez jauna
- G. Espiritu Santuba egin zan gizon?
- E. Ez jauna.
- G. Zein bada?
- E. Semia bakarrik, zeñari gizon egiñik deritzon Jesukristo.
- G. Beraz orrela nor da Jesukristo?
- E. Da Jangoikuaren biziyaren semea, gizon egin zana gu salbatziagaitik eta bizitza onaren ejenplua ematiagaitik.
- G. Eta zenbait naturaleza, entendimentu ta borondate arkitzen dira Kristogan?
- E. Bi naturaleza, bata dibinua ta bestia umana; bi borondate humana bata eta dibinua bestia; eta bi entendimentu bata dibinua eta umana
- G. Eta zenbait persona ta memori?
- E. Persona bat bakarra Jangoikua dan partetik zeña dan trinidad santisimako bigarren persona, eta memori bat bakarra gizona dan partetik zergaitik Jangoikua dan partetik ez dauka memoririk
- G. Zer esan nai du Jesusek?
- E. Salbadoria edo libratzallia
- G. Zertatik salbatu ginduzen?
- E. Gure pekatu eta demoniyoaren mendetik

- G. Zer esan nai du Kristok?
- E. Ontatuba
- G. Zertaz izan zan untatuba?
- E. Espiritu Santubaren graziyaz ta doiaz
- G. Kristo gure jauna nola izan zan konzebituba ta jaio zan Ama Birjiñagandik?
- E. Egiten ziala Jangoikuak obra milagrosua.
- G. Zergaitik esaten dezu egin zuala milagroz?
- E. Zergaitik Jesukristo etzan konzebitua izan eta ez jaio ere beste gizonak bezela.
- G. Bada nola izan zan konzebitze aren misteriyoa?
- E. Mariya Birjinaren entrañatan, Andre onen odol txit garbithik formatu zuan Espiritu Santubak gorputz bat guziz perfetua, ezerezetik egin zuan anima bat eta unitu zuan gorputz arekin, eta bertantxe gorputz eta anima oiei unitu ziyen Jangoikuaren semia, eta modu onetan len Jangoikua bakarrik zana, egin zun gizon Jangoikotasuna utzi gabe.
- G. Eta nola jaio zan milagroz?
- E. Mariya guziz Santaren sabeletik bere Birjiñatasunaren kalterik gabe irtenta, kristal batetik erreñuba sartzen dan bezela hura ausi ta zikindu gabe.
- G. Eta bere Ama geroz beti izan zan Birjiña?
- E. Bai jauna beti.
- G. Zergaitik nai izan zuan ill gurutzian?
- E. Gu pekatutik ta eriyotzatik libratziagaitik
- G. Nola bada artan erori giñan?
- E. Gure lenbiziko Aita Adanek pekatu eginta, zeñean guziyok egin genduen pekatu.
- G. Zer aditzen dezu Kristo ill ezkerro jetxi zan infernubagaitik?
- E. Ez kondenatuben tokiya, baizikan linbua justuak zeudena.
- G. Zer bada infernu bat baño geiago?
- E. Bai jauna, dira lau lurraren zentrua, eta deitzen zaiekondenatuben infernuba, purgatoriyoa, aurren linbua eta justuen linbua edo Abraanem senua
- G. Eta zer gauza dira?
- E. Kondenatuben infernuba da pekatu mortalien iltzen diranaen tokiya, an atormentatubak izateko beti. Purgatoriyoa, Jangoikuaren graziyan bere pekatubakgaitik oso pagatu gabe iltzen diran animak juaten diran tokiya, an purgatubak izateko oñaza aundiakin. Aurren linbua da uso arra arrazoizkora allegatu baño lenago bataiatu gabe iltzen diran ani



maen tokiya, eta Abraanem senua da gure erredenziyoa egin baño lenago Jangoikuaren graziya, oso purgatuta iltzen iran animaen tokiya, eta Jesu-kristo bera ara jetxi zan egiyaz.

G. Nola jetxi zan?

E. Anima Jangoikotasunakin uniturik.

G. Eta gorputza nola gelditu zan?

E. Jangoikotasunarekin uniturik.

G. Nola piztu zan irugarren egunian?

E. Biurtzen ziradela aren gorputz ta anima gloriosua juntatzera ez geiago iltzeko.

G. Nola igo zan zeruetara?

E. Bere birtute propiyoarekin.

G. Zer da egotia eseririk Aita Jangoikuaren alde eskubitik?

E. Izatia Aitak ainbat gloriya dan partetik, eta beste guziyak baño geiago gizona dan partetik.

G. Noiz etorriko da biziyak eta illak juzgatzeraz?

E. Mundubaren atzenian.

G. Eta orduban ill guziyak biar due piztu?

E. Bai jauna, izandu zituzten anima eta gorputzak berakin.

G. Eta mundubaren akabera baño lenago gizonak izango dira juzgatubak?

E. Bai jauna, guziyak euren biziyaren akaberan juzgatu eta sentenziyatuko ditu Jaunak, onai betiko Jangoikua goratzia zeruban, eta gaiztuai padezitzea infernuban betiko penak.

G. Zer zinisten dezu esaten dezunian, sinisten det santuen komuniyoa?

E. Kristau fiyelak duela parte besten ondasun espiritualetan gorputz baten mienbruak bezela zeña dan Eliza.

G. Zer da eliza?

E. Da Kristau fiyelen kongregaziyoa, zeñaren buruba dan Erromako Aita Santuba.

G. Nor da Aita Santuba?

E. Da Erromako Apaiz nagusiya zeñari guziyok gauden obligaturik obedezitzera.

G. Sinisten dezu Kredua ta artikulaz gañera beste gauzarik?

E. Bai jauna Eskritura Sagraduan dagan guziya eta Jangoikuak Elizari errebelatu diyon guziya

G. Zer gauza dirade oriyek?

E. Ez dirala ori galdetu neri, bada ez naiz jakintsua; baditu Elizama Santak Doktoriak jakingo duenak eranzuten. M. Ondo diyozu doktoriari dagokiye kontu ematia gure fede santuko gauza guziyena, eta ez zuri: zuretzat asmo ematia artikuluen kreduan dauden bezela.

Dotriña kristianaren bigarren partia zeñean deklaraten dan zer eskatu biar dan, eta Elizama Santaren oraziyoak

Ikusi degu nola dakizun zer sinitu biar dezun zeña dan lenbizikua, guazen bigarrenera, zeña dan zer eskatu biar dan jakitia: Esan zazu Nork esan zuan Aita guria?

E. Jesukristok.

G. Zertako?

E. Guri oraziyoa egiten erakusteko.

G. Zer gauza da oraziyoa egitea?

E. Da jasotzia biyotza Jangoikuagana eta eskatzia mesediak.

G. Zenbait modutara da oraziyoa?

E. Bitara aubaskua ta entendimentuzkua.

G. Zer da entendimentuzko oraziyoa?

E. Da animaren potenziyakin egiten dana, gauza onen batez akordatzten gerala memoriyakin; pensatzen ta diskurritzen degula entendimentubarekin aren gañian, eta amoriyozko obra batzuek egiten ditugula borondatiakin, nola dan pekatuban damutasuna, edo resoluziyo batzuek nola diran konfesatzea edo bizitza mudatzeko.

G. Zer da aubazkua?

E. Da itzak esanaz egiten dana, B.g. Aita guria errezatzen degunian egiten deguna

G. Eta nola egin biar da oraziyoa?

E. Aenziyo, umiltasun konfianza ta iraupenarekin.

G. Aita guria esaten dezunian morekin itz egiten dezu?

E. Jaungoiko gure Jaunarekin.

G. Nun dago Jangoiko gure Jauna?

E. Toki guziyan espezialmente zeruban eta Sakramentu Santu aldarekuan.

G. Eta Kristo gizona da partetik nun dago?

E. Zeruban ta aldareko Sakramentu txit Santuban bakarrik.



- G. Zein da oraziyoetan onena?
 E. Aita guria.
 G. Zergaitik?
 E. Zergaitik Apostoluak eskatu ta esan zuan Jesukristok bere autik.
 G. Zergaitik geiago?
 E. Zergaitik dituan zazpi petiziyo karidade guziyan fundatubak.
 G. Zein dirade?
 E. Lenbizikua santifikatuba izan bedizure izena.
 G. Zer eskatzen dezu petiziyo orretan?
 E. Reina dezala Jangoikuak gure animetan emen lurrian graziyakin eta gero eman dizugula gloriya.
 G. Zein da irugarrena?
 E. Egin bedi zure borondatia nola zeruban ala lurrian.
 G. Zer eskatzen dezu petiziyo orretan?
 E. Egin dezagula Jangoikuaren borondatia lurrian gaudenok biena-benturaduak zeruban egiten duen bezela.
 G. Zein da laugarrena?
 E. Eman iguzu gure eguneroko ogiya
 G. Zer eskatzen dezu petiziyo orretan?
 E. Eman dizagula Jangoikuak gorputzarentzat konbeni zaigun mantenuba ta animarentzat graziyaren mantenu espiriutubala ta Sakramentubak
 G. Zein da bostgarrena
 E. Barkagizkigutzu gure zorrak, gukgeren zordunai barkatzen diyegun bezela.
 G. Zer eskatzen dezu petiziyo orretan?
 E. Barka dizagula Jangoikuak gure pekatubak, guk barkatzen diyegun bezela agrabiyatu gaituenai, eta gaizki egin digenai.
 G. Zein da seigarrena?
 E. Ez gaitatzula utzi tentaziyoan erortzen.
 G. Zer eskatzen dezu petiziyo orretan?
 E. Ez deigula utzi Jangoiko gure Jaunak erortzen ta toki ematen pensamentu ta tentaziyo gaiztuai, zeñetan demoniyoak alegiña egiten dun gu pekatuban eroritzea
 G. Zein da zazpigarrena?
 E. Baizikan libra gaitzatzu gaitzetik.
 G. Zer eskatzen dezu petiziyo orretan?
 E. Libra gaitzala Jangoikuak animako ta gorputzeko gaitz eta peligro guziyetatik

- G. Bada zergaitik esaten dezu lenbiziko; Aita guria zeruetan zaude-na?
 E. Jasotzeko biyotza Jangoikuagana eta eskatzeko mesediak umilda-de ta konfianzarekin.
 G. Zer esan nai du atzenian esaten dezun itz Amen ark?
 E. Ala izan dedilla.
 G. Zer oraziyo esaten diozkatzu prinzipalente Birjiña Soberanari?
 E. Abe Mariya edo Salbia.
 G. Nork esan zuan Abe Mariya prinzipalente Birjiña soberanari?
 E. Abe Mariya edo Salbia.
 G. Nork esan zuan Salbia?
 E. Elizama Santak, zeñak daukan errezibiturik.
 G. Zertako?
 E. Faboriak eskatzeko ainguben erregiña Mariya Birjiñari
 G. Abe Mariya edo Salbia esaten dezunian zurekin itz egiten dezu?
 E. Gure Señora Mariya Birjiñarekin.
 G. Nor da gure Señora Mariya Birjiña?
 E. Da Señora birtutez ta graziyaz bete bat, zeña dan Jangoikuaren Ama eta daguana zeruban.
 G. Eta aldarian daguana nor da?
 E. Da zeruban daganaren antz bat.
 G. Zertako dago an?
 E. Hura ikusita akorda gaitezen zeruban daganaz, eta aren antzekua dalako arreberenziyatu dezagun. M. Bada igualegin biar diyezu beste santuen imajiña ta relikiyei.
 G. Santubai ere egin biar diyegu oraziyoa?
 E. Bai jauna gure bitartekuai bezela.
 G. Zer gauza dirade Aingerubak?
 E. Dire zorioneko espiritu batzuek, zeruban daudenak Jangoikua goratzen.
 G. Zertako kriatu zituan Jangoiko gure Jaunak?
 E. Eternidade guziyan alabatu eta bedeinkatu dezaten.
 G. Eta zertako geiago?
 E. Aren ministrubak bezela goberna dezaten Eliza ta gorde ditzaten gizonak.
 G. Beraz badezu zuk Aingeru guardakua?
 E. Bai daukat eta gizon bakoitzak dauka beria M. bada izaiozu deboziyo asko, eta enkomendatu berari egunero.



Dotriña Kristianaren irugarren partia zeñean deklaritzen dan zer obratu biar dan

Ikusi degu zer sinistu eta zer oraziyo egin biar dezun, ikusi dezagun nola dakizun zer obratu biar dezun. Esan ezazu.

G. Zein da Jangoikuaren legeko lenbiziko mandamentuba?

E. Jangoikua ama amatzia gauza guziyen gañian.

G. Nork amatzen du Jangoikua?

E. Aren mandamentu santubak gordetzen dituanak.

G. Zer da Jangoikua amatzia gauza guziyen gañian?

E. Naiago izatia galdu guziya hura ofenditu baño.

G. Zertara geiago obligatzen gaitu mandamentu onek?

E. Jangoikua bakarrik adoratzia gorputzeko ta animako erreberenzi-yakin sinisten eta esperatzen degula beragan fede osuarekin.

G. Nork egiten du pekatu mandamentu onen kontra?

E. idolo edo Jangoiko falsuetan sinisten duenak, feden kontrako gauzatan sinistu edo dudatzen duenak misteriyoren batian, edo ez dakiz-kinak premiazkuak: obligatuba dagonian egiten ez dituanak fede, espe-ranza ta karidadezko aktuak, edo konfianzarik ez duenak Jangoikuaren miserikordiya, edo dignoro artzen ez duenak sakramenturen bat.

G. Nork geiago?

E. Aztikiriyeta edo sorginkeriyetan sinisten duenak.

G. Zein da bigarrena?

E. Aren izen santubaren gañean juramentu alferrik ez egitia

G. Nork egiten du juramentu alferra?

E. Juramentu egiten duanak egiya gabe, justiziya gabe, eta premiya gabe.

G. Zer da juramentu egitia egiya gabe?

E. Juramentu egitia senti duanaren kontra edo gezurrakin.

G. Eta zer pekatu egiten du juramentu egiten duanak egiya gabe, edo dudakin egiten duan juramentuba egiya otedan?

E. Txit mortala naiz izan juramentuba gauza txikiyan gañean.

G. Zer da juramentu egitia justiziya gabe?

E. Juramentu egitia gauza bidegabeko eta txarren baten gañean pro-jimuari gaitzen bat egitia bezela.

G. Eta zer pekatu egiten du justiziya gabe juramentu egiten duanak?

E. Txit mortala bidegabeko gauza grabia bada, eta lebia gauza gutxi-kua bada.

G. Zer da premiya gabe juramentu egitia?

E. Juramentu egitia kausa graberik gabe, edo momentuko gauzagaitik.

G. Zer pekatu da au?

E. Lebia ezpadiyo faltatzen egiyari, justiziyari eta juramentubari.

G. Eta juramentu egiten duanak, edo boto edo promesa egiten duanak gauza on bat egiteko, obligatuba dago kunplitzea?

E. Bai jauna eta kunplitzen ez badu, edo asko berandutzen badu kunplitzen da pekatu mortala, gauza grabia bada.

G. Eta pekatu da juramentu egitia, kriaturakgaitik?

E. Bai jauna zergatik oietan egiten zaizkan juramentu kriadoriari.

G. Nola egiten da juramentu kriaturakgaitik?

E. Esango balitz bezela; nere animagaitik zerubagaitik, lurragaitik G^a au ala izan dedilla.

G. Zer erremediyo dago ez egiteko juramentu alferrik?

E. Akostunbratzia esatia bai edo ez Kristok erakusten digun bezela.

G. Eta eragozten da beste gauzaren bat mandamentu onetan?

E. Bai jauna, eragozten da ere blasfemiya au da, bidegabeko gauzak esatia Jangoikuaren eta bere santuen kontra, zeña dan pekatu mortala.

G. Zein da irugarrena?

E. Jai egunak santifikatzia.

G. Nork santifikatzen ditu jai egunak?

E. Meza osua entzuten duanak, eta aietan premiya gabe biarrik egi-ten ez ezduanak.

G. Eta zer pekatu egiten du jaietan premiya gabe biar egiten duanak?

E. Pekatua mortala biar egiten badu bi ordu baño geiaguan, eta geia-nian beniala gutxiago egiten badu.

G. Zein da laugarrena?

E. Aita tama onratzia.

G. Nork onratzen ditu gurasuak?

E. Obeditu, lagundu ta erreberenzizatzen dituenak.

G. Nortzuek egiten due pekatu mortala onen kontra?

E. Gurasuai obeditzen ez diyen semiak etxeko gobiernuari dagoki-yen gauzatan eta kostunbre onetan laguntzen ez dituanak euren nezesi-dadetan; itz gaiztuak esan, burla egin edoeskuba jasotzen duenak: eta eskontzera pensatzen duenak aien bendiziyo ta conseju gabe.

G. Nortzuek besterik aditzen da gurasotzat?



- E. Aundiyaguak edadian, dignidade ta gobiernuan.
- G. Eta mandamentu onetan aditzen dira semiak gurasuana dituen obligaziyoak besterik?
- E. Bai jauna, nagusiyanak bere mendekuakin eta gurasonak bere semiakin.
- G. Eta zer dira obek?
- E. Mantendu, erakutsi: korrejitu, ejemplo ona eman eta alduan estaturik obena denbora danian.
- G. Eta zer pekatu egiten du onetan faltatzen duanak?
- E. Geienian pekatu mortala.
- G. Zein da bostgarrena?
- E. Iñor ez iltzia.
- G. zer agintzen da mandamentu onetan?
- E. Ez egitia iñori gaitzik, ez itzez ez obraz ta ez desioz.
- G. Eta nork egiten du pekatu mortala mandamentu onen kontra?
- E. Nork bere burubari edo projimuari deseatzen diyonak eriyotza edo beste gaitz aundiren bat, edo gorrotua daukanak; besterik jo, eritu edo iltzen duanak, moskortzen danak, bere osasunaren kalteko gauzak jaten dituanak, bere biziya peligruan jarri edo kentzen duanak, eta nork berari edo besteri maldiziyoa botataen diyonak.
- G. Zer da maldiziyoa botatzia?
- E. Da batek beretzat edo besterentzat gaitzen bat eskatzia, esango balu bezela, or eroriko altzera illa.
- G. Eta zer pekatu da maldiziyoa botatzia?
- E. Pekatua mortala gaitz aundiyaren desioakin baldin bada.
- G. Eta orrelako desio gabe baldin bada?
- E. Lebia, baño ez beti.
- G. Bada nortzuek pekatu mortala egiten due, orrelako desio gabe maldiziyoa botata?
- E. Regularmentu mendekuan aurretik botatzen dituen guraso eta nagusiyak, eta botatzeko kostunbrea kentzeko alegiña egiten ez duenak.
- G. Eta zergaitik orrela?
- E. Zergaitik bere esan eta ejemplo gaiztuakin artaratzen dituen bestiak Jangoikua ofenditzera gauza grabian, zenari deitzen zaion eskandalua.
- G. Zein da seigarrena?
- E. Lujuriyako pekatuak ez egitia.
- G. Zer agintzen da mandamentu onetan?
- E. Izan gaitzela garbiyak eta kastuak pensamentu itz eta obretan.
- G. Nortzuek egiten due pekatu mortala mandamentu onen kontra?

- E. Jakiñaren gañean goratzen diranak pensamentu txarretan, naiz ez jarri eta ez deseatu obraz jartzia, esan eta kantatzen dituenak gauza torpiak edo gustoz aditzen dituenak eta nork berarekin edo besterekin daukanak ukiyera edo egiteko desonestuak edo nai dituenak izan.
- G. Zein da zazpigarrena?
- E. Ez ostutzia.
- G. Zer agintzen da mandamentu onetan?
- E. Ez kendu, iduki eta nai izatia besterenik, jabiaren borondatiaren kontra.
- G. Nortzuek egiten due pekatu mortala mandamentu onen kontra?
- E. Oietako edozein gauza edo beste moduren batez kalte egiten diyonak projimuari bere ondasunetan gauza grabian.
- G. Eta onetan kalte egiten diyonak projimuari, nola nai dala, gelditzen dira obligaziyon batekin?
- E. Gelditzen dira obligaziyo aundiyakin biyurtzeko eta pagatzeko len baño len egin diyoen dañu guziyak.
- G. Zein da zortzigarrena?
- E. Testimoniyo falsorik ez jasotzia, eta gezurrik ez esatia.
- G. Zer agintzen da mandamentu onetan?
- E. Ez juzgatzia agudo (au da motibo eta fundamentu gabe) projimuaren gaitzik, eta ez esan eta aditu aren faltak.
- G. Nork ausitzen du mandamentu au?
- E. Arrazoiaren kontra juzgatzen duanak, (au da fundamenturik bage) fama kentzen duanak, gauza isilla agertu eta gezurra esaten duanak.
- G. Eta projimuari fama kentzen diyonak gauza grabian, arengaitik gauza falso edo egiazkoren bat esanaz, baño isilla, edo botatzen badiyo aregira bere faltak gelditzen da obligaziyoren batekin?
- E. Gelditzen da kendi diyon onra fama biurtzeko obligaziyoakin.
- G. Zer eragozten da beatzigarren eta amargarren mandamentuban?
- E. Desonestidadiren eta aziendaren desioak. M. Esa itzatzu Elizama Santaren mandamentubak. Elizama Santaren mandamentubak dira bost. Lenbizikua meza osua enzutia igande eta jai guziyetan.
- Bigarrena urtian beñ gutxiyenez konfesatzia, edo lenago iltzeko peligrorik esperatzen badu.
- Irugarrena Paskua resurreziokuetan komulgatzia.
- Laugarrena Elizama Santak agintzen duanian barautzia.
- Bostgarrena amarrenak eta premiziyak pagatzia.
- G. Zertako dirade mandamentu obek?
- E. Obetuago gordetzeko mandamentu dibinuak.



- G. Eta Lenbizikua meza enzutia, nortzuai obligatzen diye?
 E. Uso arrazoizkua du duen guziya.
 G. Eta nola enzun biar due?
 E. Presente egoten dirala mezan atenziyoakin gauza espiritualen batera; meditatzen edo errezatzen deboziyoakin.
 G. Eta bidez eragotzi gabe dagan ark ezpadu enzuten, edo egoten bada parte señalatun baten atenziyo gabe, edo jartzen bada ez enzuteko peligruan, zer pekatu egiten du?
 E. Pekatu mortala.
 G. Eta bigarrena ta irugarren konfesatzia ta komulgatzia nortzuai obligatzen diye?
 E. Pekatu mortalaren azpiyan obligatzen dithu uso arrazoizkua duen kristau guziyak.
 G. Eta sakrilejiyo konfesatu ta komulgatzen diranak kunplitzen due?
 E. Iñola ere ez, eta bi gauza oietako bakoitzian egiten ditue pekatu mortal bi.
 G. Eta baldin batek eriyotzako peligruan ez badu konfesorerik, zer egin biar du?
 E. Akto kontriziyozko egiazko bat, konfesatzeko asmuakin.
 G. Laugarrena, zeña dan barau egitia, nork du obligaziyoa?
 E. Ogeita bat urte kunplitu dituanak.
 G. Eta nola barau egin biar du?
 E. Janari debekaturik jan gabe, eta bein bakarrik eguerdiyan janta.
 G. Eta onetara faltatu gabe artu liteke zerbait goizian?
 E. Kausakin, baño lebia, artu liteke ontza bat bezela.
 G. Eta gauean?
 E. Artu liteke kolaziyorako konziyenzi oneko jenderen artian usatzen dana, onen gañean dudarik badu konfessore jakintsu bati galdetuta.
 G. Eta biar dan motibo gabe barau egiten ez duanak zer pekatu egiten du?
 E. Mortala
 G. Eta aragiya ez jateko agintzak barau egunetan eta gordetzetan, ez oietan jateordu baten nasteko aragiya ta arraia, et ez jateko arrautze ta esnejakiyak garizuman ezpadu buldarik nortzuai obligatzen diye?
 E. Uso arrazoizkua duen guziyai.
 G. Eta zer pekatu egiten due gordetzen ez dituztenak?
 E. Txit mortala, egunian faltatzen duen aldi bakoitzean.

Esa itzatu obra miserikordiyazkuak

Obra miserikordiyazkuak dira amalau, zazpi espiritualak eta zazpi korporalak.

Zazpi espiritualak dira obek.

Lenbizikua, ez dakiyeneri erakustia.

Bigarrena, premiya duanari konseju ona ematia.

Irugarrena, gaizki egiten duana korrejitzea.

Laugarrena, injuriyak barkatzia.

Bostgarrena, triste daguana konsolatzia.

Seigarrena, gure projimuen miseriyak eta flakezak paziyenziakin sufritzea.

Zazpigarrena, biziyak eta illakgaitik Jangoikuari erregutzia.

Zazpi korporalak dira obek.

Lenbizikua, gaixoak bisitatzia.

Bigarrena, gosiak daganari jaten ematia.

Irugarrena, egariyak daganari eraten ematia.

Laugarrena, kautibuak erreskatatzia.

Bostgarrena, larru gorriyan daguana janzitzea.

Seigarrena, peregrinuai ostatu ona ematia.

Zazpigarrena, illak enterratzia.

G. Zergaitik deitzen zaie miserikordiyazkuak?

E. Zergaitik ez diran zor justiziyaz

G. Noiz dirade obligaziyozkuak?

E. Gizon Aithuen iritziyan premi aundikuak diranian.

G. Obra miserikordiyazko eta kristaubak egiten dithun beste obra on batzuekgaitik, naiz izan ditezela obligaziyozkuak, eta naiz deboziyozkuak zer konsegitzen du?

E. Jangoikuaren graziyan badago merezitu gloriya ta graziya geiago pagatu oso aiekin bere pekatuen zorra, eta Jaunagandik iritxi ondasunak nola animarentzat ala gorputzarentzat.

G. Eta zergaitik esaten dezu Jangoikuaren graziyan badago?

E. Zergaitik pekatu mortalian dauden aiek egindako obrak ez dira meritoriyoak, ez ere satisfatoriyoak, baizikan inpetratoriyoak bakarrik, zenakgaitik nolapait konsegitu litezke onegiñen batzuek Jaunagandik.



Laugarren partia

zeñean deklaritzen diran errezibitu biar diran Sakramentubak

Ikusi degu nola dakizun zer sinistu, zer oraziyo eta zer obratu biar dezun, ikusi dezagun nola dakizun zer errezibitu biar dezun, zeña dan atzena: esa itzatzu Sakramentubak.

Elizama Santaren sakramentubak dira zazpi, lenbiziko bostak dira premiazkuak, izatez eta borondatez, oiek gabe eziñ salba diteke gizona utzitzen badithu menospreziyoz, beste biyak dira borondatezkuak.

Lenbizikua Baustismua.

Bigarrena konfirmaziya.

Irugarrena Penitenziya.

Laugarrena komuniyoa.

Bostgarrena estremaunziyoa.

Seigarrena Ordena.

Zazpigarrena matrimoniyoa.

G. Zer gauza dira sakramentubak?

E. Dirade señaile batzuek istitutu edo egiñak Jesukristo gure Jauna-gandik oiekin emateko guri bere graziya ta birtutiak.

G. Zer gauza da graziya?

E. Da izate Dibino bat, egiten duana gizona Jangoikuaren seme ta zerubaren heredero.

G. Eta nola deritzo graziyoni?

E. Santifikantia.

G. Eta bada beste graziren bat orrezaz gañera?

E. Badira beste batzuek aktualak, edo laguntza edo ispiraziyoak deitzen diyegunak, oiek gabe ez dezakegu, asi, aurreratu eta ez ere akabatu betiko bizitzarako gauza eramangarririk.

G. Eta obek zer dira?

E. Jangoikuak ematen dizkigun laguntza batzuek, gaitzetik apartatu eta ondo obratzeko nola diran sermoiak, ejemplo onak, derrepenteko eriyotzak eta alako argi batzuek zeintzuekin Jangoikuak argi egiten diyen gure entendimentubai, eta desio santu batzuek zeintzuekin mogitzen dit-hun gure borondatiak onerako.

G. Zer birtute ematen dithue Sakramentubak graziyakin batian?

E. Prinzipalment iru teologalak eta dibinuak.

G. Zein dirade?

E. fedia esperanza eta karidadia.

G. Zer gauza da fedia?

E. Ikusi ez genduena sinistia zergaitik Jangoikuak ala errebelatu duan.

G. Zer gauza da esperanza?

E. Esperantzia gloriya Jangoikuaren graziyan ta gure obra onen mediyoaz.

G. Zer gauza da karidadia?

E. Amatzia Jangoikua gauza guziyen gañean, eta projimua geren burubak bezela, izaten gerala aiekin, aiek gurekin izatia nai degun bezela.

G. Zertako izandu zan istituituba Sakramentu Santu Bautismokua?

E. Kentzeko pekatu orijinala eta beste bautizatzen danagan arkitzen dan edozeiñ.

G. Zer da pekatu orijinala?

E. Pekatu hura, zeñarekin jaiotzen geraden heredaturik gure lenbiziko gurasuetatik.

G. Eta premiazko kasuan nork bautizatu dezake?

E. Edozein gizon edo emakume uso arrazoizkua duenak

G. Eta nola egin biar du?

E. Aurraren burubaren gañera ur naturala botata, bautizatzeo intenziyoakin esanaz: nik bautizatzen zaitut Aitaren, eta Semiaren eta Espiritu Santubaren izenian.

G. Zertako da Sakramentu Konfirmaziyokua?

E. Konfirmatzeko ta ipintzeko fuerte bautismuan errezibitu genduan fedian.

G. Eta uso arrazoizkua duanak, eta Sakramentu au pekatuban artzen duanak, pekatu egiten du?

E. Txit mortala

G. Bada zer egin biar du pekatu egin gabe artutzeko?

E. Prestatu lenago konfesiyo on bat egiñaz

G. Zertako da Sakramentu penitenziyakua?

E. Bautizatu ezkeru egindako pekatubak barkatzeko.

G. Zer pekatu dira obek?

E. Mortalak eta benialak.

G. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatia, egitia, pensatzia edo desiatzia zerbait Jangoikuaren legiaren kontra gauza grabian.

G. Zergaitik deitzen zaio mortala?

E. Zergaitik iltzen duan egiten duanaren anima.

G. Eta noiz errezibitzen degu penitenziyako Sakramentuba?



- E. Ondo konfesatu eta asoluziyo artutzen degunian.
- G. Zer parte dithu penitenziyak kentzeko pekatu mortala?
- E. Iru.
- G. Zein dirade?
- E. Biyotzeko kontriziyoa, auzko konfesiyoa eta obrazko satisfaziyoa.
- G. Eta iru premiayzko gauza oietan Sakramentu au ondo errezi-bitzeko sartzen dira besten batzuek?
- E. Bai jauna, kontriziyotan sartzen da emendatzeko proposituba, eta konfesiyoan konzienziko esamiña.
- G. Beraz orrela, zenbait gauza dira premiayzkuak penitenziyako sakramentuba errezi-bitzeko, edo bat ondo konfesatzeko?
- E. Bost eta dira: konzienziko esamiña, biyotzeko kontriziyoa, emendatzeko proposituba, auzko konfesiyoa eta obrazko satisfaziyoa.
- G. Zer da konzienziko esamiña?
- E. Da konfesatu gabeko pekatubak memoriyara ekartzeko dilijenziyak egitia, Jangoikuaren ta Elizaren mandamentuetan diskurrituaz, zein tokitan ibilli dan, eta zer eginbidiak izandu dithun bere kulpak ezagutzeko Jangoikuari argiya eskatuta.
- G. Zenbait modutan da biyotzeko kontriziyoa?
- E. Bitan; bat perfetua eta bestia ez aĩn perfetua zeñari deritzan atriziyoa.
- G. Zer da kontriziyoa?
- E. Jangoikua ofenditutako damutasun bat, au da izanagaitik txit ona konfesatzeko, emendatzeko eta penitenziya kunplitzeko propositubakin E^a.
- G. Eta zein da dolore oietan onena?
- E. Kontriziyoa.
- G. Eta zergaitik
- E. Zergaitik kontriziyoa Jangoikuaganako amoriyotik dator, eta atriziyoa bildurtasunatik; kontriziyogaitik konfesatu baño lenago barkatzen dira pekatubak, eta jartzen da bat Jangoikuaren graziyan; baño atriziyoa bakarragaitik ez dira konsegitzen ondasun oiek.
- G. Eta batek ondo konfesatzeko asko du atriziyoa edo izan biar du kontriziyoa?
- E. Komunmente esaten da asko dala atriziyoa, baño obia eta segu-ruago da kontriziyoa eramatia, eta au idukitzea egin biar du alegiña konfesatzen danak.
- G. Eta noiz iduki biar da damutasuna?
- E. Konfesoriak penitentia pekatuetati asolbitu baño lenago.

- G. Zer gauza da proposituba?
- E. Jangoikua beñere ez ofenditzeko resoluziyo firme bat.
- G. Zer da auzko konfesiyoa?
- E. Da esatia konfesoerari pekatu mortal guziyak engaũ eta gezur gabe penitenziya kunplitzeko inteziyuakin.
- G. Eta lotsaz pekatun bat isiltzen duanak, edo konfesatzen duanak egin gabeko graberen bat, egiten duanak konfesiyoa damutasun ta propositu gabe, edo penitenziya kunplitu gabe utzitzeko animuakin, ondo konfesatzen da?
- E. Ez jauna; egiten du sakrilejiyo aundi bat, eta gelditzen da obligaziyoakin berriz konfesatzeko konfesatu zitun eta etzitun pekatubak, sakrilejiyoa egin zuanakin.
- G. Eta nortzuek irudi due ez izana damutasun eta propositurik euren konfesiyoan?
- E. Okasiyotatik apartatzen ez diranak eta konfesiyo bat eta besteren ondoren eroitzen diranak pekatu aietan eurretan.
- G. Eta bati damutasuna eta proposituba formatzeko zer konbeniko zaio egitia?
- E. Konfesorlagana allegatu baño lenago eskatu Jaunari sokorri dezala bere laguntzakin, mediatu piska batian Jaunak egin diyon onegiñetan edo aren pasiyo eta eriyotzan, edo aren borondatian, eta esan askotan akto kontriziyozkua.
- G. Zer gauza da obrazko satisfaziyoa?
- E. Pagatzia Jangoikuari pena pekatubakgaiti zor zaiona, konfesorlag ematen duan penitenziya kunplituta.
- G. Eta zer pekatu egiten du penitenziya kunplitu ez, edo kunplitzen denbora asko pasatzen duanak?
- E. Txit mortala penitenziya grabia bada.
- G. Eta pagatu dezaiokegu Jangoikuari pena tenporalakgaitik, konfesorlag ematen digun penitenziya baño geiagokin.
- E. Bai jauna, Jangoikuaren graziyan gaudela egindako obra on guziyakin, eta induljenziyak irabazita.
- G. Eta zer gauza dira induljenziyak?
- E. Grazi batzuek zeintzuekgaitik ematen dan pena tenporalaren barkaziyoa, pekatubakgaitik pagatu biar dana mundu onetan edo bestian.
- G. Eta mundu onetan pagatu gabe purgatoriyoara jua diranai, guk sokorritu eta lagundu daikegu?
- E. Bai jauna, pagatzen degun obra oiekin berakin.



- G. Eta batek pekatu mortalien erortzen dan bakoitzean biar du beriala konfesatu pekatubak barkatzeko?
- E. Ondo izango litzake baño ez da prezisua
- G. Zer egin biar du bada?
- E. Izan bere pekatuen damutasun egiazko emendatzeko ta konfesatzeko propositubarekin Elizama Santak agintzen duanian.
- G. Zer gauza da pekatu beniala?
- E. Da pekatu mortalaren disposiziyo bat.
- G. Zergaitik deritza beniala?
- E. Zergaitik beriala, au da, erraz erortzen dan gizona artan, eta erraz barkatzen dan.
- G. Zenbait gauzagaitik barkatzen zaio?
- E. Beatzigaitik
- G. Zein dirade?
- E. Lenbizikua mezan enzutiagaitik.
- Bigarrena komulgatziagaitik.
- Irugarrena konfesiyo jeneralagaitik.
- Laugarrena Obispuaren bendiziyoagaitik.
- Bostgarrena ur bedeinkatubagaitik.
- Seigarrena Ogi bedeinkatubagaitik.
- Zazpigarrena Aita guria esatiagaitik.
- Zortzigarrena sermoia aditzeagaitik.
- Beatzigarrena petxuko golpiagaitik eskatzen zaiola barkaziyoa Jangoikuari.
- G. Zergaitik esaten dezu eskatzen zaiola barkaziyoa Jangoikuari?
- E. Aditzea emateko pekatu benialan barkaziyoa konsegitzeko izan biar degula gauza oien gañera aien damutasun aundi bat.
- G. Eta badegu pekatu benialak konfesatzeko ezkerro benialak baka-rrik dauzkanari zer konbeniko zaio egitia, damutasun eta proposituba aseguratzeko?
- E. Konfesatu ere, naiz konfesatu oietatik lenagoko bizitzako pekatu mortalen bat
- G. Zertako da Sakramentu santu Komuniyokua?
- E. Errezibitzen degula biar dan disposiziyoakin izan dedin gure animen mantenimentuba eta aumenta dizagun graziya.
- G. Zergaitik esaten dezu biar dan disposiziyoakin?
- E. Adierazitzeko Sakramentu au ez dala izango gure animen mantenimentuba ezpadegu errezibitzen biar dan maneran nola animaren partetik ala gorputzaren aldetik.

- G. bada zer disposiziyo biar da animaren partetik?
- E. Jangoikuaren graziyan egotia.
- G. Eta pekatu mortalien erori zana nola disponitu zan komulgatzeko?
- E. Konfesatuta.
- G. Eta konfesatu ta gero akordatzen danak pekatu grabe batez zer egin biar du?
- E. Konfesatu lenago.
- G. Eta gorputzaren aldetik zer disposiziyo izan biar du?
- E. Allegatu (komuniyoa elizakuakin ezpada) baraurik ezerere jan ta eran gabe aurreko gauerdiya ezkerro.
- G. Zer errezibitzen dezue Sakramentu txit santu onetan?
- E. Kristo Jangoiko ta gizon egiazkua, zeña daguan egiaz aldareko Sakramentu txit Santuban.
- G. Beraz orrela zein dago ostiyan konsagratu ezkerro?
- E. Jesukristoren gorputza bere odol, anima ta Jangoikotasunakin batian.
- G. Beraz orrela Jesukristo guziya ostiyan ta kalizan?
- E. Jesukristo guziya dago osti guziyan, eta guziya aren edozein partetan eta igual kalizan.
- G. Eta konsagraziyoa ezkerro badago ostiyan ogirik eta kalizan ardo-rik?
- E. Ez jauna, baizikan ogiyaren ta arduaren azidentiak, nola diran usaia, koloria eta saboria.
- G. Eta puskatzen bada ostiya ero partitzen bada kalizan daguana partitzen da Jesukristo?
- E. Ez jauna guziya osorik gelditzen parte guziyetan eta parte bakoitzean.
- G. Eta komuniyora allegatzen danak esan diran disposiziyo gabe errezibitzen du ere Jesukristo?
- E. Bai jauna, baño probetxu gabe, zergaitik egiten duan pekatu bat txit grabia.
- G. Eta esan dañez gañera, aprobetxatzen diyen aiei zer konbeniko zaizkate egitia onegiñ aundiaguak konsegitzeko?
- E. Konsideratu komulgatu baño lenago nor dan aietara datorren Jauna, eta egin akto fedeko, esperanzako eta karidadekuak, eta gero artu umiltasun ta erreberenzi aundiyaikin, eta eman gero graziyak aiñ onegin aundiyaigaitik.
- G. Zertako da Sakramentu estremaunziyokua?



E. Iru gauzatarako.

G. Zein dirade?

E. Lenbizikua bizitza gaiztua pasatubaren arrastua eta relikiyak kentzeko.

Bigarrena animari indarra emateko demoniyoaren tentaziyoan kontra. Irugarrena gorputzari osasuna emateko konbeni bazaio.

G. Eta uso arrazoizkora allegatuta, gaixo peligruan daudenak badue Sakramentu au errezibitzeko obligaziyorik?

E. Bai jauna, eta egiten due pekatu bat txit mortala, baldin alduela errezibiten ezpadue, edo pekatu mortalian egiten badue.

G. Bada zer egin biar du pekatu mortalian daganak biar dan dispozizioakin errezibitzeko

E. Konfesatu lenago, eta ezpadezake, egin akto kontriziyozko egiazko bat.

G. Zertako da sakramentu ordenakua?

E. Konsagratzeko ta ordenatzeko elizako ministro dignoak nola dira apaizak, diakonuak eta sudiakonuak.

G. Eta elizako ministruak partikularmente apaizak izan biar due errespetatubak eta beneratubak espezialmente?

E. Bai jauna.

G. Zertako da Sakramentu matrimonyokua?

E. Eskontzeko ta eskonduai graziya emateko, onekin bizi ditezen pakian alkarren artian eta azi ditzaten semiak zerurako.

G. Eta premiyazkua da au artuteko biar dan bezela Jangoikuaren graziyan egotia eskontzen diranak?

E. Bai jauna, pekatu mortalaren azpiyan.

G. Eta Jangoikuaren graziyan arkitzen ez diranak nola preparatu biar due?

E. Konfesatuta.

Pekatu kapitalak dirade zazpi

Lenbizikua suberbiya.

Bigarrena abariziya.

Irugarrena lujuriya.

Laugarrena ira.

Bostgarrena gula.

Seigarrena inbidiya.

Zazpigarrena nagitasuna.

G. Zergaitik deitu diyesu kapitalak zazpi geenian mortalak deitzen zaienai.

E. Deitzen zaie kapitalak, zergaitik diran aietatik jaiotzen diran beste biziyoan burubak iturriyak eta sustriak bezela, eta mortalak deitzea ez datorkiye aiñ ondo bada askotan ez dira benialak baizik.

G. Noiz dirade mortalak?

E. Jangoikuaren ta projimuaren karidadiaren kontra diranian.

G. Noiz dira karidadiaren kontra?

E. Aiekgaitik ausitzen danian Jangoikuaren edo Elizaren mandamentun bat gauza grabian.

G. Zer da soberbiya?

E. Beste edozein baño geiago izateko apetitu desordenatu bat.

G. Zer da abariziya?

E. Ondasunen desio desordenatu bat.

G. Zer da lujuriya?

E. Aragiyaren gozotasun zikiñen apetitu desordenatu bat.

G. Zer da inbidiya?

E. Besteren onaren damutasun bat.

G. Zer da nagitasuna?

E. Obra onak egiteko animaren faltak.

Zazpi oien kontra dirade zazpi birtute

Soberbiyaren kontra umildadia.

Abariziyaren kontra emanaia.

Lujuriyaren kontra kastidadia.

Iraren kontra pazienziya.

Gularen kontra tenplanza.

Inbidiyaren kontra karidadia.

Nagitasunaren kontra eginiaia.

Animaren etsaiak zeñetatik iges egin biar degun dira iru

Lenbizikua munduba.

Bigarrena demoniyoa.

Irugarrena Aragiya.

Zein da munduba?

E. Munduko gizon gaizto eta biurriyak

G. Zein da demoniyoa?



E. Da aingeru bat, zeña Jangoikuak zeruban kriotuta bere kontra beste askorekin jaiki zalako bota zuan infernutara bere gaiztotasuneko lagunakin, zeñai deitzen diyegun demoniyoak.

G. Zein da aragiya?

E. Da gure gorputza bera, bere pasio ta inklinazio txarrakin.

G. Nola garaitu ta iges egiten da mundubagandik?

E. Despreziatzen dirala aren ponpak eta banidadiak.

G. Nola garaitu ta iges egiten da demoniyoagandik?

E. Au garaitu eta iges, egiten zaio oraziyoakin ta umildadiakin.

G. Nola garaitu eta iges egiten da aragiyagandik?

E. Au garaitzen da eta iges egiten zaio baru; mortifikaziyo eta disiplinakin, au da etsirik aundiya, zergaitik aragiya ezin bota dezakegu gugandik, baño bai munduba ta demoniyoa.

Birtute teologalak dira iru

Lenbizikua fedia.

Bigarrena esperanza.

Irugarrena karidadia.

G. Nola faltatu ez diyogu birtute oien aktuak egiteko daukagun obligaziyoari?

E. Deboziyoakin eta sarritan errezatuta (justua dan bezela kristaubak egitia) kredua ta Aitaguria, eta biyotzetik esaten dula akto kontriziyozkua.

Birtute kardinalak dirade lau

Lenbizikua prudenziya.

Bigarrena justiziya.

Irugarrena fortaleza.

Laugarrena tenplanza.

Gorputzaren sentiduak dirade bost

Lenbizikua ikustia begiyakin.

Bigarrena aitzea belarriyakin.

Irugarrena usai egitia sudurrakin.

Laugarrena ukitzea eskubakin.

Bostgarrena guztatzia aubakin.

G. Zertako eman zizkigun Jangoikuak sentidu eta beste mienbrua?

E. Guziyakin ta gauza guziyetan serbitu genezan.

Animaren potenziyak dirade iru

Memoriya, entendimentuba ta borondatia.

G. Zertako eman zigun Jangoikuak memoriya?

E. Akordatzeko artaz eta aren mesede aundiyaz.

G. Zertako eman zigun entendimentuba?

E. Ezagutzeko gure Jauna eta argan pensatzeko.

G. Zertako eman zigun borondatia?

E. Ama dezagun ontasun guziya bezela duna bezela ta projimua argatik.

G. Eta zen gauza da gure anima, zeñaren potenziyak diraden obek?

E. Da atzengabeko espiritu bat Jangoikuak ezerezetik egiña bere antzera.

Espiritu Santubaren doiak dirade zazpi

Lenbizikua jakinduriyako doia.

Bigarrena entendimentuko doia.

Irugarrena konsejusko doia.

Laugarrena fortalezako doia.

Bostgarrena zienziyako doia.

Seigarrena piedadeko doia.

Zazpigarrena Jangoikuaren bildurtasuneko doia.

Espiritu Santubaren Frutubak dirade Amabi

Lenbizikua Karidadia.

Bigarrena pakia.

Irugarrena animaren Aunditasuna.

Laugarrena benignidadia.

Bostgarrena fedia.

Seigarrena kontinenziya.

Zazpigarrena gozo espiritubala.

Zortzigarrena pazienziya.

Beatzigarrena Ontasuna.

Amargarrena mansedunbria.

Amaikagarrena modestiya.

Amabigarrena kastidadia.

Bienabenturanzak dirade zortzi

Bienabenturadubak pobraza eskojitzen duenak zergaitik aiena dan zuetako erreinuba.



Bienabenturadubak mansuak, zergaitik aiek izango diran lurrian jabiak.

Bienabenturadubak negar egiten duenak zergaitik aiek izango diran konsolatubak.

Bienabenturadubak justiziyaren gosia ta egarriya duenak zergaitik aiek izango kontentatubak.

Bienabenturadubak miserikordiyosua zergaitik aiek alkanzatudu duen miserikordiya.

Bienabenturadubak paketsubak zergaitik oiek izango diran deitubak Jangoikuaren semiak.

Bienabenturadubak justiziyagaitik persekuziyoa padezitzen duenak zergaitik aiena dan zeruetako erreinuba.

G. Zer esan ditugu orain?

E. Zortzi bienabenturanzak.

G. Zer gauza dirade zortzi bienabenturanza oiek.

E. Espiritu Santubaren birtue ta doian obrarik onenak.

G. Nor dirade espirituz pobriak?

E. Nai ezduenak beintzat amoriyoz onrarik eta aberastasunik gutxiyenik ere.

G. Nor dirade mansuak?

E. Gorrotorik ez duenak, ezta mobimenturik ere.

G. Nola izango dirade lurrian jabiak?

E. Beren buruban jaunak bezela.

G. Nor dira negar egiten duenak?

E. Gustuak utzitzen dituenak txikiyenak izanagatik ere.

G. Nor dirade justiziyaren gosia ta egarriya duenak?

E. Bere egin bide guziyak kuidaduakin egiten dituenak.

G. Nor dira miserikordiyosua?

E. Piedadia duenak arrotzakin ere.

G. Nor dira biyotz garbiya duenak?

E. Beren pasiyo guziyetan mortifikatzen diranak.

G. Nor dira paketzubak?

E. Pakezko obrak egiten dituenak berenetan eta bestetan.

G. Nor dirade justiziyagaitik persekuziyoa padezitzen duenak?

E. justizian firme daudenak persegitubak izanagaitik ere.

G. Zergaitik deitzen zaie oiei bienabenturanzak?

E. Zergaitik aietan konsistitzen dan bizitza onetako bienabenturanza eta besteko esperanza.

G. Zenbait dira nobisimua?

E. Lau da esatia: eriotza, juiziyoa, infernuba ta gloriya.

G. Zer da gloriya?

E. Da estadu txit perfekto bat, zeñetan dauden ondasun guziyak, batere gaitzik sentitu gabe, infernuban gaitz guziyak dauden bezela bate-re onik progatu gabe.

G. Eta emendik libratu eta hura konsegitzeko zer egin biar degu?

E. Mandamentubak gorde.

G. Eta badaude mediyon batzuek oiek errexago gorde eta aiei ez faltatzeko?

E. Bai jauna.

G. Zeintzuek dira?

E. Sarritan artu Sakramentubak, Jangoikuari eskeni goizetik obra onak, meza enzun egunero, errosariyoa esan, mediatu eta gogoratu Jangoikuaz, esaminatu gauetan konzienziya; eta batek badituala mediyo asko esatiagaitik elejitu konfessore jakintsu, birtuoso ta prudente bat, eta arenganatu guziyan. H. Ondo diyozu, zergaitik konfessore on baten eleziyoa S. Franz^o Salesek diyon bezela adbentenziyaren adbentenzia. Egin bada zuek onela, bada au izango zaitzue aingeru bat bezela, giyatuko zaituztena proponitzen dizuela oiek eta beste mediyoak, zuzen zuasten mandamentuen bidetxigorretik, eta allegatu zaitezten Jangoikua gloriyan ikustia, zertarako izan giñan kriatuak.

Ni pekatariya

Ni pekatariya konfesatzen naitzaio Jangoiko guziz poderosuai, Santa Mariya beti birjiñari, S. Migel aingerubari, S. Juan Bautistari S. Pedro ta S. Pablo Apostolu Santuai, Santu guziyai eta zuri Aita espiritubala, zergaitik egin dian pekatu pensamentuz; itzez eta obraz, nere kulpaz, nere kulpaz, nere kulpaz txit aundiyaz; orregaitik erregutzen diyot Santa Mariya beti Birjiñari, S. Migel aingerubari; S. Juan Bautistari, S. Pedro ta S. Pablo apostolu santuai; santu guziyai ta zuri Aita espiritubala erregu zazu nigaitik Jangoiko gure Jaunari Amen.

Akto kontriziyozkua

Nere Jesukristo Jauna Jangoiko ta gizon egiazkua, nere Kriadoria eta Redentoria, Zu zerana izanagaitik, eta zergaitik amaten zaituan beste gauza guziyak geiago, damu det biyotz guzitik zu ofendituba, eta artzen det propositu firmia ez geiago pekatu egiteko konfesatzeko ta kunplitzeko ipintzen zaidan penitenziya; eskeñzen dizut nere bizitza obra eta trabajuak nere pekatuen satisfazyorako, eta fiyatzen naiz zure ontasun ta



miserikordian, barkatuko diazula zure odola txit prezioso, pasio eta eriyotzaren merezimentubakgaiti, eta emango diazula graziya emendatzeko eta irauteko zure serbiziyo santuban nere biziyan akaberaño. Amen.

**Oraziyo laburra goizetik ez keñtzeko
egun artako obra guziyak
Jangoikuaren onra eta gloriyara**

Nik ematen dizkitzut ezkerak, nere Jangoikua, zure esku liberaletik artu dituan ondasun guziakgaitik, ta prinzipalmente gaurko egunera allegaztera utzi diazulako, zeñetan zure onra eta gloriyara eskeñtzen dizkitzut nere pensamentu, itz eta obra guziyak Jesukristoren odol ta merezimentubakgaitik, eta artzen det propositu firme bat zure graziyak ez ofenditzeko: lagundu bada neri Jauna zure laguntzakin orrela egiteko Jesukristoren merezimentubakgaitik, Ama txit Santarenakgaitik eta Santu guziyenakgaitik Amen.

AZPEITIKO DOTRINA

Kristaubaren doktrinarako sarrera

Kristau fiel guztiyak daure obligatubak deboziyoa izatera biotz guztitik Jesus gure argiyaren Kurutze Santubakin zeñian ill nai izan zuan gu ateratziatik pekatubaren mendetik eta diabruaren katiberiyotik. Orregatik bada oitu biar zera ala ziñatzera nola Aitaren egitera iru kurutze egiñaz. Lenengua bekokiyan, Jangoikuak libra gaitzan pensamentu txarretatik. Bigarrena auan Jangoikuak libra gaitzan itz gaiztoetatik. Irugarrena bularrian Jangoikuak libra gaitzan obra eta deseo gaiztoetatik onela esanaz: Kurutze + Santubaren Señaliatik gure + etsaietatik libra gaitzatu gure Jauna + eta Jaungoikua. Aitaren, eta Semiaren eta Espiritu Santubaren izenian Amen.

Kredua

Sinisten det Jaungoiko Aita, guztiz aldunian, Zerubaren eta lurraren egintzalleagan, eta aren seme bakar Jesukristo gure Jaunagan zeñi sortu zan Espiritu Santubaren obraz eta graziyaz jao zan Mariya Birjiñagandik; padezitu zuan Ponzio Pilatosen agintzearen azpiyan, izan zan kurutzian josiya, illa eta enterratuba, jatxi zan infernubetara, piztu zan illen artetik irugarren egunian, igo zan zerubetara, eta dago jarririk Jaungoiko Aita guztiz aldunaren eskuiko aldetik; andik etorriko da biziya eta illak juzgatzera. Sinisten det Espiritu Santuagan, Eliza Ama Santa Katolika, Santuben Komuniya, pekatuben barkaziyua, aragiyaren piztutzia, eta bizitza sekulakua. Amen.

Artikulu fedekuak dira amalau

Lenengo zazpirak tokatzen zaizka Jaungoikotasunari, eta beste zazpirak gure Jaun Jaungoiko eta gizon egiazkuaren umanidade Santubari.

Jaungoikotasunari tokatzen zaizkanak dira auek.



Lenengua, sinistu Jaungoiko guztiz aldun bakar baten.
 Bigarrena sinistu Aita dala.
 Irugarrena, sinistu Semia dala.
 Laugarrena sinistu Espiritu Santuba dala.
 Bostgarrena, sinistu Kriadoria dala.
 Seigarrena, sinistu Salbadoria dala.
 Zazpigarrena, sinistu Glorifikadoria dala.

Umanidade Santubari tokatzen zaizkanak dira auek.

Lenengua, sinistu Jesukristo gure Jauna, gizona dan partetik izan zala sortuba Espiritu Santubaren obraz eta graziaz.

Bigarrena, sinistu jaio zala Santa Mariya Birjiñagandik, gelditzen zala dontzella, jaio baño len, jaiotzean, eta jaio ezker.

Irugarrena, sinistu artu zitubala eriyotza eta pasiyua gu pekatariyak salbatziatik.

Laugarrena, sinistu jatxi zala infernubetara, eta bere etorrera santubari itxoiten zeuren Guraso Santuben animak atera zitubala.

Bostgarrena, sinistu piztu zala illen artetik irugarren egunian.

Seigarrena, sinistu igo zala zerubetara, eta dagoala jarririk Jaungoiko Aita guztiz aldunaren eskuiko aldetik.

Zazpigarrena, sinistu etorriko dala biziak eta illak juzgatzer, esan nai det, onai ematera gloriya, zergatik aren mandamentu Santubak gorde zituben, eta gaitzui pena sekulakua zergatik gorde etzituben.

Aita guria

Aita guria zerubetan zaurena, santifikatuba izan bedi zure izena; betor gugana zure erreinua; egin bedi zure borondatia ala zeruban nola lurrian. Eman iguzu eguneroko gure ogiya, eta barkatu izkutzu gure zorrak, guk gure zordunai barkatzen diegun bezela, eta ez gaitzatzula utzi tentaziyuan erortzen, baizikan libra gaitzatzu gaitzetik. Amen. Abe Mariya, graziaz betia, Jauna da zurekin, beinkatuba zera zu andra guztiyen artian, eta beinkatuba da zure sabeleko frutuba Amen. Santa Mariya, Jaungoikuaren Ama erregutu ezazu gu pekatariyok gatik orain eta gure eriyotzako orduban Amen.

Salbia

Jaungoikuak salba zaitzala Erregiña eta Ama errukitsua, bizitza, gozotasun eta esperantza guria. Jaungoikuak salba zaitzala; zuri otska gaure Ebaren ume desterratubak, zugana gaure suspiriyoz eta negarrez negarrezko leku onetan. Ia bada Andria, gure bitartekua, itxuli itzatzu gugana zure begi errukitsu oiek, eta destierro onen ondoren erakutsi iguzu Jesus zure sabeleko frutu beinkatuba. O errukitsuba! O biotz beraduna! O Birjiña Mariya gozua! erregutu ezazu gugatik Jaungoikuaren Ama Santa merezi dezagun iritxitzia Jesukristo gure Jaunaren promesak. Amen.

Jaungoikuaren legeko mandamentubak dira amar

Lenengo irurak tokatzen zaizka Jaungoikuaren onrari, eta beste zazpirak projimuaren probetxubari.

Lenengua, Jaungoikua maite izatia gauza guztiyen gañian.

Bigarrena, aren izen Santubaz juramentu alferrik ez egitia.

Irugarrena, jai egunak santifikatzia.

Laugarrena, aita eta ama onratzia.

Bostgarrena, ez iñor iltzia.

Seigarrena, lujuriyako pekatuak ez egitia.

Zazpigarrena, ez ostutzia.

Zortzigarrena, testimoniyo gezurrezkorik ez jasotzia eta gezurrik ez esatia.

Bederatzigarrena, projimuaren emasterik ez deseatzia,

Amargarrena, besteren ondasunik ez deseatzia.

Amar mandamentu auek enzerratzen dira bitan: Jaungoikua serbitzian eta maite izatian gauza guztiyen gañian eta projimua gure buruba bezela Amen.

Kristaubaren doktriñarako deklaraziya, galdetzen eta erantzuten dala

Galdetzen det: Kristauba zera?



- Erantzuten det: Bai Jaungoikuaren graziaz.
- G. Kristaubaren izen au norgandik izan zenduban?
- E. Kristo gure Jaunagandik.
- G. Zer esan nai du Kristaubak?
- E. Kristoren gizona.
- G. Zer aditzen dezu Kristoren gizonagatik?
- E. Jesukristoren fedia duan gizona, zeñak artu zuan bataiuan, eta dago eskeñirik aren serbiziyo santura.
- G. Zein da Kristaubaren señaia?
- E. Kurutze santuba.
- G. Zergatik?
- E. Zergatik dan Kristo kurutzian josiyaeren itxura, zeñian erredimitu ginduzen.
- G. Zenbait modutan egiten du kristaubak señaie au?
- E. Bitan.
- G. Zein dira?
- E. Ziñatzia eta Aitaren egitia.
- G. Zer gauza da ziñatzia?
- E. Iru kurutze egitia eskuiko eskuko biatz lodiyarekin. Lenengua bekokiyan. Bigarrena auan. Irugarrena petxubetan, itz egiten duala Jaungoiko gure Jaunarekin.
- G. Erakutsi nola?
- E. Kurutze Santubaren + señaialatik, gure + etsaietatik, libra gaitzen + gure Jaune eta Jaungoikua.
- G. Zergatik ziñatzen zera bekokiyan?
- E. Libra gaitzan Jaungoikuak pensamentu txarretati.
- G. Zergatik auan?
- E. Libra gaitzan Jaungoikuak itz gaiztuetatik.
- G. Zergatik bularrian?
- E. Libra gaitzan Jaungoikuak obra eta desio gaiztuetatik.
- G. Zer gauza da Aitaren egitia?
- E. Kurutze bat egitia eskuiko eskubaren biatz birekin, bekokitik petxuraño, eta ezkerreko sorbaldatik eskuikoraño, ots egiten diyola Trinidadade guztiz Santari.
- G. Erakutsi nola?
- E. Aitaren eta Semiaren + eta Espiritu Santubaren izenian Amen.
- G. Noiz egin biar degu señaie au?

E. Obra on bat asitzen degun guziyan, edo aurkitzen geranian pre-miya, tentaziyo edo perillen batian, batez ere oiti jaikitziyan, elizan sartziyan, jatorduban eta oiratzian.

- G. Zergatik onenbeste bider?
- E. Zergatik beti eta leku guziyetan gure etsaiak gonbatitu eta persegitzen gaituben.
- G. Zer etsai dira auek?
- E. Demoniua, munduba eta aragiya.
- G. Beraz badu kurutzia birtutea etsai oien kontra?
- E. Bai jauna.
- G. Nundik dauka kurutzia birtute ori?
- E. Kristok bere eriyotzarekin an bentzitu zitubalako.
- G. Kurutzia adoraten dezunian nola esaten dezu?
- E. Adoraten eta beinkatzen zaitugu Kristo bada zure kurutze Santubarekin libratu zenduban munduba.

Kristaubaren doktrinarako partiziyua

Ikusi degu kristaubera zerana, kristaubaren izen eta señaialatik: esaidazu bada oraiñ.

- G. Zenbait gauza jakin biar ditu kristaubak uso arrazoizkora etortzen daniyan?
- E. Lau gauza.
- G. Zeintzuek dira?
- E. Zer sinistu, zer oraziyo egiñ, zer obratu eta zer artu biar duan jakitia.
- G. Nola jakingo du zer sinistu biar duan?
- E. Jakiñarekin Kredua edo artikulu fedekuak.
- G. Nola jakingo du zer oraziyo egin biar duan?
- E. Jakiñarekin Aita guria eta elizako beste oraziyuak.
- G. Nola jakingo du zer obratu biar duan?
- E. Jakiñarekin Jaungoikuaren legeko eta Eliza Ama Santaren Mandamentubak, eta obra miserikordiyazkuak.
- G. Nola jakingo du zer artu biar duan?
- E. Jakiñarekin Eliza Ama Santaren Sakramentubak.

Kristaubaren doktriñarako lenengo partia zeñean ematen diran aditzera kredua eta artikulu fedekuak

Lenengora etortziyan; Esan ezazu.



- G. Nork esan zuan kredua?
 E. Apostolubak.
 G. Zertako?
 E. Fedeko gauzak guri erakusteko.
 G. Eta zuk zertako esaten dezu?
 E. Kristaubak degun fede au aitortzeko.
 G. Zer gauza da Fedia?
 E. Sinistia ikusi ez deguna.
 G. Ikusi zenduban Jesukristo jaiotzen?
 E. Ez jauna.
 G. Ikusi zenduban illtzen edo zerura igotzen?
 E. Ez jauna.
 G. Sinisten dezu?
 E. Bai jauna sinisten det.
 G. Zergatik sinisten dezu?
 E. Zergatik Jaungoiko gure Jaunak ala argitu zuan eta Eliza Ama Santak onela erakusten digun.
 G. Zer gauza dira kristaubak bezela daukatzunak eta sinisten dituzunak?
 E. Eliza Ama Santa Erromakuak daukanak eta sinisten ditubanak.
 G. Zer dira zuk eta Eliza Ama Santa Erromakuak daukazubenak eta sinisten dituzubenak?
 E. Artikulu fedekuak, Kreduan dauren bezela.
 G. Zer dira artikulu fedekuak?
 E. Dira gure fedeko misteriorik prinzipalenak.
 G. Zertako dira artikulu fedekuak?
 E. Berri emateko Jaungoiko gure Jaunarena, eta Jesukristo gure Redentoriarena.
 G. Zein da Jaungoikua?
 E. Da gauza bat esan eta uste alditokian izaterik aundi eta arrigarriyena; Jaun bat atzen gabe ona, guziya dezakiana jakintsuba, txusena, gauza guztiyen asiera eta akabera.
 G. Trinitade guztiz Santa nor da?
 E. Da Jaungoikua bera Aita, Semia eta Espiritu Santuba, iru persona diferentiak eta Jaungoiko egiazko bat.
 G. Aita Jaungoikua da?
 E. Bai, jauna.
 G. Semia Jaungoikua da?
 E. Bai, jauna.

- G. Espiritu Santuba Jaungoikua da?
 E. Bai, jauna.
 G. Iru Jaungoiko dira?
 E. Ez, jauna. Baizikan Jaungoiko egiazko bakar bat.
 G. Aita Semia da?
 E. Ez, jauna.
 G. Espiritu Santuba da Aita edo Semia?
 E. Ez, jauna.
 G. Zergatik?
 E. Zergatik iru personak diran diferentiak, Jaungoiko egiazko bakar bat bada ere.
 G. Ori orrela izanik, zenbat izate, zentzu eta borondate daure Kris-togan?
 E. Izate bat, zentzu bat eta borondate bat bakarra.
 G. Eta zenbait persona?
 E. Iru diferentiak, zeñak diran Aita, Semia ta Espiritu Santuba.
 G. Nola da Jaungoiko guztiya dezakiana?
 E. Zergatik bere nai izatearekin beste gabe egin dezakian nai duan guztiya.
 G. Nola da egintzallea?
 E. Zergatik utsetik egin zituban gauza guztiyak.
 G. Zertarako egin zuan Jaungoikuak gizona?
 E. Bera mundu onetan serbitzeko, eta gero betiko biziyen poztutzeko.
 G. Nola da salbatzallia?
 E. Zergatik ematen duan graziya eta barkatzen dituan bekatubak.
 G. Nola da gloria emantzallia?
 E. Zergatik aren graziyan irauten duanari ematen diyon gloriya.
 G. Jaungoikuak badu korputz iruririk guk bezela?
 E. Jaungoikua dan aldetik ez, zergatik dan Espiritu garbiya, baña bai gizona dan aldetik.
 G. Iru persona Jaungoikozko auetatik zein egin zan gizon?
 E. Bigarrena zeña dan Semia.
 G. Aita egin zan gizon?
 E. Ez, jauna.
 G. Espiritu Santuba egin zan gizon?
 E. Ez, jauna.
 G. Zein bada?
 E. Semia bakarrik, zeñeri gizon egiñik deritza Jesukristo.
 G. Ori orrela izanik nor da Jesukristo?



E. Da Jaungoiko biziaren Semia gu salbatziagatik eta nola bizi erakustiatik gizon egin zana.

G. Eta zenbat izate, borondate eta zentzu arkitzen dira Kristogan?

E. Bi izate bata Jaungoikozkua eta bestia gizonezkua; bi borondate Jaungoikozkua bat eta gizonezkua bestia; eta bi zentzu bat Jaungoikozkua eta bestia gizonezkua.

G. Eta zenbait persona eta memoriya?

E. Persona bat bakarra Jaungoikua dan aldetik, zeña dan Trinitade guztiz santaren bigarren persona, eta memoriya bat bakarra gizona dan aldetik, zergatik Jaungoiko dalarik ez dauka memoriyarik.

G. Zer esan nai du Jesusek?

E. Salbatzallia.

G. Zertatik salbatu ginduzen?

E. Gure bekatutik eta deabruaren mendetik.

G. Zer esan nai du Kristok?

E. Untatuba.

G. Zerekin izan zan untatuba?

E. Espiritu Santubaren graziaz eta doaiaz.

G. Kristo gure Jauna nola sortu, eta jaio zan ama donzellagandik?

E. Obratzen zuala Jaungoikuak sortitzaren legetatik kanpora eta mirariz.

G. Zergatik esaten dezu sortitzaren legetatik kanpora eta mirariz?

E. Zergatik Jesukristo ez sortu eta ez jaio zan beste gizonak bezela.

G. Bada nola obratu zan sortzera aren misteriyuba?

E. Mariya dontzellaren entrañetan egin zuan Espiritu Santubak Señora onen odol txit garbitik, gorputz bat guztiz perfetua, egin zuan eze-rezetik anima bat eta alkartu zuan korputzarekin, eta ordubantxe bertan gorputz eta anima auei juntatu zitzaien Jaungoikuaren Semia, eta modu onetan lenago Jaungoikua bakarrik zana egin zan gizon Jaungoikotasuna utzi gabe.

G. Eta nola jaio zan mirariz?

E. Mariya guztiz Santaren sabeletik ateratzen zala bere donzellatazuanaren kaltegabe, kristal batetik eguzkiyaren argitasuna sartzen dan moduban, hura ausi eta zikindu ere gabe.

G. Eta gero bere Ama beti bizi izan donzella?

E. Bai, jauna, beti.

G. Zergatik nai izan zuan Kristok ill gurutzian?

E. Libratziagatik gu pekatutik eta betiko eriotzagandik.

G. Nola bada erori giñan artan?

E. Egiten zuala pekatu gure lenengo guraso Adanek, zeñen guztiyak egin genduan bekatu.

G. Zer aditzen dezu Kristo ill eta gero jetxi zan infernubagatik?

E. Ez kondenatuben tokira, baizikan linbora onak zeudenera.

G. Zer bada, infernu bat baño geiago dira?

E. Bai, jauna, lau dira lurraren zentro edo barruban, eta deritzen zaie, kondenatuben infernuba, purgatoriyua, aurren linboa, eta anima onen linboa.

G. Eta zer gauza dira?

E. Kondenatuben infernua da tokia, zeñera juten diran bekatu mortalien iltzen diranak beti an oñazatubak izateko. Purgatoriyua da tokia, zeñera juten diran Jaungoikoaren graziaz illtzen diranen animak oso pagatu gabe bere pekatubakgatik, izateko an purgatubak oñaze aundiya-kin. Aurren linboa da tokiya, zeñera juten diran uso arrazoizkora etortzera baño lenago bataiatu gabe iltzen diranen animak; eta anima onaena da tokiya, zeñera juten ziran gure erredezziyua egin arte Jaungoikuaren graziaz illtzen ziranen animak, oso purgatu eta gero, eta Jesukristo izatez eta egiaz jetxi zan toki hura bera.

G. Nola jetxi zan?

E. Anima eta Jaungoikotasuna baturik

G. Eta gorputza nola gelditu zan?

E. Baturik bere Jaungoikotasunarekin.

G. Nola piztu zan irugarren egunian?

E. Biurtzen zirala bitzera bere gorputz eta anima gloriosua ez beñere berriz iltzeko.

G. Nola igo zuban Zeruetara?

E. Bere birtutez.

G. Zer da egotia eseririk Aita Jaungoikuaren eskuiko eskutik?

E. Izatea aitak ainbat gloriya Jaungoikua dan partetik, eta beste ero-zeñek baño geiago gizona danetik.

G. Noiz etorriko da biziya eta illak juzgatzera?

E. Mundubaren akaberan.

G. Eta orduban piztuko dira ill guztiyak?

E. Bai, jauna, lengo gorputz eta animakin berakin.

G. Eta mundubaren akabera baño lenago izango dira gizonak juzgatubak?

E. Bai, jauna, guztiyak bere biziaren akaberan juzgatu eta erabakiko ditu Jaungoikuak onai betiko gozatzia Jaungoikoa zeruban, eta gaiztuai betiko oñazak padezitza infernuban.



- G. Zer sinisten dezu esaten dezunian sinisten det Santuen Komuniyua?
- E. Kristau leialak debela parte besteen animen ondasunetan gorputz baten partiak bezela, zein dan Eliza.
- G. Zer da Eliza?
- E. Da kristau leialen batzarra, zeñen buruba dan Aita Santuba.
- G. Nor da Aita Santuba?
- E. Da Eliz gizon guztiyen buru Erromakua, lurrian Kristoren ordekoa, zeñi guztiyok gaudek (sic) obligaturik obedezitzera.
- G. Kredua eta Artikuluaz gañera, besterik sinisten dezu?
- E. Bai, jauna, Eskritura Santuban dauan guztiya, eta Jaungoikuak Elizari agerturik daukan guztiya.
- G. Zer gauza dira oriyek?
- E. Ez ori niri galdetu, bada naiz ezjakiña, baditu Eliza Ama Santak jakingo duenak erantzuten.
- M. Ondo diyozu; jakinubai dagokiye kontu ematia fede santuko gauza guztiyena eta ez zuri; zuentzat asko da ematia Artikulubanak Kreduan dauren bezela.

**Dotriña kristianaren bigarren partia
zeñian aitzera ematen dan zer eskatu biar dan,
eta Ama Eliza Santaren oraziyuak**

- Ikusi degu nola dakizun sinistu biar dezuna, zeñ dan estreñakua; gatozen bigarreneza zer dan eskatu biar dana.
- G. Esan ezazu: Nork esan zuan Aita guria?
- E. Jesukristok.
- G. Zertako?
- E. Guri oraziyoa egiten erakusteko.
- G. Zer gauza da oraziyoa egitia?
- E. Da jasotzia biotza Jaungoikoana eta eskatzia berari mesediak.
- G. Zenbait modutan da oraziyu?
- E. Bitan, aozkua eta zentzuzkoa.
- G. Zer da zentzuzkoa?
- E. Da egiten dana animaren potenziyak ibilkatzen dirala, akordatzen gerala memoriyarekiñ gauza onen batez, pensatzen eta ikusten degula zentzubarekin bere gañez, eta egiten ditugula borondatiarekin amoriyoz-

- ko egite batzubek, nola diran bekatuben damutasuna, edo asmo batzubek, nola diran konfesatzeko edo bizitza mudatzeko.
- G. Zer da aozkua?
- E. Da itzak esanaz egiten deguna; (konturako), egiten deguna Aita guria esaten degunian.
- G. Eta nola egin biar da oraziyu?
- E. Atenziyo, umiltasun, konfianza eta iraupenarekin.
- G. Aita guria esaten dezunian, zeñekin itz egiten dezu?
- E. Jaungoiko gure Jaunarekin.
- G. Nun dago Jaungoiko gure Jauna?
- E. Leku guztiyetan, batez ere zerubetan eta Aldareko Sakramentu guztiz Santuban.
- G. Eta Kristo gizona dan aldetik nun dago?
- E. Zeruban eta Aldareko Sakramentu guztiz Santuban bakarrik.
- G. Zein da oraziyuetan onena?
- E. Aita guria.
- G. Zergatik?
- E. Zergatik Jesukristok esan zuan bere aotik, Apostoluen eskabidez.
- G. Zergatik geiago?
- E. Zergatik dituban zazpi eskabide karidade guziyan fundatubak.
- G. Zein dira?
- E. Lenengua da santifikatuba izan bedi zure izena.
- G. Zer eskatzen dezu eskabide orretan?
- E. Jaungoikuaren izena izan dedilla ezagutua eta onratua mundu guztiyan.
- G. Zein da bigarrena?
- E. Betor gugana zure erreñuba.
- G. Zer eskatzen dezu eskabide orretan?
- E. Erreiña dezala Jaungoikuak gure animetan, emen lurrian graziya-rekin, eta gero eman dizaigula gloriya.
- G. Zeñi da irugarrena?
- E. Egin bedi zure borondatea ala zeruban nola lurrian.
- G. Zer eskatzen dezu eskabide orretan?
- E. Egin dezagula Jaungoikuaren borondatia lurrian gaurenak, zorionekuak zeruban egiten deben bezela.
- G. Zein da laugarrena?
- E. Eman iguzu eguneroko gure ogiya.
- G. Zer eskatzen dezu eskabide orretan?



E. Eman dizaigula Jaungoikuak korputzari konbeni zaion janariya eta animarentzat graziya eta sakramentubak.

G. Zein da bostgarrena?

E. Barkatu izkutzu gure zorrak guk guri zor diguenai barkatzen diyegun bezela.

G. Zer eskatzen dezu eskabide orretan?

E. Barkatu deizkigula Jaungoikuak gure bekatubak, guk barkatzen diyegun bezela kalte eta gaitz egin diguenai.

G. Zein da seigarrena?

E. Ez gaitzatzula utzi tentaziyan erorten.

G. Zer eskatzen dezu eskabide orretan?

E. Ez dizaigula utzi Jaungoikuak ez erorten, eta ez leku ematen penasamentu eta tentaziyo gaiztoai, zeintzubekein deabbrubak alegiñ egiten dun gu bekatuban erori erazitza.

G. Zeiñ da zazpigarrena?

E. Baizik libra gaitzatzu gaitzetik.

G. Zer eskatzen dezu eskabide orretan?

E. Libra gaitzala Jaungoikuak anima eta gorputzeko gaitz eta peligr guztiyetai.

G. Bada zergatik lenengo esaten dezu Aita guria zerubetan zaurena?

E. Jasotzeko biyotza Jaungoikuana eta eskatzeko umiltasun eta konfiantzarekin.

G. Zer esan nai du azkenian esaten dezun itz Amen ark?

E. Ala izan dedilla.

G. Zer oraziyo esaten dizkatzu batezere gure Ama Birjiñari?

E. Abe Maria eta Salbia.

G. Zeñek esan zuan Abe Maria?

E. Aingeru S. Gabrieleke etorri zanian diosala egitea (sic) gure Señora Maria Birjiñari.

G. Zeñek esan zuan Salbia?

E. Ama Eliza Santak dauka arturik.

G. Zertako?

E. Eskatzeko mesediak gure Señorari.

G. Abe Maria edo Salbia esaten dezunian, zeñekin itz egiten dezu?

E. Gure Señora Mariya Birjiñarekin.

G. Nor da gure Señora Mariya Birjiña?

E. Da Andra bat birtutez betia, Jaungoikuaren Ama eta dagoana zeruban.

G. Eta aldarian dagoana zeñ da?

E. Da zeruban dagoanaren iduri bat.

G. Eta zertako dago an?

E. Artatik akorda gaitezen zeruban dauanaz, eta bere iduriya izanik erreberenziyatu dezagun.

G. Bada igual egin biar diyegu beste Santuben imajiña eta errelikiai.

G. Egin biar diyegu oraziyo aingeru eta Santuai ere?

E. Bai, jauna, gure bitartekoai bezela.

G. Zer gauza dira Aingerubak?

E. Dirazorioneko espiritu batzuek daurenak zeruban Jaungoikua gozatzen.

G. Zertako egin zituban Jaungoiko gure Jaunak?

E. Beti alabatu eta beinkatu dezaten.

G. Eta zertako geiago?

E. Aren ministruak bezela goberna dezaten Eliza eta gorde ditzaten gizonak.

G. Beraz badezu zuk ere Aingeru guardakuba?

E. Badet eta gizon bakoitzak dauka beria.

M. Bada izan egiozu deboziyo aundiya eta enkomendatu berari egu-nero.

Dotrina kristianaren irugarren partia zeñian aditzera ematen dan zer obratu biar dan

Ikusi degu zer sinistu eta zer oraziyo egin biar dezun. Esan ezazu.

G. Zein da Jaungoikuaren legeko lenengo mandamentuba?

E. Maite izatia Jaungoikua gauza guztiyen gañean.

G. Nork maite izaten du Jaungoikua?

E. Aren mandamentu santubak gordetzen ditubanak.

G. Zer da Jaungoikua maite izatia gauza guztiyen gañian?

E. Naiago izatia galdu guztiyak bera ofenditu baño.

G. Zertara geiago obligatzen gaitu mandamentu onek?

E. Adoratzera Jaungoikua bakarrik, korputzeko eta animako erreberentzi guztiyarekin, sinisten eta esperatzen degula beregan fede biziyarekin.

G. Nork egiten du pekatu onen kontra?

E. Idoluetan edo Jaungoiko falsoetan aduratu edo sinisten duanak, fedearen kontra gauzaren bat sinisten duanak, edo dudatzen duanak bere misterioen batian edo premiyazkuak ez dakitzanak; egiten ez ditubanak



obligatuba daganian Fede, Esperantza eta Karidadeko aktua, edo deskonfiatzen du Jaungoikuaren errukitasunez, edo artzen du ezdiñaro sakramenturen bat.

G. Nork geiago?

E. Sinisten duanak aztikeriyetan edo soginkeriyak usatzen dituanak.

G. Zein da bigarrena?

E. Aren izen Santubaz juramentu alperrik ez egitia.

G. Nork egiten du juramentu alperrik?

E. Juramentu egiten duanak egiya gabe, justiziya gabe eta premiya gabe.

G. Zer da juramentu egitia egiya gabe?

E. Juramentu egitia sentitzen duanaren kontra edo gezurretan.

G. Eta zer pekatu egiten du juramentu egiten duanak egiya gabe, edo dudarekin juramentu egiten duana egiya otedan?

E. Guztiz mortala naiz izan dedilla juramentuba gauza ariñaren gañian.

G. Zer da juramentu egitia justiziya gabe?

E. Juramentu egitia gauza bidegabeko eta txar bat, konparaziyora, projimuari gaitzen bat egitia.

G. Eta zer pekatu egiten du juramentu egiten duanak justiziya gabe?

E. Guztiz mortala baldin bidegabeko gauza pisuba bada, eta ariñtxo baldin bada ariña.

G. Zer da juramentu egitia premiya gabe?

E. Juramentu egitia motibo aundi bat gabe, edo gauza ezerez bategatik.

G. Zer pekatu da au?

E. Ariña ezpazaio faltatzen egiyari, justiziyari eta juramentubari.

G. Eta egiten duanak juramentu, boto edo promesa gauza on bat egiteko, dago obligatuba hura kunplitzeko?

E. Bai, jauna, eta hura ez kunplitzea edo berandutzia asko da pekatu mortala baldin gauza pisuba bada.

G. Eta pekatu da juramentu egitia kriaturakgatik?

E. Bai, jauna, zergatik aietan egiten zaion juramentu egillari.

G. Nola juramentu egiten da kriaturakgatik?

E. Esanaz, konparaziyora, nere animiatik, zerubagatik, lurragatik, etc, au ala dala.

G. Zer erremediyo dago juramentu alperrik ez egiteko?

E. Oituztea esatera bai edo ez Kristok erakusten digun bezela.

G. Eta eragozten da beste gauzaren bat mandamentu onetan?

E. Bai, jauna, eragozten da ere blasfemiya, zeña dan esatia bidegabeko itzak Jaungoikuaren eta beren santuben kontra, eta au da pekatu mortala.

G. Zein da irugarrena?

E. Jai egunak santifikatzia.

G. Nork santifikatzen ditu jai egunak?

E. Meza osoa entzun eta aietan premia gabe biarrik egiten ez duanak.

G. Eta zer pekatu egiten du jaietan premiya gabe biarra egiten duanak?

E. Pekatut mortala baldin ordu bi baño geiago biar egiten badu, baño gutxiago egin ezkeru ariña geieanean.

G. Zein da laugarrena?

E. Aita eta ama onratzia.

G. Nork onratzen ditu gurasoak?

E. Obedezitzen, laguntzen eta erreberentziatzen ditubanak.

G. Zeintzuek pekatu mortala egiten debe onen kontra?

E. Etxeko gobernubari eta oitura onai dagozkiyon gauzaetan beren gurasoai obedezitzen ez diyen semiak; beren premiyetan laguntzen ez diyenak; madarikatu, burla egin edo eskuba jasotzen diyenak; eta beren bendiziyo eta konseju gabe ezkontzeko asmoak artzen ditubanak.

G. Nor besterik aditzen dira gurasotzat?

E. Aundiyagoak edadian, dignidadian eta gobernuban.

G. Eta mandamentu onetan, semiak gurasoakganako dituben obligaziyuaz gañera zartzen (sic) da besterik?

E. Bai jauna, nagusiyak beragokuakin eta gurasoak semiakin ditubanak.

G. Eta zein dira auek?

E. Mantendu, erakutsi, korrejitu, ejenplo ona, eta konbeni zaion bizi-moduba denbora danian ematia.

G. Eta zer pekatu egiten debe auetan faltatzen debenak?

E. Mortala geieanean.

G. Zein da bostgarrena?

E. Ez iltzia.

G. Zer agintzen da mandamentu onetan?

E. Ez egitia inñori gaitzik, ez obraz, ez itzez eta ez ere desioz.

G. Eta nork egiten du pekatu mandamentu onen kontra?

E. Nork berari edo besteri eriyotza edo beste gaitz pisurenbat desiatzen diyonak, edo gorrotatzen duanak; bestzia jo, zauritu edo iltzen dua-



nak; moskortzen danak; bere osasunaren kalte aundiko gauzak jaten dituanak, edo bere bizia peligran ipiñi edo kendu egiten duanak; eta nork bere buruari edo besteari maldiziyoa botatzen diyonak.

G. Zer gauza da maldiziyua botatzia?

E. Da eskatzia batek beretzat edo besterentzat gaitzen bat, esango balu bezela: bertan ill da eroriko altzera.

G. Eta zer pekatu da maldiziyua egitia?

E. Baldin bada gaitz pisubaren desiarekin, pekatu mortala.

G. Eta baldin bada orrelako desiogabe?

E. Ariña, baña ez beti.

G. Zeintzuben egiten debe bada pekatu mortala, orrelako desio gabe maldiziyu egiten duenian?

E. Batik bat guraso eta nagusi beren mendekoen aurrian maldiziyua botatzen duenak, oitura duenak maldiziyuak egiteko, eta alegiña egiten ez duenak.

G. Eta zergatik orrela?

E. Zergatik bere izkuntza eta ejemplo gaiztoakin, zirikatzen dituan bestiak Jaungoikua ofenditzera gauza pisuban, zeri deitzen zaion eskandalua.

G. Zein da seigarrena?

E. Lujuriako pekatuak ez egitia.

G. Zer agintzen da mandamentu onetan?

E. Izan gaitzela garbiyak eta kastuak pensamentu, itz eta obraetan.

G. Zeintzuben egiten debe pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Jakiñaren gaiñian gozatzen diranak pensamentu zikiñetan, naiz da obraz ez ipiñi, ez ipintzeko desiorik izan ere gauza torpeak esan edo kantatzen ditubanak, edo atsegintasunarekin aitzen ditubanak, eta nor berekin edo besterekin ukitze edo eginbide desonestuak dauzkanak, edo egitia desiatzen dituanak.

G. Zein da zazpigarrena?

E. Ez oztutzea.

G. Zer agintzen da mandamentu onetan?

E. Ez kentzia, ez edukitzia, ez ere nai izatia besteren gauzarik jabieren borondatiaren kontra.

G. Zeintzuben egiten debe pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Onelako edozein gauza egiten debenak, edo beste moduren batian projimuari gauza pisuban kalte egiten diotenak bere ondasunetan.

G. Eta onetan kalte egiten diyonak projimuari, edozein modutan dala, geratzen da obligazioren batekin?

E. Geratzen da biurtzeko obligaziyo pisubarekin eta pagatzeko len bait len egin diyuen kalte guztiyak.

G. Zein da zortzigarrena?

E. Testimoniyo falsorik ez jasotzia, ez ere gezurrik esatia.

G. Zer agintzen da mandamentu onetan?

E. Ez juzgatzia errazkiro (au da motibo eta fundamentu gabe) projimuaren gaitzik, ez esan, ez aditu ere aren faltak.

G. Nork ausitzen du mandamentu au?

E. Arrazoiaren kontra juzga (au da artarako fundamentu aundi gabe) fama kentzen duanak, gauza isilla agertu edo gezurra esaten duanak.

G. Eta projimuari fama kentzen diyonak gauza pisuban, aren gaizki egite gezurrezko edo egiyazkorenbat, baña ezkutukua, edo dauzkan faltak arpegira botiaz geratzen da obligazioren batekin?

E. Kendu diyon onra edo fama atzera biurtzeko obligaziyuarekin.

G. Zer eragozten da bederatzigarren eta amargarren mandamentuban?

E. Desonestidadiaren eta aberastasunaren desiuak.

M. Esan itzatzu Eliza Ama Santaren Mandamentubak.

Eliza Ama Santaren Mandamentubak dira bost.

Lenengua, igandetan eta beste jaietan meza osua entzulia.

Bigarrena, urtian beñi gutxiyenez konfesatzia, edo lenago esperatzen badu iltzeko peligrorik, edo komulgatu biar badu.

Irugarrena, Pazkua erresurrekziyokuetan komulgatzia.

Laugarrena, Eliza Ama Santak agintzen duanian badaur egitia.

Bostgarrena, Jaungoikuaren Elizari amarrenak eta primiziak pagatzia.

G. Zertako dira mandamentu auek?

E. Jaungoikuaren legekuak obeto gordetzeko.

G. Eta lenengua meza entzulia, zeintzuben obligatzen ditu?

E. Uso arrazoizkua daukaten bataiatu guztiyak.

G. Eta nola entzun biar debe?

E. Presente daurela mezatan gauza espiritualen baten atenziyua jarri; meditatubaz edo errezatubaz deboziyuarekin.

G. Eta meza entzun dezakiala entzuten ez duanak, edo daguanak dala guztiyan dala parte señalatu baten atenziyo gabe, edo jartzen danak ez entzuteko peligran, zer pekatu egiten du?



- E. Pekatu mortala.
- G. Eta bigarren eta irugarren au da konfesatziak eta komulgatziak zeintzuben obligatzen ditu?
- E. Obligatzen ditu pekatu mortalaren azpiyan uso arrazoizkua deben guztiyak.
- G. Eta gaizki komulgatu eta konfesatzen diranak, au da sakrilejiya egiñaz kunplitzen debe aiekin?
- E. Inolako moduz ez, eta bi gauza oietako bakoitzian egiten ditube pekatu mortal bi.
- G. Eta zer egin biar du batek eriyotzako peligran ezbadu konfesorerik?
- E. Akto kontriziozko egiazko bat, konfesatzeko asmuarekin.
- G. Eta laugarrena, zeña dan badaur egitia, zeintzuben obligatzen ditu?
- E. Ogei ta bat urte kunplitu ditubenai.
- G. Eta nola badaur egin biar da?
- E. Janari debekatuak utzia, eta otordu bat bakarra eguerdian egiten dala.
- G. Eta onetara faltatu gabe artu lezake goizetik zerbait?
- E. Kausa izan ezker, txikiya izanagatik ere, artu liteke onza bat bezela.
- G. Eta arratsian?
- E. Artu liteke kolaziotan konzienzi oneko jendiaren artian artu oi dana, galdetubaz dudarik dagoanian konfessore jakinsu bati.
- G. Eta kausa justu gabe badaurra egiten ez duenak zer pekatu egiten debe?
- E. Pekatu mortala.
- G. Eta aragiya ez jateko agindubak badaur egunetan eta gordetzietan, ez nastutzia auetan aragiya eta arraia otordu baten, eta ez jatia garisuman arrautzarik eta esne gauzarik bulda ez daukatela, zeintzuben obligatzen ditu?
- E. Uso arrazoizkua deben guztiyak.
- G. Eta zer pekatu egiten debe gordetzen ez ditubenak?
- E. Mortala, egunian onetara faltatzen deben bakoitzian.
- M. Esan itzatzu obra miserikordiyazkuak.

**Obra miserikordiyazkuak dira amalau,
zazpi espiritualak eta zazpi korputzari dagozkiyonak**
Espiritualak dira auek.

- Lenengua, ez dakiyanari erakustia.
- Bigarrena, konseju ona ematia biar duanari.
- Irugarrena, gaizki egiten duana zuzentzia.
- Laugarrena, bidegabiak barkatzia.
- Bostgarrena, triste daguana konsolatzia.
- Seigarrena, gure projimuaren miseriyak eta argaltasunak pazienziya-rekin eramatia.
- Zazpigarrena, biziyak eta illakgatik Jaungoikuari erregutzia.
- Korputzari dagozkiyenak dira auek.
- Lenengua, gaisuak ikustia.
- Bigarrena, gosiak daganari jaten ematia.
- Irugarrena, egariyak daganari eraten ematia.
- Laugarrena, katibuak erreskatatzia.
- Bostgarrena, narru gorriyan daguana janzitzia.
- Seigarrena, peregrinuari ostatu ematia.
- Zazpigarrena, illak enterratzia.
- G. Zergatik deitzen zaie miserikordiyazkuak?
- E. Zergatik ez diran zor justiziyaz.
- G. Noiz obligatzen dute agintzaz?
- E. Gizon adituben iritziyan diranian premi aundiyak.
- G. Eta obra miserikordiyazko eta beste obra on kristaubak egiten dituanagatik naiz izan ditezela obligaziyozkuak, naiz deboziyozkuak, zer logratzen du?
- E. Baldin badago Jaungoikuaren graziyan merezi du aiekgatik geitzia graziya eta gloria; eman berakin pekatuben satisfaziyoa, eta iritsi Jauna-gandik ala ondasun espiritualak nola akabatzen diranak konbeni bazaizka.
- G. Eta zergatik esaten dezu badago Jaungoikuaren graziyan?
- E. Zergatik pekatu mortalian daurenak egiten dituben obra onak, ez dira merezimentuzkuak, ez ere satisfaziyo eman dezakeenak, baizik mese-de ekarriak, zeren aien bitartez alkanza litezke moduren baten meseden batzuben Jaunagandik.

Laugarren partia **zeñian aditzera ematen dan artu biar diran Sakramentubak**

Ikusi degu nola dakizun zer sinitu, zer oraziyo eta zer egin biar dezun; ikusi dezagun nola dakizun zer artu biar dezun, zeña dan azkene-



kua; esan itzatzu Sakramentubak. Eliza Ama Santaren Sakramentubak dira zazpi, lenengo bostak dira premiazkuak, egiñaz edo desioz, auek gabe eziñ diteke salbatu gizona utzitzen baditu menospreziyoz, beste biyak dira borondatezkuak.

Lenengua, Bataiua.

Bigarrena, Konfirmaziyua.

Irugarrena, Penitenziya.

Laugarrena, Komuniyua.

Bostgarrena, Estrema-Unziyua.

Seigarrena, Ordena.

Zazpigarrena, Matrimoniyua.

G. Zer gauza dira Sakramentubak?

E. Dira señaile agiri batzuben Jesukristo gure Jaunagandik egiñak guri auekगतिक emateko bere graziya eta birtutiak.

G. Zer gauza da graziya?

E. Da izate Jaungoikozko bat, gizona egiten debena Jaungoikuaren seme eta zerubaren heredero.

G. Eta nola deritza grazi oni?

E. Santutzallia.

G. Eta onezas gañera bada beste graziyan bat?

E. Badira beste batzuben deitzen diyegunak orainguak, edo laguntzak eta biyotz ikutsiak, auek gabe eziñ daikegu asi, ez ere segitu, ez ere akabatu betiko bizitarako gauza eramangarririk.

G. Eta zer dira auek?

E. Gaitzetik iges egin eta ondo obratzeko Jaungoikuak eman digun laguntza batzuben; nola diran sermoiak, ejenplo onak, uste gabeko eriyo-tzak, argi batzuben zeñakin argi egiten diyon gure zentzuai, ta desio santu batzuben zeñakin mugitzen dituben gure borondatiak onerako.

G. Zer birtute ematen debe Sakramentubak graziyarekin batian?

E. Batezere iru teologalak eta Jaungoikozkuak.

G. Zein dira?

E. Fedia, Esperantza eta Karidadia.

G. Zer gauza da Fedia?

E. Sinistia ikusi ez gendubena, zergatik Jaungoikuak ala agertu duan.

G. Zer gauza da Esperantza?

E. Esperantzia gloriya Jaungoikuaren grazi eta gure obra onaren medi-yoz.

G. Zer gauza da Karidadia?

E. Jaungoikua maite izatia gauza guztiyen gañian, eta projimua geuren burubak bezela, izaten gerala aiekin, aiek gurekin izatia nai degun bezela.

G. Zertako izan zan egiña Bataioko Sakramentuba?

E. Jatorrizko pekatuba kentzeko eta beste edozein bataiatzen danagan arkitzen dana.

G. Zer da jatorrizko pekatuba?

E. Pekatu ura zeñakin guztiok jaiotzen geran heredaturik gure lenengo gurasuetatik.

G. Eta uste gabeko premiyan nor bataiatu dezake?

E. Uso arrazoizkoa duan edozein gizon edo emakumiak.

G. Eta nola egin biar du?

E. Umearen burubaren gañera botatzen duala ur naturala, eta esaten debela bataiatzeko intenziyuarekin: nik bataiatzen zaitut Aitaren, Semiarren eta Espiritu Santubaren izenian.

G. Zertako da Sakramentu konfirmaziyokua?

E. Konfirmatzeko eta jarritzeko fuerte bataiuan artu genduban fedian.

G. Eta uso arrazoizkoa debenak eta artzen debenak Sakramentu au pekatu mortalien pekatu egiten du?

E. Guztiz mortala.

G. Bada, zer egin biar du artzen duala ez pekatu egiteko?

E. Prestatu lenago konfesiyo on bat egiñaz.

G. Zertako da Sakramentu Penitenziyakua?

E. Bataiatu ezkeroko egindako pekatubak barkatzeko.

G. Zer pekatu dira auek?

E. Pekatu mortalak bai eta benialak ere.

G. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatia, egitia, pensatzia edo desiatzia zerbait Jaungoikuaren legearen kontra gauza pisuban.

G. Zergatik deitzen zaizka mortala?

E. Zergatik illtzen duan egiten dubenaren anima.

G. Eta noiz errezipitzen degu Sakramentu Penitenziyakua?

E. Ondo konfesatu eta absoluziyua artzen degunian.

G. Zer parte ditu penitenziyak kentzeko pekatu mortala?

E. Iru.

G. Zein dira?

E. Biyotzeko kontriziyoa, auazko konfesiya, eta obrazko satisfazi-yua.



G. Eta Sakramentu au artu nai debenagan prezisoak diran iru gauza auetan sartzen dira besten batzuek?

E. Bai, jauna, kontriziyoan sartzen da enmendatzeko proposituba, eta konfesiyaun konzienziako esamiña.

G. Beraz onela, zenbait gauza biar dira Sakramentu Penitenziyako artzeko edo bat konfesatzeko ondo?

E. Bost, eta dira: konzienziyako esamiña, biyotzeko kontriziyoa, enmendatzeko proposituba, auazko konfesiya eta obrazko satisfaziya.

G. Zer da konzienziyako esamiña?

E. Da alegiña egitia gogoratzeko batek konfesatu ez dituben pekatuak, pensatzen duala Jaungoikuaren eta Elizaren mandamentubetan, zein tokitan ibilli dan, eta zer egiteko izan dituben, bere kulpak ezagutzeko Jaungoikuari argiya eskatu ezker.

G. Zenbait modutan da biyotzeko kontriziyoa?

E. Bitan: bat kontriziyo egiazkua, eta bestia ez añ ona, deitzen zaizkana atriziyoa.

G. Zer da kontriziyoa egiazkua?

E. Jaungoikua ofenditutako damu bat izanagatik zein dan, au da, izanagatik guztiz ona, konfesatzeko, enmendatzeko eta penitenziya kunplitzeko propositubarekin.

G. Eta zer da atriziya?

E. Jaungoikua ofenditutako damu bat pekatubaren itsusitasunagatik, edo infernubaren bildurragatik, edo galdu dualako gloriya, konfesatzeko propositubarekin etc.

G. Eta zein da damu auetan onena?

E. Kontriziyo egiazkua.

G. Eta zergatik?

E. Zergatik kontriziyozkoa datorren amoriyotik eta atriziyozkoa bildurretik; kontriziyo egiazkuagatik bat konfesatzen dan baño lenago barkatzen zaizka pekatu mortalak, eta gelditzen da Jaungoikuaren graziyan; baño atriziyuagatik bakarrik ez dira iritxitzen ondasun auek.

G. Eta ondo konfesatzeko bat atriziyozko damuba asko da, edo biar da izan kontriziyozkoa?

E. Geienian esaten da asko dala atriziyoa, baño obe eta segurugo da kontriziyo egiazkua eramatia, eta au eramatia egin biar du alegiña konfesatzen danak.

G. Eta damuba noiz iduki biar da?

E. Konfesorik penitentiari absoluziyoa eman baño lenago.

G. Zer gauza da proposituba?

E. Asmo firme bat beñere ez Jaungoikua ofenditzeko gauza pisuban.

G. Zer da auazko konfesiya?

E. Da esatia konfesoriar pekatu mortal guztiyak engaño eta gezur gabe penitenziya kunplitzeko asmuarekin.

G. Eta isiltzen debenak lotzaz pekatu mortalen bat, edo konfesatzen debenak egiñ ez duan pisuren bat, edo egiten debenak bere konfesiya damu edo propositu gabe, edo penitenziya kunplitzeko animorik gabe, konfesatzen da ondo?

E. Ez jauna, egiten du sakrilejiyo aundi bat, eta gelditzen da berriz konfesatzeko obligaziyuarekin, konfesatu zituben eta ez zituben pekatubak egin zuben sakrilejiyuarekin.

G. Eta zeintzuek uste izan bear du ez izana dolorerik eta propositurik euren konfesiyoetan?

E. Apartatzen ez diranak okasiyotatik, eta konfesiyo bat eta bestia- ren ondoren pekatu auetan eurretan erortzen diranak.

G. Eta zer konbeniko da egitia dolore eta propositu egiazkua izatera mugitzeko?

E. Konfesatzera allegatu baño lenago eskatzia Jaungoikuari sokorri dezala bere laguntzakin, gogoratu piska batian Jaunak egin diyon mesediatan, edo bere pasiyo eta eriyotzan, edo bere borondatian, edo beñ edo geiago aldiz esan akto kontriziyozkoa.

G. Zer gauza da obrazko satisfaziya?

E. Da pagatzia oso Jaungoikuari pekatubagatik zor diran tenporalak, konfesorik ematen diyon penitenziya kunplitzen duala.

G. Eta penitenziya kunplitzen ez debenak, edo denbora asko pasatzen debenak kunplitzen, zer pekatu egiten du?

E. Guztiz mortala penitenziya pisuba bada.

G. Eta Jaungoikuari oso pagatu daikegu pena tenporalgatik ematen zaigun penitenziyakin besterekin?

E. Bai jauna, Jaungoikuaren graziyan egindako obra on guztiyakin eta induljenziyak irabazita.

G. Eta zer gauza dira induljenziak?

E. Grazi batzuek, zeintzuek ematen dan pena tenporalaen barkaziyoa pagatu biar dana mundu onetan edo bestian.

G. Eta nola irabazi biar dira?

E. Egiten duala Jaungoikuaren graziyan onetarako agintzen dana.

G. Eta bizitza onetan oso pagatu ez ditubelako purgatoriyora juan diranai guk lagundu gantzake?

E. Bai jauna, satisfaziyoa eman dezakegun obra aiekiñ berakin.



- G. Eta biar du bereala konfesatu pekatu mortalien erortzen dan batek barkatzeko?
- E. Ongi izango litzake baño ez da prezisoa.
- G. Bada zer egiñ biar du?
- E. Iduki bere pekatuben egiazko kontriziyozko damu bat, enmendatzeko eta konfesatzeko asmuarekin, Eliza Ama Santak agintzen dube-nian.
- G. Zer gauza da pekatu beniala?
- E. Da pekatu mortalaren disposiziyo bat.
- G. Zergatik deritza beniala?
- E. Zergatik laister, au da erraz gizona erortzen dan artan eta erraz barkatzen zaizkan.
- G. Zenbait gauzogatik barkatzen zaizka?
- E. Bederatzigatik.
- G. Zein dira?
- E. Lenengua, meza entzutiagatik.
- Bigarrena, komulgatziagatik.
- Irugarrena, konfesiyo jenerala esatiagatik.
- Laugarrena, obispoaren bendiziyuagatik.
- Bostgarrena, ur beinkatubagatik.
- Seigarrena, ogi beinkatubagatik.
- Zazpigarrena, sermoia aditzeagatik.
- Zortzigarrena, Aita guria esatiagatik.
- Bederatzigarrena, petxuko golpiagatik eskatzen diyola barkaziya Jaungoikuari.
- G. Zergatik esaten dezu eskatzen diyola barkaziya Jaungoikuari?
- E. Aditzera emateko, pekatu benialaen barkaziya iristeko, izan biar degula gauza auekgatik damu bat izatez gañera.
- G. Eta pekatu benialak konfesatzera obligatubak gaure?
- E. Ez jauna, baño ona eta probetxugarria da.
- G. Eta azkeneko konfesiya ezkerok bakarrik benialak ditubenari, zer konbeni zaizka egitia dolore eta proposituba aseguratzeke?
- E. Konfesatu ere naiz auetatik konfesatu dedilla lenago bizitzako pekatu mortalen bat.
- G. Zertako da Sakramentu guztiz Santu Komuniyukua?
- E. Errezibitzen degula biar dan disposiziyuarekin izan dediñ gure animaen janariya eta aumenta dizagun beraren graziya.
- G. Zergatik esaten dezu biar dan disposiziyuarekin?

- E. Aditzera emateko Sakramentu au ez dala izango animaen janariya ezpadegu artzen biar dan bezela ala animaren aldetik? nola gorputzarenetik.
- G. Bada zer disposiziyo biar da, animaren aldetik
- E. Jaungokuaren graziyan egotia.
- G. Eta pekatu mortalien erori zanak nola disponitu biar du komulgatzeko?
- E. Konfesatuta.
- G. Eta konfesatu ezkerok akordatzen danak pekatuan batez, zer egin biar du?
- E. Konfesatu hura lenago.
- G. Eta gorputzaren aldetik zer disposiziyo biar da?
- E. Allegatzia badaurrik (ez izanian komuniyua Elizakuakin) ezerere ez jan eta ez eran gabe aureko gaueko amabiyak ezkerok.
- G. Zer errezibitzen debe Sakramentu guztiz Santu Komuniyokuan?
- E. Kristo Jaungoiko eta gizon egiazkua zeña dagoan egiaz Sakramentu Santu aldarekoan.
- G. Onela danez zein dago ostiyan konsagratuta gero?
- E. Jesukristoren gorputza, bere odol, anima eta Jaungoikotasuna.
- G. Eta Kalizan?
- E. Jesukristoren odola, bere gorputz, anima eta Jaungoikotasunarekin.
- G. Beraz onela, Jesukristo guztia dago ostian eta kalizan?
- E. Jesukristo guztiya dago ostiya guztiyan, eta guztiya aren edozeiñ puskatan eta igual kalizan.
- G. Eta konsagratuta gero badago ogirik ostiyan edo ardorik kalizan?
- E. Ez jauna, baizikan ogiyaren eta arduaren akzidenteak, nola diran usai, kolore eta sabore eta ganerakuak.
- G. Eta partitzen bada ostiya edo dibiditzen bada kalizan dagoana partitu edo dibiditzen da Jesukristo?
- E. Ez jauna, parte guztiyetan eta parte bakoitzian guztiya oso gelditzen da.
- G. Eta komuniyura allegatzen danak esan diran disposiziyuak gabe errezibitzen du ere Jesukristo?
- E. Bai jauna; baño ezeren probetxu gabe, zergatik egiten deben pekatu bat guztiz pisuba.
- G. Eta probetxatzen diranai, zer konbeni zaizkate egitia, esan danaz gañera iristeko frutu aundiagoak?
- E. Komulgatu baño lenago konsideratu zein da eurengana datorren Jauna, Fede, Esperantza eta Karidadeko aktuak, eta errezibitu umiltasun



eta erreberenzi aundiarekin, eta gero eman graziyak aĩn onegiñ aundiya-gatik.

G. Zertako da Sakramentu Extrema-Unziyokua?

E. Iru gauzatarako.

G. Zein dira?

E. Lenengua, bizitza gaizto pasatuaren arrasto eta relikiyak kentzeko. Bigarrena, animari indarra emateko demoniua tenentazioen kontra. Irugarrena, gorputzari osasuna emateko konbeni bazaizka.

G. Eta uso arrazoizkoa debenak, eta peligroan gaiso daurenak, badute obligaziyorik Sakramentu au artzeko?

E. Bai jauna, eta egiten debe pekatu guztiz mortala, aldebea ezpade artzen, edo artzen badu pekatu mortalian.

G. Zer egiñ biar du bada pekatu mortalian arkitzen danak?

E. Konfesatu lenago, eta ezin konfesatu balezake, egin akto kontriziyozko bat.

G. Zertako da Ordenako Sakramentuba?

E. Konsagratzeko eta ordenatzeko elizako ministro dignoak, nola diran abadeak, diakonoak eta auen urrangoak.

G. Elizako ministroak, batezere abadeak, izan biar dute errespetuak eta beneratuak?

E. Bai, jauna.

G. Zertako da Sakramentu Matrimonyokua?

E. Eskontzeko eta eskondubai emateko graziya onekin bizi ditezen pakian euren artian, eta azi ditzaten semiak zerurako.

G. Eta premiyazkua da Jaungoikuaren graziyan egotia ezkongaiak, Sakramentu au biar bezela artzeko?

E. Bai jauna, pekatu mortalaren azpiyan.

G. Eta Jaungoikuaren graziyan ez daurenak, zer egin biar debe eskontzeko?

E. Konfesatu.

Pekatu kapitalak dira zazpi

Lenengua, Soberbiya.

Bigarrena, Abariziya.

Irugarrena, Lujuriya.

Laugarrena, Ira.

Bostgarrena, Gula.

Seigarrena, Enbidiya.

Zazpigarrena, Nagitasuna.

G. Zergatik deitzen diyoizute pekatu kapitalak zazpi geianetan mortalak esaten zaizkanari?

E. Deitzen zaizkate kapitalak zergatik diran auetatik jaiotzen diran beste biziyoen buru, iturri eta zuztarrak bezela, eta mortala deitzea ez dator aĩn ondo bada askotan ez dira benialak baño geiago.

G. Noiz dira mortalak?

E. Jaungoikuaren eta projimuaren karidadiaren kontra diranian.

G. Noiz dira karidadiaren kontra?

E. Aiekgatik ausitzen danian Jaungoikuaren edo Elizaren mandamenturen bat gauza pisuban.

G. Zer da soberbiya?

E. Bestiak baño geiago izateko nai desordenatu bat.

G. Zer da Abariziya?

E. Ondasunaren desio desordenatu bat.

G. Zer da lujuria?

E. Aragiya atsegintasun eta gusto zikiñan desio desordenatu bat.

G. Zer da ira?

E. Benganzaren nai desordenatu bat.

G. Zer da gula?

E. Jateko eta erateko desio desordenatu bat.

G. Zer da enbidiya?

E. Besteren onaren damutasun bat.

G. Zer da nagitasuna?

E. Obra onak egiteko animuaren falta.

Zazpi biziyo auen kontra dira zazpi birtute

Soberbiyaren kontra umiltasuna.

Abariziyaren kontra, emallea.

Lujuriaren kontra, kastidadia.

Iraren kontra, pazienziya.

Gularen kontra, tenplanza.

Enbidiaren kontra, karidadia.

Nagitasunaren kontra, egin naia.

Animaren etsaiak zeintzubenatik iges egin biar degun dira iru

Lenengua, da munduba.

Bigarrena, demoniua.

Irugarrena, Aragiya.

G. Zein da munduba?



E. Dira munduko gizon gaiztuak eta biyurriak.

G. Zein da demoniua?

E. Da aingeru bat, zein Jaungoikuak sorturik zeruban, jaiki zalako beste askorekin bere Majestadiaren kontra, amildu zuan infernubetara bere gaiztotasuneko lagunakin, zeñari deitzen diyogun demoniua.

G. Zeiñ da aragiya?

E. Da gure gorputza bera, bere pasiyo eta inklinaziyo gaiztuakin.

G. Nola benzitu eta iges egiten da mundubagandik?

E. Au benzitu eta iges egiten da onen banidade eta aunditasunari kasorik egin gabe.

G. Nola benzitu eta iges egiten da demoniugandik?

E. Oraziyuakin eta umiltasunakin.

G. Nola benzitu eta iges egiten da aragiugandik?

E. Au benzitu eta iges egiten da, badaur, mortifikaziyo eta disziplinaikin, au da etsairik aundiyana, zergatik aragiya eziñ apartatu daiegu guregandik, baño bai munduba eta demoniua.

Birtute Teologalak dira iru

Lenengua, Fedia.

Bigarrena, Esperantza.

Irugarrena, Karidadia.

G. Nola ez degu faltatuko birtute auen aktuak egiteko degun obligaziuari?

E. Debozios eta sarritan erreztatzen degula (edozeiñ kristauak egitia arrazoi dan bezela) Kredua, Aita guria; eta akto kontriziyozkoa biyotzetik esan da.

Birtute Kardinalak dira lau

Lenengua, Prudenzia.

Bigarrena, Justiziya.

Irugarrena, Fortaleza.

Laugarrena, Tenplanza.

Korputzaren sentiduak dira bost

Lenengua, ikustia begiyakin.

Bigarrena, aditzia belarriakin.

Irugarrena guztatzia auakin.

Laugarrena usai egitia sudurrakin.

Bostgarrena ikutzia eskubakin.

G. Zertako eman zizkigun Jaungoikuak sentiduak eta beste mienbro guztiyak?

E. Guztiyakin eta gauza guztiyeta bera serbitu gentzan.

Animaren potenziyak dira iru

Memoriya, zentzua eta borondatia.

G. Zertako eman zigun Jaungoikuak memoriya?

E. Akordatzeko artzaz eta aren mesede aundiyaz.

G. Zertako eman zigun zentzua?

E. Ezagutzeko gure Jauna eta argan pentsatzeko.

G. Zertako eman zigun borondatia?

E. Maita dezagun ontasunik aundiyana bezela eta projimua beragatik.

G. Eta zer gauza gure anima, zeñaren potenziyak diran auek?

E. Da espiritu akabera gabeko bat Jaungoikuak utsetik egiña bere irudira.

Espiritu Santubaren doaiak dira zazpi

Lenengua, jakinduriyako doia.

Bigarrena, zentzuko doia.

Irugarrena, konsejuko doia.

Laugarrena, jakiteko doia.

Bostgarrena, fortalezako doia.

Seigarrena, biyotz berako doia.

Zazpigarrena, Jaungoikuaren bildurtasunako doia.

Espiritu Santubaren frutubak dira amabi

Lenengua, karidadia.

Bigarrena, pakia.

Irugarrena, animaren firmetasuna.

Laugarrena, benignidadia.

Bostgarrena, fedia.

Seigarrena, kontinenziya.

Zazpigarrena, pazienziya.

Zortzigarrena, gozoa.

Bederatzigarrena, ontasuna.

Amargarrena, mansedunbria.

Amaikagarrena, modestia.

Amabigarrena, kastidadia.



Zorionak dira zortzi

Zorionekuak espirituz pobriak diranak, zergatik aiena dan zerubeta-ko erreinua.

Zorionekuak, mansuak, zergatik aiek izango diran lurran jabiak.

Zorionekuak negar egiten debena, zergatik aiek izango diran konsolatuak.

Zorionekuak justizian gose eta egarriya dutenak zergatik aiek izan diran asiak.

Zorionekuak biyotz berakuak, zergatik aiek iritxiko debena errukiya.

Zorionekuak biyotz garbikuak, zergatik aiek ikusi debena Jaungoikua.

Zorionekuak paketsuak, zergatik aiek izango diran deituak Jaungoikuaren semiak.

Zorionekuak, justiziagatik persekuzioya padezitzen debena, zergatik aiena dan zerubetako erreinua.

G. Zer esan ditugu orain?

E. Zortzi zorionak.

G. Zer gauza dira zortzi zorion auek?

E. Espiritu Santubaren birtute eta doaien obrarik onanak.

G. Zeintzuek dira espirituz pobriak?

E. Nai ez debena, beintzat amoriyoz, onra eta aberastasunik txikiyanik ere.

G. Zeintzuek dira mansuak?

E. Gorrotorik ez debena, eta ere kasi mobimenturik.

G. Nola eurgatuko debe lurra?

E. Euren buruban jabiak bezela.

G. Zeintzuek dira negar egiten debena?

E. Utzitzen ditubena atseginiak txikiyanak ere.

G. Zeintzuek dira justizian gose eta egarriya dutenak?

E. Gauza guztietan beren obligazioya zintzo egiten debena.

G. Zeintzuek dira biyotz berakuak?

E. Erbestekuakin erruki asko debena.

G. Zeintzuek dira biyotz garbikuak?

E. Euren pasiyo guztietan mortifikatzen diranak.

G. Zeintzuek dira pakeosuak?

E. Pakia egintzalliak beregan eta besteretan.

G. Zeintzuek dira justiziagatik persekuzioya padezitzen debena?

E. Gauza guztietan firme daurenak, naiz persegituak izan.

G. Zergatik deitzen zaizkate auei zorionak?

E. Zergatik aetan daguan bizitza onetako zoriona eta besteko esperantza.

G. Zenbait dira azken fiñak?

E. Lau: eriyotza, juizioya, infernuba eta gloriya.

G. Zer da gloriya?

E. Guztiz egoera on bat, zeñian dauren ondasun guztiyak batere gaitzik senti gabe; ala nola infernuban dauren gaitz guztiyak batere onik probatu gabe.

G. Eta onetatik libratu eta ura iristeko zer egin biar degu?

E. Gorde mandamentubak.

G. Eta aldira bide artarakoren batzuek errasago gorde daiskegun auek, eta aietara ez utsik egiteko?

E. Bai jauna.

G. Zeintzuek dira?

E. Sakramentu Santubak sarri artzia, goizetik Jaungoikuari obra onak eskeintzia, egunero meza entzuta, eta Birjiña Santisimari errosarioya errezatzia; leitzia liburu Jaungoikozkuak; gauetan konzienziyako esamiña egitia; eta asko ditubela batek esateko, autatu konfessore jakintsu, birtuoso eta prudente bat, eta sujetatu guztian aregana.

M. Ondo esaten dezu, zergatik konfessore on bat autatzia S. Franziskok de Salesek diyon bezela adbertenziyan adbertenziya. Egin bada zuek onela, bada au izango zatzute aingeru bat bezela, giyatuko zaituztena, erakutsiaz auek eta beste bideak, zuzen zoasten mandamentuben bide txiorretatik, eta allega zaitezten Jaungoikua gloriyan ikustera, zer dan akabera zenetarako izan giñan ezerezetik egiñak.

G. Jaungoikuak eraman gaitzala guztiyok ara, Amen.

Ni pekataria euskeras

Ni pekatariya konfesatzen nazaio Jaungoiko guztiya aldezakianari, zorioneko beti Birjiña Mariyari, Zorioneko S. Migel Aingerubari, S. Juan Bautistari; S. Pedro eta S. Pablo apostolu Santubai, Santu guztiyai; eta zuri Aita, pekatu egin dulako pisuro pensamentu, itz eta obrakin, nere kulpaz, nere kulpaz, nere kulpaz guztiz aundiyaz; orregatik erregutzen diyot zorioneko Mariya beti Birjiñari; S. Migel aingeru zorionekuari, S. Juan Bautistari; S. Pedro eta S. Pablo Apostolu Santubai, Santu guztiyai; eta zuri Aita espiritala erregutu zazutela nigatik Jaungoiko gure Jaunari Amen.

Akto kontriziyozkoa

Nere Jesukristo Jauna Jaungoiko eta gizon egiazkua, nere kriadoria eta erredentoria, zu zerana izanagatik, eta zergatik maite zaituan gauza



guztiyen gañian, damu det biyotz guztitik zu ofendituba, eta artzen det asmo firmia ez geiago pekatu egiteko, konfesatzeko eta kunplitzeko ematen zairan penitenziya, apartatzeko zu ofenditzeko okasiyo guztitik; ofrezitzen dizut nere bizitza, obra eta nekiak nere pekatu guztiyen satisfaziorako, eta daukat konfianza zure ontasun eta erruki akabera gabea, barkatu diazula zure odol guztiz prezioso, pasiyo eta eriyotzaren merezi-mentubakgatik, eta emango diazula graziya enmendatzeko eta irauteko zure serbiziyo Santuban nere biziyaren akaberaraño. Amen.

Oraziyo laburra

Eskeñtzeko goizetik obra guztiyak Jaungoikuaren onra ta gloriyara. Nik ematen dizut ezkerak, nere Jaungoikua, zure esku emalletik artu dituan onegiñ guztiakgatik, eta batezere utzi diazulako gaurko egun au iristen, zeñian eskeñtzen dizut zure onra eta gloriyara, nere pensamentu itz eta obra guztiyak Jesukristoren odol eta merezimentubakin eta artzen det asmo firme bat ez zu ofenditzeko zure graziyaren mediyoz. Sokorritu bada, Jauna, zure laguntzakin onela egiteko Jesukristoren merezimentubakgatik, Ama guztiz Santarenakgatik, eta Santu guztiyenakgatik Amen.

AKABERA

DOKTRINA KRISTIANA BILLAFRANKAKO ESKUERAN

Kristau fiel guztik
Dare obligaturik
Debozioa izatea
Biotz guztitik,
Jesus gure argin
Gurutze santukin
Nun ill nai izan zun
Gu ateratzeagaiti
Pekatum mendetik
Ta deabrun katiberiotik
Orreatik bada
Oitu bear zera
Ala ziñatzea
Nola Aitearen egitea
Iru gurutze egiñez
Lenengoa bekokin
Jainkok libra gaitzan
Pensamentu txarretatik
Bigarrena auan
Jainkok libra gaitzan
Itz gaiztotatik;
Irugarrena bularretan
Jainkok libra gaitzan
obra, eta deseio gaiztotatik
Onla esanez:
Gurutze + santuaren
señalea gaiti
gure + etsaietatik
libra gaitzatzu
gure Jauna ta Jainkoa
Aitearen, ta Semearen
ta Espiritu Santuaren
Izenen. Amen.



Kredoa

Sinisten det, Jainko Atha guztiz aldun zerun ta lurren kriadorea, ta aren seme bakar Jesukristo gure Jaunagan, zeñ sortu zan Espiritu Santuaren obraz ta graziz. Jaio zan Maria Birjiñandik, padezitu zun Ponzio Pilatoren aginten azpin, izan zan gurutzen josie, illa ta enterratue; jetxi zan infernutara; piztu zan illen artetik irugarren egunen; igo zan zerutara ta jarrita dago, Atha guztiz aldun eskubiko aldetik, andik etorriko da bizik ta illak juzgatzer. Sinisten Espiritu Santun, Eliz Ama Santa Katolikan, santun komunioa, pekatun barkazioa, aragin erresurrezioa ta bizitza sekulakoa. Amen.

Artikulo fedekok dire amalau

Lenengo zazpirek tokatzen zaio Jainkotasunari; ta beste zazpirek gure Jaun Jainko ta gizon egiazkon umanidade santuri.

Jainkotasunari tokatzen zaionak dire zazpi ok.

Lenengoa sinistea Jainko guztiz aldun bakar batagan.

Bigarrena sinistea Atha dala.

Irugarrena sinistea Semea dala.

Laugarrena sinistea Espiritu Santue dala.

Bostgarrena sinistea Kriadorea dala.

Seigarrena sinistea Salbadorea dala.

Zazpigarrena sinistea glorifikadorea dala.

Humanidade Santuri tokatzen zaionak dire ok.

Lenengoa sinistea Jesukristo gure Jauna gizona dan partetik izan zala sortue Espiritu Santuaren obraz ta graziz.

Bigarrena sinistea jaio zala Santa Maria Birjiñandik, Birjiña geatzen zala, jaio baño len, jaiotzen ta jaio ezker.

Irugarrena sinistea errezebitu zitula eriotza ta pasioa gu pekatariok salbatzeagaiti.

Laugarrena sinistea jetxi zala infernutara, ta bere etorrera santuri itxoten zeren Guraso Santun animak libratu zitula.

Bostgarrena sinistea piztu zala illen artetik irugarren egunen.

Seigarrena sinistea igo zala zerutara, eta dagola jarrita Jainko Atha guztin (sic) aldun eskubiko aldetik.

Zazpigarrena sinistea etorriko dala bizik ta illak juzgatzea, esan nai da, onai glorie emateko aren mandamentuk gorde zituelako, ta gaiztoai sekulako pena gorde ez zituelako.

Atha Gurea

Atha gurea, zerutan zarena, santifikatue izan bedi zure izena, betor gugana zure erreinue; egin bedi zure borondatea ala zerun nola lurren. Emaiguzu gure eguneoko ogie, eta barkaiguzu gure zorrak, guk gure zordunai barkatzen diegun bezela, ta ez gaitzatu utzi tentazion erorten baizik libra gaitzatu gaitzetik Amen. Abe Maria graziz betea Jauna da zurekin, beinkatue zera zu andre guztin arten ta beinkatue da zure sabeleko frutue Jesus. Santa Maria Jainkon Ama, erregutu zazu pekatorioegaiti oaiñ ta beti gure eriotzako ordun. Amen.

Salbea

Jainkok salba zaitzala erregiña miserikordizko Ama, bizitza ta gozotasun, esperantza gurea. Jainkok salba zaitzala; zuri oska gare Ebaren ume desterratuk, zuri suspiratzen dizugu, llantuka ta negarrez negarrezko leku ontan. Ia bada, Andrea, gure bitartekoa, itxuli itzatu gugana zure begi miserikordiosoak, ta destierro onen ondoren erakutsi iguzu Jesus zure sabeleko frutu beinkatue! O biotz berakoa! O erruki dezuna! O Birjiña Maria gozoa! Erregutu zazu gugaiti Jainkon Ama Santa izan gaitezen dig-noak alkantatzeko gure Jesukristo Jaunaren promesak. Amen.

Jainkon legeko mandamentuk dire amar

Lenengo irurek tokatzen zaio Jainkon onrari ta beste zazpirek projimon protxuri.



Lenengoa Jainkoa amatzea gauza guztin gañen.
 Bigarrena juramentu alperrik ez egitea Aren santun gañen.
 Irugarrena atha ta Ama onratzea.
 Laugarrena jai egunak santifikatzea.
 Bostgarrena iñor ez iltzea.
 Seigarrena lujuriako pekatuak ez egitea.
 Zazpigarrena ez ostutzea.
 Zortzigarrena testimonio falsorik ez jasotzea, ta ez gezurrik esatea.
 Beatzigarrena besten andrarik ez deseatztea.
 Amargarrena beste ondasunik ez nai izatea.
 Amar mandamentu ok enzerraten dire bitan: serbitzean ta amatean Jainkoa gauza guztin gañen eta projimoa geu bezela. Amen.

Doktrina kristianen deklarazioa galdetzen ta erantzuten dala

GALDETZEN DET: Kristaue zera?
ERANTZUTEN DET: bai, Jainkon graziz.
P. Kristauen izen ori zeñeandik izan zendun?
R. Kristo gure Jaunagandik.
P. Zer esan nai du Kristauek?
R. Kriston gizona.
P. Zer aitzen dezu Kriston gizonagaiti?
R. Jesukriston fedea dun gizona, zeñek bataion artu zun, eta eskeñirik dago aren serbizio santura.
P. Zeiñ da Kristauen señailea?
R. Gurutze Santue.
P. Zeatik?
R. Zeatik dau Kristo gurutzen josin antza, nun erredimitu ginduzen.
P. Zenbait modutan kristauek egiten du señailea au?
R. Bitan.
P. Zein dire?
R. Ziñatzea, eta Santiguatzea.
P. Zer gauza da ziñatzea?
R. Egitea iru gurutze eskubiko eskuko beats lodikin. Lenengoa bekokin. Bigarrena auan. Irugarrena petxutan, itz egiten degula Jainko gure Jaunarekin.

R. Egin zazu nola?
R. Gurutze Santuaren + señailea gaiti. Gure + etsaietatik, libra gaitzatu + gure jauna ta Jainkoa.
P. Zeatik ziñatzen zera bekokin?
R. Jainkok libra gaitzan pensamentu txarretatik.
P. Zeatik auan?
P. Jainkok libra gaitzan itz gaitzotatik.
P. Zeatik petxutan?
P. Jainkok libra gaitzan obra ta deseo gaitzotatik.
P. Zer gauza da santiguatzea?
R. Egitea gurutze bat eskubiko eskuko bi beatzeiñ bekokiti petxurano ta eskerreko sorbaldi (sic) eskubikorano, otsegiten diola Trinitate txit santuri.
P. Egin zazu nola?
R. Aitearen, ta semearen + ta Espiritu Santuaren izenean Amen.
P. Noiz egin bear degu señailea au?
R. Obra onen bat asitzen degun guztin, ero arkitzen geanen premin, nezesidade ero peligran baten, batezere oiti jaikitzen, etxetik irtetzen, elizan sartzen, jatordun eta oira etziten.
P. Zeatik orremeste bider?
R. Zeatik beti ta toki guztitan gure etsaiek konbatitu ta persegitzen gaituen.
P. Zer etsai dire orik?
R. Mundue, demonioa ta aragie.
P. Bada gurutzek badu birtuterik etsai orin kontra?
R. Bai jauna.
P. Nundik du gurutzek birtute ori?
R. Kristok an bentzitu zitulako bere eriotzekin.
P. Gurutzea adoraten dezunen nola esaten dezu?
R. Adoratzen ta beinkatzen zaitugu Kristo zure gurutze santukin mundue libratu zendulako.

Doktrina kristianaren partizioa

R. Ikusi degu kristaue zerana, kristauen izena ta señaletik: Esaiezu oaiñ:
P. Zenbait gauza bear ditu jakin kristauek uso arrazoizkora datorrenen?
R. Lau gauza.
P. Zein dire?



R. Jakitea zer sinistu bear dun, zer orazio egin beardun, zer obratu bear dun ta zer errezibitu bear dun.

P. Nola jakingo du zer sinistu bear dun?

R. Jakiñarekin kredoa ero artikulu fedekok.

P. Nola jakingo du zer orazio egin bear dun?

R. Jakiñarekin Atha gurea ta elizako beste oraziok.

P. Nola jakingo du zer obratu bear dun?

R. Jakiñarekin Jainko legeko mandamentuk, Elizama Santarenak ta obra miserikordiozok.

P. Nola jakingo du zer errezibitu bear dun?

R. Jakiñarekin Elizama Santaren Sakramentuk.

Doktrina kristianaren lenengo partea nun aitueraiten ditun kredoa ta artikulu fedekok

P. Esazu: nork esan zun Kredoa?

R. Apostoluk.

P. Zertako?

R. Guri fedeko gauzak erakusteko.

P. Ta zuk zertako esaten dezu?

R. Kristauek degun fede au aitortzeko.

P. Zer gauza da fedea?

R. Ikusi ez genduna sinistea.

P. Ikusi zendun Jesukristo jaiotzen?

R. Ez jauna.

P. Ikusi zendun iltzen ero zerura igotzen?

R. Ez jauna.

P. Sinisten dezu?

R. Bai sinisten det.

P. Zeatik sinisten dezu?

R. Zeatik gure Jainko Jaunak ala errebelatu zun, ta Elizama Santak onla erakusten digun.

P. Zer gauza dire Kristaue bezela dituzunak eta sinisten dituzunak?

R. Elizama Santa Erromakok dauzkenak eta sinisten ditunak.

P. Zer dire zuk ta Elizama Santa Erromakok dezuena ta sinisten dezuena?

R. Artikulu fedekok kredon daren bezela.

P. Zer dire artikulu fedekok?

R. Gure fedeko misterio prinzipalanak.

P. Zertako dire artikulu fedekok?

R. Emateko berri gure Jainko ta Jesukristo gure Erredentorena.

P. Nor da Jainkoa?

R. Da gauza bat esan ta pensatu alditeken aundina ta arrigarrina, jaun bat aitzen bagerik ona, guztiz alduna, jakintsue, justoa, ta gauza guztin asiera ta akabera.

P. Trinitate Santisima nor da?

R. Da Jauna bera, Atha, Semea ta Espiritu Santue, iru persona diferentek ta Jainko egizko bat bakarra.

P. Atha Jainkoa da?

R. Bai jauna.

P. Semea Jainkoa da?

R. Bai jauna.

P. Espiritu Santue Jainkoa da?

R. Bai jauna.

P. Iru Jainko dire?

R. Ez jauna, baizik Jainko egizko bat bakarra.

P. Atha Semea da?

R. Ez jauna.

P. Espiritu Santue Atha ero Semea da?

R. Ez jauna.

P. Zeatik?

R. Zeatik diren persona diferentek, naiz izan Jainko egizko bat bakarra.

P. Beraz, orla, zenbait naturaleza, entendimentu ta borondate arkitzen dire Kristogan?

R. Naturaleza bat, entendimentu bat ta borondate bat.

P. Ta zenbait persona?

R. Iru diferentek, zein diren Atha, Semea ta Espiritu Santue.

P. Nola da Jainkoa guztie alduna?

R. Bere nai izatekin bakarrik erozeiñ gauza egiten dulako.

P. Nola da kriadorea?

R. Zeatik ezerezetik egin zitun gauza guztik.

P. Jainkok zertarako egin zun gizona?

R. Hura mundu ontan serbitzeko ta gero beti zerun gozatzeko.

P. Nola da salbadorea?

R. Zeatik ematen dun grazie ta barkatzen ditun pekatuk.



- P. Nola da glorifikadorea?
- R. Zeatik bere grazin dirauenari ematen dion glorie.
- P. Jainkok badu gorputzen antzik guk bezela?
- R. Jainkoa dan partetik, zeatik dan Espiritu purue baño gizona dan partetik bai.
- P. Iru persona Jainkozkatatik nor egin zan gizon?
- R. Bigarrena, zeña dan Semea.
- P. Atha egin zan gizon?
- R. Ez jauna.
- P. Espiritu Santue egin zan gizon?
- R. Ez jauna.
- P. Zeiñ bada?
- R. Semea bakarrik, zeñi gizon egiñik Jesukristo deitzen. Beraz orla, nor da Jesukristo?
- R. Da Jainko bizin semea, gizon egin zana gu erredimitzeagaiti eta aren antzera bizitzen erakusteagaiti.
- P. Ta zenbait naturaleza, borondate ta entendimentu arkitzen dire Kristogan?
- R. Bi naturaleza, bat Jainkozkoa ta bestea gizezkoa; bi borondate, Jainkozkoa bat ta gizezkoa bestea; ta bi entendimentu, bat Jainkozkoa ta bestea gizezkoa.
- P. Ta zenbait persona ta memori?
- R. Persona bakar bat Jainkoa dan partetik, zeña dan Trinitate Santisimako Bigarren persona, ta memori bakar bat gizona dan partetik, zeatik Jainkoa dan partetik ez du memoririk.
- P. Zer esan nai du Jesusek?
- R. Salbadorea.
- P. Zertatik salbatu ginduzen?
- R. Gure pekatutik ta demonion mendetik.
- P. Kristok zer esan nai du?
- R. Untatue.
- P. Zertaz izan zan untatue?
- R. Espiritu Santuaren graziz ta doiez.
- P. Kristo gure Jauna nola sortu ta jaio zan Ama Birjiñandik?
- R. Obratzen zula Jainkok gure gañetik ta milagro.
- P. Zeatik diozu gure gañetik ta milagro?
- R. Zeatik Jesukristo etzan sortu ta ez ere jaio beste gizonak bezela.
- P. Bada nola izan zan aren sortze misterioa?

R. Maria Birjiñaren entrañatan formatu zun Espiritu Santuk Andre onen txit odol garbitik gorputz bat txit perfetoa, ezerezetik egin zun anima bat eta unitu zion gorputz ari, ta ordun bertantxe gorputz ta anima oki unitu zitzairen Jainkon semea, ta modu ontan len Jainko bakarrik zana egin gizon Jainkotasuna utzi bage.

P. Ta nola milagro z jaio zan?

R. Maria txit Santaren sabeletik irtetzen zula bere birjiñatasunaren kalte bage, kristal batetik eguzkin erreñue sartzen dan bezela hura ausi ta zikindu bage.

P. Ta bere Ama gero beti bizi izan zan Birjiña?

R. Beti jauna.

P. Kristok zeatik nai izan zun ill gurutzen?

R. Gu pekatutik ta eriotzatik libratzeagaiti.

P. Nola bada artan erori ginden?

R. Gure lenengo Adan Athak pekatu eginzulako, zeñegan guztiok egin gendun pekatu.

P. Zer aitzen dezu Kristo gure Jauna ill ta jetxi zan infernugatik?

R. Ez kondenatun lekura, baizik anima dontsuk zeren lekura.

P. Zer bada infernu bat baño geigo? Bai Jauna, lau dire lurren erdin, ta deitzen zaie kondenatun infernue, purgatorioa, umen linboa, ta Abraanen senoa.

P. Ta zer gauza dire?

R. Kondenatun infernue da lekue (ero tokie), zeñetara juten diren pekatu mortalen iltzen direnak, an izateko beti oñazatuk. Purgatorioa da lekue, zeñetan juten diren Jainkon grazin iltzen direnan animak, euren pekatun zorrak oso pagatu bage an izateko purgatuk oñaza aundikin. Umen linboa da lekue, zeñetara juten diren uso arrazoizkora allegatu baño len bautizatu bage iltzen direnan animak; ta Abraanen senoa da lekue, zeñetara juten ziren gizonan erredenzioa egin arte Jainkon grazin iltzen zirenan animak, oso purgatu ta gero; ta Jesukristo bera artara jetxi zan egiaz.

P. Nola jetxi zan?

R. Anima Jainkotasunari uniturik.

P. Ta gorputze nola gelditu zan?

R. Bere Jainkotasunarekin uniturik.

P. Nola piztu zan irugarren egunen?

R. Berriz juntatzen zirela bere gorputz ta anima glorioso iañoiz ere ez berriz iltzeko.

P. Nola igo zun zerutara?



- R. Bere birtutez.
- P. Zer da jarrita egotea Atha Jainkon eskubiko aldetik?
- R. Izatea Athak ainbe glori Jainkoa dan partetik, eta erozeñek baño geigo gizona dan partetik.
- P. Noiz etorriko da bizik ta illak juzgatzea?
- R. Mundun akaberan.
- P. Ta ordun ill guztik piztuko dire?
- R. Bai jauna, lengo gorputz ta animakin berakin.
- P. Ta mundun akaberea baño lenago gizonak izango dire juzgatuk?
- R. Bai jauna, Jaunak juzgatuko ditu guztik euren bizin akaberan, onai betiko Jainkoa gozatzea zerun, ta gaiztoai betiko oñazak padezitzea zerun.
- P. Zer sinisten dezu sinisten det Santun Komunioa esaten dezunen?
- R. Kristau fielak duela parte besten animen ondasunetan gorputz baten mienbrok bezela, zeña dan Eliza.
- P. Zer da Eliza?
- R. Da kristau fielan kongregazioa, zeñien burue dan Atha Santue.
- P. Nor da Atha Santue?
- R. Da Erromako Abade nausie, zeñi guztiok garen obligaturik obe-dezitzea.
- P. Kredok ta artikuluz gañera sinisten dezu besterik?
- R. Bai jauna Eskritura Santan dagon guztie ta Jainkok Elizari erre-belatu dion guztie.
- P. Zer gauza dire ok?
- R. Ori ez niri galdetu, bada ezdakit, baditu Elizama Santak doktorek jakingo duenak erantzuten.
- M. Ondo diozu; jakintsuei dagokie fede santuko gauza guztin kontue ematea, ta ez zuri; zuei asko zatzue ematea artikulunak Kredon daren bezela.

Doktrina Kristianaren bigarren partea nun aitzea ematen dan zer eskatu bear dan

Ta Elizama Santaren oraziok. Ikusi degu nola dakizun sinistu bear dezuna, zeña dan lenengoa; bigarrenera gatzelarik zeña dan eskatu bear dana.

- P. Esan zazu: nor esan zun Atha Gurea?

- R. Jesukristok.

- P. Zertako?

- R. Guri orazioa egiten erakusteko.

- P. Zer gauza da orazioa egitea?

- R. Da jasotzea biotza Jainkogana, ta eskatzea mesedek.

- P. Zenbait moduta da orazioa?

- R. Bitara: auskoa ta entendimentuzkoa.

- P. Zer da entendimentuzkoa?

R. Da animen potentziak ibilliz egiten dana, akordatzen geala memoriakin gauza onen batez, pensatzen ta diskurrizten degula entendimentuakin aren gañen, eta borondatekin egiten ditula amoriozko obra batzuk, nola dan pekatun damutasuna, ero beste buruz bide on batzuk nola diren konfesatzea ta bizitza mudatzea.

- P. Zer da auskoa?

R. Da itzek esanez egiten deguna, p.e. Atha gurea errezatzen degunen egiten deguna.

- P. Ta nola egin bear da orazioa?

- R. Atenzio, umiltasun, konfianza ta irauntasunarekin.

- P. Atha gurea esaten dezunen nokin itz egiten dezu?

- R. Jainko gure Jaunarekin.

- P. Nun dago Jainko gure Jauna?

R. Leku guztin, batezere Zerutan ta Aldareko Sakramentu txit Santun.

- P. Ta Kristo gizona partetik nun dago?

- R. Zerun ta aldareko Sakramentu txit Santun bakarrik.

- P. Zein da oraziotan onana?

- R. Atha Gurea.

- P. Zeatik?

- R. Zeatik Apostoluk eskatuta esan zun Jesukristok bere auti.

- P. Zeatik geigo?

- R. Zeatik dauzken zazpi eskabide karidade guztin fundatzen direnak.

- P. Zein dire?

- R. Lenengoa da Santifikatue izan bedi zure izena.

- P. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

- R. Jainkon izena izan deilla ezagutue ta onratue mundu guztin.

- P. Zein da bigarrena?

- R. Betor gugana zure erreinue.

- P. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?



R. Jainkok erreinatu dezala gure animatan emen lurren grazikin, eta gero eman dizagula glorie.

P. Zein da irugarrena?

R. Egin bedi zure borondatea ala zerun nola lurren.

P. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

R. Jainkon borondatea egin dezagula lurren garenak, zorionekok zerun egiten duen bezela.

P. Zein da laugarrena?

R. Emaiguzu eguneoko ogie.

P. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

R. Jainkok eman deigula gorputzarentzat konbeni zaigun janarie, animarentzat grazie ta sakramentue.

P. Zein da bostgarrena?

R. Barkaiguzu gure zorrak gure zordunai barkatzen diegun bezela.

P. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

R. Barka deigula Jainkok gure pekatuk, gure barkatzen diegun bezela, kalte ta gaizki egin digenai.

P. Zein da seigarrena?

R. Ez gaitzatzula utzi tentazio erortzen.

P. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

R. Ez deigula utzi Jainkok erortzen, ta pensamentu ta tentazio gaiztoai leku ematen, zeñetan deabruk prokuratzen dun gu pekatun eroitzea.

P. Zein da zazpigarrena?

R. Baizik libra gaitzatzu gaitzetik.

P. Zer eskatzen dezu eskabide ortan?

R. Libra gaitzala Jainkok anima ta gorputzeko gaitz ta peligro guztitatik.

P. Bada zeatik esaten dezu lenengo Atha gurea zerutan zarena?

R. Jasotzeko biotza Jainkogana ta eskatzeko mesedeak umiltasun ta konfiantzak.

P. Zer esan nai du arako azkenen esaten dezun itz Amen ark?

R. Ala izan deilla.

P. Zer orazio esaten diozu batezere gure Ama Birjiñari?

R. Abe Maria ta Salbea.

P. Nork esan zun Abe Maria?

R. Aingeru S. Gabrielelek gure Señora Maria Birjiñari diosala egitea etorri zanen.

P. Nor esan zun Salbea?

R. Elizama Santak, zeñen dauken arturik.

P. Zertako?

R. Mesedeak eskatzeko gure Señorari.

P. Abe Maria ero Salbea esaten dezunen zeñekin itz egiten dezu?

R. Gure Señora Maria Birjiñarekin.

P. Nor da gure Señora Maria Birjiña?

R. Da birtutez betetako andre bat, zeña dan Jainkon Ama ta dago zerun.

P. Ta aldarean dagona nor da?

R. Da zerun dagonaren antz bat.

P. Ta zertako dago an?

R. Hura ikusita akorda gaitezen zerun dagonaz, ta bere itxurakoa dalako erreberenziatu dezagun.

P. Bada igual egin bear diezue beste santun imajiña ta errekiei. Santuai ta aingeruai ere orazio egin bear diegu?

R. Bai jauna, gure bitartekoai bezela.

P. Zer gauza dire Aingeruk?

R. Dire zorioneko espiritu batzuk zerun darenak Jainkoa gozatzen.

P. Zertako kriatu zitun gure Jaunak?

R. Beti alabatu ta beinkatu dezen.

P. Zertako geigo?

R. Aren ministrok bezela goberna dezaten Elizea ta gorde gizonak.

P. Beraz badezu zuke Aingeru guardakoa?

R. Bai dauket eta gizon bakoitzek dauke berea.

M. Bada izaiozu debozio asko ta enkomendatu berari egunero.

Doktrina kristianaren irugarren parte

Nun aitzea ematen dan zer obratu bear dan. Ikusi degu zer sinistu ta zer orazio egin bear dezun, ikusi dezagun nola dakizun zer obratu bear dezun. Esan zazu:

P. Zein da Jainkon legeko lenengo mandamentue?

R. Amatzea Jainkoa gauza guztin gañen.

P. Nork amatzen du Jainkoa?

R. Aren mandamentu santuk gordetzen ditunak.

P. Zer da Jainkoa amatzea gauza guztin gañen?

R. Naiago izatea galdu gauza guztik hura ofenditu baño.



- P. Zertara geigo obligatzen du mandamentu onek?
- R. Jainkoa bakarrik adoratzea gorputzeko ta animako erreberenzia guztiakin, sinisten ta esperatzen degula beragan fede osokin.
- P. Nork egiten du pekatu onen kontra?
- R. Idolotan ero Jainko falsotan adoratu ero sinisten dunak; feden kontra gauzan bat sinistu ero alabatzen dunak bere misterio baten, ero ez dakizkinak premizkok; obligatue dagonen egiten ez ditunak fede, esperantza ta karidadeko aktok, ero deskonfiatzen dunak Jainkon errukitasunen, ero artzen ez dunak bear bezela sakramentun bat.
- P. Nork geigo?
- R. Astikeritan ero sorginkeritan sinisten dunak.
- P. Zein da bigarrena?
- R. Juramentu alperrik ez egitea aren izen Santuz.
- P. Nork egiten du juramentu alperra?
- R. Juramentu egiten dunak egie bage, justizie bage ta premie bage.
- P. Zer da juramentu egitea egie bage?
- R. Sentitzen dudan kontra ero gezurrekin juramentu egitea.
- P. Ta zer pekatu egiten du egie bage juramentu egiten dunak, ero egie ote dan dudan?
- R. Txit mortala, naiz juramentue izan deilla gauza ariñen gañen. Zer da juramentu egitea justizie bage?
- R. Juramentu egitea bidebageko gauza bat ta txarran gañen, projimori gaitzen bat egitea bezela.
- P. Ta justizie bage juramentu egiten dunak zer pekatu egiten du?
- R. Txit mortala, baldin bidebageko gauza pisue bada, ta beniala ariñe bada.
- P. Zer da premirik bage juramentu egitea?
- R. Juramentu egitea kausa aundi bage, ero gauza gutxigaiti.
- P. Zer pekatu da au?
- R. Ariñe, egiri, justiziri ta juramenturi ezpadio faltatzen.
- P. Ta juramentu, boto ero promesa egiten dunak gauza on bat egiteko, hura kunplitzea obligatue dago?
- R. Bai jauna, ta ez kunplitzea ero asko beandutzea pekatu mortala da gauza pisue bada.
- P. Ta pekatu da juramentu egitea kriaturak gaiti?
- R. Bai jauna, atan juramentu egiten zaiolako Kriadoreari.
- P. Nola juramentu egiten da kriaturak gaiti?
- R. Esaten dala p.e. neren animengaiti, zerungaiti, lurrengaiti, etc. au ala izan deilla.

- P. Zer erremedio dago ez egiteko juramentu alperrik?
- R. Bai ero ez esaten oitzea Kristok erakusten digun bezela.
- P. Ta mandamentu ontan debetzen da beste gauzan bat?
- R. Bai jauna, blasfemiare debekatzen da, zeña dan esatea bidebageko itzek Jainkon ta aren santun kontra, zeña dan pekatu mortala.
- P. Zein da irugarrena?
- R. Jai egunak santifikatzea.
- P. Nork santifikatzen ditu jaiak?
- R. Meza osoa entzuten dunak, ta atan premie bage lanik egiten ez dunak.
- P. Ta zer pekatu egiten du jaietan premie bage lan egiten dunak?
- R. Pekatut mortala bi ordu baño geigon lan egiten badu, eta geienen beniala gutxigo egiten badu.
- P. Zein da laugarrena?
- R. Atha ta ama onratzea.
- P. Nork onratzen ditu gurasok?
- R. Obeditzen, laguntzen ta erreberenziatzen dituenak.
- P. Zeintzuk egiten due pekatu mortala onen kontra?
- R. Gurasoai obeditzen ez dien semek etxeko gobiernori dagokien gauzatan ta oitura onetan; euren premitan laguntzen ez dituenak; gaizki esan, burla egin ero eskue jasotzen dienak; ta eskontzea tratatzen duenak an bendizio ta konseju bage.
- P. Zeiñ besterik aitzen da gurasotzat?
- R. Aundigok, edaden, dinidaden ta gobiernon.
- P. Ta mandamentu ontan aitzen dire semek gurasokin dituen baño obligazio geigo?
- R. Bai jauna, nagusinak bere mendekokin, ta gurasonak beren seme-kin.
- P. Ta zein dire ok?
- R. Jaten eman, erakutsi, korrejitu, ejemplo ona eman ta aldezen bizimodurik obena denpora danen.
- P. Ta ontan faltatzen duenak, zer pekatu egiten due?
- R. Geienen mortala. Zein da bostgarrena?
- R. Ez iltzea.
- P. Zer agintzen da mandamentu ontan?
- R. Ez iñori gaitzik egitea, ez egitez, ez itzez ta ez deseoz.
- P. Ta nork egiten du pekatu mandamentu onen kontra?
- R. Nork bere bururi ero bere projimori deseaten dionak eriotza ero beste gaitz aundin bat, ero gorrotoa daukenak; besteik jo, eritu ero iltzen



dunak, moskortzen danak, osasunen kalteko gauzak jaten ditunak, bere bizie peligran jarri ero kentzen dunak, ero nork bere bururi ero besteri maldezioa botatzen dionak.

P. Zer da maldezioa botatzea?

R. Da batek beretzat ero besterentzat gaitzen bat eskatzea, or eroriko altzea illa esanez bezela.

P. Ta maldezioa botatzea, zer pekatu da?

R. Gaitz aundin deseokin baldin bada pekatu mortala.

P. Ta olako deseo bage bada?

R. Beniala, baño ez beti.

P. Bada zeintzuk pekatu mortala egiten due olako deseo bage maldezioa botaz?

R. Mendekoa aurreti maldezioa botatzen duen gurasok ta nagusigok, ta botatzeko kostunbrea duenak hura kentzeko alegiña egiten ez duenak.

P. Ta zeatik ola?

R. Zeatik bere ejemplo ta esan txarrakin artaratzen dituen bestek Jainkoa ofenditzea gauza pisun, zeñari deitzen zaion eskandaloa.

P. Zein da seigarrena?

R. Lujuriako pekatu ez egitea.

P. Zer agintzen da mandamentu ontan?

R. Izan gaitzela garbik ta kastok pensamentu, itz ta obratan.

P. Zeintzuk egiten due pekatu mortala mandamentu onen kontra?

R. Jakiñen gañen gozatzen direnak pensamentu zikiñetan, naiz ez jarri ta ez deseo jartzea obraz, gauza torpek esan ta kantatzen dituenak gustoz, ta nork berakin ero bestekin izaten ditunak egin bide desonestok ero deseaten dituenak izatea.

P. Zein da zazpigarrena?

R. Ez ostutzea.

R. Zer agintzen da mandamentu ontan?

R. Ez kentzea, ez eukitzea, ta ez nai izatea bestenik jaben borondaten kontra.

P. Zeintzuk egiten pekatu mortala mandamentu onen kontra?

R. Otako erozein gauza egiten dituenak, ero beste modun baten kalte egiten dionak projimori bere ondasunetan gauza pisun.

P. Ta ontan kalte egiten dioenak, projimori erozeiñ moduz dala, geatzten dire obligazion batekin?

R. Geatzten dire obligazio aundikin biurtzeko ta pagatzeko len baño len egin dioen kalte guztik.

P. Zeiñ da zortzigarrena?

R. Testimonio falsorik ez jasotzea ta ez gezurrik esatea.

P. Zer agintzen da mandamentu ontan?

R. Ez aburo juzgatzea, (au da motibo ta fundamentu bage) projimongaitzik, ta ez esan ta aitua aren faltak.

P. Nork ausitzen du mandamentu au?

R. Arrazoian kontra juzgatzen dunak, (au da, artarako fundamenturik asko bage) fama kentzen dunak, gauza isilla agertu ta gezurre esaten dunak.

P. Ta projimori fama kentzen dionak gauza pisun, areati faltan bat falsoa ero egizkoa esanaz, baño isillik zegona, ero botatuz arpegira bere faltak, geatzten da obligazion batekin?

R. Geatzten da kendu dion onra ta fama biurtzeko obligaziokin.

P. Zer erautzitzen da beatzigarren ta amargarren mandamentun?

R. Desonestidade ta ondasunen deseok.

Esaitzatu Elizama Santaren mandamentuk

Elizama Santarem Mandamentuk dire bost.

Lenengoa meza osoa entzutea igande ta jai guztitan.

Bigarrena urten beñi gutxinaz konfesatzea, ero lenago eriotzakoa peligrorik esperatzen badu, ero komulgatu bear badu.

Irugarrena paskoa erresureziokotan komulgatzea.

Laugarrena Elizama Santak agintzen dunen barau egitea.

Bostgarrena amarrenak ta premizik Jainkon Elizari pagatzea.

P. Zertako dire mandamentu ok?

R. Obetogo gordetzeko Jainkon legekok.

P. Ta lenengoa, meza entzutea, zentzuei obligatzen die?

R. Uso arrazoizkoa duen bautizatu guztiai.

P. Ta nola entzun bear due?

R. Mezatan presente egoten direla atenziokin gauza espiritualen batera; meditatzen ero errezatzen deboziokin. Ta legez erautsi bage dagon ark entzuten ez badu, ero meza guztin ero parte seinalatun baten atenzio bage egoten bada, ero ez entzuteko peligran jartzen bada, zer pekatu egiten du?

R. Txit mortala. Ta bigarrena ta irugarrena konfesatzea ta komulgatzea, zeintzuei obligatzen die?

R. Uso arrazoizkoa duen kristau guztik obligatzen ditu pekatu mortal an azpin.

P. Ta sakrilejioz konfesatzen ta komulgatzen direnak kunplitzen due akin.



R. Inolare ez ta bi gauza otako bakoitzen bi pekatu mortal egiten ditue.

P. Ta baldin batek eriotzako peligronez ez badu konfessoreik, zer egin bear du?

R. Akto kontriziozko egizko bat, konfesatzeko asmokin.

P. Laugarrena barau egitea zeintzuei obligatzen die?

R. Ogeita bat urte kunplitu dituenai.

P. Ta nola barau egin bear da?

R. Janari debekaturik jan bage, ta eguerdin bakarrik janta.

P. Ta ontara faltatu bage artu litzeke goizeti zerbait?

R. Motibokin, urare ariña, artu litzeke ontza bat bezela.

P. Ta gauen?

R. Artu litzeke kolazion konzienzi oneko jenden arten usatzen dana, onen gañen dudarik badu galdetzen diolarik konfessore jakintsu bati.

P. Ta bear bezelako motibo bage barau egiten ez duenak, zer pekatu egiten due?

R. Pekatu mortala.

P. Ta aragie ez jateko agintzak barau egunetan ta gordetzetan, aragie ta arraie ez nastzeko jatordu baten, ta arrautzak ta esnejakik ez jateko garizuman baldin buldarik ez badu, zeintzuei obligatzen die?

R. Uso arrazoizkoa duen guztiai.

P. Ta gordetzen ez dituen ak, zer pekatu egiten due?

R. Txit mortala, egunen faltatzen duen bakoitzen.

Esaitzazu obra miserikordizkok

Obra miserikordizkok dire amalau.

Zazpi animeri ta zazpi gorputzeri tokatzen zaienak. Animeri tokatzen zaionak dire ok.

Lenengoa ez dakinari erakustea.

Bigarrena, beardunari konseju ona ematea.

Irugarrena, ezdakinari erakustea.

Laugarrena injuriak barkatzea.

Bostgarrena, triste dagona postutzea.

Seigarrena, gure projimon miserik ta argaltasunak pazienzikin eramatea.

Zazpigarrena, bizik ta illakgaiti Jainkori erregutzea.

Gorputzeri tokatzen zaionak dire ok.

Lenengoa, Gaixok bisitatzea.

Bigarrena, gosek dagonari jaten ematea.

Irugarrena, egarririk dagonari eraten ematea.

Laugarrena, kautibok erreskatatzea.

Bostgarrena, narrugorri dagona jantzitzea.

Seigarrena, peleginori ostaturik ematea.

Zazpigarrena, illak enterratzea.

P. Zeatik deitzen zaie miserikordizkok?

R. Zeatik ez diren zor justiziz.

P. Noiz obligatzen due agintzaz?

R. Gizon jakintsun ustez premi aundikok direnen.

P. Obra miserikordizko ta kristauek egiten ditun beste obra on batzuek gaiti naiz izan agintzazkok, naiz deboziozkok, zer logratzen du?

R. Jainkon grazin badago, mrezitu grazi ta glori geigo obra akgaiti, oso pagatu akin bere pekatuk gaiti, ta Jaunagandik iritxi ondasunak ala animarentzat nola gorputzarentzat konbeni bazaio.

P. Ta zeatik esaten dezu Jainkon grazin badago?

R. Zeatik pekatu mortalen daren atatik egindako obra onak ez diren merezimentuzkok ez ere satisfaziozkok baizik bakarrik erdietsik, an bitartez nolapait ere logratu leizke onegiñen batzuk Jaunagandik.

Laugarren partea

nun aitzia ematen dan errezibitu bear diren Sakramentuk

Ikusi degu nola dakizun zer sinistu, zer orazio egin ta zer obratu bear dezun; ikusi dezagun nola dakizun zer errezibitu bear dezun, zeña dan azkena: Esaitzazu Sakramentuk.

Elizama Santaren sakramentuk dire zazpi

Lenengo bostak dire premizkok, izatez ero borondatez, ok bage ezin salba diteke gizona menosprezioz utzitzen baditu, beste bik dire borondatezkok.

Lenengo, Bautismoa.

Bigarrena, Konfirmazioa.

Irugarrena, Penitentzia.

Laugarrena, Komunioa.



Bostgarrena, Estremaunzia.

Seigarrena, Ordena.

Zazpigarrena, Matrimonioa.

P. Zer gauza dire Sakramentuk?

R. Dire señale agiri batzuk Jesukristo gure Jaunandik egiñek, okgaiti guri emateko bere grazie ta birtutek.

P. Zer gauza da grazie?

R. Da Jainkozko izate bat, gizona egiten duna Jainkon Seme ta zerun jabe.

P. Ta nola deitzo grazi oni?

R. Santifikantea.

P. Ta bada beste moduko grazin bat orzaz gañera?

R. Badire beste batzuk deitzen diegunak egiñazkok, ero laguntzak ta biotz mogidak, ok bage ezin asi diteke, ez aurreratu ta ez ere akabatu gauza onik betiko bizitzarako. Ta zer dire ok?

R. Jainkok ematen digun laguntza batzuk, gaitzetik iges egin ta ondo obratzeko, Jainkok ematen digun argi batzuk gure entendimentuak argitzeko, ta deseo santu batzuk gure borondatea onerako mogitzeko.

P. Zer birtute ematen ditue Sakramentuk grazikin baten?

R. Batezere iru Teologalak ta Jainkozkok.

P. Zein dire?

R. Fedea, esperantza ta karidatea.

P. Zer gauza da fedea?

R. Sinistea ikusi ez genduna Jainkok ala erakutsi digulako.

P. Zer gauza da esperantza?

R. Esperatzea glorie Jainkon grazin ta gure obra onan medioz.

P. Zer gauza da karidatea?

R. Amatzea Jainkoa gauza guztin gañen, ta projimoa geuren burue bezela, izaten geala akin ak gurekin izatea nai degun bezela.

P. Zertako izan zan istituitua Bautismoko Sakramentue?

R. Kentzeko pekatu orijinala ta bautizatzen danagan arkitzen dan erozein.

P. Zer da pekatu orijinala?

R. Pekatu hura zeñekin jaiotzen geran guztiok jabeturik gure lenen-go gurasotatik.

P. Ta ustebageko premin nork bautiza lezake?

R. Erozein gizon ero emakume uso arrazoizkoa dunak.

P. Ta nola egin bear du?

R. Ur naturala botaz umen burun gañera, ta bautizatzeke intenzio-kin esanaz: nik bautizatzen zaitut Aitearen, ta Semearen ta Espiritu Santuaren izenen.

P. Zertako konfirmazioko Sakramentue?

R. Konfirmatzeko ta fuerte ipintzeko bautismon artu gendun feden.

P. Ta uso arrazoizkoa izanta, Sakramentu au artzen dunak pekatu mortalen, egiten du pekatu?

R. Txit mortala.

P. Bada zer egin bear du artuta ez pekatu egiteko?

R. Preparatu lenago konfesio on bat eginta.

P. Zertako da Penitenziko Sakramentue?

R. Bautizatu ezkeroko egindako pekatuk barkatzeko.

P. Zer pekatu dire ok?

R. Mortalak ta benialak.

P. Zer da pekatu mortala?

R. Da esatea, egitea, pensatzea ero nai izatea zerbait Jainkon legen kontra gauza pisun.

P. Zeatik deitzen zaio mortala?

R. Zeatik iltzen dun egiten dunaren animea.

P. Ta noiz artzen degu Penitenziko Sakramentue?

R. Ondo konfesatzen geranen ta asolbizioa artzen degunen.

P. Zer parte dauzke Penitenziko pekatu mortala kentzeko?

R. Iru.

P. Zein dire?

R. Biotzeko kontrizioa, auzko konfesioa ta obrazko satisfazioa.

P. Ta iru premizko gauza otan Sakramentu au artu nai dunen, besten batzuk sartzen dire?

R. Bai jauna, kontrizion sartzen da emendatzeko propositue ta konfesio konzienziko esamiña.

P. Beraz orla, zenbait gauza dire premizko Penitenziko Sakramentue errezibitzeko ero bat ondo konfesatzeko?

R. Bost, ta dire: konzienziko esamiña, biotzeko kontrizioa, emendatzeko propositue, auzko konfesioa ta obrazko satisfazioa.

P. Zer da konzienziko esamiña?

R. Da dilijenzi batzuk egitea konfesatu ez ditun pekatuk gogoratzeke, diskurritzen dularik Jainkon ta Elizako Mandamentutatik, zein tokitan ibilli dan ta zer egitekok izan ditun, bere gaiztakerik ezagutzeko Jainkori argie eskatuta gero.

P. Zenbait modutan da biotzeko kontrizioa?



R. Bitan, bat ona eta bestea ez aĭn ona, zeĭni deitzen zaion atrizioa.

P. Zer da kontrizioa?

R. Jainkoa ofenditutako damu bat, hura danagatik, au da izanagatik txit ona, konfesatzeko, emendatzeko ta penitentie kunplitzeko proposi-tukin.

P. Ta zer da atrizioa?

R. Jainkoa ofenditutako damu bat pekatun itsusitasunagaiti, ero infernun bildurregaiti, ero glorie galdu dulako, konfesatzeko etc.

P. Ta damu otan onana zein da?

R. Kontrizioa.

P. Ta zeatik?

R. Zeatik kontrizioa amoriotik dator ta atrizioa bildurretik; kontri-zioagaiti, konfesatu baĭno lenago barkatzen zaio pekatu mortalak bati, ta jartzen da Jainkon grazin; baĭno atrizioagaiti bakarrik ez dire iritxitzen ondasun ok. Ta ondo konfesatzeko batek asko du atrizioa ero izan bear du kontrizioa?

R. Jeneralmente esaten da asko dala atrizioa; baĭno ohea ta segurogoa da kontrizioa eramatea, ta au izatea egin bear du alegiĭna konfesatzen danak.

P. Ta noiz izan bear da damue?

R. Konfesorek penitentea pekatutik libratu baĭno lenago.

P. Zer gauza da propositue?

R. Asmo firme bat beĭnere ez Jainkoa ofenditzeko pisuro.

P. Zer da ausko konfesioa?

R. Da konfesoreri agertzea pekatu mortal guztik engaĭnu ta gezur bage penitentie kunplitzeko animokin.

P. Ta lotzaz isiltzen dunak pekatun bat, ero egin ez dun pisun bat konfesatzen dunak, ero bere konfesioa egiten dunak damu ero propositu bage, ero penitentie kunplitzeko animo bage, ondo konfesatzen da?

R. Ez jauna, sakrilejio pisu bat egiten du, ta geatzen da berriz konfesatzeko obligaziokin konfesatu zitun ta etzitun pekatuk, sakrilejioa egin zunakin.

P. Ta zein sinistu leike damu ta propositurik ez izana euren konfe-siotan?

R. Peligrotatik apartatzen ez direnak, ta konfesio bat ta besten ondo-ren pekatu atan bertan eroitzen direnak.

P. Ta mugitzeko bat damu ta propositu egizkoa eraztea, zer konbe-niko zaio egitea?

R. Konfesatzea allegatu baĭno lenago, eskatu Jaunari sokorri dezala bere laguntzakin; mediatu puska baten, Jaunak egin dion mesedetan, ero bere eriotza ta pasioan, ero bere borondaten, ta beĭni ero geiagotan esan akto kontriziozkoa.

P. Zer gauza da obrazko satisfazioa?

R. Da oso pagatzea Jainkori pekatukgaiti zor zaion denboraldiko penak konfesorek ipintako penitentie kunplitzen dula.

P. Ta zer pekatu egiten du penitentie kunplitzen ez dunak, ero kun-plitzen denbora asko pasatzen dunak?

R. Txit mortala, penitenti pisue izan ezkeru.

P. Ta Jainkori oso pagatu daiokegu denboraldiko penakgaiti, ipintzen zaigun penitenzikin bestekin?

R. Bai jauna, Jainkon grazin egindako obra jenero guztikin, ta indul-jenzik irabazten direla.

P. Ta zer gauza dire induljenzik?

R. Denboraldiko penakgaiti barkazioa ematen dan grazi batzuk, zein pagatu bear dan bizitza ontan ero besten.

P. Ta nola irabazi bear dire?

R. Grazin dagola egiten dula ontarako agintzen dana.

P. Ta bizitza ontan oso pagatu pagatu (sic) bage purgatoriora jun dien ak, sokorritu ta lagundu daizkegu?

R. Bai jauna, oso pagatu daizkegun obra akin berakin.

P. Ta batek pekatu mortalen eroitzen danen bereala bear du konfe-satu barka daikion?

R. Ondo izango litzeke baĭno ez da preziso.

P. Zer egin bear du bada?

R. Izan bere pekatun egizko damu bat, emendatzeko ta konfesatze-ko asmokin Elizama Santak agintzen dunen.

P. Zer gauza da pekatu beniala?

R. Da pekatu mortalán bide bat.

P. Zeatik deitzen zaio beniala?

R. Zeatik laister, au da erres gizona artan erortzen dan, ta erres bar-katzen zaion.

P. Zenbait gauzagaiti barkatzen zaio?

R. Beatzigaiti.

P. Zein dire?

R. Lenengoa, meza entzuteagaiti. Bigarrena, ni pektarie esateagaiti. Iruugarrena, komulgatzeagaiti. Laugarrena, Obispon bendizioagaiti. Bost-garrena, ur beinkatuegaiti. Seigarrena, ogi beinkatuegaiti. Zazpigarrena,



Atha gurea esateagaiti. Zortzigarrena, sermoia aitzeagaiti. Beatzigarrena, petxuko golpeagaiti Jainkori barkazioa eskatuz.

P. Zeatik esaten dezu, Jainkori barkazioa eskatuz?

R. Aitza emateko pekatu benialan barkazioa konsegitzeko izan bear degula damu aundi bat gauza okgaiti.

P. Pekatu benialak konfesatzea obligaturik gare?

R. Ez jauna, baño ona ta probetxosoa da.

P. Ta azkeneko konfesioa ezker benialak besterik ezditunari, zer konbeniko zaio egitea damu ta propositue segurutzeko?

R. Konfesatu ere, naiz konfesatu deilla, otatik lenagoko bizitzako pekatu mortalen bat.

P. Zertako da Sakramentu txit santu Komunioa?

R. Artzen degula bear dan disposiziokin izan deiñ gure animen mantenimentue ta geitu deigun grazie.

P. Zeatik diozue bear dan disposiziokin?

R. Aierazteko Sakramentu au ez dala izango gure animen mantenimentue ezpadegu artzen bear dan disposiziokin ala animen partetik nola gorputzenetik.

P. Bada zer disposizio premisko bear da animen partetik?

R. Jainkon grazin egotea.

P. Ta pekatu mortalen erori zanak, nola pronto jarri bear du komulgatzeko?

R. Konfesatuta.

P. Ta gorputzen partetik, zer disposizio izan bear da?

R. Allegatu (komunioa elizakokin ezpada) jan zarren, jan ta eran bage ezer ere aurreko gaueko amabik ezker.

P. Zer artzen dezue Sakramentu txit Santu komuniokon?

R. Kristo Jainko ta gizon egizkoa, zein dagon egiz Sakramentu txit santu aldarekon.

P. Au danez, zein dago ostin konsagratu ezker?

R. Jesukriston gorputze bere odol, anima ta Jainkotasunekin baten.

P. Ta kalizen?

R. Jesukriston odola, bere gorputz, anima ta Jainkotasunekin baten.

P. Au danez Jesukristo guztie dago ostin ta kalizen?

R. Jesukristo guztie dago ostia guztin, ta dana aren erozeñen partetan ta igual kalizen.

P. Ta konsagrazioa ezker ostin badago ogirik ero kalizen ardorik?

R. Ez jauna, baizik ogin ta ardon itxurak, nola usaie, kolorea ta gus-tua, etc.

P. Ta ostie partitzen bada ero dibiditzen bada kalizen dagona, partitzen ero dibiditzen da Jesukristo?

R. Ez Jauna, dana osoa geatzen da parte guztitan ta parte bakoitzen.

P. Ta komuniora esan diren disposiziok bage juten dienak ere errebitzen due Jesukristo?

R. Bai jauna, baño batere protxu bage, egiten dulako pekatu bat txit aundie.

P. Ta aprobetxatzen dien ai, esan danez gañera, zer konbeniko zaie egitea onegiñ aundigok konsegitzeko?

R. Kon sideratu Komulgatu baño lenago zein dan euretara datorren Jauna ta egin akto fedekoa, esperantzakoa ta Karidadekoa, ta artu umiltasun ta erreberenzi aundikin, eta gero eman grazie aiñ onegiñ aundiegaiti.

P. Zertako da Estrema-unzioko Sakramentue?

R. Iru gauzatarako.

P. Zein dire?

R. Lenengoa, lenagoko bizitza gaiztoko arrastok ta kutzuk kentzeko. Bigarrena, animari indarra emateko deabrun tentazion kontra. Irugarrena, gorputzeri osasuna konbeni bazaio.

P. Ta uso arrazoizkora allegatu direnak, ta gaixo peligronek darenak badue sakramentu au artzeko obligaziorik?

R. Bai jauna, ta egiten due pekatu bat txit mortala, alduela ezpadue artzen, ero artzen badue pekatu mortalen.

P. Bada zer egin bear du pekatu mortalen dagonak bear dan disposiziokin artzeko?

R. Konfesatu lenago, ta ezin badaike akto kontriziozko egizko bat egin.

P. Zertako da Ordenako Sakramentue?

R. Konsagratzeko ta ordenatzeko elizako ministro dignok nola diren abadek, diakonok ta sudiakonok.

P. Elizako ministrok izan bear due errespetatuk ta beneratuk batezere?

R. Bai jauna.

P. Zertako da Matrimonioko Sakramentue?

R. Eskontzeko ta eskonduai grazie emateko onekin bizi ditezen baken alkarren arten ta azi daizketen semek zerurako. Ta bear dan disposiziokin sakramentu au artzeko premizkoa da Jainkon grazin egotea eskontzen direnak?

R. Bai jauna, pekatu mortalan azpin.

P. Ta Jainkon grazin arkitzen ez direnak nola prestatu bear due?

R. Konfesatuta.



Pekatu kapitalak dire zazpi

Lenengoa, soberbie.

Bigarrena, abarizie.

Irugarrena, lujurie.

Laugarrena, ira.

Bostgarrena, gula.

Seigarrena, enbidie.

Zazpigarrena, nagitasuna.

P. Zeatik deitu ziozuen pekatu kapitalak zazpi geienen mortalak deitzen zaienai?

R. Deitzen zaie kapitalak, zeatik diren atatik jaiotzen diren beste bizon buruk, iturrik ta sustraiek bezela, ta mortalak deitzea ez dator aii ondo bada askotan ez dire benialak baizik.

P. Noiz dire mortalak?

R. Jainkon ta projimon karidaden kontra direnen.

P. Noiz dirade karidaden kontra?

R. Akgaiti ausitzen danen Jainkon ero Elizaren mandamentun bat gauza pisun.

P. Zer da soberbie?

R. Bestek baño geigo izateko nai aundi bat.

P. Zer da abarizie?

R. Deseo aundi bat.

P. Zer da lujurie?

R. Aragiñ gozotasun zikiñen deseo aundi bat.

P. Zer da ira?

R. Bengantzaren deseo gaizto bat.

P. Zer da gula?

R. Jateko ta erateko deseo geigi (sic) bat.

P. Zer da enbidie?

R. Besten onan damu bat.

P. Zer da nagitasuna?

R. Obra onak egiteko animon falta.

Zazpi bizio on kontra dire zazpi birtute

Soberbin kontra umildadea. Abarizin kontra emanaie. Iraren kontra pazienze. Gularen kontra tenplanza. Enbidin kontra Karidadea. Nagitasunen kontra eгинаie.

Animen etsaiek, zeñetatik iges egin bear degun dire iru

Lenengoa, da mundua.

Bigarrena, demonioa.

Irugarrena, aragie.

P. Zein da mundue?

R. Dire munduko gizon gaiztok ta biurrik.

P. Zein da demonioa?

R. Da aingeru bat, zein utsetik eginta Jainkon zerun, jaiki zalako bere kontra beste askokin, bota zun infernutara bere gaiztotasuneko lagunakin, zein deitzen diegun demoniok.

P. Zein da aragie?

R. Da gure gorputze bera, bere pasio ta inklinazio txarrakin.

P. Nola bentzitu ta iges egiten da munduegandik?

R. Au bentzitu ta iges egiten zaio despreziatzen direla onen ponpa ta banidadeak.

P. Nola bentzitu ta iges egiten da demonioagandik?

R. Oraziokin ta umiltasunekin.

P. Nola bentzitu ta iges egiten da aragiegandik?

R. Au bentzitu ta iges egiten zaio gorputzeko laztasun ta diziplina-kin; au da etsaierik aundina, zeatik aragie ezin bota daikegu gugandik, baño bai mundue ta demonioa.

Birtute teologalak dire iru

Lenengoa, fedea.

Bigarrena, esperantza.

Irugarrena, karidadea.

P. Nola ez diogu faltatuko birtute ok egiteko daukegun obligaziori?

R. Deboziokin ta askotan errezatuta (erozein kristauek egitea bide dan bezela) kredoa ta Atha gurea, ta biotzetik esaten dula akto kontriziozkoa. Birtute Kardinalak dire lau. Lenengoa, prudenzie. Bigarrena, justizie. Irugarrena, fortaleza. Laugarrena, tenplanza.

Gorputzen sentiduk dire bost

Lenengoa, begikin ikusi.

Bigarrena, belarrikin aitu.

Irugarrena, auakin guztatu.

Laugarrena, sudurrakin usai egin.

Bostgarrena, eskukin ikutu.



P. Zertako eman zigun Jainkok entendimentue ta beste gañerako zatik?

R. Guztikin ta gauza guztitan bera serbitu gentzan.

**Animen potenzik dire iru:
memorie, entendimentue ta borondatea**

P. Zertako Jainkok eman zigun memorie?

R. Akordatzeko artaz ta aren mesedez.

P. Zertako eman zigun entendimentue?

R. Esagutzeko gure Jauna ta beregan pensatzeko.

P. Zertako eman zigun borondatea?

R. Ama dezagun ontasunik aundina bezela, ta projimoa beragatik.

P. Ta zer gauza da gure animea, zeñenak diren potenzi ok?

R. Da akabera bageko espiritu bat utsetik Jainkok egiña bere antzera.

Espiritu Santun doiak dire zazpi

Lenengoa, jakinduriko doia.

Bigarrena, entendimentuko doia.

Irugarrena, konsejuko doia.

Laugarrena, jakiteko doia.

Bostgarrena, fortalezako doia.

Seigarrena, piedadeko doia.

Zazpigarrena, Jainkonganakako bildurraren doia.

Espiritu Santun frutuk dire amabi

Lenengoa, karidadea.

Bigarrena, bakea.

Irugarrena, animon firmetasuna.

Laugarrena, ondonaie.

Bostgarrena, fedea.

Seigarrena, kontinenzie.

Zazpigarrena, poz espirituala.

Zortzigarrena, pazienze.

Beatzigarrena, ontasuna.

Amargarrena, mansotasuna.

Amaikagarrena, modestie.

Amabigarrena, kastidadea.

Zorionak dire zortzi

Zorionekoak espirituz pobre direnak, zeatik ana dan zerutako erreenue.

Zorionekok mansok, zeatik ak menderatu duen lurre.

Zorionekok negar egiten duenak, zeatik ak izango diren poztuk.

Zorionekok justizin gosea ta egarrie duenak, zeatik ak izango diren ase.

Zorionekok errukizkok, zeatik ak iritxiko duen errukie.

Zorionekok biotz garbie duenak, zeatik ak ikusiko duen Jainkoa.

Zorionekok bakezalek, zeatik ak izango diren deituk Jainkon semek.

Zorionekok justiziegaiti persekuzioa padezitzen duenak, zeatik dan ana zerutako erreinue.

P. Zer esan degu oain?

R. Zortzi zorionak.

P. Zer gauza dire zortzi zorion ok?

R. Espiritu Santun birtute ta doien obrarik onanak.

P. Zein dire pobrek espirituz?

R. Nai ez duenak, beñepein amorioz, onrarak ta aberastasunik txikinik ere.

P. Zein dire mansok?

R. Irarik ez duenak, ta kasi ez mogimenturik ere.

P. Nola eueganatuko dute lurra?

R. Euren burun jabe bezela.

P. Zein dire negar egiten duenak?

R. Guztorik txikinak ere utzitzen dituenak.

P. Zein dire justizin gosea ta egarria duenak?

R. Bere egin bide guztik ardurakin egiten dituenak.

P. Zein dire errukizkok?

R. Txit biotz berakok erbestekokin ere.

P. Zein dire biotz garbikok?

R. Txit mortifikatuk direnak euren pasio guztitan.

P. Zein dire bakezalek?

R. Bakea obratzen duenak eurretan ta besteetan.

P. Zein dire justiziegaiti persekuzioa padezitzen duenak?

R. Firme darenak gauza on guztitan persegitut izanagaiti.

P. Zeatik deitzen zaie ori (sic) zorionak?

R. Zeatik otan dagon bizitza ontako zoriona ta besteko esperantza.

P. Zenbait dire nobisimok?

R. Lau, da esatea: eriotza, juizioa, infernue ta glorie.



P. Zer da glorie?

R. Egote bat txit ona, zeñetan daren ondasun guztik gaitzak batere progatu bage; infernun daren bezela gaitz guztik ondasunik batere progatu bage.

P. Ta gu emendik libratzeko, ta hura konsegitzeko, zer egin bear degu?

R. Mandamentuk gorde.

P. Ta badire bide onen batzuk ok gorde daizkegun erraxago ta aki ez faltatzeko?

R. Bai jauna.

P. Zein dire?

R. Sakramentu Santu sarri artzea, Jainkori goizetik obrak eskeñtzea, egunero meza entzutea. Errosarioa errezatu Birjiña txit Santari; Jainkozko leitza, gogoratu Jainkoz; konzienziko esamiña gauetan; ta batek bide asko ditula esateagaiti; autatu konfesore jakintsu, birtuoso ta prudente bat, ta areganatu guztin.

M. Ondo diozu, zeatik konfesore on baten elezioa, S. Fran. Salesek dion bezela da adbertenzin adbertenzia. Egin bada zuek onla, bada au izango zatzue aingeru bat bezela, giatuko zaituena, ok ta beste bidek aita-tuz zuzen zoasten bidetxigorretik, ta allegatu zaizten Jainkoa gloriñ ikustea, zer dan gure akabera utsetik egiñak izan gindelako.

Ni pektarie

Ni pektarie konfesatzen nazaio Jainko guztiz aldunari, zorioneko beti Birjiña Mariari, zorioneko S. Migel aingeruri, S. Juan Bautistari, S. Pedro ta S. Pablo apostulu santuai, Santu guztiai; ta zuri Atha pekatu egin dialako pisuro pensamentuz, itz ta obraz, nere kulpaz, nere kulpaz, nere kulpaz txit aundiegaiti; orreatik erregutzen diot zorioneko beti Birjiña Mariari, zorioneko S. Migel aingeruri, S. Juan Bautistari, S. Pedro ta S. Pablo apostulu santuai; santu guztiai ta zuri Atha espirituala, erregu zazu-la nigaitik Jainko gure Jaunari. Amen.

Nere Jesukristo Jauna

Nere Jesukristo Jauna Jainko ta gizon egizkoa, nere kriadorea ta erre-dentorea, zu zeranagaiti ta amatzen zaitualako gauza guztin gañen, damu det biotz guztitik zu ofenditue, ta artzen asmo firmea ez geigo pekatu-rik egiteko, konfesatzeko ta kunplitzeko ipintzen penitenzie; apartatzeko zure ofensako okasio guztititik; eskeñtzen dizut nere bizitza, obrak ta nekek nere pekatu guztin satisfaziorako, ta dauket konfianza zure ontazun

ta kaborik bageko errukitasunen, barkatuko diezula zure odol prezioso, pasio ta eriotzen merezimentukgaiti ta emango diezula grazie emendatze-ko ta irauteko zure serbizio santun nere bizin akaberaño. Amen.

Orazio laburre goizetik egunero Jainkori eskeñtzeko obra guztik bere onra ta glorira

Nik ematen dizut eskerrak, nere Jainkoa, zure esku liberaletik artu dituan onegiñ guztikgaiti ta batezere gaurko egunera allegatzen utsi die-zulako, zeñetan eskeñtzen dizuan zure onra ta glorira nere pensamentu, itz ta obra guztik Jesukriston odol ta merezimentukin, ta artzen det asmo firme bat zure grazikin ez ofenditzeko; lagundu bada niri Jauna zure laguntzakin orrela egin dezan, Jesukriston merezimentukgaiti, Ama txit Santarenakgaiti ta Santu guztinakgaiti Amen. Akabera.